

AMELIA HERNÁNDEZ MATA

**PIARRES LAFITTEREN
EKINTZABIDEAK (1920-1944)
KULTURA JASOKO
EUSKALTZALEEN
SAREAREN BAITAN**

Zuzendariak: **Joseba Agirreazkuenaga Zigorraga**
Javier Díaz Noci

IKER-20

EUSKALTZAINDIA
2007



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea
The University of the Basque Country



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema infomatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Preinpresioa: Composiciones RALI, S.A.
Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao

Inprimategia: GRAPHICEMS, Gáficas CEMS, S.L.
San Miguel industriagunea
31132 Villatuerta
Nafarroa / Navarra

ISBN: 978-84-95438-30-0

Lege-gordailua: NA-3060-07

AURKIBIDEA

HITZAURREA	9
0. SARRERA	19
I. PIARRES LAFITTE	27
I.1. Bizitza	27
I.2. Piarres Lafitteren garaiko politika Iparraldean	33
I.3. Jean Ybarnégaray	38
II. PIARRES LAFITTEREN GIRO KULTURALA 1920. ETA 1930. HAMARKADETAN	43
II.1. <i>Société des Sciencies, Lettres et Arts de Bayonne</i>	43
II.2. <i>Le Réveil Basque</i>	47
II.3. <i>Eskualduna</i> 1920. eta 1930. hamarkadetan	51
II.4. Eskualzaleen Biltzarra	66
II.5. Eusko Ikaskuntza	83
II.6. Euskaltzaindia	88
II.7. <i>Gure Herria</i>	111
II.7.1. Gure Herria elkarte	120
II.7.2. <i>Gure Herria</i> lagunkideen espresabide bezala	132
II.7.2.1. <i>Gure Herriaren</i> beraren lankideei buruzko iritziak .	132
II.7.2.2. <i>Société des Sciencies, Lettres et Arts de Bayonne</i> eta kideei buruzko aipamenak	136
II.7.2.3. Eskualzaleen Biltzarkideei buruzko aipamenak . .	145

II.7.2.4. Eusko Ikaskuntzari eta kideei buruzko aipamenak	148
II.7.2.5. Euskaltzaindiari eta euskaltzainei buruzko aipamenak	150
II.7.3. <i>Gure Herriak</i> islaturiko Iparraldeko sare intelektuala.	163
II.8. <i>Bulletin du Musée Basque</i>	170
III. PIARRES LAFITTEK SUSTATURIKO EKINTZAK 1930. HAMARKADAN.	179
III.1. Begiraleak	179
III.2. Menditarrak	184
III.3. <i>Euskalzaleak</i> taldea	186
III.3.1. Eugène Goyheneche	198
III.3.2. Euskaltzaleen pentsabidearen puntu nagusiak	202
III.4. <i>Aintzina</i> hilabetekaria.	206
III.5. Euskaltzaleak Iparraldeko sare intelektualean	215
IV. PIARRES LAFITTEREN DIZIPULUEK BURUTURIKO EKINTZAK	219
IV.1. Bigarren <i>Aintzina</i>	219
IV.2. Eskualdun Gazteen Batasuna	229
V. HERRIA ASTEKARIAREN LEHENENGO PAUSOAK.	233
VI. ONDORIOAK.	239
VI.1. 1920tik 1944ra bitarteko Iparraldeko sare kulturalaren kideak.	273
VI.1.1. Lagunkideen bizitzari buruzko datuak.	273
VI.1.2. Lagunkideen karguak 1920. eta 1930. hamarkadetako elkarte kulturaletan	278
VI.1.3. Lagunkideen partaidetza garaiko sare kulturaletan.	282
VI.1.4. Lagunkideen lanen kopuruak 1920. eta 1930. hamarkadetako aldizkarietan	388
VII. BIBLIOGRAFIA.	395
VII.1. Piarres Lafitteren bibliografia	395
VII.1.1. Artikuluak	395

AURKIBIDEA

VII.1.2. Liburuak	419
VII.1.2.1. Liburu osoak	419
VII.1.2.2. Liburu atalak	421
VII.2. Bibliografia orokorra	422
VIII. ITURRIAK	433
VIII.1. Ahozko iturriak	433
VIII.2. Aldizkariak	434
VIII.3. Artxibo fondoak	435
IX. ERANSKINAK	437
IX.1. Kronologia	437
IX.2. Menditarrak taldearen egitaraua	439
IX.3. Eskualdun gazteen bileren aktak / Federations des jeunes basques.....	441

HITZAUREA

Tesi honen izenburuak erakusten duen bezala, Piarres Lafitte idazle lapurtarra dugu lan honen protagonista.

Hala ere, Piarres Lafitte gramatikari, etnografo edo filosofoaren emaitza bibliografikoa aztertu beharrean, lan intelektual horren parean bilakatutako beste intelektualekiko harremanak arakatu nahi izango genituzke, kultura mailakoak. Euskaltasunaren zein kulturgintzaren erakusgarri izango zen sare hartan Piarres Lafitte kokatzearekin batera, ahaleginduko gara azaltzen noraino izan ziren garrantzitsuak Lafittek buruturiko ekintzak, zer nolako eragina izan zuten nabarmenduz, XX. mendeko kulturgintza berri baten sortzaileak zirenez ikustearren.

Jakina, Lafitte pentsalariaren aro entzutetsuaren aurretiko urteak ekin-tza intelektualez josirik baino ezin dira egon; pentsalari, intelektual eta zientifikoez inguraturik baino ezin dira egon, ekintzok burutu ahal izateko. Izan ere, intelektual baten emaitzak emankorrek izanez joango dira bestee-kiko ez adostasunek eta eztabaidek eraginda, iritziok pentsalari horren pen-tsamoldea landuaraziko baitute. Erakusle gisa, Piarres Lafitteri buruzko gure lan hau, non jende ikasia baino ez zaigun agertuko irakaslearen sare-kideen artean.

Argi dago, beraz, kultura jasoko sare baten aurrean gaudela. Izan ere, Piarres Lafitte eta beronekin batera intelektual bilakatu ziren pertsonak –adintsuenek Lafitte eta adiskideak intelektual bilakarazten lagundu zituz-ten– jende ikasia zen. Lanbidez, apaiza izateaz gain, irakaslea izan zen Lafitte, beste hogeita hamabost lagunkide bezala (euretariko batzuk apaizak ere bazi-ren); haietako, lagunarteko hamalau lagun bakarrik ari izan ziren apaiz lane-tan. Lagunkideen lanbidez aipatzearekin jarraituz, hamalau legegizon ziren, hamabi mediku; zortzi artzibozain, historialari edo etnografo ziren eta lau funtzionario moduan ari izan ziren; baditugu bost enpresari, bi politika gi-

zon, bi ingeniari, bi publizista, bi arkitekto, itsasgizon bat, margolari bat, diplomazialari bat, musikari bat eta militar bat ere. Kontuan harturik zerrendaturiko ehun eta hamahiru lagunkideetatik¹ hamalauk bakarrik zutela bizibide ezezaguna, esango dugu maila intelektual handiko kideek osatu zutela aztertu nahi dugun Lafitteren lagunartea, 1920tik 1944ra bitartekoa.

Atzera joz lagunkideen bizitzan, begira diezaiozun Lafitteren eta lankideen prestakuntza kulturalari hasiera eman zion ikas tokiari. Haietariko hiruk Larresoroko apaizgaitegi txikian ikasi zuten, hamalauk Ustaritzekoan, hiruk Belokekoan eta hamaikak Baionako apaizgaitegi handian; hiruk Baionako *Saint Louis de Gonzague* ikastetxean, hiruk Saint-Cyrekoko eskola militarrean eta batek Lilleko Kazetaritza fakultatean. Hainbat lagunkideren ikastokia ezagutu ez arren, ikusten da Piarres Lafitte eta lagunkideen intelektualtasunaren iturri nagusia Eliza izan zela.

Gazteon hezkuntza apaizgaitegietan bilakaturik, suposa genezake ikasleei helaraziko zioten pentsamoldea orduko egoera soziopolitikoarekiko jarreraren isla izango zela. Jakinik Elizaren pentsaera nahiko aldagaitz dela, apaiz irakasle gehienek XIX. mendeko Elizaren ikusmoldeaz heziko zituzten gazteok, berauek XX. mendearen hasieran burutu arren ikasketak. Apaiz horiek Eliza aurkeztuko zioten ideologia kristauaren babesle bezala, Liberalismoaren ideiei aurka egitea helburu zuena.

Zehaztu beharra dago, hala ere, XIX. mendearen lehenengo hamarkadetan apaiz euskaldun guztiak ez zirela liberalismoaren berrikuntzen kontra. Larresoroko apaizgaitegian berean katolizismo liberalaren ideiak nagusi ziren garai hartan, Lammenais, Gerbet, Lacordaire eta Montalembert apaizen eskutik. Ez ziren errotzera heldu, ostera, 1831n Mgr. d'Arbou Baionako apezpikutezira heldu baitzen, katolizismo liberalaren jarraitzaileak sakabanatuz katolizismo berriaren ideiak desagerraraztearren². Pio IX.a ere ideia modernista horien kontra agertu zen, "Syllabus" izeneko gaitzespena kaleratuz.

III. Errepublika 1875ean ezartzearekin, areagotu ziren Elizaren ahaleginak arrazionalismo positibistaren kontra; arrazionalismoari aurre egiteaz gain, urte horietan protestantismoaren eragina ere murriztu behar zuen. Hain betebeharrak neketsua burutzeko Elizaren buruek beharrezko ikusi zuten apaiz-

¹ Ikus hogeita bederatzigarren laukia.

² Goyhenetche, J.: *Les basques et leur histoire. Mythes et réalités*, Elkar, 1993, 186-187. orr.

gaiak prestakuntza inelektualaz hornitzea. Horrela, Victor Dubarat apaizak, *Travaux historiques* Ministerioaren urgazle izandakoak, proposatu zuen 1895ean apaizgaiek irakaspen teologiko sakonagoak jaso zitatzela, Tolosako Institutu Katolikoan³. Apaizgaiak kulturizatzeke erabaki hori aurrepauso handia eta erabakigarria izan zen euskal kulturarako, ordutik aurrera kultura jasoko irakaskuntza-gune izan baitzuten euskaldunek, Elizaren pean garatu bazen ere. Jean Goyhenetche horren berri ematen du:

Dans le dernier tiers du XIXe siècle, l'Eglise catholique était devenue un important lieu social de production historiographique avec une finalité, des objectifs, une méthodologie, des structures de publication mais aussi de formation à la recherche et à l'enseignement. A une époque où l'on trouvait encore très peu d'universitaires basques dans la production historiographique, l'Eglise comblait en fait un tel vide, faisait office d'université en Pays Basque⁴.

Are gehiago, XIX. mendearan amaieran Eliza apaizen lehenengo euskal unibertsitate bezala ari izan zelarik, kulturarako bidea erraztu zion etorkizuneko hainbat laikori ere:

Ils étaient tous compains, ils se connaissaient très bien. Ça créait un milieu très curieux ça. Au 19ème siècle, au Pays Basque. Parce qu'on peut dire que les Maires et les Curés, les Députés, tout ça c'était compains, ça marchait tous ensemble. Ils sortaient tous de la même école. Il y avait donc une sorte de fusion intellectuelle et spirituelle entre les laïques et les religieux⁵.

Azaltzen ari garen ildotik, aipatu beharra dago Emile Zolaren manifestua, 1898ko urtarrilaren 13koa⁶, gizartearen eta pentsamenduaren alorrean aldaketak ekarri zituelako. Manifestu horrek gizarte moderno bateko intelektualaren betebeharra definitu zuen, intelektualen funtzio sozial berria agertu baitzuen. Eguneratze prozesu horri eutsi zion Eliza katolikoak ere, eta bere buruzagiak eta intelektualak sortzen saiatu zen, azaldu dugun moduan.

³ Dubarat, V.: "L'enseignement de l'histoire et nos jeunes prêtres à l'Institut catholique de Toulouse", *EHRB*, 1895, 409. or.; J. Goyhenetche egindako aipamena, Goyhenetche, J.: *Les basques et les leur histoire. Mythes et réalités...* aipatu liburua, 192. or.

⁴ Goyhenetche, J.: *Les basques et les leur histoire...* aipatu liburua, 192. or.

⁵ Monier, S.: *Le Père Lafitte*, Elkar, Donostia, 1992, 108. or.

⁶ Zola, E.: "J'accuse", *L'Aurore*, 1898ko urtarrilaren 13a. Zolak Frantziako Felix Faure Lehendakariari bidalitako eskutitz hartan Alfred Dreyfus kapitainari ezarritako zigorraren kontra agertu zen. Jarrera hori zela eta, atxilotua izan zen Zola.

Gobernu frantziarraren Elizarekiko tirabiretara bueltatuz, XIX. mendearen amaieran desadostasunek zirauten. 1889ko bozketak buruturik, Ipar Euskal Herrian eskuindarrek irabazi zutenean, Frantziako Gobernuak euskal herritarrei leporatu zien hautesle erlijiozalei Frantziako Errepublikaren interesen kontra bozkatu izana. Haserrea horretan geratu barik, Frantziako mandatariek euskal apaizei mehatxu egin zien soldata ez ordaintzeaz, Errepublikaren aurka buruturiko ekintza politikoak zirela eta⁷.

Eliza eta Errepublikaren arteko liskarra gune gorenean zegoenean, François-Antoine Jauffret izendatu zuten apezpiku, 1889ko abenduan. Jauffretek, ezaguna baitzen bere errepublikazaletasunagatik (“haren familia halakoa izanez”⁸), Gobernuarekiko diziplinaz jokatzera bultzatu zituen apaizak. Hona hemen euskal apaizgaitegiaren pentsamolde liberalerantz irekitzearen adibide berri bat.

XIX. mendearen azken urte horietan ugarituz joan ziren integrismo katolikotik urruntzearen frogak, esaterako Leon XIII. Aita Santuak Frantziako katolikoei Errepublika onartzeko, horrela hobeto egingo zietela aurka erligiotasunaren kontra zihoazen legeei eta jarrerei. Larresoroko apaizgaitegiko orduko buruak, Arnaud Abbadiek, agindua onartzeaz gain, *Eskualduna* argitalpen eliztiarraren bidez jakinarazi zien herritar euskaldunei Aita Santuak agindutakoa⁹.

Katolikotasunean gertatu zen haustura hori argiago ikusiko da XX. mendeko Lehenengo eta Bigarren Mundu Gerren artean. Joseba Agirrezkuenagak berrikuntza horri buruzko azalpenak eskaintzen ditu, garai hartako industrializazioak erakarritako aldakuntzak eragile erabakigarritzat aurkeztuz:

Katolikotasun-ortodoxia bakarrean finkatzen diren euskaldunak, eta euskal zibilizazioaren oinarria kristautasunean zetzala defenditzen zutenak, bidegurutzean aurkitu ziren; batzuek, industrializatu gabeko herrialdeak alegia, ohizko integrismo tradizionaletik abiatuz ikuspegi totalitario eskusiboan agian; faxismoaren proposamenak zuzen-zuzenak ikusiko dituzte. Aitzitik, oinarri berdintsuetatik abiatu arren, industriagintzak eragindako hiritar bizi-moduak eta gizarte antolakizun berriak eta pluralak beharbada, abertzale aderdiko buruzagien bilakaera ideologikoak ere ezberrik gabeko garrantzia iza-

⁷ Tauzia, P.: “Les difficultés entre l’Eglise et l’Etat, dans le diocèse de Bayonne à la veille du ralliement”, *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1975, 241. or.

⁸ Lafitte, P.: *Euskal literaturaz*, Erein, San Sebastián, 1990, 226. or.

⁹ Abbadie, A.: “Ralliement”, *Eskualduna*, 1892ko martxoaren 4a.

nik, euskal abertzaletasuna aureka demokratikoaren bidean ezarriko zen, zalantzak izan arren¹⁰.

Eta aztertu nahi dugun Lafitte intelektualaren garaira heldu gara, 1920., 1930. eta 1940. hamarkadetan garaturikoa. Hain zuzen ere, Piarres Lafitte katolizismoaren ikuspegi totalitariotik urrundu zenetariko adibide argia dugu. Aipatu hiru hamarkadok Lafitte kristaua eta antiliberalen berri ematen badigute ere, demokraziaren bidetik jardun zuen eta liberalekin lehitu beharra onartu zuen Lafitte ere erakusten digute.

Baina Ipar Euskal Herrian ez ezik, Pirineotako beste aldean ere katolizismoan suertaturiko aldakuntzen adibideak ditugu. Gure azterketa gehien bat Iparraldera mugatuko badugu ere, ezin ahaztuko da Hego Euskal Herrian garaturiko haustura katoliko-konfesionalen alderdien artean, EAJ eta Comunion Tradicionalistan 1932an bildu zena (karlista-integristak). Bietan adiskideak zituen Piarres Lafittek, eta gerra zibilaren garaian kontraesanak bere goren gradura iritsiko ziren.

Kontestu honetan, propopografiaren bidetik¹¹ abiatuko gara Piarres Lafitteren lagunarte intelektualeko kideen berri emateko. Horretarako, honako helburu hauek bete nahi izango genituzke:

- Pertsonaien datu base bat sortzea, euskaltzaleen lagunarteko pertsonaiak sailkatuz, etorkizunean hiztegi biografiko baten sorrera bideartuko lukeena¹².

¹⁰ Agirreazkuenaga, J.: “Prensa euskaraz: 1936.eko Gudaldian eta lehen Euskal Gobernuaren garaian”, *Jakin*, 1988ko urtarrila-otsaila, 110. or.

¹¹ Ikus Agirreazkuenaga, J.: “La tradición historiográfica vasca: Su desarrollo en el marco de las Ciencias Sociales”, *Historia Contemporánea*, UPV/EHU, 7. zkia., 257-281. orr. Eta Goyhenetche, J.: *Les basques et leur histoire. Mythes et rélités*, Elkar, 1993.

¹² Joseba Agirreazkuenagak azaltzen duenez, euskal tradizio zientifikoan urri izan dira hiztegi biografikoak. XIX. mendearen amaieran *Euskal Erria* aldizkariak euskal pertsona ospetsuen biografiak eta nekrologiak argitaratu zituen. Denbora luzea pasatu zen ordutik 1968ra arte, B. Estornés Lasak *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco* argitaratu zuen urtea; Agirreazkuenaga, J.: *Diccionario biográfico de Eusko Ikaskuntza (1918-1998)*, Donostia, 1998, 18. or.

Harrezkero biografien arloa gehiegi landu ez bada ere, lan batzuk argitaratu dira:

- Erkoreka, A.: *Euskal antropologoak, etnologoak eta etnografoak*, Donostia, 1988, 2 liburuki.
- S. Granjel, L.: *Diccionario histórico de médicos vascos*, Bilbo, 1993.
- Agirreazkuenaga, J., Serrano, S., Urquijo, J. R., Urquijo, M.: *Diccionario biográfico de los parlamentarios de Vasconia (1808-1876)*, Vitoria/Gasteiz, 1993.

- Lan hau burutzeko eskuetan izan dugun idatzizko informazioa aberas-
tea, elkarrizketen bidez lekukotasun berriak agertuz.

Proposografia lan honen bidez emaitza berri bat gehitu nahi izango li-
tzaieke orain arteko ikerlarietako buruturiko ikerkuntzei. Orain arte egin diren
proposografia lanetan pertsonak edota taldeak aztertu dira, bakoitza besteen-
gandik erlazionatu barik; ostera, gure lanak bereziki pertsonen eta taldeen
arteko harremanak aztertu ditu. Gu geu, ostera, ahalegindu gara geure iker-
keta osatzen, lagunarteak islaturiko harremanetan oinarrituta. Gauza jakina
da pertsonen jokaera ez dela berdina bakarkako jardueran eta taldekakoan.
Lan honetan taldeko harremanak ezagutzen saiatu gara, euren ezaugarriak
aztertu eta, garaiko giro sozio-politikoaren kontuan harturik, Piarres Lafitteren
1920tik 1944ra bitarteko garaia erabakigarria izatean.

Aipatu datu basea osatzeko bi aldagaiz baino ez gara baliatuko: lagunki-
deez eta elkarte kulturalak buruturiko bilerez, data eta lekua zehaztuz. Basea bi
aldagaiz baino ez dugu osatuko, nahasia izan barik, argia izan dadila bilatzen
dugulako, adierazgarritasuna galdu barik. Baina islatu nahi dugun informazioa
horixe da, nortzuk izan diren lagunkideak eta zein elkartetan; azalpenak eta
ondorioak gero aterako ditugu, baseak bilduriko datuetan oinarrituta, gainon-
tzeko informaziobideek eskainitako argibideekin osaturik.

Aztergai bihurtu ditugun elkarte kulturalak aukeratu orduko, entzute
handieneko sozietateetara jo dugu. Iparraldeko zein Hegoaldeko elkarteak zi-
ren –*Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, Eskualzaleen Biltzarra,
Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia, Gure Herria elkarte eta Euskal Museoa–,
Piarres Lafitte abiapuntua izan baita, harremanetan egon zena Pirinioen alde
bietako euskaltzaleekin.

Datu basea osatzeko pertsonaiak ez dira aldagai erabakigarria izango,
baizik eta elkarte kulturalak. Elkarteek buruturiko bileretara joan ziren inte-
lektualek datu basearen mendeko aldagaia osatuko dute, ostera. Pertsonaia

-
- Agirreazkuenaga, J. (zuz.): *Diccionario biográfico de los Diputados generales burócratas y patricios de Bizkaia (1800-1876)*, Bilbo, 1995.
 - Agirreazkuenaga, J.: *Diccionario biográfico de Eusko Ikaskuntza (1918-1998)*, Donos-
tia, 1998.
 - García Sanz, A., Layana, C., Martínez, E., Pérez, M.: *Diccionario biográfico de los di-
putados forales de Navarra (1931-1984) y de los secretarios de la Diputación (1834-1984)*,
Iruñea, 1995.
 - García Sanz, A.: *Diccionario biográfico de los Diputados Forales de Navarra (1840-1931)*,
Iruñea, 1996.

horien guztien ezaugarri komuna izango da intelektualak izatea, aipatu epean aktibo izatea jarduera intelektualean eta aukeraturiko elkarte kulturalen baten bileretan parte hartu izatea.

Jakina, hain baldintza zabalekin, pertsonaia andanak osatuko du datu basea, interesgarria dena, beste aldetik. Basearen beste ezaugarri interesgarria izango da pentsamolde aldetik mota guztietako pertsonaiak izango ditugula lagunkide eta, Lafitteren etsai gutxi aurkitu dugula; eztabaida intelektualak ugari izan ziren, ostera, aldizkarietako lanek erakusten duten moduan.

Pentsabide sozio-politikoaren aldetik, aldiz, nabariagoak dira Lafitteren adiskideak eta aurkariak. Harrigarria bada ere, intelektualak barik, apaizak eta politikoak izan ziren Lafitteri kontra egin ziotenak, ideia atzeragoko apaizak, alde batetik, eta eskuin eta eskuin muturreko politikoak, bestetik. Politikoen artean, nahikoa da aipatzea Jean Ybarnagaray eskuindarra, azterturiko garaian etengabeko ekinean aritu izan zena Ipar Euskal Herriko politikan eta Lafitte ezin ikusi zuena.

Ulergarria da, beste aldetik, Lafittek garaiko apaizen artean arerioak izatea, berrizalea izateaz gain, demokrata kristaua baitzen, garaiko integrismo katolikoari uko egin ziotenetariko, beraz. Beste aldetik, garai hartan zentralismo frantziarra zen giro politikoaren ezaugarri nagusia; ez zegoen, beraz, Lafitteren euskaltzaletasunerako lekurik, eta zeinu abertzale txikiaren aurrean, kontra izango zituen lafittek tokiko politikoak.

Laburbilduz, orokorrean, Lafitteren etsai gutxi erakutsiko digu datu baseak, eta izan zirenak politiko eta apaizen artean aurkituko ditugu, ez intelektualen artean.

Basea osatzeko iturriei dagokienez, aipatu elkarte horien aktibitateak ezagutzeko erregulartasunez argitaratu zituzten aldizkariak edukiak aztertu ditugu, aldizkarietan ematen baitzuten zegozkien elkarteen bileren berri, partaideak aipatzearekin batera. Horrez gain, jakina, artikulua argitaratzen zituzten, lagunkideek agindakoak.

Aldizkariok aztertu orduko, gehien interesatu zaiguna izan da ezagutzea zein intelektual izan ziren lankide, bai sozietateek buruturiko bileretan parte hartzeagaitik, bai aldizkari berebetean idatzi izateagaitik. Izan ere, bilerotako kidesuna bada ere harremanetan sartzeko biderik proposena, pentsalari horiek zein aldizkarietan idatzi zuten ezagutzeak¹³ bidea emango digu garaiki-

¹³ Aldizkarietako ohiko lankideak bereizi ditugu lan honetan, honako irizpide honi jarraituz: aldizkari bakoitzean gehien idatzi zuenaren artikulua-kopuruaren %60a atera dugu,

deen arteko beste harreman batzuk suposatzeko ere, harremanok frogatzeko eskutitz, idazki zein lekuko en elkarrizketetara jo behar izango badugu ere.

Beste aldetik, eta informazio iturriak aipatzen ari garela, aztertzen ari garen urte horietan Piarres Lafitte talde euskaltzale baten burua izan zen, aldzikari bat argitaratzearekin batera. Talde euskaltzalea eta *Aintzina* talde horren argitalpenaren prestakuntzak postatruke mamitsua sortuko zuen, oso erabilgarria guretzat, kontuan harturik 1920., 1930. eta 1940.eko hamarkadetan eskutitzak zirela berriak jaso eta hedatzeko bide nagusia.

Guk geuk bereziki Lafittek jasotako gutunak aztertu ahal izan ditugu¹⁴. Lafitteren garaikidea izan zen Eugène Goyhenechek bildu dituen eskutitz baturez ere baliatu ahal izan gara, Jean Claude Larreonderen lanen bitartez¹⁵.

Eskutitzez gain, lagungarri izan zaizkigu bizirik zirauten garaikideen argibideak ere, elkarrizketak direla medio eskaini dizkigutenak. Horrela, nolabait, ahozko historiaren metodologia, neurri batean behintzat, erabili nahi izan dugu.

Elkarrizketa horien bidez lekukoek 20., 30. eta 40. hamarkadetan bizi zituzten gertaeren ardatz nagusiak ezagutu nahi izan ditugu, elkarrizketetan subjektibitatea nagusituko zela jakinik ere. Era berean, metodologikoki elkarrizketak amaiera irekikoak izan zitezten ahalegindu ginen eta, jorratu nahi genuen gaiarekin elkarrizketen zirriborroa prestatu bagenuen ere, erantzulearen berbaldia bera izaten zen galderak eragiten zituena.

Jakina, elkarrizketek eskainitako datuek gertaeren zati bat baino ez digute ezagutarazi, gertaeren zati horren interpretazioa hobeto esanda¹⁶. Hala ere, oso erabilgarriak izan dira lekuko horiek eskaini dizkiguten burutapenak, iri-

eta kopuru hori edo gehiago idatzi zutenak aldzikari hartako ohiko lankidetzat hartu ditugu. Horrela *Gure Herrian* 45 artikulua (76ko %60a) edo gehiago idatzi zutenak ohiko lankidetzat hartu ditugu, *Eskualdunan* 274 (458ko %60a) edo gehiago, *Bulletin du Musée Basquen* 10 (17ko %60a) edo gehiago, *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonnen* 35 (61ko % 60a) edo gehiago, *Euskeran* 24 (41eko %60a) edo gehiago eta *Aintzinan* 30 (50ko %60a).

¹⁴ Piarres Andiazabalek, Lafitteren ikaslea izandakoak, batu eta sailkaturik dituen Lafitteren eskutitzak dira.

¹⁵ Lanok Bibliografian aipatzen ditugu.

¹⁶ Izan ere, Juergen Franzkek dioen bezala: “las narraciones esconden una triple ilusión. En primer lugar, la ilusión de un transcurso de los acontecimientos completo, en segundo lugar, la ilusión de un principio y de un final definidos, y, en tercer lugar, la ilusión de una imagen objetiva del pasado”, Franzke, J.: “El mito de la historia de vida”, p. 12 *Historia, antropología y fuentes orales* urtekaria, 1989an Bartzelonako Unibertsitateak argitaratzeari ekin ziona.

tziak eta susmoak, hainbat kontalarik agerturiko datuak bildurik, generalizazioa egin ahal izan dugulako. Horrela, liburuetatik bildu dugun informazioa argitu eta egiaztatzeko bidea eman digute, batzuetan, eta jendeaurreko jarrera ofiziala baino ez zela egiaztatzeko besteetan¹⁷.

Elkarrizketatuek Lafitterekin izan zituzten harremani dagokienez, haieriko bederatzik Uztaritzeko Apaizgaitegi Txikian ikasi zuten, non Lafitte irakasle zegoan: Beñat Mendisko, Emile Larre, Simon Duhour, Pierre Andiazabal, Piarres Xarritton, Peio Olagarai, Jacques Mestelan, Pierre Labadie eta Jakes Abeberryk; zortzik –Beñat Mendizko, Marc Legasse, Cabier eta Mayi Diharce, Simon Duhour, Piarres Xarritton, Jacques Mestelan, Jeanne Salha eta Piarres Labadiak– Lafittek eraturako talde euskaltzalearen ekintzetan hartu zuten parte. Lafittek *Menditarrak* mutil gazte taldea eta *Begiraleak* nesken taldea ere sortu zituen; Xabier Diharce eta Jacques Mestelan Menditarren partaideak izan ziren eta Mayi Diharce eta Jeanne Salha Begiralekoak.

Azkenez, Jeanne Marie Malharin, Marijane Minaberry eta Jakes Abeberry garaikideak elkarrizketatu ditugu, gertaeren berri izango zutelakoan. Malharin eskolako andereñoa izan zen eta Marijane Minaberry *Basque Eclair*, *Sud-Ouest* eta *Herrian* administrari bezala egin zuen lan. Jakes Abeberryri dagokionez, 1960. hamarkadako *Enbata* mugimendu abertzale eta izen bereko aldizkariaren sorreran parte hartzearekin batera, Kultura sailaz arduratzen zen Biarritzeko herriko etxean elkarrizketatua izan zenean.

Ez dugu sarrera hau bukatu nahi lana osatzeko lagundu diguten guztiei geure esker onak eman gabe.

Lan agiri bilketa handia Lazkaoko Beneditarren komentuko liburutegian burutu genuen. Bertan adeitsu lagundu zigun Juan José Agirrek. Eskerrik asko Belokeko beneditarren komentuko bibliotekan laguntza eskaini zigun Xabier Diharce “Iratzeder” jaunari ere.

Gure lanerako hain inportanteak izan diren kontsultaturiko Lafitteren eskutitzak eskuetan eduki ahal izan ditugu Piarre Andiazabali esker; gure eskerrik onenak berari.

Eskerrak eman nahi dizkiegu, nola ez, tesirako funtsezko iturriak eskaini dizkiguten orduko garaikideei. Informazio baliagarria eskaintzeaz gain, esker-

¹⁷ Elkarrizketa gehienak *Iparraldeko euskaltzaleak eta Espainiako Gerra* proiektuaren barruan burutuak izan dira, 1997. eta 1998. urteetan egindakoak eta Eusko Ikaskuntzaren diru-laguntzaz.

tzekoa dena, ez genuke esan barik utzi nahi lan hau osatzeko eta orokorrean ikerkuntza mailan burutu dugun lan interesgarriena, aberasgarriena eta politena izan dela. Eskerrik asko, beraz, goian aipatu ditugun elkarrizketaturiko guztiei. Eskerrik asko Eusko Ikaskuntzari ere, posible egin zuelako aurrera eramatea *Iparraldeko euskalzaleak eta Espainiako Gerra* ahozko Historiako proiektua, 1997 eta 1998. urteetan buruturikoa.

Azkenez, ez bereziki, mila esker Piarres Xarrittoni, tesi honen gaiaren ezagutza handienetarikoa duenari, eskerrik asko eskainitako informazio balio-tsuaगतिक. Eskertzekoa da eskaini didan harrera ona ere berarengana jo dudan guztietan, eta ez da gutxitan izan, pazientzia handiz galderei erantzun izana eta zekien hainbat datu eskuratu izana. Eskerrik asko, bene-benetan.

Eta nola ez, eskerrik asko *Piarres Lafitteren ekintzabideak (1920-1944) kultura jasoko euskaltzaleen sarearen baitan* tesia osatzeko laguntza handia eskaini didaten Joseba Agirreazkuenaga eta Javier Díaz Noci zuzendariei; esker mila jakinarazi didaten gaiari buruzko ezagueragatik eta nirekiko izan duten begiruneagatik.

0. SARRERA

Jomuga zehazturik, ezinbesteko zaigu kontuan hartzea Emilio López Adanek dioskuna, hau da: “Ipar Euskadiren historia kontemporanea ikertzeko beharrezkoa zaigu horko Aintzineko Erregimena aztertzea”¹⁸.

Lege Zaharraren garai hartan, lurralde frantziarrek herri-biltzarren bidez burutzen zuten antolakuntza administratiboa. Biltzarretan baserritarak, apaizak eta notableak ordezkaturik zeuden; euskal herritarren eta Elizaren arteko harremanak nahiko estuak ziren (parrokiaz elkartzen ziren herritarrek), Elizako buruek baserritarren ordezkarien rola betetzeraino. Izan ere, Iparraldeko Elizak paper erabakigarria izan zuen orduko jarduera politiko, ekonomiko eta sozialean: botere politikoa zuen partidu eskuindarrak ontzat hartzen zuen pentsamolde eliztiarra, Elizaren ideiek bat egin zuten era berean aipatu hamarkadetako politika eskuindar kontserbado-rearekin.

1553an indarrean sartu ziren foruek¹⁹ Aintzineko Erregimenaren herri-biltzarretako antolaketa soziopolitikoa arautu zuten. Beste aldetik, Iparraldeko gizarteak nekazaritza eta artzaingo ekonomia zuen bizibide eta foruek herri lanok ere arautu zituzten. Barruko antolaketari dagokionez, herri-lurren eta jabego pribatuaren arteko harremanak mugatu zituzten, bakoitzaren eginbeharrak eta eskubideak zehaztuz, foruen egituraketak sistema ekonomiko orekatua bilatzen baitzuen²⁰.

Hala ere, 1789an Frantziako Iraultza piztu zenean, ‘berdintasuna’ hartuz pentsamoldearen gune, aipatu antolaketa feudalaren erorketa etorri zen. Euskal-

¹⁸ López Adán, E.: “Ipar Euskal Herria: 150 urte historiarik gabe (1789-1934)”, *Saioak*, 1978, 99. or.

¹⁹ Goienetxe, M.: *Lapurdi Historian*, Donostia, Elkar, 1987, 72-78. orr.

²⁰ *Ibidem*.

dunen bizibiderako probetxugarriak ziren foruak deuseztatu zituen Iraultzak. Horrela, ideia berrien arabera, Iparrean zatiezina zen etxondoa banandu behar izan zuten baserriarrek herentzia ondoko guztien artean; ondasunen banaketak porrot egitera eraman zuen hainbat baserri, ordurako autokontsumo eta eguneroko biziraupenerako gai zirenak. Izan ere, baserriaren ondasunak ugariak ez zirenean, familiek etxea eta lurrak saldu behar izan zituzten oinordekoen artean banandu ahal izateko, pobrezia nagusituz familiako partaide guztiengan.

Saldutako lur horien jabe tokiko notableak bihurtu ziren, gizartean zuten botere ekonomikoa finkatu nahi baitzuten. Izan ere, dirudunak ziren bozkatzeko eskubidea zutenak; horrela, 1794an buruturiko hauteskunde zentsitarioetan lur jabeak izan ziren ordezkariak aukeratu zituztenak.

Eta 'berdintasuna'ren haritik bilakaturik Iraultza, arrazionalismoa ere nagusitu zen pentsamolde berrian. Elizak zuen boterea galtzen hasi zen: 1790ean *Constitution Civile du Clergé* izan zen kaleratua; apaizak zibiltzat izan ziren hartuak, eta uko egin behar izan zioten sakramenduak emateari.

1804an Napoleon enperadore bilakatu zen. 1814an Napoleonen inperioa erori zenean, Luis XVIII.a errege izendatu zuten eta 1824an Carlos X.a anaia. Azken errege horren politika, hasiera baten, moderatua izan bazen ere, absolutismorantz jo zuen gero, 1830eko Iraultza liberala erakarriz. Luis d'Orleans izan zen errege berria, 1848an II. Errepublikak ezarria izan zen arte; 1852an, Estatu-kolpe batez, II. Errepublikaren presidentea zen Luis-Napoleon Bonaparte, Napoleon III.a enperadore bilakatu zen.

Suposa daitekeen legez, hainbeste aldakuntza politiko izan zuen XIX. mendearen lehenengo erdi hori urrun egon zen oparoaldi ekonomikotik. Bai 1830ean (1827tik 1830era uzta urriek erakarritako nekazaritza krisiak bulztaturik) bai 1848an (patata-uzta urria 1845tik 1854ra eta labore-uzta urria 1842tik 1846ra) herritarrek mugimendu iraultzaileak burutu zituzten, bote-redun izaten jarraitzen ziren lur jabeek kontra egiteko.

Baina Euskal Herria ez zen bakarrik ekonomikoki galtzaile suertatu aipatu aldakuntzen ondorioz. Iraultzaren printzipioak –batasuna eta berdintasuna– Frantzia zehar zabandu zirenetik, frantsesa hizkuntza Frantziako biztanle guztiei inposatzeari ekin zion Gobernu frantziarrak; hain zuzen ere, helburu nagusitzat hartu zuten hikuntza eta zibilizazio frantsesaren hedapena, tokiko hizkuntza eta bizimoldeak desagerraraziz.

Etabatasunlinguistikoabilatzearekin batera, irakaskuntzaren batasunerantz ere jo zuen Estatu frantziarrak, bereziki 1870ean ezarritako III. Errepu-

blikaren garaian. Horrela, Iparraldeari Estatu frantziarrak eragotzi egin zion euskarazko irakaskuntza. Eliza –euskararen eta euskarazko katiximaren irakaskuntzari atxikia– eragozpen horren aurka agertu zen. Notableak ere kontra egin zioten debekuari, orduko Euskal Herriko botere ekonomikoa eskura zutelako eta botere horren iraupena tokiko ohituren iraupenean baitzeztan, erlijiotasuna barne.

Gauza jakina da III. Errepublikaren buruek azken punturaino eraman zutela Eliza eta Estatuaren arteko bereizketa, Elizaren boterea deuseztatzea helburu hartuz.

1886ko abuztuan *Le Réveil Basque* kaleratu zuten errepublikazaleek, hauteskundeak hurbil baitzeuden eta euskal herritarren botoak behar baitzituzten. Harrigarria bada ere, astekari horrek *Jainkoa, Familia, Hontasuna* zuen azpiztitulu. Izan ere, Iparraldean pentsamolde eskuindar katolikoa zen nagusi euskal baserritarren eta *Le Réveil Basque* argitalpen errepublikarra boz-emalteei egokitu behar zitzaien, ahal zen neurrian.

Eliza ere, era berean, hautesle euskalduna bereganatu nahian, politikan parte hartzen hasi zen: Laurent Diharassaryk *Catéchisme électoral* kaleratu zuen errepublikarren kontra eta Louis Etcheverry eskuindarrak, bonapartistak eta erregetiarrak ordezkatu zituen 1889ko hauteskundeetan. Helburu politikoarekin, euskal herritarren sostengua bereganatzearen, Louis Etcheverryk *Eskualduna* astekaria sortu zuen 1887an.

Xurien eta gorrien arteko banaketa hori nabari baino nabariago egin zen Anton d’Abbadiek antolaturiko Euskal Jaietan. Martin Guilbeau eta Julien Vinson garaikideak kexu agertu ziren d’Abbadiek antolaturiko festak gero eta politizatuago zeudelako, konkretuki xurien aldeko jaialdiak zirelako. Azkenean, Guilbeau eta Vinson errepublikazaleek, *Association Basque de Jeux Floraux* sortu zuten eta ospakizun propioak antolatzeari ekin zioten.

Jules Vinsonen ardurapean antolatua izan zen *Congrès International des Études Basques* ere, 1900ean Parisen.

1901ean euskaltzaleak berriro elkartu ziren Hendaian. Hendaiaiko bilera hartara “euskararen inguruan zebiltzan belaunaldi, ideologia eta herrialde guztietako pertsonak hurbildu ziren”²¹; Euskal Herri osoko kultur buruzagien bilkura izan zen, beraz.

²¹ Kintana, J.: *Vizkaytik Bizkaira?*, Euskaltzaindia-BBK Fundazioa, 2002, 80. or.

1901eko batzar hartako Batzorde Iraunkorraren partaideak izan ziren: Gratien Adéma “Zaldubi” lehendakari, Arturo Campion eta Sabino Arana lehendakariorde, Martin Guilbeau idazkari eta Léon Hiriart diruzain. Erabaki zuten hurrengo urtean Hondarribian elkartzea, batasun ortografikorako bideak ezartzeko, alde batetik, eta *Fédération Littéraire Basque* elkarte literarioa sortzeko, Eskualzaleen Biltzarra deituko zutena, bestetik.

Baina esan dugun bezala, pentsamolde guztietako ekarpenak ditugu 1901eko kongresutik aurreragoko euskal eremu kulturallean. 1907an Julio Urquijo karlistak –Deustuko jesuiten katolikotasun militantepan hazitako legegizona–. *Revista Internacional de Estudios Vascos* sorrarazi zuen, “aldizkari literario-zientifiko iraunkorra eta hoberenatarikoa”²².

1922an *RIEV* Eusko Ikaskuntzaren argitalpen bilakatu zen. Baina Eusko Ikaskuntza lehenago sortu zen, 1918an, Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako eta Nafarroako diputazioek Oñatin antolatutako kongresu baten ondorioz. Eusko Ikaskuntza izan zen euskal kulturaren sorrera garrantzitsuenatarikoa, Joseba Agirreazkuenagak azaltzen duen bezala²³, Oñatiko kongresu hartan gizarte berri baten beharrak islatu zirelako, hain zuzen ere, gizarte industrializatuan garatutako intelektualetan beharrak. XX. mendeko lehenengo hamarkadetakoa jende idasi horrek jakintza eremu berrietan murgiltzea eskatzen zuen. Eta horregatik sortu zuen Eusko Ikaskuntza, erakunde intelektualago bat falta zelako.

Baina beste aldetik, Oñatiko kongresua entzutetsua eta guztiz garrantzitsua izan zen jardunaldirako gonbidatuak bai botere zibila bai buruzagi katoliko-eklesiastikoak izan zirelako; horrela, lau diputazioetako buruekin batera, Baionako, Gasteizko eta Iruñeko apezpikuei egin zien gonbidapena. Idoia Estornesen hitzetan:

Carlitas, antiguos euskalerriacos, liberales, nacionalistas vascos, constituyen el grueso de este contingente básico que, a través de sus Diputaciones, irá perfilando un futuro congreso y un proyecto de sociedad cultural supraprovincial²⁴.

1918an Cosme de Elgezabal eta Félix de Landaburu Bizkaiko diputatuek euskal hizkuntza zainduko zuen erakundea eratzeko proposamena egin zu-

²² Diaz Noci, J.: *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1934-1939)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1995, 58. or.

²³ Agirreazkuenaga, J.: *Diccionario biográfico de Eusko Ikaskuntza (1918-1998)*, 1998, Donostia, 11. or.

²⁴ Estornés, I.: *La Sociedad de Estudios Vascos*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1993, 16. or.

ten²⁵. Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako zein Nafarroako diputazioek erantzun zioten eskaerari, baina Eusko Ikaskuntzaren esku utzi zuten lana, 1918an Oñatin burutuz I. Kongresua. Raimundo Olabidek Akademia berriaren estatutua prestatu ostean, Eusko Ikaskuntzak ontzat hartu zuen 1919ko irailean, Euskaltzaindia sortuz.

Lan honetan leku zabala eskainiko diogu *Eskualdunari*, baita garai hartako gainerako argitalpen eraginkorrenei ere, haien orrialdeetan aurkitu baitugu Piarres Lafitte eta garaikideen luma. Esan beharra dago urte horietako euskal astekari gehienak –ez guztiak, alabaina–, Elizaren eskuetan edo eraginpean sortu zirela. Izan ere, Frantziako Iraultzak ekarritako liberalismo eta agnostizismoari aurre egin nahian, Elizak euskara eta euskal kulturaren garapena bultzatu zituen, baita euskara horretarako tresna bihurtu²⁶ ere: sustatu zituen euskarazko predikuak, Testamentuaren itzulpenak eta euskarazko aldizkariak eta Egutegiak horren erakusgarri dira.

Eskualdunarekin batera hainbat eratako eduki eta irakurleak zituzten argitalpenak aztertu ditugu lan hau osatzeko, jadanik esan dugun bezala: *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, *Eskualduna*, *Eskualzaleen Biltzarra*, *Revista Internacional de Estudios Vascos*, *Euskera*, *Gure Herria*, *Bulletin du Musée Basque* eta *Aintzina*. Argitalpenok aztertu ditugu intelektualen ekoizpen literarioari bidea eman ziotelako, sare intelektualaren partaide bihurtuz idazle horiek.

1886an *Société de Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* jakitun-elkartek (*société savante*) izen bereko aldizkaria argitaratu zuen. Intelektuei zegoen zuzendurik eta zientziaren arlo guztiak arakatzearren kaleratu zuten. Frantsesez idazten zituzten artikulua, elkartea euskara bultzatzearen alde bazegoen ere²⁷.

Hamahiru urte geroago Louis Etcheverryk *Eskualduna* astekaria argitaratu zuen. Euskal herritarrei zuzenduriko argitalpena izan zen, artikulua gehienak euskaraz idatziak izan ohi zituena; tokiko gertakariei buruzko berriak eskaintzen zituen, baserritarrekin loturik zeuden gaiak ere landuz. Artikulu guztietan nabaritzen zen kutsu erlijiosoa, Elizaren alorreko ekintzak ere espresuki aipatuz.

²⁵ *Euskera*, 1920, 42-48. orr.

²⁶ “XVII-XVIII. mendeetan euskara dateke euskaldunen hezketa erlijiosorako tresna hutsa, Eliza erdaldun batek zeukan bide bakarra publiko euskaldun baten bereganatzeko”, Larrea, J. M.: *Euskaldungoa erroizturik*, Pamiela, Iruñea, 1994, 31. or.

²⁷ *Société des Sciences, Lettres, Arts et d'Etudes Régionales de Bayonne*, 1925, 421. or.

Eskualzaleen Biltzarra aldizkariari dagokionez, 1901eko azaroan izen bereko elkarteak sortu zuen, Hondarribian buruturiko bilera baten ondorioz. Bide batez, esango dugu Hondarribiko batzar hartan euskara zaindu eta hedatuko lukeen Euskal Akademia sortzeko asmoa ere bazutela, baina askoz beranduago arte, 1919an, ez zen zertu. Are gehiago, Eusko Ikaskuntza elkarteak aurrea hartu zion Euskaltzaindiari: 1918an Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako eta Nafarroako diputazioek biltzar bat antolatu zuten Oñatin, euskal kultura oinarri eta helburu harturik; horrekin batera, biltzar hartako emaitzei iraunkortasuna emango zion erakundea eratu zuten, Eusko Ikaskuntza izena hartu zuena. Azkenean, Eusko Ikaskuntza bera izan zen 1919ko urrian, berriro ere Diputazioen bultzadarekin, Euskaltzaindia sortzeko lehenengo ekin-tzak burutu zituen.

Lan honetan *Eskualzaleen Biltzarraren* lankideen berri izango dugu, *Eskualzaleen Biltzarra* aldizkaritxoaren bidez²⁸. Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntzari dagokienez, jakinaren gainean jarriko gaituzte *Euskera* eta *Revista Internacional de Estudios Vascos* berauen argitalpenak, landu nahi ditugun hamarkadetan elkarre esanguratsu baino esanguratsuak izan baitziren.

Eta, nola ez, 20. eta 30. hamarkadetan bizirik zirauten antzinako aldizkariak hartuko ditugu kontuan, garaiko ekintza intelektualen isla ere izan baitziren, hala nola: *Gure Herria*, *Bulletin du Musée Basque* eta *Aintzina*.

Gure Herria aurkeztu zuen *Société des Sciences, Lettres, Arts et d'Etudes Régionales de Bayonne* 1920ko abenduko bileran, euskal ohitura, hizkuntza eta literatura ez adituengana hurbiltzeagatik laudatuz:

Le Bureau a estimé qu'il était de notre devoir d'encourager cette initiative de vulgarisation, de décentralisation, et a donné son adhésion à cette oeuvre intéressante²⁹.

Horixe izan zen, hain zuzen ere, *Gure Herriari* emandako ardura, Edmond Blazy kudeatzaileak azaldu zuenez: "Ils nous ont demandé un organe

²⁸ Eskualzaleen Biltzarrak *Eskualzaleen Biltzarra* aldizkaritxoa argitaratu zuen. Hala ere, aldizkariaren edukia aztertu badugu ere, uko egin diogu urtekari hartan idatzi zuten idazleak eta idatzitako artikulua zenbatzeari, oso aldizkari txikia zelako, intelektual gutxiren sinadurak bilduz. Kopuruaren aldetik, beraz, *Eskualzaleen Biltzarrak* ez digu informazio esanguratsurik eskaini; bai, ostera, argitaraturiko artikuluen mamiaren aldetik, eta horixe, bai, irakurri eta aztertu dugula.

²⁹ *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1920, 163. or.

de vulgarisation”³⁰. Baina euskal kulturara hurbiltzeaz gain, euskaltasuna goratzea ere hartu zuen helburu, *Eskualduna* eta Eskualzaleen Biltzarrak bereztat harturiko pentsabideari atxikiz. Izan ere, *Gure Herriaren* artikulua gehienek, euskaraz idatzirik egoteaz gain, lerroak eman zituzten euskaldunen hizkuntza (“véhicule naturel et vivante expression de l’âme de la race”³¹), izatera eta ohitura zaharrak nabarmentzeko, mitifikatzeraino.

Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne aldizkaria berriro mintzagai hartuz, 1923an Baionako Udalak *Sociétéri* egindako eskaeraren berri eman zuen, Euskal Museoa antola zezan; helburua:

“Sauver de l’oubli, des ravages du temps, du progrès industriel... tout ce qui est pour un peuple la caractéristique de son pays”³².

Baziren Euskal Museoa eratzearen kontra agertu zirenak:

“Ceux qui croyaient créer un conflit entre les fils de l’Eskual-Herria et les Bayonnais ombrageux”.

Sortu egin zuten, hala ere, zailtasunak ahal zuten moduan saihestuz: William Boissel atzerritarra aukeratu zuten museo berriaz arduratzeko,

“pas basque, pas même bayonnais”³³,

eta bi atal bereizi zituzten, bata euskalduna eta bigarrena baionesa³⁴.

Euskal Museoak *Bulletin du Musée Basque* bihilabetekaria kaleratu zuen 1925ean. Museoaren ondareen berri ematearekin batera, jakitunek zehaztasunak agertzen zituzten arkitektura, pintura, ohitura zaharrak, antzerkia eta hizkuntzari buruz, betiere Euskal Herrian kokaturik. Erabilitako hizkuntzari dagokionez, artikulua guztiak frantsesez izan ziren idatziak. Bitan baino ez zuten euskara bera gaitzat hartu:

– batean Henri Gavelek euskararentzako eskatu zuenean gainontzeko hizkuntzek zuten duintasuna:

³⁰ Blazy, E.: “A nos lecteurs”, *Gure Herria*, 1921, 7. or.

³¹ Ibidem.

³² *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1932, 141. or.

³³ Ibidem.

³⁴ Nogaret, J.: “Les origines du Musée Basque”, *Bulletin du Musée Basque*, 1925, 7. or.

Qu'il me soit permis d'exprimer le voeu, auquel vous vous associez certainement, qu'une langue qui renferme de pareilles sources d'intérêt et de beauté, ne soit pas systématiquement laissée de côté dans les écoles de nos villages basques, et qu'elle y soit, au contraire, traitée avec la dignité et le respect qu'elle mérite³⁵.

- bestean, aurrekoarekiko ikuspuntu guztiz diferentea zuena: Camille Jullianek –Frantziako Akademiako kidea– eskualdeetako hizkuntzez hitz egiten zuenean, Frantziako hizkuntza nazional eta bateratzailearen indargarri bezala aurkeztuz:

Le français comme langue, et la France comme patrie n'ont rien à craindre du réveil des idiomes provinciaux; ils ne sont qu'une manière particulièrement terrienne et 'payse', si je peux dire, de réaliser des pensées et des rêves de France... Faisant cela, le Musée basque reconstitue et il consolide tout ensemble une province de France³⁶

Baliteke *Bulletinen* agerturiko bi ikuspuntu horiek bata euskalduna eta bestea baionesa edo frantsesa, aipatu ditugun Baionako bi taldeen isla izatea. Dena dela, orokorrean baiezia dezakegu *Bulletineko* idazleek euskal ezaugarriak goratu eta gailendu zituzten, mitifikazioa alde batera utziz, hala ere.

Ikusten dugu, beraz, 1920. hamarkadan sorturiko *Gure Herria* eta *Bulletin du Musée Basqueko* idazleek *Eskualduna* eta Eskualzaleen Biltzarraren helburu berberekin osatu zituztela artikulak, hau da, euskaldunen ezaugarriak nabarmendu eta iraurarazteko; hain zuzen ere, aurreko parrafoetan azaldu dugun euskal burgesiaren xedea zen hori.

Baina lau argitalpenok modernizazioak ekarritako aldakuntzen eragina gutxitzen saiatu baziren ere, *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, *Revista Internacional de Estudios Vascos* eta *Euskerak*, ostera, helburu desberdinak islatu zituzten, maila zientifikoko ikerkuntza sustatu nahi baitzuten. *Euskerak* konkretuki Euskaltzaindiaren lanen berri eman zuen.

Dena dela, bai aldizkari eta elkarte atzerakoiek, baita berrikuntzen zaleak zirenek ere, lan hau osatzeko informazio ugariena eta fidagarriena eskaini digute, ondorengo lerroek erakutsiko diguten bezala.

³⁵ Gavel, H.: "La langue basque", *Bulletin du Musée Basque*, 1928, 1-12. orr.

³⁶ "Après une visite au Musée Basque", *Bulletin du Musée Basque*, 1932, 2277-288. orr.

I. PIARRES LAFITTE

I.1. Bizitza

Piarres Lafitte 1901eko maiatzaren 21ean jaio zen Luhuson, Salaberria etxean. Errepublikazalea zen Lafitte familia, Joseph Lafitte aita goardia funtzionarioa zelarik. Zortzi urterekin aita eta Marie Viela ama galdu ostean, Eugène Viela osabarekin bizi zen Piarres Lafitte. Lehengusu eta lehengusina eskola libreria joaten ziren bitartean, Piarres eta Alfred Lafitte anaiek eskola laikora joan behar izan zuten, jasotzen zuten diru laguntza ofiziala ez galtzearren³⁷. Osabak biarnesa baino ez zekien; Lafittek, beraz, euskara ia ahaztu zuten eta biarnesa mintzatzeari ekin zion.

1912ko urrian Belokeko Apaizgaitegi Txikian hasi zen ikasten Lafitte³⁸. Garai hartan, 17 urteko Lafittek *Le Palmipède* izeneko astekaritxoan idatzi zuen, isilean, Vogel adiskidearekin batera³⁹. Jadanik gazte denbora hartan euren zirikadak sartzen zituzten artikuluetan; Harizmendi apaizak irakurtzen ei zuen, umore onez hartuz ikasleek agertutakoa⁴⁰.

1919an Baionako Apaizgaitegi Handian sartu zen batxilergoa iragan arte. Lehen Mundu-Gerraren garaia baitzen, apaizgaiek espero zuten baino lehen hasi zuten ikasturtea, Gobernuak ez zezan eraikina eritetxe bihur. Lafittek,

³⁷ Oronos, M.: *L'information religieuse en basque dans les publications du Pays Basque Nord, de la fin du Concile Vatican II (8 décembre 1965) au Ve Synode romain (29 octobre 1977. Question pour une histoire future*, Université de Bordeaux, 1982, 74. or.

³⁸ Lafittek Belokeko apaizgaitegian ikasi zuen Larresorokoa 1906an konfiskatua izan baitzen, Eliza eta Estatuaren arteko banaketa legearen ondorioz.

³⁹ Monier, S.: *Le père Lafitt...* aipatu liburua, 89. or.

⁴⁰ Haritschelhar eta beste batzuk: "Piarres Lafitteri omenaldia", *Iker*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1983, 25. or.

osasun txarra zela eta, ez zuen Lehen Mundu-Gerran parte hartu; “gerlari ohiak”⁴¹ taldeko kide izan zen, ordea.

Urte horietan Charles Maurrased gidaturiko *Action Française* mugimenduaren⁴² eragina nabaritu zen apaizgaitegietan ere. Baionako apaizgaitegian Philippe Aranart, Jean Pierre Urricarriet⁴³, Clément Mathieu⁴⁴ eta Piarres Lafitte⁴⁵ aipatu ditu Malherbek pentsaera horren zaleen artean. Pierre Andiaza-balek ere azaldu digu Laffite gazte denboran ibili zela *Action Française* n pentsamoldetik hurbil⁴⁶, baina gero urrundu egin zela. Jacques Mestelanek,

⁴¹ “Gerlari ohiak” sozialki talde esanguratsua izan zen Frantzian, Lehenengo Mundu Gerraren ostean. Gerratik bueltatzean “gerlari ohi” izenpean elkartu ziren gerlari ohiak Gobernari eskatu behar izan zizkioten bizitzeko diru laguntzak, frontetik bueltatzean bizibiderik gabe baitzeuden. Gerlari talde horrek, bakearen aldekoa bazen ere, militarismo amorratua defendatu zuen, baita nazionalismoa ere.

⁴² *Action Française* 1899. urtearen inguruan sorturiko liga zen. Charles Maurrasen pentsabidean oinarriturik, Antzinako Erregimeneko erregezaletasuna berreskuratzea defendatu zuen, Frantziako Errepublikaren kontra, beraz. Horrela, 1906an Parlamentu frantziarrak Elizaren edukien inbentarioa egiteko agindua eman zuenean, *Action Française* inbentarioa burutzearen aurka agertu zen. Era berean, Gobernu frantziarra Vatikanorekiko harremanak berreskuratzearen alde agertu zen eta *Action Française* k kontra egin zion erabakiari. Pio XI. Aita saintuak *Action Française* debekatu egin zuen 1920. hamarkadaren hasieran, 1927an zigorrak ezarriz taldean jarraitu zutenei.

⁴³ Xarrittonek hauxe esan digu Urricarriet buruz: “Seminarioko ikaskide gehienak bezala, ‘Action Française’ deitu frantses nazionalismo zorrotzenaren barnean hazia eta hezia izanik, bera euskal nazionalismo gogorrenera etorria zen. Asko zor dio Iparraldeko aberztaletasunak gizon horri”, Xarritton, P.: “Alemanak eta Baionako Eliza (1940-1944)”, *Gerra eta Literatura (1914-1944)*, Eusko Ikaskuntza, 207. or.

⁴⁴ “Dans la propagation des idées de l’Action Française, le clergé basque allait avoir une grande place. De 1920 à 1925, au Grand Séminaire de Bayonne, l’abbé Mathieu, qui deviendra par la suite évêque de Dax, fait tous les lundis un cours d’économie politique où il s’inspire du classique du moment: Charles Gide qu’il complète par des idées de l’Economie Nouvelle de Georges Valois. Et surtout, des cercles d’études préparent des militants éventuels, animés pour la plupart par le clergé, tel celui de Briscous fondé par le curé Laxalt. Mais ces cercles ne prospèrent vraiment que sur la Côte, et surtout à Saint Jean de Luz, véritable capitale de l’Action Française”, Malherbe, J. P.: *Le nationalisme basque en France 1933-1976*, 3. zikloko tesia, Tolosa, 1977, 13. or.

⁴⁵ Malherbek Lafitteren eragozpenen berri ematen du *Action française* tik urruntzeko, partaidea izan zela erakusten duena; Malherbek Harichelharrekin izandako elkarrizketa aipatzen du, Malherbe, J. P., aipatu 3. zikloko Tesia, 28. or.

⁴⁶ “Neretzat demokrata eta kristaua, eta bazuen sozial arloan bere iritziak eta Elizaren erakaspenetarik ari zen. Eta nik uste demokrata kristaua izan den gehienik, haren tendentzia hori zen. Berak erraten zuen gazte zelarik, *Action Française* hortan pixka bat zeregina zuela bainan gero urrundu zen, konprenitu zuelarik ez zela bide ona”, Pierre Andiazabalekin izandako elkarrizketa, Baiona, 1997ko azaroaren 8a.

ostera, Lafitte demokrata kristaua izan zela baieztatzen du, inoiz ez Maurras zalea⁴⁷. Dena dela Lafittek berak aitortu zuen Maurrasen jarraitzailea izan zela gaztetan (“gu orduan gazte izaki-eta, gogotik jarraikizen gintzaizkon”⁴⁸).

1920an, ume denboran, poesia idazteari ekin zion Piarres Lafittek, Jean Saint Pierre Apaizgaitegi Handiko irakasleak bultzaturik⁴⁹. Bide batez, esango dugu Lafitteren hasierako asmoa Afrikara misiolari joatea izan zela, bertako hizkuntzak ikasteko; baina osasun txarra zela eta, Euskal Herrian geratu zen. Horrela, euskara ikasteari ekitea erabaki zuen⁵⁰. 1923an, apaiz ordena hartzeko gazteegia zenez gero, urte osoa eman zuen euskara ikasten, apaizgaitegian zegoen Inchausperen biblioteka txikian. Horrela, 1923an⁵¹, baita 1925ean ere, Eskualzaleen Biltzarrak ikasleen artean banaturiko sarietariko bat jaso zuen⁵².

1924ko uztailean apaiztu ostean, 23 urte baino izan arren, Aita Sainduak apaizteko baimena eman baitzion, Gieure Baionako apezpikuak Tolosako *Institut Catholiquera* bidali zuen, 1924ko udazkenean, goi-ikasketak burutzera. Jesuitekin ikasi zuen, beraz, Lafittek. Dena dela, Filosofia ikasteko asmoa zuen arren, berriro Saint-Pierrek burua berotu zion euskal literatura eta kultura ikas zitzaizkion⁵³. Letrak ikastea erabaki zuen, beraz, Lafittek: latina, grekera, alemaniera, espainiera eta frantsesa, euskara utzi barik.

Institutu hartan Aita Lallemand dominikanoak eta Yves de la Brière jesuitak zuzenbidea irakatsi zioten; irakasle izan zuen Deuppassage jesuita ere, gizarte-moralean aditua. Baina bereziki Yves de la Brièreren jarraitzailea izan zen Lafitte; horren iritzi eta aholku bila joaten zen Lafitte, urte batzuk geroago ekintza abertzaleetan murgildu zenean.

Tolosan zegoela, Jean Saint Pierrek “helarazten zizkion Hegoaldeko aberztaletasunaren berriak”⁵⁴: *Eskual Esnalea*, *RIEV*, *Euskalerraren Alde* eta *Eus-*

⁴⁷ “Maurras zalea? Ce n’est pas vrai, non, on a dit, certains ont dit qu’il était Maurras zalea, mais c’est faux, il n’a jamais été maurrasien; par contre, il a été démocrate, *Esprit* oui, *Ordre Nouveau* oui, *L’Action Française* non, *Foyer d’Etudes Fédéralistes* oui”, Jacques Mestelane-kin izandako elkarrizketa, Baiona, 1996ko irailaren 5a.

⁴⁸ “A. F. ohia”: “Charles Maurras hil da girixtinoki”, *Herria*, 1952ko azaroaren 11; Kepa Sudepe aipaturiko artikulua, Sudepe, K.: “*Kazetari-lan hauatua*”, Elkar, Donostia, 2002, 53. or.

⁴⁹ Murua, I.: “Piarres Xarritton”, *Jakin*, 97. zkia, 127. or.

⁵⁰ “Nor zira Piarres Lafitte?”, *Maiatz*, 1976, 19. or.

⁵¹ *Eskualzaleen-Biltzarra*, Imprimerie du Sud-Ouest, Baiona, 1924.

⁵² *Eskualzaleen-Biltzarra*, Imprimerie S. Sordes, Baiona, 1926.

⁵³ Clément Mathieu ere Literatura ikas zezan konbentzitzen saiatu zen, baina ez zuen lortu, “Nor zira Piarres Lafitte...” aipatu artikulua, 20. or.

⁵⁴ Murua, I., aipatu artikulua, 95. or.

kerak aldizkariak eskuratzen zizkion Lafitteri euskal kulturari sar zedin⁵⁵. Eta 1924an irakurtzetik idaztera pasatu zen Lafitte: Laurent Apestéguyk, *Gure Herria* aldizkariaren sortzaileak, argitalpen hartan hartu zuen Lafitte lankide bezala. 1925ean *Eskualdunan* ere hasi zen idazten, baita *Le Carillon des Jeunes* emakumezko talde sindikalistaren aldizkarian⁵⁶ ere, “Pierrette Labe” izengoitiaz sinatuz⁵⁷.

Baina arlo intelektuala jorratzeaz gain, sozialki ere arduratsu ari izan zen Lafitte: *les amidonniers* Tolosako auzora joan-etorri ugari egin zuen Lafittek, bataioak eta ezkontzak etxetan egiten, bertakoak Elizara hurbildu ere egiten ez baitziren. Badirudi eragina izan zuela garai hartan Mathieu irakasleak esan zionak:

“Vous voulez tout raisonner... Vous n’avez qu’une chose à faire, c’est de devenir un peu plus social”⁵⁸.

Tolosan Pierre Lhande aurkitu zuen Lafittek⁵⁹, Unibertsitate laikoan, hiztaldia egiten euskara eta euskal literaturaz. Garai hartan Lhande hiztegi bat prestatzen ari zen, baina utzi behar izan zuen, Parisera deitu baitzuten *Les Etudes* aldizkariak arduratzeko⁶⁰. Horrela, Lafittek Lhanderen hiztegia osatzeko

⁵⁵ “Nor zira Piarres Lafitte...”, 19. or.

⁵⁶ “C’est quand j’étais étudiant à Toulouse que, Amosin (Pierre Amoçain), qui était l’un de mes lieutenants pour les choses basques, qui ensuite est allé en Amérique, ça a été pour moi une grosse perte, et lui travaillait à Bayonne, et justement avec cette secrétaire de Syndicat... Alors c’est lui qui m’a écrit à Toulouse, en me disant qu’on voudrait bien que je les aide un petit peu, ces dames... je me suis mis à étudier ces problèmes féministes, tout ça. Et c’est alors que je me suis dit, il faut les défendre, le droit de vote etc... l’égalité des salaires et un tas de problèmes comme ça”, Monier, S., aipatu liburua, 354-355. orr.

⁵⁷ “Seulement il m’est arrivé une aventure. C’est que, finalement, elles ont eu un petit Congrès; et on a voulu que Pierrette vienne faire la Conférence... Je suis tombée malade, naturellement... Pierrette est tombée malade! C’est donc Mademoiselle Barucq qui a porté mon discours à Bordeaux. Elle l’a lu à ma place. Tout le monde a souhaité que je guérisse vite et qu’à la prochaine réunion générale j’arrive. Sitôt que je serai guérie. Ça ne m’intéressait pas beaucoup. Alors, finalement, je suis partie pour l’Amérique... *Et vous avez cessé d’écrire. Pierrette a cessé d’écrire.* Oui, mais le journal a disparu aussi”, Monier, S., aipatu liburua, 354-355. orr.

⁵⁸ Raymond Saint-Jeanek aipaturiko Clément Mathieuren hitzak; Saint-Jean, R.: “Le Père Lafitte, Directeur de conscience”, *Euskera*, Bilbo, 2001, 2, 664. or.

⁵⁹ “Nor zira Piarres Lafitte...” aipatu artikulua, 21. or.

⁶⁰ Lafittek Pierre Lhande ezagutu zuen hitzaldi baten, Beloken ikasle zegoenean. Lafitteri hitzaldia gustatu zitzaion eta eskutitez adierazi zion Lhanderi. Lafitte *Gure Herrian* idazten hasi zenean, Lhandek eskutitz bat idatzi zion Lafitteri adieraziz oso hiztegi aberatsa zeukala eta ea bidaliko zion bildutako hitz mordoak Hiztegi bat osatzeko. Lafittek bildutako

ardura hartu zuen, jesuiten diru laguntzaz eta Philippe Aranarten lankideztzarekin. Lhanderen hiztegia amaitzea lortu zuen Lafittek zazpi urtean.

Tolosan ikasle zenean, Uztaritzen eraiki berri zen Saint François Xavier Apaizgaitegi Txikira bidali zuen apezpikuak, 1926an, seigarrenean alemaniera irakastera.

1927. urtea berriro Tolosan eman zuen lizentziatura amaitzeko, 1928an Apaizgaitegi Txikira bueltatuz bosgarren kurtsoan Humanitateak irakastera, baita euskal hizkuntza eta literatura⁶¹ irakastera ere.

1928an Clément Mathieu bilakatu zen Apaizgaitegi Txikiko buruzagi berri. Zuzendari berriak aginduta, ikasleen heziketa izpiritualaz arduratu zen Lafitte; eta horrekin batera, Maurice Harrieten biblioteka jarri zuen Lafitteren eskuetan, 20.000 libera ere eskuratuz biblioteka osatzeko⁶².

1930ean, hogeita hamar urtez, Lafitte Filosofia eta Erljioa irakasten hasi zen hirugarreneko gazteei. Horrekin batera, Ebanjelioaz idazten hasi zen *Es-kualdunan*, 1929an hil zen Mixel Iriarteren ordeztan.

Aurrera jarraituz, Bigarren Mundu-Gerraren garaian Piarres Lafitte mobilizatu izan zen. Frontetik bueltatzean, Ustaritzeko Apaizgaitegi Txikiko klaseekin jarraitu bazuen ere, alemanen kontrako erresistentzian ere ari izan zen Lafitte, hala nola Uztaritzetik Arnegirako sarearen antolaketa parte hartuz. Apaiz izatea lagungarri suertatu ei zitzaion Lafitteri: “Il est

hitzak bidali zizkion. Geroago, Lhande Parisera joan zen eta ezin izan zuen Hiztegiarekin jarraitu, Lafitteren eskuetan utziz. Lafittek Eiheramendi abade zuberotarrari eskatu zion laguntza, baina honek ez zuen onartu, lan gehiegi zelakoan. Azkenean, Philippe Aranart eta Pierre Lafittek amaitu zuten Hiztegia; Monier, S., aipatu liburua., 575-577. orr.

⁶¹ “Lafittek bazuen berak asmatua eskuarazko kurtsoa; ez zen nahi baldin baduzu hain didaktikoa, bainan eskuararen historia, Euskal Herriaren historia eta hori zuen, historiaz gehienik, eta gero gure mintzairarenez, eta gero urtean behin egiten zigun holako konkurso bat bezala, sariketa bat”, Emile Larrerekin Baionan izandako elkarrizketa, 1997ko abuztuaren 12an.

“Lafittek du bakarrik eta kurtsoak eskuaraz edo eskuararen gainean, egiten zaukun guri eta orenetik kanpo joaten ginen”, Peio Olagarairekin izandako elkarrizketa, Kanbo, 1998ko otsailaren 7a.

⁶² “Apez bat edo notario bat edo mediku bat hiltzen zenean, berehala joaiten nintzen haren hurbilekoen ikusterat. Holaxe erosten nituen bibliotekak... Euskarazkoak begiratzen nituen denak eta besteak saltzen. Zenbaitek ez zuten balio handirik, pizura saltzen nituen eta balio zerbait zutenak ontsa paga arazten nituen... Nahiago nituen doblezka edo hirunazka izan. Euskaltzale bat hatxemaiten banuen egiten genuen truk”, “Nor zira Piarres Lafitte...” aipatu artikulua, 20. or.

très facile, en effet, dans le collège, de recevoir des visites sans qu'elles puissent être contrôlées"⁶³.

Gerra amaiturik, *Eskualduna* debekatu eta *Herria* astekaria sortu zuten, 1944an. Piarres Lafitte *Herria* astekariaren zuzendari aukeratzearekin batera, amaiera ematen hasi ziren erresistentzia ekintzei⁶⁴. Ordutik aurrera, Lafitteren emaitza intelektualek oihartzun handiagoa izan zuten, aurrekoak bezain garrantzitsuak izan baziren ere: 1967 arte irakaskuntza lanean aritzearekin batera, 1949an euskaltzain izendatu zuten (urgazle zen 1928tik), Georges Lacomberen orde; 1961ean ohorezko kalonje bilakatu zen; 1968tik 1976ra *Centre National de la Recherche Scientifique*rako egin zuen lan, *Linguistique Général* sailean, eta 1982an Euskal Herriko Unibertsitateak "doctor honoris causa" izendatu zuen.

Azkenez, Piarres Lafitteren ekintza baldintzatuko duen pentsamoldeari buruzko argibideak ematearren, Jean Haritschelharren hitzei jarraitu diegu⁶⁵; berak dio Lafittek ez zituela batere gustuko F. Krutwig, Julen Madariaga edota Luis Haranburu, materialismo dialektikoa sartu baitzuten euskal literaturan (Lafitteren ustez materialismorik garatuena marxismoarena zen); arbiuatu egin zituen Kafka, Albert Camus eta Simone de Beauvoir existentzialista ezkorrak ere. Ostera, Lafittek Gotzon Garate eta José Azurmendi goraiatzat zituen, aurre egin baitzioten materialismo horri. Era berean, gustuko zituen Maurice Blondelen jarraitzaileak, hala nola, Georges Lacombe eta Etienne Salaberry.

⁶³ Oronosek Lafittek erresistentzian burutu zituen ekintzen berri eman digu: "Son activité consiste surtout à communiquer au Général Giraud qui se trouve en Afrique du Nord, les mouvements des troupes allemandes dans la région, grâce à une double filière qui va d'Ustaritz à Valcarlos et à tracer des cartes qui transitent par l'Espagne pour l'Afrique du Nord", Oronos, M, aipatu liburua, 77. or.

Baina Lafittek berak eman digu erresistentzian burutu zituen ekintzen berri: Larresoroko Darricarèren bidez –margolari bizibidez– sare baten partaide bihurtu zen, Ustaritzetik Arnégiraino, ihesbidea prestatuz Espainiara joan nahi zuten iheslari ingelesentzako: "je faisais des cartes. C'est comme ça que je suis devenu cartographe. En cette circonstance. Et ces cartes-là, je les envoyais au Général Giraud en Afrique du Nord.... C'est un de mes confrères qui était ici, au Séminaire, l'Abbé Etchemendi, qui se chargeait alors de choses difficiles, comme par exemple, de chercher les armes des allemands pour savoir quelle sorte d'armes ils avaient désormais", Monier, S., aipatu liburua, 521-522. or.

⁶⁴ 1944ko abenduaren 28ko *Herriaren* alean Lafittek dei bat zabaldu zuen demokrazia-izenarekin oraindik Erresistentzian ari zirenei, adieraziz ekintzok ezinbestekoak izan baziren ere garai baten, ordua zela ekintza horiek utzi eta Gobernu berriari gobernatzen utzi ziezaioten, Lafitte, P.: "Vers la démocratie", *Herria*, 1944ko abenduaren 28a.

⁶⁵ Haritschelhar eta beste batzuk "Piarres Lafitteri omenaldia..." aipatu liburua, 139-150. orr.

Piarres Lafittek *Esprit* eta *Etudes* aldizkariak irakurtzen zituen, baita Emmanuel Mounier eta Jacques Maritainen lanak ere⁶⁶, hau da, 1930. hamarkadan garatu ziren “mugimendu ez-konformisten” argitalpenak⁶⁷. Era berean, ezin dugu ahaztu Daniel-Ropsek 1930. hamarkadan sortu zuen talde “ez konformistetariko” bat: *Ordre nouveau*; mugimendu federalista izan zen *Ordre Nouveau* eskualdeen berezitasun eta eskubieiei eustearen alde agertu zen. Lafittek berak aipatu zuen Ropsek 1932an egindako bilerak izan zuen eragina, adieraziz “*Aintzina* deitu kazeta ttipiak biltzar hortarik jalgi zituela bere funtsezko ideiak”⁶⁸.

Azkenez, aipatu beharra dago Aita Yves de la Brière jesuita, Lafitteri aholkuak eman zizkiona, hala nola *Aintzina* sortu edo mugimendu euskaltzalearen egitaraua idatzi orduko, ideia euskaltzaleak ez zirela doktrina katolikotik urruntzen egiaztatuz. Lafittek berak eskaturik ikuskatu zuen De la Brièrek egitamu euskaltzalea, frogatzen duena irakasle jesuitarengan zuen begirunea.

Baina pausoz pauso joango gara Piarres Lafitteren bizitza baldintzatu zuten gertaera eta egoerak aztertzen. Lehenengo eta behin garaiko gizarte-etzau-garrien ikuspegi orokorra aurkeztuko dugu, funtsezkoa baita tesiaren prota-gonistak buruturiko ekintzak ulertu ahal izateko.

I.2. Piarres Lafitteren garaiko politika Iparraldean

Frantziako III. Errepublikaren garaian, politika eskuindarra zen nagusi Ipar Euskal Herrian.

1919an Lehen Mundu-Gerra amaitu zenean, “gerlari-ohien” pentsamoldea hedatu zen Frantzian zehar:

⁶⁶ Jacques Maritain 1882an jaio zen Parisen. Thomas d’Aquinoren pentsabideak bultzaturik, politikaz interesatzen hasi zen. *Action Française*ren jarraitzailea izan bazen ere, utzi zuen, 1926ko gaitzespenaren ondorioz. 1927ko pizkunde intelektual katolikoan parte hartu zuen, Mauriac, Bernanos eta Gaétan Bernorvillekin batera. 1930ean Emmanuel Mounier ezagutu zuen Maritainek eta *Esprit* aldizkarian idazten hasi zen. 1930eko hamarkadako eskandalu ekonomikoak salatzearekin batera, Espainiako frankisten jarreraren kontra idatzi zuen, baita nazismoaren eta juduen kontrako zitalkeriaren aurka ere; Loubet del Bayle, J. L.: *Les non-conformistes des années 30. Une tentative de renouvellement de la pensée française*. Editions du Seuil, Paris, 1969, 40. or.

⁶⁷ “L’originalité de ces groupes, qui se qualifièrent assez rapidement de ‘mouvements non conformistes’, fut de tirer immédiatement les conséquences des transformations profondes du monde qu’ils constataient ou pressentaient”. Loubet del Bayle, J. L.: *Les non-conformistes...* aipatu liburua, 30. or.

⁶⁸ Lafitte, P.: “Daniel-Rops hil da”, *Herria*, 1965eko abuztuaren 7a.

Biltzarren bidez da indartu, eta era ainitzetan sortu, sentimendu hori, gerla ondoan, gerla berean baino gehiago. Lau urtez gerla egin zutelakotz goretsi dituzte. Lau urtez jasan oinaze eta minak hor izan dira goretsiak eta baloratuak⁶⁹.

Gerlari ohiak, gerrak zauriturik suertatu zirenez gero, bizitzeko laguntza jaso behar izan zuten Gobernuarengandik gerratik bueltatzean; laguntza hori lortu eta bideratzeko elkartu egin ziren eta “Gerlari ohi”-en kolektiboa sortu zuten. Abertzaletasun amorratu eta atzerakoia izan zuten pentsamoldearen oinarri.

Hain zuzen ere, Lehen Mundu-Gerraren osteko Frantziako lehenengo hauteskundeetan, 1919ko azaroaren 16an, Jean Ybarnegaray “gerlari ohi” aurkeztu zen, *Union Républicaine Démocratique* eskuineko partiduaren buru. Garai hartan ohikoa zen eskuindarrak edo xuriak eta ezkertiarrek edo gorriak elkarren aurrez aurre izatea. Horrela, Josep Garat ezkertiar, laiko eta nazionalista frantziarrak eta Jean Ybarnégaray eskuindar, gerlari ohi eta katolikoak zerrenda bana osatu zuten euskal barrutian (Baiona eta Maule)⁷⁰. Bozketak amaiturik, zerrenda eskuindarra suertatu zen garaile, Ybarnégaray, Choribit eta Guichennék osaturik, *Action Française* liga erregetiar eta tradiziozalearen sostengua ere izanez⁷¹.

Hurrengo hauteskundeetan, 1924koetan, *Basses-Pyrénées* departamentuaren barruti euskaldunak eta biarnesak elkarrekin osatu zituzten zerrendak; hiru zerrenda, hain zuzen ere: eskuineko *Bloc Nationala*, erdikoa eta ezkerreko *Cartel des Gauches*. Bai eskuindar bai erdiko zerrendek katolizismoaren alde eta parlamentarismoaren aurka egin zuten. *Cartel des gauchesek*, berriz, laikotasuna eta Vatikanorekiko harremanak etetea, eskatu zituen, Errepublikaren alde agertuz. Hauteskundeak buruturik, *Bloc National* nagusitu zen, eskuinaren pentsakera berriro nagusituz Euskal Herrian: Auguste Champetier de Ribes (*Parti Démocrate Populaire*), Ybarnégaray (*Union Républicaine Démocratique*), Lamazou-Betbeder (*Extrême Droite*) eta Gabriel Castagnet (*Union Républicaine Démocratique*) eskuindarrek lau postu irabazi zi-

⁶⁹ Arbelbide, X., *Enbata*, Kutxa Fundazioa, Irun, 1996, 19-20. orr.

⁷⁰ 1919ko bozketa frantziarretan Basses-Pyrénées departamendua bi barrutitan izan zen banandua: euskalduna (Baiona eta Maule) eta bearnesa (Pau, Orthez eta Oloron). Micheu-Puyouk hauteskunde horien zenbaketaren oinarriak azaldu dizkigu: “scrutin de liste départemental avec prime à la majorité et application de la représentation proportionnelle si aucune des listes n’obtenait la majorité”, Micheu-Puyou, J.: *Histoire électorale du département des Basses-Pyrénées sous la IIe et la IVe République*, Université de Paris, 182. orr.

⁷¹ *Action Française*ri buruz, ikus 25. nota.

tuzten, eta Garat ezkertiarra (*Radical Socialiste*) eta erdiko Léon Bérardek (*Gauche Républicaine Démocratique*) postu bana. Micheu-Puyouk honela laburtu ditu bozketa horien emaitzak:

Si les électeurs basques, parfaitement conduits par leur clergé ou leurs notables, furent les grands responsables de cette victoire cléricale et conservatrice, il est bon d'ajouter que la division de la Gauche entre républicains modérés et radicaux facilita grandement son succès⁷².

1928ko hauteskundeetan barruti euskalduna eta biarnesa elkartu barik aurkezteaz gain, euskalduna hiru barrutitan banandu zuten zerrendak osatu orduko: Baiona I, non Castagnet eskuindarra eta Garat ezkertiarra etsai politikoak ziren, Baiona II. barrutia eta Maule. Hauteskundeak buruturik, Garat suertatu zen garaile Baionako I. barrutian, Lissar eskuindarrak irabazi zuen Baionako bigarren barrutian eta mauletarrek Jean Ybarnégaray eskuindarrari eman zizkioten botorik gehienak.

1932an 1928ko emaitzak errepikatu ziren: lehenengo barrutian Garatek irabazi zion Milafrankako René Delzangles abokatu gazteari. Baionako bigarren barrutian Lissar suertatu zen garaile eta Jean Ybarnégaray Maulen⁷³.

1934an Staviskyren iruzur finantziera⁷⁴ suertatu zen. Iruzurrak, ekonomian baino gehiago, politika alorrean izan zuen eragina. Ezkertiarra izan ziren kalte handiena jasan zutenak, Garat eskandaluaren eragiletariko bat

⁷² Micheu Puyou, J., *Histoire électorale...* aipatu liburua, 185. or.

⁷³ *Eskualduna* astekari eskuindarrean Ybarnégaray, Lissar eta Delzanglesen aldeko bozak eskatu zituzten, erradikal eta sozialistei aurre egin nahian: "En votant pour MM. Ybarnégaray, Lissar et Delzangles, les électeurs du pays basque feront échec aux radicaux-socialistes, auteurs responsables du cartel de 1924-1926, qui, au lieu de se montrer contrits et repentants de leurs méfaits, sont tout prêts à les renouveler et à les aggraver encore, dans la limite –pas bien grande– qui nous sépara, une première fois, de la ruine totale", A.L.: "Contre le Cartel", *Eskualduna*, 1932ko apirilaren 29a.

⁷⁴ Stavisky Ukrainiako abenturazaleak *Alex Etablissements* bitxi eta edergailuen dendak sortu zituen Parisen, 1928an, bitxiak bermegotan mailegatzeari ekinez. Staviskyk, politikoekin harremanak baitzituen, Baionako diputatu-alkatea zen Garat ezagutu zuen eta udal-kredituak Baionan sortzera bultzatu zuen. Baina udal-kreditu horiek iruzur bilakatu ziren gezurrezko kutxa-bonoak kaleratu zituztenean, bitxien gezurrezko balorazioan oinarriturik baitzeuden. 1933ko abenduaren 24an finantza-ministroa iruzurrak jabetu zuen eta Baionako udal-kredituen zuzendaria atxilotu. Hurrengo egunean Staviskyren gorpua aurkitu zuten, batzuen ustez norbaitek hilarazia, gaizkileak sala ez zitza; Brunet, J. P.: *Dictionnaire historique de la vie politique française au XXe siècle*, Jean-François Sirinelli zuzendaritzapean, Puf, Paris, 1995, 12-15. orr.

izan baitzen. Egoerari aurre egiteko, Frantziako komunistak, sozialistak eta erradikal ezkertiarrek elkartu ziren eta *Front commun* osatu, 1936an *Front Populaire* bilakatu zena⁷⁵.

1936ko bozketak buruturik, Baionako lehenengo barrutian René Delzanglesek *Gauche Démocratique Républicaine Indépendante* partidu zentro-ezkertiarra ordezkatu zuen, eta irabazi. Baionako bigarren barrutian Bernard de Coral eskuindarra, *Fédération Républicaine* partidu eskuindarrekoa, suertatu zen garaile. Azkenez, Maulen *Indépendant Républicaineko* Ybarnégary eskuindarrak irabazi zuen. Beti bezala, ezkertiarrek oihartzun txikia izan zuten Euskal Herrian, Frantzian ezkerreko partiduak bildu zituen *Front Populaire* garaile suertatu zen bitartean.

1939an Bigarren Mundu-Gerra piztu zenean, Philippe Pétain mariskala izan zen deitua Kontseiluaren burua izateko, 1940ko ekainean. Pétainek armistizioa sinatu zuen Alemaniarekin, 1940eko ekainaren 22an. Armistizio horren arabera, Iparraldea bi zatitan suertatu zen banandua: alemaniarrek okupatutako lurraldea eta okupatu barik zirauena, non Pétainen Gobernu ezarri zuten, Vichyn hain zuten ere. Uztailaren leian Estatu frantziarreko buru bilakatu zen Pétain. Uztailaren 12an Pétainek gazteria, familia eta kiro-len ministro izendatu zuen Jean Ybarnégary politikoa euskalduna; politikan jarraitu zuen, beraz, Ybarnégaryk.

1942ko azaroan Hitlerrek okupatu barik zegoen Frantziako lurraldea indarrez hartu zuen; Vichyko gobernuak 1944ko abuztuaren 20ra arte iraun zuen. Vichyko gobernu desagertu zenean, Alemanek Pétain Frantziatik alde egitera behartu zuten. 1945eko apirilean, gerra amaitzen ari zela, Frantziara itzuli zen Pétain eta de Gaullek atxilotu⁷⁶.

⁷⁵ *Front Populaire* hitzarmena 1935eko uztailaren 14an sinatu zuten ezkerreko hainbat alderdi, sindikatu eta ligek: *Parti Communiste, Section Française de l'Internationale Ouvrière SFIO, Parti Radical et Radical Socialiste, Union Socialiste Républicaine* alderdiak; *Confédération Générale du Travail CGT eta Confédération Générale du Travail Unitaire CGTU* sindikatuak eta *Ligue de droits de l'homme et du citoyen* liga.

⁷⁶ “Ybarnégary sería acusado por los nazis de haber ayudado a pasar la frontera a fugitivos de la Francia ocupada por lo que fue detenido y deportado a Planze, en el Tirolo, donde permaneció 16 meses, volviendo en mayo de 1945. Procesado el 18 de marzo de 1946 ante el Alto Tribunal de Justicia, fue inmediatamente absuelto de la condena”, Jiménez de Aberasturi, J.: *De la derrota a la esperanza: políticas vascas durante la Segunda Guerra Mundial (1937-1947)*, tesi doktoral, Euskal Herriko Gaur Egungo Historia departamentuan dagoena, UPV/EHU, 1998.

Laburbilduz, hona hemen Behe-Pirinioetan buruturiko hauteskudeen emaitzak⁷⁷, Lehen Mundu-Gerra amaitu zenetik Bigarren Mundu-Gerra piztu zen arte; eskuindarrak azpimarraturik agertzen dira eta ezkertiarrek ez, eskuineko eta ezkerreko alderdi eta politikoak bereiztearren:

Noiz	Non	Aukeratuak	Partidua
1919-11-16	Euskal Herria	Ybarnégaray Choribit Guichenné	<i>Entente Rép. Démocr.</i> Inskribatu gabe Inskribatu gabe
	Euskal Herria	Champ.-Ribes Ybarnégaray	<i>Démocrate Populaire</i> <i>U. Républi. Démocrat.</i>
1924-5-11	Biarno	Lamazou-Betbeder Castagnet Bérard Garat	<i>Extrême Droite</i> <i>U. Republic. Démocrat.</i> <i>Gauche Républicaine Démo.</i> <i>Radical Socialiste</i>
1928-4-22	Euskal Herria	Garat Lissar Ybarnégaray	<i>Radical Socialiste</i> <i>Union Républi. Démocra.</i> <i>Union Républi. Démocra.</i>
1932-5-1	Euskal Herria	Garat Lissar Ybarnégaray	<i>Radical Socialiste</i> <i>Fédération Républicaine</i> <i>Fédération Républicaine</i>
1936-4-26	Euskal Herria	Delzangles De Coral Ybarnégaray	<i>Gauche Démo. Répub. Ind.</i> <i>Fédération Républica.</i> <i>Indépendant Républici.</i>
1940-7-11	Philippe Pétain	Frantziako botere legegile eta betearazleen buru.	

⁷⁷ Micheu Puyou, J., aipatu liburua, 368-371. orr.

Micheu Puyouk garaiko alderdi frantziarren sailkapena eskaini digu, eskuindar, zentro eta ezkertiar alderdietan banatuz. Eskuindar eta eskuindar muturrekoak alderdi hauek lirateke: *Bonapartiste*, *Entente Républicaine Démocratique*, *Extrême Droite*, *Fédération Républicaine*, *Indépendant*, *Indépendant Républicain*, *Monarchiste*, *Parti Républicain de la Liberté*, *Rassemblement du Peuple Français* eta *Union Républicaine Démocratique*; alderdi zentro-eskuindarrak: *Action Libérale*, *Action Libérale Populaire*, *Démocrate*, *Démocrate Populaire*, *Mouvement Républicain Populaire*, *Républicain Progressiste*; talde zentro-ekertiarrek: *Alliance Républicaine de Gauche et des Radicaux Indépendants*, *Gauche Démocratique Républicaine Indépendante*, *Gauche Indépendante*, *Gauche Républicaine Démocratique*, *Indépendante de Gauche*, *Rassemblement du Peuple Français* eta *Républicain de Gauche*; azkenez, talde ezkertiar eta ezker muturrekoak: *Gauche Démocratique*, *Parti Communista*, *Parti Radical et Radical Socialiste*, *Républicain*, *Socialiste*, *Section Française de l'Internationale Ouvrière*, *Union Démocratique* eta *Union Socialiste Républicaine*, Micheu Puyou, J., aipatu liburua, 364. or.

Argi dago Euskal Herriko biztanle gehienak politikoki eskuinzaleak zirela. Izan ere, 1919tik 1936ra buruturiko bost hauteskundeetan Jean Ybarnégaray eskuindarra nagusitu zen Euskal Herrian; Garat Euskal Herriko garaile ezkertiar bakarra izan zen (Bérard eta Delzangles erdi-ezkertiarrak ziren), 1924tik 1932ra hauteskundeak irabazi zituen Baionako I. barrutian. Emaitzok Ipar Euskal Herriko herritarren pentsamoldearen berri ematen digute: nekazari bizimodu eta antzinako ohiturez bizi ziren herritar gehienak kontserbadoreak ziren, erlijiozaleak eta antzinako bizimolde horri eustearen aldekoak.

1.3. Jean Ybarnégaray

Ikusi dugun bezala, Jean Ybarnegaray etengabe izan zen aukeratua Iparaldeko diputatu, hain zuzen ere, 1914tik 1936ra⁷⁸.

Jean Ybarnegaray Uharte Garazin jaio zen 1883an. Herriko eskola publikoan ikasi zuen, Larresoroko Apaizgaitegi Txikian hasi zen arte. Pariseko Stanislas ikastegira joan zen gero eta, azkenez, Parisen ekin zion Zuzenbidea ikasteari. 1908an Donapaleun abokatu inskribatu zen, legegizon ofizioan inoiz ari izan ez bazen ere.

1912an Ybarnégarayk hasiera eman zion bizitza politikoari, Uharte Garaziko alkate izendatu baitzuten. Lehenengo aukeratze horrekin, Ybarnegarayk abizenaren ortografia aldatu egin zuen (politikan sartu baino lehen Ibarnégaray idazten zuen).

Gurasoengandik ikasi zuen euskara oso erabilgarria izan zen Ybarnégararentzat politikan aritzeko. Lagungarri izan zitzaizkion Larresoroko Apaizgaitegian izan zituen ikaskideak ere, bereziki geroago apaiz egin zirenak, Ybarnegarayren garaiko politikan erabakigarri baino erabakigarriago izan baitziren politikaren harremanak Elizarekin. Azkenez, Ybarnégarayren kiroletarako gaitasuna –eta bereziki 1921ean Pilota Federazio Frantsesaren buru izendatu izana– euskal botoak erakartzeko egoki suertatu baitzitzaion⁷⁹. Berritri esango dugu orduko gizarte euskalduna guztiz kontserbadorea zela eta antzinako euskal ohiturak eta bizimoldea iraunaraztearen aldekoa, hala nola, euskara min-

⁷⁸ Jean Ybarnégaray politikoa ezagutzeko guztiz erabilgarri izan zaigu B. Ménouren lana: *Jean Ybarnégaray*, Institut d'Etudes Politiques, Bordeleko Unibertsitatea, n. s.

⁷⁹ “La pelote basque est un des éléments de son image de marque”, Ménou, B.: *Jean Ybarnégaray...* aipatu liburua, 139. or.

tzaira, kristautasuna eta pilota kirola. Ulegarria da, beraz, Ybarnégarayren arrakasta Euskal Herriko hauteskundeetan.

Beste aldetik, jadanik aipatu dugu XX. mendearen hasierako Ipar Euskal Herriko politika eta ekonomia lurraldeko handiki eskuindarren eskuetan zegoela. Jean Ybarnegaray notable horietariko bat izan zen, nagusi-maizterra izan baitzen (zeukan dirutzarekin hauteskunde-kanpainak ordaindu ei zituen⁸⁰). Uharte Garaziko sindikatuaren burua ere izan zen eta horrek, bidea erraztu zion baserritarrekin harremanak izateko eta, beraz, botoak lortzeko.

Baina 1912an alkate aukeratua izana Ybarnegarayren bizitza politikoaren hasiera baino ez zen izan. 1914an Ybarnégaray lehenengoz aurkeztu zen hauteskundeetara, Mauleko eskuindar katolikoek ordezkaritza bezala, baita irabazi ere. Pradet-Ballade diputatuak Ybarnégarayren aldeko propaganda egin zuen *Eskualduna* astekarian:

Jean Ybarnégaray: Avocat, Docteur en droit, maire d'Uhart-Cize, qui défendra les idées d'ordre, de progrès, de justice fiscale, de concorde et de défense nationale, comme aussi les libertés religieuses et scolaires, contre les tyrannies administratives, l'antipatriotisme et le sectarisme malfaisant. Que tous les Basques s'unissent pour acclamer cette candidature déjà si populaire⁸¹.

Urte berean, Lehen Mundu-Gerra piztu zelarik, Ybarnégary soldadu joan zen. 1918an gerra amaitzean, soldadu ohiak heroizat hartuak izan ziren; Ybarnégarayri “gerlari ohi”enganako mirespen hori lagungarri gertatu zitzaion hurrengo hauteskundeetan. Horrela, *Eskualduna* astekarian Jean Ybarnégaray Mauleko diputatua goraipatu egin zuten, frontean borrokatu baitzuen; egin zituen hitzaldi aberkoiak berri ere eman zuten *Eskualdunan*:

Le vaillant député de Mauleon vient de donner, avec le plus grand succès, toute une série de conférences patriotiques à Mont-de-Marsan⁸².

⁸⁰ Ménou, B., aipatu liburua, 136. or.

⁸¹ “Bachenabarre. Elections législatives”, *Eskualduna*, 1914ko otsailaren 20a.

⁸² “Eskual-Herri. Ybarnegaray”, *Eskualduna*, 1918ko urtarrilaren 4an. Era berean: “émouvante cérémonie au profit de L'Assistance aux prisonniers de guerre basques... cette magnifique conférence fut maintes fois interrompue par les applaudissements frénétiques de l'assistance emportée par l'éloquence du conférencier”, “Eskual-Herri. M. Ybarnégary à la Sorbonne”, *Eskualduna*, 1918ko otsailaren 1ean.

1919ko bozketetara aurkeztu zenean, *Entente Républicaine Démocratique* ERD alderdi eskuindarraren izenean, Ybarnégaryk 47.749 botoetatik 21.218 lortu zituen.

Ybarnégarayren bizitza politikoarekin jarraituz, 1927an François de la Rocquek *Croix du Feu* liga sortu zuen, gerlari ohien elkarte gisa, Ybarnégaray *Croix du Feu*ren partaide bilakatu zen, baita buru bihurtu ere 1934an.

1928ko hauteskundeetan Ybarnégarayk *URD* ordezkatu zuen berriro, Mauleko 15.632 botoetatik 10.289 lortuz: “Sans prononcer le mot de République, sa proclamation de foi se contentait du cri de “Vive l’union nationale”⁸³.

1932an eskuindar kontserbadoreak *Fédération Républicaine* partiduan bildu ziren, Ybarnégaray barne. Egitarauan garrantzi nagusia eman zioten erlijoiari: instituzio erlijiosoak babestearen alde agertu ziren eta Estatuak irakaskuntza monopoliza zezanaren kontra. Ybarnégarayk Mauleko 15.819 botoetatik 10.207 boto lortu zituen. Hona hemen *Eskualdunan* argitaraturiko Ybarnégarayren aldeko mitifikazio hitzak:

Huna gure gizona, Ybar, denek ezagutzen dutena. Eskualdun garbia, mintzatzaile ederra, politikako bihurgune guzietan trebe dena, beti gure alde. Ez egon etchen zure boza eman gabe. Egibide duzu bozaren emaita. Biba Ybar!⁸⁴

1934ko otsailean Staviskyren eskandalua piztu zenean, aurkako manifestaldia burutu zen, non Ybarnégarayk *Croix de Feu*ren izenean hartu zuen parte. Staviskyren iruzurraren ondorioz bereziki ezkertiarak suertatu ziren kaltetun, finantza-ministroak Garat ezkertiarra aurkitu baitzuen errudun eta giltzapetu. Ybarnégarayk, oster, arrakasta handia lortu zuen manifestaldian, jendetza laudatu egin baitzuen Gobernu frantziarrari kontra egitearren; “Iana, ordena, autoritatea eta ohorea”⁸⁵ berreskuratzeko itxaropena jarri zuten Ybarnégarayrengan. Manifestaldiaren arrakasta handi hori 1936ko hauteskundeetan islatu zen: *Indépendant Républicaine* taldea ordezkatu zuelarik, Mauleko 16.439 botoetatik 11.053 lortu zituen Ybarnégarayk⁸⁶.

1936ko ekainean, *Croix du Feu*, gainerako ligak bezala, deuseztatua izan zen. François de la Rocquek, *Croix du Feu*ren sortzaileak, *Parti Social Français*

⁸³ Cuzacq, R., *Les élections législatives à Bayonne et au Pays Basque de 1919 à 1939*, Editions Jean-Lacoste, Mont-de-Marsan, 49. or.

⁸⁴ *Eskualduna*, 1932ko apirilaren 22an.

⁸⁵ Paxton, R. O., *La France de Vichy (1940-1944)*, Seuil, Paris, 1973, 161. or.

⁸⁶ Micheu Puyou, J., aipatu liburua, 179-203. orr.

PSF eratu zuen *Croix du Feu* galerazia izan zenean, baita Ybarnégaray partidu horren kide bihurtu ere. Estrategia politiko moduan, Ybarnégarayk ligen debekuaren alde hitz egin zuen⁸⁷ Ganbaran; garaile izan zen berriro 1936ko hauteskundeetan.

Bigarren Mundu-Gerra pizturik, Philippe Pétain mariskala deitua izan zen Kontseiluaren burua izateko, 1940ko ekainean. 1940ko ekainaren 22an armistizioa sinatu zuen eta uztailaren 12an Pétainek ministro izendatu zuen Ybarnégaray, hain zuzen ere, gazteria, familia eta kirolen ministro. 1940ko irailera arte iraun zuen Ybarnégarayk ministro karguan, Pétainek kanpoan utzi baitzuen Gobernuaren hurrengo berrantolaketan. Ménouren ustez, isolazionismoaren edo isolamenduaren kontrakoa zelako utzi zuen Pétainek Ybarnégaray kanpoan, hau da, Alemaniarekin kolaboratzearen aurkakoa zelako⁸⁸.

Horrela, erresistentzian sartu ei zen Ybarnégaray⁸⁹, Alemanek 1943an harrapatu eta Tyrolera deportatu⁹⁰ zuten arte. Liberazioarekin, Ybarnégaray Frantziara itzuli zen eta berriro atxilotu zuten; epaitua eta kondenatua izan zen 1946ko martxoaren 18an. Azkenean libre utzi bazuten ere, 1955era arte ez zuen baimenik izan hauteskundeetara aurkezteko. 1956ko hauteskundeetan *Extrême Droite* alderdia ordezkatu zuen, baina ez zen garaile gertatu eta utzi egin zuen politika.

Laburbilduz, eta hasieran aipatu dugunez, Jean Ybarnégaray etengabeki izan zen aukeratua 1914 eta 1936 urteen artean Ipar Euskal Herriko hauteskundeetan. Hala ere, Ménouk dioenez, ez zen etengabeki aukeratua izan herritarren onerako burutu zituen ekintzengatik, Ybarnégarayk ezer gutxi egin baitzuen Mauleko herritarren txirotasuna gutxitzeko eta despopulazioa eteteko⁹¹. Ostera, Mauleko biztanleek Ybarnégaray aukeratzen zuten oso kontserbadoreak zirelako; Ybarnégarayren politika gustuko izan zuten mauletarrak, egitarau politikoaren oinarrietan zegoelako euskal nekazaritza bizimoduari eta antzineko ohiturei atxikitzea.

⁸⁷ Ménou, B., aipatu liburua, 127. or.

⁸⁸ Ménou, B., aipatu liburua, 92. or.

⁸⁹ “Ybarnégaray redevint simple français en zone libre. Il rentre à la Resistance. Disons plutôt que l’ex-député résiste, à sa manière, et que ses activités n’ont que peu de choses à voir avec la résistance classique. Cela dure trois ans, pendant lesquels Ybar paraît jouir d’une rare impunité”, Ménou, B., aipatu liburua, 58. or.

⁹⁰ “Ybarnégaray a aidé des gens à passer les Pyrénées en 1943, fut arrêté et déporté à Planze (Tyrol)”, Paxton, R. O., aipatu liburua, 161. or.

⁹¹ Ménou, B., aipatu liburua, 137-140. orr.

II. PIARRES LAFITTEREN GIRO KULTURALA 1920. ETA 1930. HAMARKADETAN

Ipartarren pentsamolde politiko-soziala aurkezturik, ikus dezagun orain garaiko giro intelektuala. Horretarako urte horietan argitaratu ziren aldizkarietara jo dugu, argitalpenetan nortzuk idazten zuten jakiteko, baita orduko jarduera intelektualean nortzuk parte hartu zuten ezagutzeko ere.

II.1. *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*

Société des Sciences et Arts de Bayonne elkartearen kideak 1873ko azaroan bildu ziren lehenengoz, Baionan, II. Errepublika ezarri berri zegoenean, beraz. Delvaille, Détrouy, Folin, Grillières, Hiriart, Moujon eta Stoecklin jakitunek burutu zuten bilera hori, elkartearen egitasmoak zehaztuz: “élever l’âme et conduire l’homme vers les régions élevées de la vérité”⁹². Azterketa antropologikoari ekingo zioten, ere arduratuz flora, fauna, geologia eta mine-rologiaz, baita monumentu, auri eta ohiturez ere; azterketa eta sorkuntza literarioa ere bultzatuko zituzten, gizakiaren arlo guztiak jorratzearen⁹³. 1873ko bileraren ondorioz, *Société des Sciences et Arts de Bayonne* izen bereko aldizkaria argitaratzen hasi ziren.

Jean Goyhenetchek azaltzen duenez, *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonneren* sorketa bat dator Europan hedatu ziren *sociétés savantes* edo jakitun-elkarteen produkzio historiografikoaren boomarekin⁹⁴; konkretuki, Baionako *Sociétéren* jakitunen jakin-minak garatu ziren “liées à l’impulsion de Paris”⁹⁵. XIX. mendearen bigarren erdian bilakatu ziren

⁹² *Bulletin de la Société des Sciences et Arts de Bayonne*, 1874, 2-3. orr.

⁹³ *Ibidem*.

⁹⁴ Goyhenetche, J., aipatu liburua, 246. or.

⁹⁵ Goyhenetche, J., aipatu liburua, 165. or.

elkarte horiek, aurreko garaiko pentsamoldearekiko haustura bat suposatu zuten:

“rompait avec les récits affabulateurs de l’époque romantique au nom de l’histoire positive”⁹⁶.

1910ean elkarteak *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* izena hartu zuen, “en y ajoutant *Lettres*, ce qui précisait sa physionomie”⁹⁷ eta 1922an *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*nek *Société Bayonnaise d’Etudes Régionales* elkartearen kideak bereganatu zituen, izen berria hartuz: *Société des Sciences, Lettres, Arts et d’Etudes Régionales de Bayonne*, “pour mettre fin à une situation paradoxale: coexistence à Bayonne de deux Sociétés ayant le même but”⁹⁸. Azkenez, elkarteak *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* izena berreskuratu zuen 1932an.

Dena dela, *Société*ek argitaraturiko aleek erakusten digutenez, urte horietan guztietan zehar elkarteak izena baino ez zuen aldatu, 1873an aurkezturiko xede berberei jarraituz ikertu ditugun 1920. eta 1930. hamarkadetan.

1928. urtera arte bi zenbaki argitaratu zituzten urtero eta 1936tik aurrera urtean lau zenbaki. Lankideek frantsesez idazten zituzten artikulua, elkarte euskara zein gaskoinera bultzatzearen aldekoa bazen ere: “Ligne de conduite qui consiste à favoriser l’étude et l’usage du basque et du gascon dans notre rayon d’action”⁹⁹.

1920. eta 30. hamarkadetan honako hauek izan ziren *Société*ko arduradunak:

Lehendakariak: Jean Baptiste Daranatz (1930-1940)
Hoym de Marien (1920-1929)

Lehendakariordeak: William Boissel (1923-1940)
André Constantin (1935-1940)
André Grimard (1920-1940)
Joseph Nogaret (1930-1935)
Antonin Personnaz (1922-1930)
Emile Prestat (1922-1930)
R. Poydenot (1935-1940)

⁹⁶ Goyhenetche, J., aipatu liburua, 224. or.

⁹⁷ “Le cinquantenaire de la société”, *Société de Sciences, Lettres, Arts et d’Etudes Régionales de Bayonne*, 1923, 300. or.

⁹⁸ *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1921, 214. or.

⁹⁹ *Société des Sciences, Lettres, Arts et d’Etudes Régionales de Bayonne*, 1925, 421. or.

Idazkariak:	A. Foltzer (1930-1931) Auguste Fourcade (1932-1940) Jean Ribeton (1920-1930)
Idazkari adjuntuak:	René Cuzacq (1930-1931) Joseph Nogaret (1923-1930) Maurice Olphe-Galliard (1935-1940)
Intendentea:	Lacrambe (1920-1940)
Diruzaina:	Lavigne (1920-1940)
Artxibozaina:	Camguilhem (1920-1940)

Elkartearen batzarretara bertaratu zirenak ezagutzeko 1920. eta 1923. urteen arteko kideen berri baino ez dugu izan, zeren eta 1923tik aurrera elkarteak erabaki baitzuen bertaratzen zirenen berri ez ematea, zerranda luzeegi bihurtzen ari baitzen: “*dépasant 80 à la séance, le Bureau a décidé de ne plus donner dans le Bulletin les noms des présents*”¹⁰⁰. Badirudi, beraz, *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* antolatuturiko bilerak arrakastatsuak zirela.

1920-1923 urte horien artean 31 bilera burutu zituzten. Buruzagiak sarri joaten ziren biltzarretara: Hoym de Marien zuzendaria 23tan izan zen eta Jean-Baptiste Daranatz 5etan, oraindik zuzendaria ez zelarik. Lehendakariordeek ia guztietan hartu zuten parte, William Boissel 19tan, Albert Constantin 12tan, André Grimard 24tan, Joseph Nogaret 19tan Antonin Personnaz 18tan, Emile Prestat 15etan eta Raymond Poydenot 7tan (1935 arte kargurik gabea). Foltzer idazkaria 3tan, Auguste Fourcade 12tan eta Jean Ribeton 25etan, idazkarien artean leialena. Lacrambe 4 bileretan baino ez zen agertu, Lavigne 11tan eta Camguilehm 18tan. Aipatu duguna aipatu dugula, baiezta genezake Boissel, Camguilhem, Grimard, Hoym de Marien, Nogaret, Personnaz eta Ribetonek aukera izan zutela elkarren arteko harremanak sustatzeko (bileretatik %60tan –18 bilera– edo gehiagotan izan ziren).

Ostera, buruzagiez gain, kide bakan batzuk baino ez ziren azaldu bileretara (harrigarria da 1923ko alean adierazitakoa, hau da, 80 partaide baino gehiago izan zirela bileretan): Edouard Casedevant 24 bider, Joachim Labrouche 23, Duvot 19 eta F. Lefort 18. Maiz joan ziren hauek ere: Henri Gavel 17 bider, Louis Dours eta A. Larrieu 17 bider eta Elie Bousquet 15. Piarres Lafitteri dagokionez, ez dugu *Société*ren bileretan parte hartu zuenaren berririk.

¹⁰⁰ *Société des Sciences, Lettres, Arts et d'Etudes Régionales de Bayonne*, 1923, 310. or.

Beste aldetik, jarraian dugun laukian ikusiko dugun legez, hainbat buruzagik, elkarteaz arduratzeaz gain, artikulua idatzi zituzten: Daranatz (5 bilera-61 artikulua) Grimard (24 bilera-5 artikulua), Lacrambe (4 bilera-5 artikulua), Nogaret (19 bilera-10 artikulua) eta Poydenotek (7 bilera-5 artikulua). Biltzarretara joaten ziren kargurik gabekoen artean, aldiz, bik baino ez zuten aldizkarian idatzi: Casedevantek (24 bilera-5 artikulua) eta Gavelek (17 bilera-7 artikulua).

Lankideek idatzi zituzten artikuluen kopuruaren arabera ordenatuz gero, honako zerrenda hau izango dugu:

Lehenengo laukia. *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* aldizkariaren lankideak eta artikuluen kopuruak 1920tik 1940ra bitartean:

Izena	S.S.L.A.B. (1920-1940) Artikuluen kopurua	Adina 1940ean
Boissel, William	1	71
Colas, Louis	1	†1929 60
Léon, Albert	1	57
Veyrin, Philippe	1	40
Foix, Joseph	2	
Lacombe, Georges	2	61
Lamarque, Jean	2	
Yturbide, Pierre	2	†1920 72
Dop, Pierre	3	65
Guillaumie-Reicher, Gilbert	4	
Rectoran	3	
Burguburu, Paul	5	
Casedevant, Ed.	5	
Courteault, Em. Henri	5	
Grimard, A.	5	
Lacrambe	5	
Lambert, E.	5	
Poydenot, Raymond	5	

.../...

.../...

Izena	S.S.L.A.B. (1920-1940) Artikuluen kopurua	Adina 1940ean	
Saint-Vanne, A.	5		
Vinson, Julien	5	†1926	83
Voulgre, André	5		
Nussy-Saint-Saens, Marcel	6		
Vie, Georges	6		
Gavel, Henri	7		60
Hérelle, Georges	7	†1935	87
Ducéré	8		
Cuzacq, René	8		40
Croste, René	9		
Nogaret, Joseph	10	1934	72
Fernández Giménez, Santiago	12		
Etcheverry, Michel	33	1922	48
Daranatz, Jean Baptiste	61		76

Elaborazio propioa, *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* aldizkarian oinarrituta.

Laburbilduz, *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonnen* inguruan lan egin zuten intelektualek ez zuten maiztasunez idatzi elkartearen aldizkarian, Jean-Baptiste Daranatzek eta Michel Etcheverryk izan ezik.

II.2. Le Réveil Basque

Jadanik azaldu dugun bezala, 1871n Frantzia III. Errepublika ezarri zutenean Euskal Herriko Elizak tokiko handikiekin bat egin zuen Errepublikari aurre egiteko. Horrekin batera, orduko hainbat intelektualek Elizaren tresna bihurtu zuten Historiografia, kriatautasunaren ideologia babestearren. Jean Goyhenetche azaldu duenez:

Dans le dernier tiers du XIXe siècle, l'Eglise catholique était devenue un important lieu social de production historiographique avec une finalité, des objectifs, une méthodologie, des structures de publication mais aussi de for-

mation à la recherche et à l'enseignement. A une époque où l'on trouvait encore très peu d'universitaires basques dans la production historiographique, l'Eglise comblait en fait un tel vide, faisait office d'université en Pays basque¹⁰¹

Michel Elissamburuk, adibidez, Frantzian izan ziren hiru Errepubliken kontra idatzi zuen *Frantziako hirur Errepubliken historia laburzquiliburuan*¹⁰². Elizaren alde agertu ziren hauek ere: Jean Pierre Arbelbide¹⁰³, Emmanuel Inchauspe¹⁰⁴, J. M. Menjoulete¹⁰⁵, P. Soubielle¹⁰⁶, Jean Pierre Duvoisine¹⁰⁷, Jean Martin Hiribarrene¹⁰⁸ eta Ed. Puyol¹⁰⁹.

Horrekin batera, Elizak aldizkariak argitaratzeari ekin zion, hala nola *Comité d'Histoire et d'Archéologie –Revue de Gascogne (1815-1900)* bihurtu zena– eta garai hartan gututz esanguratsua izan zen *Etudes Historiques et Re-*

¹⁰¹ Goyhenetche, J.: *Les basques et leur histoire...* aipatu liburua, 192. or.

¹⁰² Michel Elissamburuk (Heleta Nafarroa Beherea, 1826-1895) *Lehenengo eskualdunak zer ziren* argitaratu zuen 1989an, *Zer izan diren eta zer diren oraino Framazonak* 1890ean, *Frantziako hirur Errepubliken historia laburzqui* 1890ean etea *Joanes Batista dohatsuaren bizia* 1891an.

¹⁰³ Jean-Pierre Arbelbidek (Zaro Nafarroa Beherea, 1841-1908) lan hauek argitaratu zituen: *Bokazionea eta Jainkoaren Deia eta Erlisioea. Eskual Herriari dohazkon egiarik beharrena. Heren ordreko chehetasunekin eta Meza-bezperen othoitzekin* 1890an, *Heren Ordrea* 1890ean, *Igandea edo Jaunaren Eguna* 1895ean eta *Archives des Missionnaires de Hasparren* 1898an.

¹⁰⁴ Emmanuel Inchauspek (Zunharreta Nafarroa Beherea, 1815-1902) San Mateoren Ebanjelioa eta Apokalipsia zuberera itzultzeaz gain, Luis Luciano Bonapartek eskaturik, honako lan hauek argitaratu zituen: *Jincoac giçonari eguin patoac* 1851ean, *Le Verbe Basque* 1858an, *Le Peuple Basque* 1893an, *Maria Birjinaren hilabetea* 1894an, *Kantika Sainchiak* 1897an eta *Etude sur l'origine bayonnaise de Sainte Eurosie, Vierge et Martyre, et sur les Boiens ou Boiates* 1888an.

¹⁰⁵ J.-M. Menjouletek *Chronique du diocèse et du pays d'Oloron* 1864an eta *Histoire de Saint-Léon, apôtre de Bayonne, son époque, sa vie, son culte* argitaratu zituen 1876an.

¹⁰⁶ P. Soubiellek *Le Grand Séminaire de Bayonne avant la Révolution* argitaratu zuen 1886an, *La chapelle de petit séminaire de Larressore* 1872an eta *Notice sur M. l'abbé Menjoulet* 1883an.

¹⁰⁷ Jean-Pierre Duvoisin (Ainhua –Lapurdi–, 1810-1891) Luis Luciano Bonaparterekin lan egin zuen, Biblia osoa euskaratuz; bestetik, *Le dernier des Corsaires, ou la vie d'Etienne Pellot Montvieux de Hendaye* argitaratu zuen 1856an.

¹⁰⁸ Jean-Martin Hiribarrenek (Azkaine –Lapurdi–, 1810-1860) *Eskaldunak* argitaratu zuen 1853an, *Montebideoko berriak* 1853an eta *Eskaraz egia* 1858an.

¹⁰⁹ Ed. Puyolek *Louis XIII et le Béarn, ou rétablissement du Catholicisme en Béarn et réunion du Béarn et de la Navarre à la France* argitaratu zuen 1872an eta *Vie du serviteur de Marie L. E. Cestac, fondateur de Notre-Dame-du-Refuge* 1878an.

ligieuses du Diocèse de Bayonne (1892-1900)¹¹⁰, non idatzi zuten Pierre Haristoyk¹¹¹ eta Victor Dubaratek¹¹², Errepublikaren kontrako historiagileak.

Eta Eliza idatzizko testuez baliatu bazen ere erlijio-propaganda egiteko, funtzionarioek beste hainbeste egin zuten. Martial Henry Berdoly Mauleko suprefetak *Le Réveil basque* astekari errepublikarra kaleratu zuen, 1886ko abuztuari; eta urtebete geraoago Louis Etcheberry diputatugai erregezaleak *Eskualduna* argitaratu zuen, 1887ko martxoaren 15ean, *Le Réveil Basque* hautesle euskaldun guztiak erakarriko lituzkeen beldurrez¹¹³.

¹¹⁰ “Les *E.H.R.B.*. n’étaient donc pas une simple revue historique, ou de curiosité intellectuelle, à l’instar des sociétés savantes. Leur activité répondait à un plan, à une stratégie, revêtait une fonction hagiographique et apologétique, avait pour ambition de forger les armes d’une science historique catholique pour reconquérir le terrain perdu face à l’héritage de la Révolution”, Goyhenetche, J.: *Les basques et leur histoire...* aipatu liburua, 192. or.

¹¹¹ Pierre Haristoyk (Aiherra – Nafarroa Beherea, 1836-1901) *Revue Historique et Religieuse de la Diocèse de Bayonne* aldizkarian idazteaz gain, *Les paroisses du Pays Basque au XVIIIe siècle et pendant le période révolutionnaire* argitaratu zuen 1891n, *Le martyr d’un peuple ou internement des Basques sous la Terreur suivi de chants antirévolutionnaires* 1894an, *St. Jean-Pied-de-Port. Souvenirs historiques et religieux* 1895ean, *Pèlerinage de St. Jacques-de-Compostelle... établissements hospitaliers dans le Pays Basque* 1900ean eta *Recherches historiques sur le Pays Basque* 1883 eta 1884 urteetan; Goyhenetche, J.: *Les basques et leur histoire...* aipatu liburua, 298. or.

¹¹² V. Dubaratek *Recherches sur la ville et l’Eglise de Bayonne* argitaratu zuen 1910ean Daranatzekin batera; argitaratu zituen ere: *Mélanges de Bibliographie et d’histoire locale* 1894 eta 1905 urteen artean, *Le Missel de Bayonne de 1543* 1900an, *La Commanderie et l’hôpital d’Ordarp, dépendance du monastère de Roncevaux en Soule* 1997an, *Découverte des tombeaux de Rois de Navarre dans la Cathédrale de Lescar* 1929an, *Documents et bibliographie sur la Réforme en Béarn et aux Pays Basque* 1900 eta 1903 urteen artean, *Notice biographique sur M. l’abbé Franchisteguy* 1883an, *Biographies des Evêques de Bayonne* s 1887an, *Roncevaux. Charte de fondation. Poème du moyen âge. Règle de Saint Augustin. Obituaire. Etude historique et littéraire* 1889an, *Une crosse de Saint-François de Sales au Trésor du Chapitre de Bayonne. Une lettre inédite de St. François de Sales* 1890an, *Essai de bibliographie sur les livres liturgiques et quelques autres livres de piété ou d’hagiographie de nos trois Diocèses* s 1891ean, *Statuts synodaux du diocèse de Bayonne de 1533 avec une introduction et des notes* 1892an, *Etudes sur Saint Léon, Ste. Engrâce et Sainte Quitterie* 1892an, *Le protestantisme en Béarn et au Pays Basque* 1895ean eta *Etudes d’histoire locale et religieuse* 1889 eta 1892 urteen artean; Goyhenetche, J.: *Les Basques et leur Histoire...* aipatu liburua, 312-316. orr.

¹¹³ *Le Réveil Basque*ren kontrako erasoak ugariak izan ziren *Eskualduna*n, batez ere hasierako zenbakietan: “Egia Errepublikaren eta Erligionearen gainean”, “L’Autorité des chefs de famille”, “La bonnefoi du Réveil Basque”, *Eskualduna*, 1887ko maiatzaren 15a; “Au Réveil Basque”, *Eskualduna*, 1887ko irailaren 24a; “Au Réveil Basque”, *Eskualduna*, 1887ko urriaren 21a; “La colère du Réveil Basque”, *Eskualduna*, 1889ko apirilaren 19a, etab.

Le Réveil Basque Ipar Euskal Herriko lehenengo astekari iraunkorra izan zen¹¹⁴. Euskarazko eta frantsesezko artikulua argitaratzen zituen, bereziki Nafarroa Behere eta Zuberoari zuzenduz. Astekari horren azpititua *Jainkoa, Familia, Hontasuna* zen, bilatzen baitzuen “Respect de la religion. Libertés pour tous. Défense des intérêts agricoles”¹¹⁵. Izan ere, errepublikazaleen *Le Réveil Basque* “jouait la carte de la modération pour rassurer le conservatisme et les sentiments religieux de l’électorat”¹¹⁶. Are gehiago, J. Díaz Nocik azaltzen duenaren arabera, Berdolyk ez zuen bere burua gorritzat hartzen (“horrek erlijioaren eta jabetza pribatuaren aurkakoa esan nahi badu”¹¹⁷), bakarrik errepublikazaleatzen.

Berdolyren *Le Réveil*-ek harreman onak izan zituen Estatu Batuetan argitaraturiko *California-ko Euskal Herria*-rekin. Amerikako emigranteentzat egindako astekaria izan zen, 1893tik 1897ra arte baino iraun ez zuena. Argitalpen horren egilea, J. P. Goytino, errepublikazalea zen, Ameriketako zein Frantziako errepublikanoen aldekoa, eta sarritan transkribatzen zituen *Le Réveil Basque*ren artikulua. Jakina, *California-ko Euskal Herriaren Eskualdun*arekiko harremanak ez ziren hain onak izan¹¹⁸.

Suposa daitekeen legez, *Eskualduna* argitalpen xuria izanda eta *Le Réveil Basque* errepublikar edo gorria, bien arteko kontra egitea etengabekoa izan zen. Kontrakotasun hori Ipar Euskal Herriko politikaren ezaugarriaren isla baino ez zen, J. Díaz Nocik azpimarratu duen bezala¹¹⁹; personalismoa ere aipatzen du Díaz Nocik garaiko egoera politikoaren ezau-

¹¹⁴ Joseph Agustin Chahok 1848an kaleraturiko *Uscal Herrico Gasetta* ere errepublikazalea izan zen, eta euskara hutsez argitaraturikoa, baina bi zenbaki baino ez zituen izan.

¹¹⁵ *Le Réveil Basque*, 1889ko irailaren 5a.

¹¹⁶ Tauzia, P.: “Le difficultés entre l’Eglise et l’Etat”, *SSLAB*, 1975, 243. or.

Eskualdunak salatu egin zuen *Le Réveil* errepublikazalea, berau erlijioaz baliatu baitzen hautesleen botoak lortzeko:

“Apirilaren 3eko gasetan *Réveil Basque* mintzatu da *Errepublikaz eta Erligionean* Elizaco Dotor bat balitz bezala, goretsiz Errepublikaren sentimenduc Erligionearentzat, bai eginbidac Errepublikaren alderat. Horra beraz non dugun Mourde Berdoly, Apezpiciuen orde, aphecen gidari. Ongi goaci! laster naski debruac beharco dio Jaincoari erran cer egin eta cer ez”, “Egia Errepublikaren eta Erligionearen gainean”, 1887ko maiatzaren 15a.

¹¹⁷ Díaz Noci, J.: *Euskal kazetaritzaren historia*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1999, <http://suse00.su.ehu.es/ephtml/>

¹¹⁸ Díaz Noci, J.: *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1983-1939)*, 1985, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 40-45 orr. *California-ko Euskal Herria* astekariarekin batera, *Eskualdun Gazeta* (1885-1886) Estatu Batuetan kaleratuak izan ziren lehenengo euskara hutsezko argitalpenak izan ziren, euskal emigranteei zuzendurikoak.

¹¹⁹ Díaz Noci, J.: *Euskal prentsaren sorrera eta garapena...* aipatu liburua, 51. or.

garri legez, hau da, potere politikoa pertsona batek izatea, hala nola Berdolyk eta Louis Etcheverryk.

Jakina, *Le Réveil*en idatzi zutenak errepublikazaleak ziren, hala nola, Jean Baptiste Elissamburu, hain zuzen ere, gorago aipatu dugun Michel Elissambururen lehengusua; Jean Baptistek *Piarres Adame* lan ezaguna argitaratu zuen *Le Réveil*en, pasarteka, Michel lehengusuaren Errepublikaren kontrako salaketei dagokienez, aipatu *Hirur Errepubliken ixtoria* liburuan, *Le Réveil*ek aurre egin zien akusazio horiei Errepublikaren historiaren bertsio errepublikazalea argitaratuz, artikuluka, “Errepublikaren bertsio txarra gaitzesteko edo”¹²⁰

Le Réveil Basqueren arduradunek esandakoaren arabera, *Le Réveil* ez zen helburu hutsarekin sortu:

Le Réveil Basque n'est pas destiné à disparaître après les élections. Il est appelé, au contraire, devenir comme son titre l'indique, l'organe des intérêts de l'arrondissement de Mauleón¹²¹

1886ko abuztuaren 1eko *Conseil Général*erako hauteskundeak Berdolyk irabazi zituen Pabe, Baiona eta Oloroen eta diputatu aukeratu zuten 1889an Frantziako Parlamenturako. 1889ko Pirinio Atlantikoak buruturiko hauteskundeak, ostera, galdu zituen: Haulon zentro-ekzertiarra irabazle suertatu zen Baionako I. barrutian –de Laborde eskuindarraren kontra–, Labat eta Louis Etcheverry xuriek irabazi zuten Maulen, Harriague eta Henri-Martial Berdoly gorrien aurka. 1890. hamarkadako egoera politikoa are desegokiagoa izan zen *Le Réveil*entzat; *Eskualduna* erakargarriago suertatu zitzaizen herritarrei, 1894ko Carnot presidentearen hilketa erabakigarria izanda, Díaz Noci-ren hitzei berriro jarraituz¹²². 1894ko urte hartan *Le Réveil Basque* desagertu egin zen.

II.3. *Eskualduna* 1920. eta 1930. hamarkadetan

Le Réveil Basque ez bezala, 1887ko martxoaren 15ean sorturiko *Eskualdunaren* arduradunek astekaria argitaratzen jarraitu zuten. Louis Etcheverry jabeak Arnaud Pochelou aihertarrari utzi zion *Eskualdunaren* zuzendaritza.

¹²⁰ Díaz Noci, J.: *Euskal prentsaren sorrera eta garapena...* aipatu liburua, 49. or.

¹²¹ Ibidem. Díaz Nocik egindako aipamena.

¹²² Díaz Noci, J.: *Euskal kazetaritzaren historia...* aipatu liburua.

Piarres Lafittek Arnaud Pochelouren lana arbuiatu egin zuen, xuri amorratua zelakoan¹²³.

Harek zituen artikuluak eskuratzen, berexten, askotan baztertzen edo ondoko egunetarat gibelatzen, bat eta bere nahitara guti edo aski xederraturik ager-arazten¹²⁴

1894ko bozketen ostean astekariak aurrera jo zuelarik, arduradunek adierazi zuten hauteskundeak amaiturik zeuden legez, politika pixka bat alde batera utziko zutela, laborari eta familien gaietara mugatuz¹²⁵. Horrela, *Eskualdunaren* hedapena eta eragina herritarrengan handia izatera heldu zen, sortu zenetik irakurleen kopuruak gorantz eginik: 850 1880ean, 950 1889an, 1200 1890ean eta 1300 1891n¹²⁶.

Eskualdunan euskal herrietako gertakarien berri eman zuten “Nouvelles du Pays” atalean, nekazarien arazoez hitz egin zuten “Laborarier” izenburupean eta erreklutatu eta gerlarien egoera aipatu zuten “Nouvelles militaires”-n¹²⁷ berrietan. Baina, aipatu atalez gain, *Eskualdunak* politika jorratzen jarraitu zuen, eskuindarren batasuna bilatzen baitzuen¹²⁸, Errepublikaren pentsamoldeari aurka eginez batera.

Kutsu erlijiosoa nabaria izan zen *Eskualdunaren* ia berri guztietan, Elizaren inguruan buruturiko ekintzak espresuki aipatzeaz gain¹²⁹. Azaldu dugu

¹²³ Lafitte, P.: *Euskal literaturaz*, Erein, Baiona, 1990, 226. or.

¹²⁴ Lafitte, P.: *Euskal literaturaz*... aipatu liburua, 232. or.

¹²⁵ Eskualduna: “Gure irakurtzaleri”, *Eskualduna*, 1890eko apirilaren 4a.

¹²⁶ Lafitte, P.: *Euskal literatura*... aipatu liburua, 226. or.

¹²⁷ *Eskualdunan* armadarenganako itzaropena agertu zuten: “Après Dieu, notre unique espérance pour le salut de la France est dans notre brave et admirable armée”, “Soldadoguaco lege berria”, *Eskualduna*, 1887ko irailaren 17a. Gai berberari buruz: “Nouvelles militaires. La Mobilisation”, *Eskualduna*, 1887ko irailaren 17a; “Nouvelles militaires”, *Eskualduna*, 1887ko urriaren 14a; “Recrutement”, *Eskualduna*, 1887ko azaroaren 18a, etab.

¹²⁸ “ez zen xurien arteko batasunik: baziren erregetiarrak, bonapartixtaik baieta errepublikano girixtinoak. Erregetiarrek ez zuten errege-gai bera sustengatzen, ez eta bonapartixtek inperadore-gai bera. Errepublikano girixtinoek kontra zituzten gorriak, hauiek erlisionerik ez baitzuten nahi; bai eta bertze xuriak, hauiek ez baitzuten uste izan zitakela errepublika onik”, “*Herria* 25 urte”, *Herria*, 1969.

¹²⁹ “Nouvelles Religieuses”, *Eskualduna*, 1887ko irailaren 17a; “Larressore”, *Eskualduna*, 1887ko urriaren 28an; “Hazparneko predikuak”, *Eskualduna*, 1888ko uztailaren 13a; “Installation du curé doyen”, *Eskualduna*, 1889ko apirilaren 5ean; “Nominations dans le clergé”, *Eskualduna*, 1893ko urtarrilaren 13a; “Une lettre de Léon XIII”, *Eskualduna*, 1893ko urtarrilaren 27a; “Garizumako lehen igandean Ebanjelioa”, *Eskualduna*, 1894ko azaroaren 9a, etab.

jadanik *Eskualduna* helburu politikoeekin sortu zutenean, xede horiek bat zetozela Elizaren pentsamoldearekin¹³⁰. Are gehiago, batzuetan Louis Etcheverry sortzaileak, “politikaz, bihotz-bihotzez bonapartte-tiarra”¹³¹, Elizak baino Errepublikaren kontrako pentsamolde gogorragoa azaldu zuen, Elizaren jorkabideari errepublikazalea zelakoan¹³² kontra egiteraino.

Eskualdunak etsaitzat hartu zituen masoi zein juduak ere, osoki gaitzetsiz kazetaren orrialdeetan:

Asmatzen dituzten tzarkeriak gure eta erlijioneko guzien kontra egiteko framazondarrak juduen esku-makhil dire¹³³

Euskal herrietatik Ameriketarako emigrazioari buruz, *Eskualdunan* eten egitea proposatu zuten, herri euskaldunak hustu ez zitezen¹³⁴. Era berean, hirietako protesta sozialak ez ziren *Eskualdunaren* gustukoak, komunistek sustatzen zituztelakoan:

Polizak ez du buru egiten ahal gizon errabiatu horien. Gazeta gorriak berriz gizon horier etsenplu onak emaitte orde gehiago asalda-arazten dituzte¹³⁵.

Azkenez, eta hizkuntzalaritzaren arloari dagokionez, *Eskualdunak* “eskola” sortu zuen. *Eskualdunako* Eskola edo Larresoroko eskola deitu zion Lafittek¹³⁶ *Eskualdunaren* inguruan sorturiko lan-talde horri, Larresoroko

¹³⁰ “Nahi badugu egin ditzaten ganbaretan lege batzu erlijionea fagoratuko eta errespetatuko dituztenac, ez ditzagun eman gure bozac Seroren eta Freren kasatzeko, katichimaren eta othoitzaren eskoletaric khentzeko, aphez-gaien bokazionearen gibelarazteko eta erlijioneko zeremonien trabatzeko legeac ginen dituzten deputatuentzat”, “Zer den girichtinoen eginbidea bozkatzeko behar orduetan” *Eskualduna*, 1889ko apirilaren, 1a.

¹³¹ Lafitte, P.: *Euskal litareturaz...* aipatu liburua, 225. or.

¹³² “Erromako politikaz duda azkar zombait gora-behera”, Lafitte, P., *Euskal literaturaz...*, 225. or.

Ideia berbera agertu du Michel Oronosek Louis Etcheverryz: “Etcheverry, aux sentiments bonapartistes bien marqués, s’attaque même à l’Eglise qu’il juge trop républicaine”, Oronos, M.: *L’information religieuse en basque dans les publications du Pays Basque Nord, de la fin du Concile Vatican II (8 décembre 1965) au Ve Synode romain (29 octobre 1977. Question pour une histoire future*, Université de Bordeaux, 1982, 73. or.

¹³³ “Juduak Frantzian nausi”, *Eskualduna*, 1891ko azaroaren 13a.

¹³⁴ “Nouvelles du Pays. Contseilu bat”, *Eskualduna*, 1887ko abenduaren 2a.

¹³⁵ “La grève”, *Eskualduna*, 1888ko abuztuaren 10a.

¹³⁶ Lafitte, P., *Le Basque et la Littérature d’expresion basque*, Baiona, 1941, 68. or.

Piarres Xarritonek ere Larresoroko eskolaren berri eman digu, Xarritton, P.: *Pierre Broussain, Sa contribution aux études basques (1895-1920)*, CNRS, Paris, 1985, 166-167. orr.

Apaitzegiaren burua zen Arnaud Abbadieren gidaritzapean sortu baitzuten zenbait idazlek: Jean Hiriart-Urruty, Jean Blaise Adéma, Jean Barbier, Jean Saint-Pierre eta Jean Etchepare. Eskola horrek, lexiko lapurtarra lantzea hartu zuen helburu, morfologia eta joskera ere zainduz, bilatzen baitzuen lapurtera ulergarria suerta zedin edozein gaitan, politika zela, ekonomia zela edo erlijioa zela.

Baina, *Eskualdunaren* edukien puntu nagusiak aurkezturik, koka gaitetzen puntu honen hasieran, non azaldu dugun eskuindarrek irabazi zituztela Iparraldeko 1889ko bozketak. Jakina, hauteskunderen emaitzak ezaguturik, “la colère des républicains fut à la mesure de leur déception”¹³⁷. Frantziako Gobernuak euskal herritarrei Elizarekiko zuten menpekotasuna leporatu zien, erlijiozaleen aldeko botoa eman baitzuten, Frantziako Errepublikaren pentsamoldeari kontra eginez. Horrekin batera, Frantziako mandatariek euskal apaizek buruturiko ekintza politikoak salatu zituzten¹³⁸: predikue-tan Errepublikaren kontra ari izana¹³⁹, eliztarrak politikoki gidatu eta *Caté-chisme électoral* liburuxka kaleratu izana (Diharassary apaizak idatzirikoa), besteak beste.

Euskal apaizen ekintza horiek zirela eta, eta Frantziako Gobernuak bere gain zuenez gero apaizei ordaintzea, Paueko prefetak erabaki zuen hainbat diosesatako apaizei ez ordaintzea.

Inchauspe bikarioaren eta Diharassary apaizaren ahaleginak ez ziren txikiak izan Frantziako gobernuak apaizak zigor ez zitzaizkion. Azkenean, Frantziako prefetak deliberamendua aldatu egin zuen eta apaizei ordainduko zien, baldintza bat betez gero: apezpikuak apaiz euskaldun batzuk parrokiak alda zitzala, hala nola, Diharassary Kanbotik Orzaizera, Agorréca Orzaizetik Donazaharrera¹⁴⁰, Mériatéguy Lasatik Donaixtira, Patient Ezterenzubitik Laka-

¹³⁷ Tauzia, P.: aipatu liburua, 244. or.

¹³⁸ “Les élections législatives des 12 et 26 octobre 1889 sont importantes pour les relations entre les catholiques et le pouvoir dans le diocèse de Bayonne. En Pays Basque, elles se firent sur la question religieuse et entraînèrent une crise qui devait hypothéquer le succès du ralliement dans le diocèse”, Tauzia, P.: “Les difficultés entre l’Eglise et l’Etat, dans le diocèse de Bayonne à la veille du ralliement”, *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1975, 241. or.

¹³⁹ *Eskualdunan* aholkuak zalbaldu zituzten herritarren artean hautagai errepublikazaleei bozka ez ziezaieten: “Girichtinoen eginbidea elektionetan”, *Eskualduna*, 1889ko apirilaren 19a.

¹⁴⁰ “le curé de Cambo, muté à Ossès par la suite ‘Monseigneur’ Diharassary... Il justifiait l’immixtion avouée et ouverte du clergé dans le choix du régime politique par un raisonnement très –trop– simple: ‘Le clergé a toujours, sinon le devoir, du moins le droit, d’éclairer

rrara, Delgué Donaixtitik Lasara, Mendiboure Aiherratik Ainhoara, Harriet Donaixtitik Aiherrera, Mendiboure Altzürükütik Ainhizera, Bidart Hoztatik Altzürüküra, Larronde Aldudetik Urruñara, Chagé Lucqetik Bénéjacqera eta Tréginé Arrenetik Barrautera¹⁴¹.

François-Antoine Jauffret apezpikua izan zen Gobernu frantziarrak agindutakoa betearazi zuena. 1889ko abenduan izendatu berri zegoen Jauffret eta ezaguna zen errepublikazalea izateagatik (“haren familia halakoa izanez”¹⁴²). Horrela, Jauffretrek Gobernuarekiko diziplinaz jokatzera bultzatu zituen apaizak.

Diharassary apaizak, Louis Etcheverry diputatuarekin batera, Jauffretten esanak baztertu zituen, apezpikuaren jokaera salatuz Léon XIII.a Aita Santuaren aurrean. Hala ere, Aita Santuak, Eliza eta Gobernu frantziarraren arteko harremanak ez eragoztearren, Diharassary eta Etcheverryren salaketa baztertu zuen, eta *Eskualdunaren* lankideei eskatu zien Jauffret apezpikuaren kontra idatzitako laidoak ezeztatzeko.

Era berean, Elizaren Gobernuarekiko harremanak indartu nahiaz, Aita Saintuak Frantziako katolikoei agindu zien Errepublika onar zezaten, hobeto egingo zietelakoan aurka lege errepublikanoei. Larresoroko apaizek esandakoa bete zuten, horien artean Arnaud Abbadiak, Larresoroko apaizgaitegiko buruak, eta Jean Hiriart-Urrutyk. *Eskualdunan* ere Errepublika onartzeko eskatu zieten irakurleei:

Adiskide batek izkribatzen dauku, harritu dela, iragan astean, Eskualdunaren lehenbiziko artikulua irakurtzearekin. Ez dugu bada, gure ustez, deusere erran egiarik eta zuzenik baizik. Erran dugu Aita Sainduak kontseilatzen gitudela bakearen gatik eta erlisionearen gatik, Errepublika on bat onets dezagun. Erran dugu egia. Erran dugu onhartzen dugula guk kontseilu hori¹⁴³.

la conscience de l'électeur catholique. C'est qu'en effet, le vote est un acte moral, soumis comme tel à la direction et au contrôle de l'Eglise' “, Orpustan, J. B.: “Rôle et pouvoirs de l'Eglise”, *La nouvelle société basque. Ruptures et changements*, Editions l'Harmattan, Paris, 1980, 150. or.

¹⁴¹ Tauzia, P., aipatu artikulua, 252. or.

¹⁴² Lafitte, P.: *Euskal literatura...* aipatu liburua, 226. or.

Jauffret apezpiku izendatu zuten Fleury-Hottot hil ondoren: “Le frère Jauffret, journaliste à l'Echo d'Oran, était un ami du député Eugène Etienne. Ce dernier recommanda l'ecclésiastique au gouvernement, comme un prêtre digne, un esprit gallican et libéral. De son côté, le préfet des Bouches-du-Rhône confirma au ministre des cultes 'l'attitude politique irréprochable' de Jauffret et son respect des institutions républicaines”, Tauzia, P., aipatu artikulua, 259. or.

¹⁴³ “Errepublika”, *Eskualduna*, 1892ko martxoaren 4a.

Baina Louis Etcheverry –“bonapartista eta laikoa”¹⁴⁴–, ez zegoen ados Errepublikari onartzearekin; hori zela eta, sortu ziren “nolabaiteko hinki-hanka batzu”¹⁴⁵ Jean Hiriart-Urruty lankidea, Errepublikari onartu zuena, eta Louis Etcheberryren artean.

Aurrera jarraituz, *Eskualdunaren* lankideen buruhausteak ere ez ziren txikiak izan *Lois des Associations* legea -Apezpikutzaren eta Gobernuaren arteko akordioa zela eta. 1901ean Jauffret apezpikuak eskutitz bat kaleratu zuen delako legeari buruz, baita *Eskualdunak* adierazpenok kritikatu ere. *Eskualdunaren* kritikari erantzun zieten *Bulletin du Diocèse de Bayonne* agerkarian:

Monseigneur n'est pas sans remarquer les insinuations désobligeantes de l'*Eskualduna* à son endroit. / Il en a témoigné sa surprise de la part d'une telle feuille; ses attaques indirectes n'en continuent pas moins. Sa Grandeur nous disait qu'ils fallait pardonner, au profit de l'union qui devait régner entre tous les catholiques. / C'est bien peut-être parce que cette feuille s'est écartée de la ligne d'obéissance au Pape qu'elle reproche à l'Evêque de suivre, qu'elle a à émettre les plaintes de l'un de ses derniers numéros. Nous n'en faisons pas le remarque pour ouvrir un polémique; simplement pour exprimer un regret¹⁴⁶

Louis Etcheverryk haserrez erantzun zien *Bulletinekoei* ere, horrekin batera *Eskualduna* berriro ez argitaratzea erabakiz. Aldatu zuen gero erabakia eta *Eskualdunak* jarraitu zuen, baina Louis Etcheverryk zuzendaritza utzi zuen. Zuzendari berria Renaud d'Elissagaray izan zen, bi urtez.

Garai hartan Jean Hiriart-Urruty lankidea elkartu zen Nicolas d'Arcanguerekin (“ez bonapartista baina bai erregetiarra”¹⁴⁷) eta erabaki zuten astekaria eraberritzea, Hiriart-Urrutyk ez baitzuen gustuko Pochelou kudeatzailearen lana¹⁴⁸.

¹⁴⁴ “Euskal prentsak 100 urte bete ditu”, Euskal Kultura Urtekaria, *Argia*, 1987, 245. or.

¹⁴⁵ Ibidem.

Dena dela, Louis Etcheverryk gustuko zituen Hiriart-Urrutyk idatzitako saioak, *Eskualdunaren* lankide bihur zedin eskatzeraino.

¹⁴⁶ *Bulletin du Diocèse de Bayonne*, 19. zkia, Pierre Lafittek aipaturiko artikulua da, Lafitte, P.: *Euskal literatura...* aipatu liburua, 224. or.

¹⁴⁷ “Euskal prentsak 100 urte bete ditu”, *Argia*, 1987, 245. or.

¹⁴⁸ “astekarian erdara sobera kausitzen zuen, erreklama sobera; ez ziren sofri galarrotsak edo zezen-lasterrak aipa zezazten; ez zuen nahi ere besta-buruetako pilota-partidarik aintzinetik aipatzea, fededunak ez zirelakoan josteta horien gatik herriko bezperetarik zeiharkatu behar”, Lafitte, P.: *Euskal literaturaz...* aipatu liburua, 232. or.

Louis Etcheverry, oster, ez zen Hiriart-Urrutyren berrikuntzekin ados agertu¹⁴⁹; kontrakotasuna adierazteko ez zuen utzi astekaria *Eskualduna* izenaz izan zedin argitaratua. Beraz, 1904an *Eskualdun Ona* izen berria erabili zuten, Hiriart-Urrutyk bere gain hartuz astekariaren kudeaketa. Pochelouk, bere aldetik, 1905ean utzi zion diruzaingoa Monge gazteari¹⁵⁰.

Eskualdunak aro berri hartan izan zituen lankideen berri eman digu Lafittek: Jean Baptiste Constantin, de Menditte, Pierre Espil eta Armagnague xuberotarrak –irakurle zuberotarrak erakartzen saiatu zen Hiriart-Urruty¹⁵¹–, Michel Iriart, Julien Héguy, Michel Gombault, Etchegaray, Bidégaray, Jean Etchepare medikua, Charles Harispe, Martin Landerretche, Georges Lacombe, Jean Baptiste Daranatz, etab.¹⁵² Tamaina handiagotu egin zuten, mamia aberastu eta euskarari leku zabalagoa eskaini. Irakurleen kopuruak gora egiten jarraitu zuen: 1904an 1700 irakurle izan zituen, 5000 1905ean eta 7000 1908an¹⁵³.

Jean Hiriart-Urrutyk astekari berrituaren helburuak zehaztu zituen: irakurleenganako errespetua sustatu; eguneroko gaiak landu, nekazaritza alorrekoak bereziki; astekaria komunikabide kristaua izan zedin, baina ez klerikala; Etcheverryren hitz egiteko era bortitza aldatu eta hizkuntza ulerterraza erabiltzea¹⁵⁴.

1907an Louis Etcheverry hil zenean alargunak, senarraren omenez, izen zaharra erabiltzeko baimena eman zien *Eskualdun Onaren* arduradunei. Beraz, 1908an *Eskualduna* antzineko izena berreskuratu zuen astekariak.

Baina aurrera jarraitu baino lehen, aipa ditzagun beste gertaera batzuk, *Eskualdunaren* bilakaeraren parean gertaturikoak. 1897. urtearen inguruan, Pierre Broussaini, Parisen medikuntza ikasten ari zela, bururatu zitzaion *Société Patriotique Basque* elkarte eratzeari, ikaskide kebekiar nazionalistek eraginda; Broussainek Resurrección M^a de Azkueri azaldu zion burutapena¹⁵⁵. Elkarte abertzalea sortzearen aldekoa izan zen Albert Cons-

¹⁴⁹ “Euskal prentsak...” aipatu artikulua, 245. or.

¹⁵⁰ “*Herria* 25 Urte...” aipatu artikulua.

¹⁵¹ Xarritton, P.: Xarritton, P.: *Pierre Broussain...* aipatu liburua, 238. or.

¹⁵² Lafitte, P.: *Euskal literatura...* aipatu liburua, 234. or.

¹⁵³ Lafitte, P.: *Euskal literatura...* aipatu liburua, 235. or.

¹⁵⁴ Lafitte, P.: *Euskal literatura...* aipatu liburua, 230-232. orr.

¹⁵⁵ Jadanik 1897an honako eskutitz hau idatzi zion Broussainek Azkueri: “Lorsque tous les Basques instruits, clergé, avocats, médecins, notaires, commerçants industriels,

tantin¹⁵⁶ ere. Proiektua 1898an aurkeztu zuten, Larresoroko apazgaitegiako ikasle ohiei. *Société Patriotique Basque* elkarte berriaren espresabiderako *Eskualduna* aukeratu zuten; astekariaz jabetu behar izango zuten, beraz¹⁵⁷.

Baina 1901. urte hartan Broussain arduraturik zegoen aurrerago aipatuko dugun Euskal Akademia sortze lanaz eta *Société Patriotique* sortzeko proiektua alde batera utzi zuen¹⁵⁸.

1904ko martxoan *Eskualdunaz* jabetzeko asmoa berpiztu zuten, baita be-
rriro huts egin ere, eta behin betiko, Jean Hiriart-Urruty zuzendaria asmoaz
ohartu baitzen eta eragotzi. Alde izan zituen Hiriart-Urrutyk Larresoroko
apaizgaitegiko Abbadié, Jean-Blaise Adéma, Jean-Baptiste Daranatz eta Jean
Saint-Pierre gaztea¹⁵⁹, baita Arnaud Pochelu *Eskualdunaren* kudeatzailea ere,
Broussainen artikuluak zentsuratzeari ekin ziona¹⁶⁰. Beraz, Piarres Xarritto-
nek zehazten duenez, Broussain eta Constantin euskal abertzaleei nagusitu

comprendront vraiment les beautés de la langue basque, et n'auront recours qu'à elle dans leurs relations sociales et au foyer paternel, ce jour-là, l'idée nationale fera rapidement son chemin et les séparatistes, qui ne sont encore qu'une poignée, seront alors légion. Il faut être convaincu de cette vérité, à savoir que la langue est le meilleur véhicule des idées, et que dans les revendications nationales des peuples, langue et patrie se confondent"; Piarres Xarrittonek aipaturiko eskutitza, Xarritton, P., *Piarres Broussain...* aipatu liburua, 236. or.

¹⁵⁶ Honako hau erantzun zion Constantinek Broussaini: "Marchez sans crainte. Il y a beaucoup de nationalistes que nous ne pensons dans nos instants de découragement", Constantinek Broussaini idatzitako eskutitza, 1905eko maiatzaren 4an, Xipri Arbelbidek aipatutako eskutitza, Arbelbide, X., aipatu liburua, 42. or.

¹⁵⁷ Constantinek Broussaini bidalitako eskutitza, 1901eko maiatzaren 29a, Piarres Xarrittonek aipaturikoa, Xarritton, P.: *Pierre Broussain...* aipatu liburua, 278. or.

¹⁵⁸ Constantinek Broussaini idatzitako eskutitza, Tarbes, 1901ko ekainaren 1a, Piarres Xarrittonek aipaturiko eskutitza, Xarritton, P., *Pierre Broussain...* aipatu artikulua, 278. or.

¹⁵⁹ "Orduan frantsestu zen 'Eskualduna' gerra-atarian gaudelarik, eta 'Biba Frantzia' hartu zuen lema, Hiriart-Urruty hil arte (1914an)", "Euskal prentsak..." aipatu artikulua, 246. or.

¹⁶⁰ "J'ai envoyé à Pochelu le gérant d'*Eskualduna* un petit article à propos des faits que vous m'avez signalés. Mais Pochelu n'a inséré que le tiers à peu près de ma lettre, la partie qui relatait les mesures brutales prises par le gouvernement de Madrid. Il a supprimé tout le reste, c'est à dire les considérations patriotiques dont j'avais entouré l'énoncé de ces faits. Je parlais longuement de l'idée de "Zazpiak Bat", du chêne de Gernika, de l'Espoir qu'ont les vrais Basques dans la venue de jours meilleurs. Mais tout cela a paru sans doute trop dangereux au gérant de "Eskualduna" et il a cru bien faire en ne publiant qu'un morceau de la lettre", Broussainek Azkueri idatzitako eskutitza, Bilbao, 1898ko maiatzaren 17a; Xipri Arbelbidek aipaturiko eskutitza, Arbelbide, X., aipatu liburua, 40. or.

zitzaien Jean Hiriart-Urruty¹⁶¹, Jean Baptiste Daranatz eta Jean Saint-Pierre erregionalista frantziarrak¹⁶².

Jean Hiriart-Urruty *Eskualdunaren* zuzendaria izan zen 1891tik 1915era. Astekariaren hainbat lankidek ezin zuten jasan Jean Hiriart-Urruty ardurasuegia¹⁶³: *Eskualdun*era heltzen ziren artikulu guztiak berrikusten zituen eta bere ustezko gramatika huts guztiak zuzentzen. Horrela, Hiriart-Urruty hil zenean eta Jean-Blaise Adémak *Eskualdunaren* zuzendaritza hartu zuenean, idazle batzuk maizago idatzi zuten *Eskualdunan*, hala nola Jean Etcheparek eta Jean Saint-Pierre. Bide batez, hona hemen Piarres Lafitteren iritzia Jean Etchepareren idazkerari buruz:

M. Etchepare essaya tous les genres et réussit; plus plein que M. Hiriart-Urruty, moins dur que M. Abadie, il avait l'aimable fantaisie du premier, la syntaxe audacieuse et un peu tourmentée du second et l'emportait sur tous par la richesse rare de son vocabulaire¹⁶⁴.

Jean Blaise Adéma 1918ean izendatu zuen kalonje Gieure apezpikuak¹⁶⁵, baina *Eskualdunaren* zuzendari ere ("le Conseil d'Administration l'a prié d'assumer la direction effective et totale de l'Eskualduna"¹⁶⁶). Jean-Blaise Adéma, Gratien Adéma "Zaldubi"-ren iloba, *Eskualdunaren* lankidea izan zen, zuzendari izendatua izan baino lehen. Izendapena Hiriart-Urruty hil zenetik hiru urtera burutu zen, beraz. Tartean Jules Moulier "Oxobi"-k egin zuen posible astekaria kalera zedin, zuzendari izan barik.

¹⁶¹ Jean Goyhenetchek adierazi duenez, Jean Hiriart-Urruty bazen euskalzalea, baina "professe un nationalisme français, cocardier, réactionnaire"; Goyhenetche, J.: "Idéologies culturelles et espace social en Pays Basque de France à la veille de la première guerre mondiale", *La production sociale des espaces*, C.N.R.S., 87. or.

¹⁶² Xarritton, P.: *Pierre Broussain*,... aipatu liburua, 35. or.

¹⁶³ Piarres Xarrittonekin izandako elkarrizketa, Bilbo, 2001eko urtarrilaren 25ean.

¹⁶⁴ Lafitte, P.: "Notre maître: M. le Dr. Etchepare", *Gure Herria*, 1932, 259. or.

¹⁶⁵ Françoise Marie Gieure (Castets-des-Landes, 1851-1937) apezpikuaz honako informazio hau ematen digu *Enciclopedia Ilustrada del País Vasco*: "Su temperamento autoritario hizo que se le apodara "le Colonel" y que fuera calificado de "prelat bonapartista par temperament et bienveillant aux royalistes par calcul"... Sus intervenciones públicas, como el mitin antigubernamental de 1924 con el diputado Ybarnegaray y el alcalde Istillart, coadyuvaron a proporcinarle la fama de obispo político que no había de abandonar en todo su episcopado. Tomó posición por las lenguas minoritarias habladas en su diócesis. Sus pastorales fueron acogidas con esperanza en los medios vasquistas por tratarse del primer documento en su género en euskera", *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, A, XVI. liburua, 63. or.

¹⁶⁶ La Conseil d'Administration: "A l'Eskualduna", *Eskualduna*, 1918ko irailaren 6an.

Oronosek azpimarratu duenez, Adémaren izendapenarekin apezpikuak lehenengoz hartu zuen parte *Eskualdunaren* zuzendariaren hautaketan¹⁶⁷; eta ordutik aurrera Baionako apezpikuak *Eskualdunaren* zuzendari guztiak izendatu zituen, hau da, Jean Saint Pierre, Domingo Soubelet eta Xalbat Arotçarena.

Euskara argia eta zuzena ei zuen; batzuek Adémaren hizkera nahiago zuten, Hiriart-Urrutyren euskara ulergaitza baino¹⁶⁸.

Gerra garai hartako *Eskualdunak*, herritarrek adoretu zituen gehiago produzitzeko eta aurrezteko (“Produire et épargner sont les devoirs de l’arrière”¹⁶⁹). Beste aldetik, Soldaduen egitekoa goraiatzearekin batera¹⁷⁰, hauen egoera eta premiak azaldu zituzten, hala nola, Jean Elissalde “Zerbitzari”-k¹⁷¹; Jean Etcheparek eta Jean Saint-Pierrek *Eskualduna* soldaduei bidal ziezaian eskatu zuten: “Etchean irakurtu eta igorazazue Eskualduna soldadoeri”¹⁷¹. Iheslariak gaitzetsi egin zituen¹⁷²; horrela, Gobernu frantziarrak desertzioa zigortuko zuen legea kaleratzera zihoanean, *Eskualduna* lege horren alde agertu zen: “Si cette loi avait été déjà votée, il y aurait eu moins de défailances”¹⁷³.

Gerra amaiturik, eta ekonomiaren egoera latzak eraginda, astekariaren tamaina txikitu behar izan zuten, baita orri bakarrean argitaratu ere. Baina urritasun egoerak aldakuntzen beharra sorrarazi zuen idazle askorengan¹⁷⁴. Horrela gerratik itzuli ziren hainbat lankidek –gerlari ohiak– *Eskualduna* eta Adémarengandik urrundu nahi izan zuten¹⁷⁵, gerrak erakarritako zailtasunez gain, gerlari ohi horiek ez zutelako Adema gogoko¹⁷⁶. Piarres Xarrittonek

¹⁶⁷ Lafittek berak horri buruz hitz egin du: “Effectivement il est souvent arrivé que l’Evêque ait nommé un Directeur de *Eskualduna*. Le premier ainsi désigné a été Adéma. Il y avait un Comité, déjà. C’était un certain d’Arcangues qui en était le Président. Il est possible que tout se soit arrangé entre lui et l’Evêque”, Michel Oronosek Piarres Lafittekin izandako elkarrizketa, Ustaritz, 1981ko urriaren 26an; Oronos, M., aipatu liburua, 80-82. orr.

¹⁶⁸ “Herria 25 Urte...” aipatu artikulua.

¹⁶⁹ “Pour la victoire”, *Eskualduna*, 1918ko otsailaren 8.

¹⁷⁰ “Jaun apezpikuaren letra”, *Eskualduna*, 1918ko otsailaren 15a.

¹⁷¹ Zerbitzari: “Gerlarien-berri”, *Eskualduna*, 1918ko otsailaren 18a.

¹⁷² “Eskual-Herri”, *Eskualduna*, 1918ko otsailaren 8a.

¹⁷³ “Eskual-Herri”, *Eskualduna*, 1918ko otsailaren 8a. Behin gerra amaiturik, *Eskualduna* kontra agertu zen gerratik ihes egin zutenak herrian berriro sartzen utzi orduko, “Nor sar-araz?”, *Eskualduna*, 1924ko uztailaren 25a.

¹⁷⁴ “Herria. 25 urte”, *Herria*, 1969.

¹⁷⁵ Xarritton, P.: “Eskualdunaen mendeurrena Baionan”, *Euskera*, 1987, 249-259. orr.

¹⁷⁶ Piarres Xarrittonekin izandako elkarrizketa, Bilbo, 2001eko urtarrilaren 25ean.

azaldu duenez, alde batetik, belaunaldi diferentekoak ziren, ikasle-irakasleen arteko haustura nabaritzen; baina bereziki, gerran egon izanak sortu zuen sentimendu berezia izan zen gerran egondako lankideak besteengandik urrundu zituena¹⁷⁷. Aurrerago ikusiko dugunez, *Gure Herria* aldizkari kulturala banaketa horren ondorioz sortu zen.

1924an Jean-Blaise Adémak zuzendaritza utzi eta Jean Saint Pierre izendatu zuten *Eskualdunaren* zuzendari. Eta beti legez, zuzendari berriarekin batera idazle berriak sartu ziren astekarian, hala nola Piarres Lafitte.

Hain zuzen ere, Piarres Lafittek *Eskualdunan* 1921ean lehenengoz idatzi bazuen ere, Saint Pierrekin¹⁷⁸ hasi zen Lafitte erregulartasunez idazten, 1925ean: 82 artikulua argitaratu zituen Saint Pierren bost urtetako zuzendaritzapean. Lafitteren garai hartako lankideak hauek izan ziren: Laurent Apestéguy, Jean Barbier, Louis Dassance, Dominique Dufau, Pierre Duhour, Jean Elissalde “Zerbitzari”, Jean Etchepare, Goyheneche, Julien Hégu, Michel Iriart, Gratien Istilart, Leon Léon, Jules Moulrier “Oxobi” eta Maurice Otacéhe¹⁷⁹. Garai emankorra izan zen produkzio idatziari dagokionez, orduko *Bloc de gauche* elkartasun politiko ezkertiarrek erlijioari kontra egin ziolako *Eskualdunako* idazleak erlijioaren alde idaztera bultzatu zituen.

Hala ere, 1929ko abuztutik 1933ko abendura arteko *Eskualdunak* jaso zituen Lafitteren lan gehienak, zeren eta Michel Iriartek, Uztaritzeko erretoreak, “Ebanjelio” izenburuko artikulua prestatzen baitzuen *Eskualduna* astekarirako eta 1929an hil baitzen, Piarres Lafitte bilakatuz Iriarteren ordezkari¹⁸⁰.

1930ean Jean Saint Pierre Carthageko artzapezpikuaren laguntzaile izendatu zuten eta Dominique Soubelet *Eskualdunaren* zuzendaritzarako

¹⁷⁷ “guk egin dugu gerla, guk irabazi gerla, eta zuek hor, ‘à la arrière’, erraiten zuten bezala, zuek atzetikan, hor lasai bizi izanak. Horrek azaltzen du, behar bada, gure *Eskualduna* ari zela galtzen, zuhurtzen”, Piarres Xarrittonekin izandako elkarrizketa, Bilbo, 2001eko urtarrilaren 25ean.

¹⁷⁸ *Eskualdunaren* zuzendari izendatu zutenean, Jean Saint Pierre astekariaren lehenengo orrialdean hasi zen idazten, J.S.P.-z sinatuz. Politika eta ekonomia gaiak jorratu zituen, baita herrietako gertakizunen berri eman ere bigarren edo hirugarren orrialdeetan.

¹⁷⁹ Aipatu idazleak *Eskualdunaren* garaiko orrialdeetan aurkitu ditugunak dira. Hala ere, “Herria 25 urte” artikuluan ere aipatzen dira: Donech, Larrieu eta Valence, guk geuk Jean Saint-Pierre zuzendaria izan zeneko *Eskualdunan* aurkitu ez ditugunak.

¹⁸⁰ Xarritton, P.: *Jean Etchepare mirikuaren (1877-1935) idazlanak. I Euskal Gaiak*, 1984, Donostia, Elkar, 351. or.

aukeratu, kalonje bilakatzearekin batera. Soubelet zuzendariak astero idatzi zuen *Eskualdunaren* lehenengo orrialdean: ordura arteko ohiturari jarraituz, Soubeletek apezpikuaren hitzak goratu egin zituen, Espainiako Errepublikari arbuia, soldadu frantziarrak adoretu, etab. Piarres Lafittek ia zenbaki guztietan idatzi zuen Ebanjelioaz; liburu berrien aurkezpena ere egin izan zuen noizbehinka, P.L. sinaturik. Hala ere, esan beharra dago Lafittek ez zuela harreman handirik izan Soubeletekin; izan, ere Lafitte “aurrezalea zen eta abertzalea” eta Ybarnégaray “ultraybarnegaraista eta frantses-frantsesa”¹⁸¹.

Horrela, atzerriko politikari dagokionez, Soubeleten garaiko *Eskualdunak* Frantzia eta Italiaren arteko hitzarmenaren alde agertu zen¹⁸², Hitlerrek boterea eskuratuko zuen beldur baitzen¹⁸³. Tokiko politikaren alorrean, *Eskualdunan* Ybarnégaray aurkeztu zuten euskal politiko eta hizlari ezin hobe bezala, idealizaziora eramateraino:

C'est devant une assistance fatiguée par de trop longs discours que notre député basque Jean Ybarnégaray a fait entendre sa remarquable interpretation. Fermeté du ton, logique du raisonnement, ironie mesurée, éloquence du débit, tout dans cette intervention révèle le grand orateur¹⁸⁴.

1937an Soubeletek zuzendaritza utzi zuen, gaixorik baitzegoen, eta Xalbat Arotçarenak hartu, martxoaren 24an (“euskalzale argitsu eta sutua izan arren, *Action française*n pentsakeratik hurbil zegoena”)¹⁸⁵.

Xalbat Arotçarena *Eskualdunaren* lankidea zen Soubeletek astekariaren zuzendaritza hartu zuenetik¹⁸⁶. Piarres Lafittek gustuko izan zuen Arotçare-

¹⁸¹ Piarres Xarrittonekin izandako elkarrizketa, Baiona, 1996ko uztailaren 6a.

¹⁸² “L'amitié Franco-Italienne”, *Eskualduna* 1932ko martxoaren 18a.

¹⁸³ “Sekulan ez du Frantziak orai baino armada azkar baten beharra izan. Alemaniak Hitler nausi jarriz geroztik, ez du bertzerik asmatzen baizik eta gerlaren berriz phiztea”, “Berriak. Frantzia. Egon gaiten azkar”, *Eskualduna*, 1933ko irailaren 1a.

¹⁸⁴ “Vibrante interpellation du député basque Ybarnégaray”, *Eskualduna*, 1934ko urtaririlaren 19a.

Era berean: “Il est de droite parce qu'il représente à la Chambre une foi et des traditions comme il n'en fleurit qu'au Pays basque, à l'ombre dorée de ses sanctuaires, sous le signe d'une piété sans apprêt, sans trouble, simple et nue comme la pierre dépouillée de ses cimes”, *Eskualduna*, 1932ko irailaren 30a.

¹⁸⁵ Oronos, M., aipatu liburua, 73. or.

¹⁸⁶ “Herria 25 urte” artikuluan lankide gehiago aipatzen dituzte Soubeleten garaian idatzi zutenen artean: Athor, Dirassar, Esperne, Etcheverry Milafrankako erretorea, J.-B. Etcheverry, Iturbide, Lompagueu eta Olhagaray; “Herria 25 urte” aipatu artikulua.

naren idazkera, Jean Saint-Pierreren “pindarra”, Jean Etchepareren “indarra” edota Jean Hiriart-Urrutyren “bizitasuna”¹⁸⁷ ez bazuen ere:

eskuara tinko bat bazerabilan, hitz alferrik gabea, bainan bere motzean aberats eta lore. Egia erran, ez zuen bethi errexia; bainan, hartuz geroz, ezin utzia zen. Bethi danik haren mintzaiari jaun-aire bat atxeman diot... bihoz-zari edo sendimenduari baino nahiago zitzaion gogoari lotu, eta arrazoinka laket zuen¹⁸⁸.

Berriro ere komunismoarekiko zuten beldurra agertu zuten:

Egungo-egunean, gehiago ezin ukhatuzko gauza ez othe da: komunista guri bihotzeko phisu-minenen trenkatzerat doala... Komunistak mehatchatzen dituela oro, bai Herria, bai familia, bai erlisionea, bai bakea!¹⁸⁹.

Arotçarenaren garaiko *Eskualduna* Francoren alde agertu zen¹⁹⁰. Horrela, Frankistek Bilbo hartu zutenean, honako lerro hauek argitaratu zituzten aste-karian:

Bilbaoko jendea alegera zen Francoren soldadoak ikustearekin... Zer atsekabe guretzat eskualdunak ikustea, komunikatekin eskuz ikustea, tresna be-rak eskuetan, Francoren soldadoen kontra... Bazutena arrazoinik aski komuniz-teri laguntza emaiteko? Hori bertzerik da. Guri hasteko ez iduri... Eskualdun guziak eman balire Francoren alde, Gipuzkoakoak eta Bizkaiakoak, Alabakoak bezala guri iduri odol gutiago izanen zela Espainian¹⁹¹.

Atzerriko politikarekin jarraituz, eta Bigarren Mundu-Gerraren urteak zirelarik, astekariak bat egin zuen Frantzia ezarritako Vichyko gobernu nazi zalearekin; Vichyn sorturiko *Milice Française* ere aintzat hartu zuen¹⁹². Era berean, gobernu horren burua zen Pétainen pentsabidearean jarraitzailea izan zen orduko *Eskualduna*; Gobernu horren *Révolution Nationalak*¹⁹³ aldarrika-

¹⁸⁷ Lafitte, P.: “Galtze handi bat: Arotçarena jaun kalonjea”, *Herria*, 1966ko ekainaren 30a.

¹⁸⁸ Ibidem.

¹⁸⁹ S. A.: *Eskualduna*, 1937ko apirilaren 9a.

¹⁹⁰ “Eskualduneri Francoren hitzak”, *Eskualduna* 1937ko azaroaren 28a.

¹⁹¹ “Auzo erresumetan”, *Eskualduna* 1937ko uztailaren 2a.

¹⁹² S. A.: “Bihotzetik gure agurra igortzen diogu Baionan jarri berri zaukun “La Milice Française” horri, esperantcha baitugu... gizontasuna... garbitasuna derauzkula gure choko huntarat ekharten”, *Eskualduna*, 1944ko ekainaren 23a.

¹⁹³ S. A.: “Bihotzez Marechalarekin”, *Eskualduna* 1942ko maiatzaren 1a.

tu zuen “lana, familia eta aberria” leolari atxiki zitzaion *Eskualduna*, irakurle guztiak adoretuz Frantziaren batasunaren alde¹⁹⁴.

Vichyko gobernuzaleak izanda, *Eskualdunaren* lankideek itxaropentsu espero zuten Alemaniaren garaipena:

Beraz salbamenduraz heltzeko bide bakhar bat dugu... Bide eta athe bakhar bat, ez biga... Zombat erresuma komunismoaren pozoin latzgarriak pozoindaturik daduzkanak¹⁹⁵.

Aurreko parrafoan ikusten dugun legez, Arotçarenak Alemaniaren zuen ikuspuntua oso bestelakoa zen 1933an agertutakoarekin konparatuz. Izan ere, bederatzi urte lehenago beldurra zena itxaropen bihurtu zen Bigarren Mundu-Gerraren garaian. Komunismoaren eraginetik babesteko agertu zuen Arotçarenak Alemaniarekiko iritzi berria; baliteke gerrako garailearekin adiskidetu beharrak eramatea Arotçarena iritzi aldatzera. Izan ere, Euskal Herria alemanen menpean zegoen eta alemanen kontra agertu izanak astekariaren debekua eta lankideen atxiloketa ekar zitzaizkeen. Bide batez, esango dugu, gerra amaitu zenean, eta Alemania galtzaile gertaturik, *Eskualduna* debekatu izan zela eta Arotçarena atxilotua.

Zioak zio, Alemanenganako begikotasun hori zela eta, *Eskualdunaren* irakurle asko kazetaren etsai bilakatu ziren eta salmenten kopuruak beherantz egin zuen, 2.200 aleraino jaitsiz¹⁹⁶.

Piarres Lafittek ere, Arotçarena *Eskualdunaren* zuzendari izendatzearekin, asko murriztu zuen astekarirako lana: hamabost artikulua baino ez¹⁹⁷. Hona ekarri beharko, hala ere, Piarres Xarrittonen hitzak: “Konturatu naiz Lafitte izan dela bere moduan Vichyzale”¹⁹⁸. Izan ere, Xarrittonek egiaztatu du, Vichyko gobernuaren denboran, Lafittek eta Arotçarenak batera agertu zutela Frantziaren eskualdekatzearen nahia. Biek parte hartu zuten *Eskualdunan* hasitako kanpainan, Euskal Herriaren nortasuna onartua izan zedin, dokumentu berbera sinatuz; Arotçarenak adiskide ere deitu zuen Lafitte. Gure ustez, Lafittek Arotçarenarekin batera sinatu zuen artikulua bat *Eskualdunan*,

¹⁹⁴ S. A.: “Hitz bakhar... bi sentsu”, *Eskualduna*, 1942ko urtarrilaren 23a; S. A.: “Révolution Nationale”, *Eskualduna*, 1942ko maiatzaren 19a; S. A.: “Révolution Nationale”, *Eskualduna* 1942ko abuztuaren 7a.

¹⁹⁵ S. A.: “Utz haurkeriak”, *Eskualduna*, 1942ko urriaren 16a.

¹⁹⁶ “Herria 25 urte...” aipatu artikulua.

¹⁹⁷ Ikus Eranskina.

¹⁹⁸ Murua, I., aipatu artikulua, 101. or.

Euskal Herria beste lurraldeekin elkartu barik eskualde bilaka zedila eskatzeko kide bakarra izango zela ikusi zuelako.

Edonola ere, Lafitte eta garaikideek artikulua ugari idatzi zituzten *Eskualdunan*, garaiko produkzioa biltzen duen lauki honek erakusten duen bezala:

Bigarren laukia. *Eskualduna* aldizkariaren lankideak eta artikuluen kopuruak 1921etik 1940ra bitartean:

Lankideak	<i>Eskualduna</i> ¹⁹⁹ (1921-1940)	Adina 1940an	
Dufau, Dominique	3		
Héguy, Julien	3	†1930	70
Larzabal, Pierre	5		25
Camino, A.	6		
Echegoyen, D.	8		
Arbeletche, H.	9		
Lassalle, Leon	9	59	
Ybarnégaray, Jean	11		57
Minvielle	13		
Leon, Léon	15		44
Iriart, Michel	19		
Dassance, Louis	22		52
Istillart, Gratien	35		76
Souberbielle, Maurice	56		67
Goyheneche	69		
Barbier, Jean	79	†1931	56
Moulier, Jules	82		52
Apestéguy, Laurent	109	†1928	41
Etchepare, Jean ²⁰⁰	121	†1935	58

.../...

¹⁹⁹ Ez dugu *Eskualdunaren* 1920ko alerik aurkitu, ez Belokeko, ez Baionako ezta Euskal Museoko liburutegietan ere.

²⁰⁰ Jean Etcheparek *Eskualdunan* idatzi zituen artikulua antzemateko oso lagungarria izan zaigu Pierre Charrittonen liburua: *Etchepare mirikuaren idazlanak (1877-1935)*. *Euskal Gaiak*, Donostia, 1984.

.../...

Lankideak	<i>Eskualduna</i> (1921-1940)	Adina 1940an
Menditte, A. de	129	
Elissalde, Jean	159	57
Saint-Pierre, Jean	180	56
Lafitte, Piarres	242	39
Arotçarena, Salbat	248	
Irigarai, Pablo Fermín	366	71
Soubelet, Dominique	370	43
Otacéhé, Maurice	428	
Duhour, Pierre	458	50

Elaborazio propioa, *Eskualduna* aldizkarian oinarrituta.

Eskualdunan idatzitako artikuluen kopuruez gain, laukian azaldu nahi izan dugu *Eskualdunaren* lankideengandik zenbat eta nortzuk idatzi zuten *Société des Sciencies, Lettres et Arts de Bayonne* aldizkarian ere. Konturatu gara, hala ere, *Eskualdunaren* lankideetatik inork ez zuela *Société* argitalpenean artikulurik idatzi 1920. eta 1930. hamarkadetan.

Beste aldetik, *Eskualdunan* idatzi zuten 28 idazleetatik 18ren jaiotze data ezagutzen dugularik, guztiak Lafitte baino zaharragoak ziren, hogeita bost urteko Pierre Larzabal izan ezik. Hala ere, artikuluen kopuruari begiratuz gero, 1940an bost idazlek baino ez zuten Lafitte gainditzen *Eskualdunan* argitaraturiko artikuluen kopuruari dagokionez.

Argi dago, beraz, Lafitte ia gazteena bazen ere, intelektual emankorrenetariko bat izan zela 1920. eta 30. hamarkadetako *Eskualdunan*. Artikulurik gehienak Ebanjelioari buruzkoak ziren, baina argitaratu zituen euskal hizkuntzari buruzko artikulua ere, liburuen aurkezpenak eta poemaren bat.

II.4. Eskualzaleen Biltzarra

XIX. mendearen amaieran pentsamolde positibista nagusitu eta erromantizismoa baztertua izan bazen ere (gogoratu “sociétés savantes”-en garapena, ezagutza objektiboaren aitzindariak), XX. mendearen hasiera berrikun-

tza ekonomikoek bereizi zuten, industrializazioa eta hirigintza bilakatu baitziren. Euskal Herrian, ohitura zaharrak kolokan jarriko ziren beldurra sortu zuten berrikuntzok (gogoratu euskaldunen pentsamolde kontserbadorea ere), neurriak hartzera bultzatuz, hala nola, 1902ko irailaren 11n Eskualzaleen Biltzarra elkartearen sorrera.

Eskualzaleen Biltzarra sortzeko aurrepausoa izan zen Hendaian buruturiko ortografia-kongresua, 1901eko irailaren 16an. Hendaiaiko bilera Guilbeau errepublikarrak prestatu zuen, Arturo Campion eta Gratien Adéma tradizionalistaren onespenerekin; “euskararen inguruan zebiltzan belaunaldi, ideologia eta herrialde guztietako pertsonak hurbildu ziren Hendaia 1901eko irailean”²⁰¹. Batzar hartan Batzorde Iraunkorra sortu zuten: Gratien Adéma “Zaldubi” buru, Arturo Campion eta Sabino Arana buruorde, Martin Guilbeau idazkari eta Léon Hiriart diruzain. Erabaki zuten hurrengo urtean Hondarribian elkartzea ere batasun ortografikorako bideak ezartzeko, alde batetik, eta *Fédération Littéraire Basque* elkarte literarioa sortzeko, bestetik. Era berean, Piarres Broussain eta Resurreccion M^a Azkue batzarkideek azpimarratu zuten bereizirik sortu behar zirela euskararen ortografia estandarizatuko lukeen Akademia eta Federazio literarioa ²⁰².

Aranak, iraileko bilera hartan parte hartu ez bazuen ere –gaixorik baitzegoen–, jean Pierre Arbelbide lehendakari izendatzea proposatu zuen, Adéma adintsuaren ordez; ados agertu zen Pierre Broussain proposamenokin, eta bereziki Arbelbide Adémaren ordezkoa izatearekin. Izan ere, Broussainen ustez, Resurreccion M^a Azkue gazteegia zen buru izateko eta Arana, Campion eta Guilbeau politika gizonak izandakoak ziren, eta ez ziren egokiak akademia berriaren buruak izateko:

Podrían intimidar y tener lejos de nosotros a muchos de nuestros compatriotas de las dos márgenes del Bidasoa²⁰³

²⁰¹ Kintana, J.: *Vizcaytik Bizkaira?*, Euskaltzaindia-BBK Fundazioa, 2002, 80. or.

²⁰² “l’Académie basque devra rester absolument indépendante de la Féd. Litt. Basque, la première s’occupant de l’étude de la langue et de l’unification des dialectes et la seconde de la conservation et de la diffusion de l’euskara... La F.L.B. est une association destinée, ce me semble, à durer et à prendre un grand développement, tandis que le Congrès pour l’orthographe est une association provisoire qui est née au mois de Septembre à Hendaye et qui mourra l’an prochain à Fontarrabie”, Broussainek Azkueri bidalitako eskutitza, Hazparren, 1901eko irailaren 30a; Irigoien, A.: “Del epistolario de R. M. de Azkue” *Euskera*, 1957, 362. or.

²⁰³ Pierre Broussainek Jean Pierre Arbelbideri bidalitako eskutitza, *Obras completas de Arana-Goiri'tar, Sabin*, III. Liburukia, Sendoa, Donostia, 1980, 2115. or.

Arbelbidek eskaintzari uko egin zion, ostera, gai ez zelakoan²⁰⁴.

Hendaiako bileran erabaki zuten moduan, Sabino Arana arduratu zen Hondarribirako deialdia egunkarietara bidaltzeko. Idazkia bidali zuen honako hauek sinaturik: Gratien Adéma buruak²⁰⁵, Arturo Campionek eta Aranek berak –buruorde bezala azken biek–, Guilbeau idazkariak eta kide batzuk: Domingo Aguirre, S. Albizuri, Estanislao Aranzadi, Artola, Felipe Arrese Beitia, J. Arrospide, Resurreccion M^a Azkue, Pierre Broussain, Albert Constantin, Jean-Baptiste Daranatz, Alexis Dourisboure, Simon Durruty, Hatan, Léon Hiriart, Jean Hiriart-Urruty, Iturralde y Suit, P. Izpitzua, Juvenal, Landerretxe, J. Larrea, Lassalle, Serapio Mugica eta Sallaberryk.

Deialdia euskaltzale ikasi zein ez- ikasiei zabaltzeko asmoa zuen Aranak, hau da, euskara maitatzen zuten guztiei. Hala ere, hainbat batzarkide ez zegoen ados deialdia euskaltzale ez ikasiei bidaltzeaz. Horrela, Guilbeauk Daranatzi honako hau adierazi zion:

¿No sería bien redactar una protesta en nombre de los firmantes que Arana hace figurar debajo de su documento tan extraño?²⁰⁶

Horrela, Aranaren ikuspuntik Guilbeau izan zen gatazka hasi zuena:

Ya no es fácil predecir en qué parará este conflicto que M. Guilbeau provoca²⁰⁷

Azkuek ere Aranarekiko desadostasunaren berri eman zion Guilbeauri:

Estos días he leído con asombro en su periódico la llamada que se hace a los vasquistas, ¿Quién ha dado mandato a algunas de su firmas?²⁰⁸

²⁰⁴ Ibidem.

²⁰⁵ Adémak Eskualzaleen Biltzarraren buru izaten utzi zuenean, 1903 urtean, Arturo Campion bilakatu zen buru, 1906. urte arte; Jean de Jaugain izan zen hurrengo burua; 1908an Julio de Urkijok ordezkatu zuen. 1911n Georges Lacombe izendatu zuten Eskualzaleen Biltzarraren burua, 1912tik 1920ra Etienne Decrept, José Eizagirre 1922. urte arte, Jean Etchepare 1926. urte arte eta Louis Dassance 1959 arte; Dassancen jarraitzailea Michel Labéguerie izan zen eta 1980an hil zenean Michel Itçaina bilakatu zen Eskualzaleen Biltzarraren buru.

²⁰⁶ Martin Guilbauk Jean Baptiste Daranatzi bidalitako eskutitza, *Obras completas de Arana-Goiri'tar, Sabin*, III. liburukia, Sendoa, Donostia, 1980, 2116. or.

²⁰⁷ *Obras completas de Arana-Goiri'tar, Sabin*, III. liburukia... aipatu liburua, 2131. or.

²⁰⁸ Ibidem.

Hala ere, Azkuek ez zuen Arana Akademia eratzeko proiektutik baztertu:

J'aimerais autant que Sabino Arana n'assistât pas à notre petit conciliabule. J'ai peur de son intransigeance et de son exclusivisme. Bien entendu, il fera partie de l'Académie²⁰⁹

Era berean, Arturo Campion Aranaren jokabidearen kontra agertu zen:

El Sr. Arana se mueve con un objeto preconcebido, el de imponer su sistema ortográfico, no con los votos de la razón, sino con la razón de los votos... Pero debemos proceder con mucha circunspección, para que no nos eche a nosotros la culpa del fracaso. Esto busca, si no se sale con la suya... Las decisiones que adoptase un Congreso cuya mayoría la compusiesen aranistas, no reflejaría la opinión científica general²¹⁰

Izan ere, zabalduriko deialdiarekin Aranak asmoa zuen asmatu zeukan sistema ortografikoa onartua izan zedin Hondarribian burutuko zen kongresuan; horretarako 320 jarraitzaile joanaraziko zituen kongresura.

Aranaren asmoekiko desadostasun horiek zirela eta, Arbelbide, Broussain, Campion, Daranatz eta Darricarrièrek Hondarribiko kongresua atzeratzea proposatu zuten. Arana ere prest agertu ei zen jokamoldea akademikoago bihurtzeko²¹¹. Adema lehendakariak eta Guilbeau idazkariak, ostera, kongresua burutzea erabaki zuten, eta burutu egin zen; Sabino Aranak ez zuen bileran parte hartu (1902ko irailaren 11n atxilotu egin zuten).

1902ko kongresu gatazkatsu hartan ez zuten euskal ortografiaz jardun. Federazio literarioa sortu bai zuten, ostera, Eskualzaleen Biltzarra deituko zutena. Honako kide hauek ziren Zuzendaritza Batzordea osatu zutenak: Gratien Adema zuzendaria, Arturo Campion eta Sabino Arana buruordeak, Martin Guilbeau idazkari orokorra, Jean-Baptiste Diriarth diruzaina eta Jean-Baptiste Daranatz idazkari adjuntua; aholkulariak: Jean-Pierre Arbelbide, Resurreccion M^a Azkue, Pierre Broussain, Juan Carlos Guerra, Dámaso Lagaz eta Gregorio Mujika.

²⁰⁹ "Del epistolario de R. M. de Azkue", *Euskera*, 1957, 361. or.

²¹⁰ *Obras completas de Arana-Goiri'tar, Sabín*, III. liburukia... aipatu liburua, 2117-2118. orr.

²¹¹ Kintana, J.: *Vizcaytik Bizkaira?*... aipatu liburua, 81. or.

Hondarribiko bilera hartan zehaztu zuten bezala, Eskualzaleen Biltzarraren helburu nagusia euskara zaindu eta hedatzearen alde lan egitea izango zen.

Horrela, 1904ko bileran Serapio Mujicak euskararen batasun ortografikoa aurkeztu zuen Biltzarraren premiazko helburutzat, Charles Petite damu zen bitartean Jauffret apezpikuaren ukapenaz euskara apaizgaitegietan irakatsia izan zedin²¹².

1909an deia zabaldu zuten kideen artean hitz zaharrak bil zitzaaten, Julio Urquijok *Revista Internacional de los Estudios Vascos* aldizkarian argitaratu zitzaion²¹³. Era berean, 1910ean lehendakariak eskatu zion Biltzarrari ezagutarazteko hildako pertsona ezagunen izenak, marmolezko harri batez ohortuak izan zitezkeen; hain zuzen ere, 1910ean Arnaud Oihenart, Jacques Bela eta Agustin Chaho ohoratu zituzten²¹⁴. 1910ean ere Gieure apezpiku berriaren jarrera nabarmendu zuten, baimena eman baitzuen Apaizgaitegian euskara irakatsia izan zedin²¹⁵.

Pierre Broussainen euskalkien ezagutza handia laudatu zuen Etienne Decreptek 1920an²¹⁶; eta 1928an euskal idazleei laguntza eskaintzeko eskaera egin zuten *Eskualzaleen Biltzarra* aldizkarian, euskararen erabilera egokiaren eredu batziren idazleak²¹⁷.

Baina euskararen erabilera bultzatzeaz gain, euskaltasunaren pizkundea ere hartu zuen helburu Eskualzaleen Biltzarrak. 1905ean Biltzarrak bat egin zuen Antton d'Abbadieren Euskal Jaien asmoekin, euskara eta euskal ohiturak zaintzeaz gain, "ahalaz geroago eta barnago erroak sar-araziz"²¹⁸; eta Arturo Campionek hasiera eman zion 1904ko batzarrari, Jules Salaberry eredu bezala aurkeztuz: "pour ceux qui veulent avoir à coeur de ne point laisser disparaître notre nationalité"²¹⁹.

²¹² *Congrès Basque (Eskual-zaleen Biltzarra)*, Imprimerie A. Lamaignère, Baiona, 1905, 2-3. orr.

²¹³ *Eskualzaleen Biltzarra*, Honoré Champion éditeur, Paris, 1910, 2. or.

²¹⁴ *Eskualzaleen Biltzarra*, Honoré Champion éditeur, Paris, 1911, 3. or.

²¹⁵ Landerreche, Martin: "Euskarari nola iraupena eman", *Eskualzaleen-Biltzarra*, Honoré Champion éditeur, 1911, 8-9. orr.

²¹⁶ *Eskualzaleen-Biltzarra*, Baiona, Imprimerie du Sud-Ouest, 1921, 9. or.

²¹⁷ Etchepare, J.: "Gure xedeak", *Eskualzaleen-Biltzarra*, Imprimerie S. Sordes, Baiona, 1923, 7. or.

²¹⁸ Etchepare, J.: "Gure xedeak", *Eskualzaleen-Biltzarra*, Imprimerie S. Sordes, Baiona, 1923, 8. or.

²¹⁹ *Congrès Basque (Eskual-zaleen Biltzarra)*, Imprimerie A. Lamaignère, 1905, 1. or.

Izan ere, Eskualzaleen Biltzarra XX. mendearen hasieran sortu zuten, hain zuzen ere nazionalismoak indarra hartzen ari ziren garaian, hala nola nazionalismo frantziarra eta alemaniarra²²⁰. Euskal abertzaletasuna hala-hola garatu zen, nazionalismo frantziar boteretsuak ez baitzuen biderik uzten frantziarraz kanpoko beste nazionalismorik hazteko²²¹.

Egoera hartan, Eskualzaleen Biltzarrak mito bihurtu zuen iragana, atzera eginez antzinako pentsabide eta bizibidera eta fedea eta ohituren iraupena helburu nagusi bihurtuz. Denbora hartan, “euskaldun fededun” leloa sendotu egin zen, Eskualzaleen Biltzarraren bultzadari esker. Hala ere, azaldu du Jean Goyhenetche, Eskualzaleen Biltzarraren pentsamolde horrek euskal burgesia eta elizgizonen interes ekonomiko-sozialak baino ez zituen islatu, eskuetan zuten botereari atxikitzea bilatzen zutelarik bereziki:

Le combat pour la langue servant de support du conservatisme social et idéologique, le mot “Eskualzale” revêt un sorte de mutation, acquiert désormais une connotation idéologique confisquée par le groupe social dominant qui veut rester “maître chez nous”²²²

Esanak esan, Eskualzaleen Biltzarra 1902an sortu zutenean, hainbat puntu zehaztu zituzten estatutuetan²²³:

- Elkartearen egoitza Hondarribian ezarri zuten.
- Dei egin zien Kontinente zaharreko zein berriko euskaldunei, erakundearen partaide bilaka zitezten. Lau motako kideak izanen ziren: sortzaileak, titularrak, urgazleak eta, azkenez, jatorriz euskaldunak ez ziren kideak. Kide sortzaileak ziren 100 liberako harpidetza noizbait ordaindu zutenak; elkartearen argitalpena dohainik jasoko zuten. Gainerako kideek 6 liberako harpidetza ordaindu behar izango zuten; urgazleak eta apaizak (pobretasun-botoa egin izanez gero) ez zeuden ordaintzera beharturik.

²²⁰ Goyhenetche, J.: “Idéologies culturelles...”, 89-90. orr.

²²¹ Dena dela, Piarres Xarrittonen esanetan, Europan sentipen nazionalistak garatu ziren denbora hartan, Euskal Herria ez zen ukitua izan Europan hedaturiko ideia nazionalistez, arduraturik baitzegoen bertoko gerra karlistez –gerra nazionala zena eta ez nazionalista–: “le peuple basque, préoccupé par les querelles dynastiques de ses carlistes et de ses libéraux, n’ait pas encore alors senti les accès de fièvre nationaliste des Polonais, des Irlandais, des Hongrois, des Tchèques, des Italiens, et des autres peuples Européens”, Xarritton, P.: *Pierre Broussain...* aipatu liburua, 231. or.

²²² Goyhenetche, J.: “Idéologies culturelles...”, 86. or.

²²³ *Eskual-zaleen Biltzarra. Statuts*, A. Lamaignère, Baiona 1902.

- Batzarretan boza izango zuten kide sortzaileek eta titularrek.
- Eskualzaleen Biltzarra batzorde batek kudeaturik egongo zen. Batzordearen partaideak izango ziren: lehendakaria, bi lehendakariorde, idazkaria, idazkari adjuntua, diruzaina eta sei aholkulari, Iparraldeko hiru euskalkiak ordezkatu izanik. Batzordearen partaideak urtero aukeratuko ziren –berrautatuak izan litezke–; diruzaina lau urterako aukeratuko zen.
- Urtean behin burutuko zuten Biltzarraren bilera orokorra, irailaren bigarren ostegunean eta batzarrak aukeratutako herrian²²⁴.
- Bileretan debekaturik zegoen gai politiko edo erlijiosoz aritzea.

Eskualzaleen Biltzarrak kaleratutako aldizkaritxoia izena aldatuz joan zen urteetan zehar²²⁵: *Congrès Basque (Eskualzaleen Biltzarra)* lehenengo, *Congrès Basque de l'Eskualzaleen Biltzarra* gero eta azkenean *Eskualzaleen Biltzarra*. 1905 eta 1908. urteen artean *A. Lamaignère* izan zen argitaratzailea; 1910, 1911 eta 1912. urteetan Pariseko *Honoré Champion*; 1919, 1920 eta 1921ean Baionako *Imprimerie Sud-Ouestek* kaleratu zuen²²⁶; 1923, 1924, 1926, 1927, 1928 eta 1929an Baionako *Imprimerie S. Sordesek* eta, azkenez, 1930. urtetik 1935era arte Baionako *Imprimerie La Presse*²²⁷.

²²⁴ 1904ko bilera Irunen egin zuten irailaren 29an, 1905ekoa Biarritzen irailaren 14an, 1908koa Kanbon abuztuaren 27an, 1910eko batzarra Donibane Lohitzunen egin zuten, abuztuaren 25ean; 1911koa Donostian, abuztuaren 24an; 1912koa Donapaleun, irailaren 28an; 1913koa Lapurdiko Getarian, irailaren 23an; 1919koa Donibane Garazin, irailaren 30ean; 1920koa Ustaritzen, irailaren 3an; 1921ekoa Donibane Lohitzunen, irailaren 26an; 1923koa Baigorriin, irailaren 22an; 1925ekoa Saran, irailaren 17an; 1926koa Atharratzen, irailaren 17an; 1927koa Donazaharren, irailaren 15ean; 1928koa Azkainen, irailaren 20ean; 1929koa Donapaleun, irailaren 26an; 1930ekoa Ezpeletan, irailaren 18an; 1931koa Maulen, irailaren 17an; 1932koa Donibane Garazin, irailaren 15ean; 1933koa Luhuson, irailaren 14an; 1934koa Donibane Lohitzunen, irailaren 13an; 1935ekoa Atharratzen irailaren 12an; 1937an Hazparnen eta 1938an Domezainen.

Espainiako Gerra zela eta, 1936an Eskualzaleen Biltzarra ez zen bildu: “En signe du deuil profond que ressentent tous les Basques et en particulier tous les membres de Eskualzaleen Biltzarra”, “L'Eskualzaleen Biltzarra ne se réunira pas cette année”, *Aintzina*, 1936ko abuztua.

²²⁵ Guk Eskualzaleen Biltzarrak kaleratutako urte hauetako aldizkaritxoaren zenbakiak kontsultatu ahal izan ditugu: 1905, 1906, 1908, 1910, 1911, 1912, 1913, 1919, 1920, 1921, 1922, 1923, 1925, 1926, 1927, 1928, 1929, 1930, 1931, 1932, 1933, 1934 eta 1935ekoa.

²²⁶ 1915, 1916, 1917 eta 1918ko zenbakiak ezin izan ditugu ikusi.

²²⁷ Jean Goyhenechek adierazi duenez, Bigarren Mundu-Gerraren ostean Eskualzaleen Biltzarrak biltzeari ekin zion berriro, baina buruturiko ekintzek aurrekoek baino eraginkortasun gutxiago izan zuten: “ses activités se limitent toujours à un banquet an-

Eskualzaleen Biltzarraren araudiak berrituak izan ziren 1926an. Urte hartako Batzordearen kideak hauek izan ziren: Ustaritzeko Louis Dassance lehendakaria; Maurice Amestoy Kanboko koronela eta Albert Constantin, Atarratzeko doktorea, lehendakariordeak; Jean Elissalde, Léginagako apaiza, idazkaria; Jules Moulier, Hiriburuko bikarioa, idazkari adjuntua; Jean Baptiste Diriar, Donapaleuko notarioa, diruzaina; aholkulari hauek aukeratu zituzten: Mauleko Laurent d'Andurain de Maytie, Ustaritzeko Maurice Souberbielle doktorea, Hazparneko Jean Lissar doktorea, Senpereko Dominique Dufau notarioa, Mauleko Henri Heugas industrialaria eta Aldudeko Jean Etchepare doktorea.

Ikusten dugun legez, Eskualzaleen Biltzarra 1902an sortu zutenean Iparraldeko zazpik eta Hegoaldeko seik osatu bazuten ere Zuzendaritza Batzordea, 1926an Iparraldekoak ziren Zuzendaritza Batzordea osatu zuten hamabi ordezkariak. Beraz, denboraren poderioz, Iparraldekoak bilakatu ziren Eskualzaleen Biltzarraren ekintzen arduradun.

1926ko bilera hartan erabaki zuten Uztaritzera eramatea elkartearen egoitza. Elkartearen izenaren idazkera ere aldatu egin zuten: Eskual-Zaleen Biltzarra izatetik, Eskualzaleen Biltzarra izatera²²⁸.

Eskualzaleen Biltzarraren kideak urtean bospasei bider biltzen ziren *Cafe du Grand Balconen*, lehenengo solairuan, garaiz oso gutxitan hasiz (“Orenarekin hoin tinko bagine, nor gutarik eskualdun egiazkoa?”²²⁹). Batzarretan euskaraz hitz egiten zuten, Jean Etchepare lehendakari ohiak azpimarratu zuen bezala (“Hanitzek sinetsiko ez dutena, eskuaraz mintzatzen ere bai urthetik urthera gehichago”²³⁰); aldatuz zihoan, antza, zortzi urte lehenago Jules Moulierek salatu zuen erdaraz ari izatearen joera:

Lengo egunean, Euskaltzaleen-Biltzarrak urtero egiten duen batzarreko dei bat artu genuen. Itzik ere ez zekarren euskeraz... Guzia prantsesez. Zer

nuel précédé de comte rendu d'activités telles que devoirs, concours, bertsularis... Au lieu de mener le combat en faveur de la langue basque d'une manière radicale et efficace, n'attelle pas sombré dans la facilité, en se contentant de réunir en agapes fastueuses les sentimentaux d'une heure ou les amateurs de bonne chère peu soucieux du sort de la langue basque?”, Goyheneche, J.: *L'oppression culturelle en Pays Basque Nors*, KM Kulturgunea, 33. or.

²²⁸ Eskualzaleen Biltzarra. Statuts.

²²⁹ Etchepare, J.: “Mendiz hunandian. Baionan”, *Gure Herria*, 1929ko martxoa- apirila, 177-184. orr.

²³⁰ Ibidem.

ikusi bear ote degu oraindik! Frantsesa laket zakoteneri erranen diotet: A bon entendeur salut²³¹

1926an estatutuak aldatu bazituzten ere, Eskualzaleen Biltzarrak ardura-zen jarraitu zuen “de la conservation et de la diffusion de l’euskara” euskara-zen zaintze eta hedatzeaz. Politikaz aritzea debekatuta zutelarik, aurpegi eman zien, politikaz ari zirelako zurrumurruei:

Eskualzaleen Biltzarrak ez du politika deitzen duten saltsatik jastatu ere nahi... Ez gira, erdaldun eta, entzuna dutanaz, eskualdun zenbeitek girela dera-satena: Autonomistes-Séparatistes. Hein batean, gure chokhoan behkaitzgorik gabe, Gureak Gure nahi ditugu, bertzerik ez²³²

Beste aldetik, ezagunak ziren Eskualzaleen Biltzarraren atsedenal-diak, eguerdi aldera Maurice Souberbielle kidearen “Porto-ko arnoa” dastatzen zutenean (“Ez dut erranen, arno harek, edo bertze zerbaitek ez dituela noiztenka baztertzen Dassance buruzagiaren sail hertsitik; bainan ez gira karrikarat atheratzen”²³³). Dena dela, bilerak aurrera jarraitzen zuen, hainbat gai jorratuz; hauetariko batek Louis Dassancek Euskaltzaindiaren parekoa Iparraldean sortzeko asmoa zuelako susmoa sorrarazi zuen Etche-parerengan:

badut beldurra Dassancek buruan daukan gure bilkuratik egitea, zombait urthe goiti-beheti, Academiaño bat, Bilbaokoak alabatzen onhar lezakena men-diz hunandian. Hola behar litakela, ba segur; holako izanen ere dela noizbait, ez dut ene aldetik bederen etsitzen²³⁴.

Dena dela, Euskaltzaindiaz hurrengo puntuan hitz egingo badugu ere, aurreratuko dugu Akademiaren atala Iparraldean sortzeko nahia aspalditik zetorrela: 1922ko urriaren 27ko Euskaltzaindiaren bileran, Resurrección M^a de Azkue lehendakariak Pierre Lhanderen eskutitza irakurri zuen, non Lhan-dek eskatu zituen irizpideak Iparraldeko euskaltzain eta urgazleak Iparrean bertan elkar zitezen. Aho batez erantzun zioten Lhanderi bilduta zeuden euskaltzainek: “Euskaltzaindiak Bidasoatik arunzko euskaltzain ta urgazleen

²³¹ Oxobi: “Bertzen irakurgaietan. Euskaltzaleak Donibane-Lohitzunen”, 1921eko urria, *Gure Herria*, 531-532. orr.

²³² Oxobi: “Gureak Gure”, *Gure Herria*, 1938ko uztaila-iraila, 204-205. orr.

²³³ Etchepare, J.: “Mendiz hunandian. Baionan”, *Gure Herria*, 1929ko martxoa-apirila, 177-184. orr.

²³⁴ *Ibidem*.

biltzeko eskubidea ezin uka dezake”²³⁵, baina zehaztasunak eskatu zizkieten Lhanderi²³⁶. Azaroaren 27ko bileran, argitasunik ezean, “ez da gai onetzaz erabakirik artu”²³⁷.

Ez dugu, beraz, proiektu hori gauzatu zelako notiziarik izan.

Bileraren osteko oturuntzara urgazleak eta ohiko kotizatzaileak joaten ziren. Batzarrak musika eta kantuek lagundurik amaitzen zituzten²³⁸: 1910ean, “jan-edan eder eta nasai baten ondotik”, Isaac López de Mendizabal musikaria eta José Eizagirre kantariarekin izan zuten amaiera²³⁹ eta 1913ko batzarkideak “pleins d’enthousiasme, se séparèrent vers le déclin du jour, aux cris répétés de “Gora euskara, gora Eskualzaleen Biltzarra”²⁴⁰.

Eskualzaleen Biltzarraren kideak ez ziren maiz joaten elkartearen bile-retara; Lauren Apestéguyk horrelaxe adierazi zuen *Gure Herria* aldizkarian:

euskaltzaleena hobea liteke izena emana duten guziak jarraiki balite bilkuretarat, ezen batasunak ondorio ederragoa lekarkete, multzoaren hedaduraz bilduak²⁴¹.

Partaidetzari buruz bildu ahal izan ditugun datuek Apestéguyren iritzia sendotu egin du, 1921, 1926 eta 1927. urteetan izan ezik²⁴²:

²³⁵ “Euskaltzaindia’ren laugaren urteko batzarrak. Donosti’n, Gipuzkoa’ko Aldundi-Jauregian, 1922’ko Urrila’ren 27’an”, *Euskera*. Euskaltzaindiaren lan eta agiriak, Euskaltzaindiak eta Sendoak berrargitaratua, Donostia, 1982, 48. or.

²³⁶ Ibidem.

²³⁷ “Euskaltzaindia’ren laugaren urteko batzarrak. Donosti’n, Gipuzkoa’ko Aldundi-Jauregian, 1922’ko Azaroa’ren 27’an”, *Euskera*. Euskaltzaindiaren lan eta agiriak... aipatu artikulua, 50. or.

²³⁸ *Congrès basque d’Eskualzaleen Biltzarra*, Imprimerie A. Lamaignère, Baiona 1906, 3. or.

²³⁹ *Eskualzaleen-Biltzarra*, Honoré Champion éditeur, Paris, 1911.

José Eizagirre ohorezko buruzagi izendatu zen Biltzarrak 1922an, Eskualzaleen Biltzarraren mendiz bestaldeko ordezkaria izango zelakoan; *Eskualzaleen Biltzarra*, Imprimerie S. Sordes, Baiona, 1923, 6. or.

²⁴⁰ *Eskualzaleen-Biltzarra*, Imprimerie S. Sordes, Baiona, 1913.

²⁴¹ L. A.: “Ilabetekoa. Euskaltzaleak Donibanen”, *Gure Herria*, 1921eko azaroa, 681-682. orr.

²⁴² *Eskualzaleen-Biltzarra* eta *Gure Herria* argitalpenek eskainitako datuei jarraitu diegu Eskualzaleen Biltzarraren partaidetza ezagutzeko. Ezin izan dugu, oster, 1923, 1924, 1927, 1930 eta 1934 urteetako daturik bildu ahal izan.

Hirugarren laukia. Eskualzaleen Biltzarra kideen partaidetza elkartearen bilereetan 1920tik 1940ra bitartean:

Eskualzaleen Biltzarra, 1921eko iraila, Donibane Lohitzune: Beignatborde, Bernard, Bouquillard, Etienne Decrept²⁴³, Michel Delgue, Alexander Diesse, Jean Baptiste Diriar²⁴⁴, Jean Errecart²⁴⁵, Alexandre Etcheverry, Louis Fargeot, Gaston Grattau²⁴⁶, Jean Lacoste, Pierre Lacoste, Laffont, Martin Landerretche²⁴⁷, Isaac López de Mendizabal, Nogues, Sallaberry, Sebastian Sancinena, Maurice Souberbielle²⁴⁸.

Eskualzaleen Biltzarra, 1922ko iraila, Maule: Bernard Ahetz-Etcheber²⁴⁹, Louis Dassance, Etienne Decrept, Jean Baptiste Diriar, José Eizagirre, Jean Baptiste Heugas²⁵⁰, Martin Landerretche, Pierre Lhande, Maurice Souberbielle.

Eskualzaleen Biltzarra, 1925eko iraila, Sara: Dámaso Intza, Georges Lacombe, José Miguel Barandiaran, Jean Saint-Pierre.

Eskualzaleen Biltzarra, 1926ko iraila, Atharratze: Adolpho Alzuyeta²⁵¹, Laurent d'Andurain de Maytie²⁵², Béguerie²⁵³, Albert Constantin²⁵⁴, Secundo Barrueta, Hippolyte Daguerre, Louis Dassance, Michel Delgue, Jean Baptiste Diriar, Doyhenart²⁵⁵, Dominique Dufau²⁵⁶, Jean Duhart, José Eizagirre, Jean Etchepare,

²⁴³ Etienne Decrept elizetako pintorea zen, errepublikazalea politikaren aldetik; Piarres Xarrittonekin izandako elkarrizketa, Bilbo, 2002ko urtarrilaren 25a.

²⁴⁴ Jean Baptiste Diriar notarioa zen.

²⁴⁵ Jean Errecart eskoletako irakaslea izan zen, Hendaian.

²⁴⁶ Gaston Grattauren familia ez zen euskalduna, Armagnaqetik etorritakoa baino; likoreak saltzen zituen eta *Izarra* likorea eskaintzen zien guztiei; Piarres Xarrittonekin izandako elkarrizketa, Bilbo, 2002ko urtarrilaren 25a.

²⁴⁷ Martin Landerretche apaiza Garazi aldean jaio zen, non aita eskolako irakasle zegoen. Lehenengo euskaltzainetarikoa izan zen. Berrogei urtez lanetik bazertua izan ondoren, osasunez ahul baitzegoen, laurogei urte zituelarik kurtsoak ematen hasi behar izan zuen berriro, Donibane Lohizunen, bizitzeko dirurik ez baitzuen; Piarres Xarrittonekin izandako elkarrizketa, Bilbo, 2002ko urtarrilaren 25a.

²⁴⁸ Maurice Souberbielle Apaizgaitegiko medikua izan zen, Xarritton bertako ikasle zelarik.

²⁴⁹ Bernard Ahetz-Etcheber zuberotarra zen, Donibane Lohizunera etorritakoa.

²⁵⁰ Jean Baptiste Heugas Mauleko medikua izan zen.

²⁵¹ Adolpho Alzuyeta Louis Dassancen koinatuta zen.

²⁵² d'Andurain de Maytie Mauleko familia zen.

²⁵³ Béguerie Maulekoa zen.

²⁵⁴ Albert Constantin Atarratzeko medikua izan zen.

²⁵⁵ Doyhenart apaiza zen.

²⁵⁶ Dominique Dufau Senperoko notarioa izan zen eta Jean Barbieren laguna.

Bertrand Fagalde²⁵⁷, Louis Galan, Jean Baptiste Heugas²⁵⁸, Jean Baptiste Heuty, Hirigoyen, Michel Iriart²⁵⁹, Pablo Fermín Irigarai, Lardizabal²⁶⁰, Jean Pierre Larregain²⁶¹, Lazcano, Pierre Lhande, Isaac López de Mendizabal, Jean Pierre de Menditte²⁶², Jules Moulier, Rotaetche²⁶³, Sallaberry.

Eskualzaleen Biltzarra, 1928ko iraila, Azkaine: Laurent Altabe, Adolpho Alzuyeta, Maurice Amestoy, Joseph Basterretche, Jean Barbier, Prudent Basterretche, Albert Constantin, Hippolyte Daguerre, Louis Dassance, Michel Diharce, Jean Baptiste Diriar, Dominique Dufau, Duguine²⁶⁴, Etienne Durruty, José Eizagirre, Mayi Elissalde, Elissetche, Jean Etchepare, Alfred Etcheverry, Jean Baptiste Halsuet, Hirigoyen²⁶⁵, Michel Iriart, Georges Lacombe, Piarres Lafitte, Jean Pierre Larregain, Mayi Lascanoteguy²⁶⁶, Jean Lissar²⁶⁷, Isaac López de Mendizabal, Jean Pierre de Menditte, Armand Ordosgoity, Jean Ybarnégaray.

Eskualzaleen Biltzarra, 1929ko iraila, Donapaleu: Maurice Amestoy, Laurent d'Andurain de Maytie, Albert Constantin, Louis Dassance, Jean Baptiste Diriar, Dominique Dufau, José Eizagirre, Jean Elissalde, Jean Etchepare, Jean Baptiste Heugas, Jean Lissar, Isaac López de Mendizabal, Maurice Souberbielle, Jean Ybarnégaray.

Eskualzaleen Biltzarra, 1931ko iraila, Ezpeleta: Jean Etchepare, Jules Moulier.

Eskualzaleen Biltzarra, 1932ko iraila, Donibane Garazi: José Ariztimuño, Louis Dassance, José Eizagirre, Jean Elissalde, Jules Moulier, Jean Pierre Passicot.

²⁵⁷ Bertrand Fagalde Kanbokoia zen; bertako txokolategiaren jabea; Piarres Xarrittonekin izandako elkarrizketa, Bilbo, 2002ko urtarrilaren 25a.

²⁵⁸ Jean Baptiste Heugas Mauleko medikua zen.

²⁵⁹ Michel Iriart Uztaritzeko parrokoa izan zen.

²⁶⁰ Lardizabal Telesforo Monzonen familiakoa izan zen; Piarres Xarrittonekin izandako elkarrizketa, Bilbo, 2002ko urtarrilaren 25a.

²⁶¹ Jean Pierre Larregain Donibane Lohizunekoia zen.

²⁶² Jean Pierre de Menditte zuberotarra zen.

²⁶³ Rotaetche Portugaleteko zubiaren egilea izan zen. Dirua egin zuen lehegarriak saltzen, Munduko Lehen-Gerraren garaian. Jauregia eraiki zuen Donibane Lohizunen; Piarres Xarrittonekin izandako elkarrizketa, Bilbo, 2002ko urtarrilaren 25a.

²⁶⁴ Duguine Uztaritzeko irakaslea izan zen.

²⁶⁵ Hirigoyen ustariatarra Miarritzeko alkatea izan zen alemanek Iparralde okupatu zuten arte. Erradikala zen; euskaltzalea, hala ere; Piarres Xarrittonekin izandako elkarrizketa, Bilbo, 2002ko urtarrilaren 25a.

²⁶⁶ Mayi Lascanoteguy urruñarra irakaslea izan zen (Xarrittonen arreba irakaslea, hain zuzen ere).

²⁶⁷ Jean Lissar Hazparneko alkatea eta senataria izan zen.

Eskualzaleen Biltzarra, 1933ko iraila, Luhuso: José Ariztimuño, Louis Dassance, Dominique Dufau, José Eizagirre, Jean Elissalde, Teodoro Ernardorena, Pedro Garmendia, Eugène Goyheneche, Jean de Jaureguiberry, Piarres Lafitte, Jules Moulier, Nicolás Ormaetxea, Dominique Soubelet.

Eskualzaleen Biltzarra, 1935eko iraila, Atarratze: José Ariztimuño, Louis Dassance, Dominique Dufau, José Eizagirre, Jean Elissalde, Jean de Jaureguiberry, Jules Moulier, Maurice Souberbielle.

Eskualzaleen Biltzarra, 1937ko iraila, Hazparne: Dominique Dufau, Jean Elissalde, Hippolyte Mathieu.

Eskualzaleen Biltzarra, 1938ko iraila, Domezain: Louis Dassance, Domezain, Dominique Dufau, Jean Elissalde, Jean Etchecoin, Harriague, Hippolyte Mathieu, Jules Moulier, Jean Saint-Pierre.

Elaborazio propioa, *Eskualzaleen Biltzarra* argitalpenean oinarrituta.

Beraz, Eskualzaleen Biltzarraren ohiko batzarkideak hauexek izan ziren (batzarretara behin baino joan ez zirenak albo batera utzi ditugu):

- Adolpho Alzuyeta, Maurice Amestoy, Laurent d’Andurain de Maytie, Hippolyte Daguerre, Etienne Decrept, Michel Delgue, Jean-Baptiste Heugas, Hirigoyen, Michel Iriart, Jean de Jaureguiberry, Georges Lacombe, Piarres Lafitte, Martín Landerretche, Jean-Pierre Larregain, Pierre Lhande, Jean Lissar, Hippolyte Mathieu kolaboratzaile (1935 eta 1936. urteetan), Jean-Pierre de Menditte, Jean Saint-Pierre eta Jean Ybarnégarayk, birritan parte hartu zutenak Eskualzaleen Biltzarrak antolaturiko batzarretan.
- José Ariztimuño, Albert Constantin (Eskualzaleen Biltzarra elkartearen buruordea 1922 eta 1933. urteen artean) eta Maurice Souberbiellek (buruordea 1920 eta 1921. urteen artean eta kolaboratzailea 1923tik 1935era arte) hirutan.
- Jean Etchepare (burua 1922 eta 1925. urteen artean eta kolaboratzailea 1926 tik 1935era arte) eta Isaac López de Mendizabal lau bider joan ziren delako bileretara.
- Jean-Baptiste Diriar (diruzaina 1920 eta 1930. urteen artean) bost bider.
- Jean Elissalde (idazkaria 1922tik 1935era arte) sei bider.

- Dominique Dufau (kolaboratzailea 1926 eta 1930. urteen artean eta diruzaina 1931tik 1935era arte) eta José Eizagirre (lehendakaria 1920 eta 1921. urteen artean) eta Jules Moulier (kolaboratzailea 1925ean eta idazkari adjuntua 1926 eta 1935. urteen artean) zazpi bider.
- Louis Dassance (buruordea 1922 eta 1925. urteen artean eta burua 1926tik 1935era arte) zortzi bider.

Laburbilduz, Constantin, Dassance, Diriart, Dufau, Eizagirre, Etchepare eta López de Mendizabalek 1926, 1928 eta 1929. urteetan egin zuten topo; era berean, Ariztimuño, Dassance, Eizagirre eta Elissalde 1932, 1933 eta 1935ean; Dassance, Dufau eta Eizagirre 1926, 1928, 1929, 1933 eta 1935. urteetako bileretan elkartu ziren; Dassance, Eizagirre eta Elissalde 1929, 1932, 1933 eta 1935. urteetakoetan; azkenez, Dassance, Eizagirre eta Moulier 1926, 1932, 1933 eta 1935. urteetakoetan. Beraz, Louis Dassance eta José Eizagirre izan ziren harreman estuak lortzeko aukera handienak izan zituztenak Eskualzaleen Biltzarraren bilerak zirela medio, sarrien parte hartu zutenak izan baitziren. Azpimarratu beharra dago Eizagirrereren leialtasuna; azken baten, gainerako guztiek karguari zetxikion erantzunbeharra zuten, baina Eizagirre, urte bat baino ez zen buru izan eta zazpi bileretara joan zen.

Hegoaldeko euskaltzale gutxik hartu zuten parte 1920. eta 30. hamarkadetako Eskualzaleen Biltzarraren bileretan: behin baino ez José Miguel Barandiaran, Secundo de Barrueta, Teodoro Ernardorena, Pedro Garmendia, Damaso Intza, Pablo Fermin Irigarai, Lardizabal, Lazcano eta Nikolas Ormaetxeak; birritan José Ariztimuñok; lautan Isaac López Mendizabalek eta zazpitan José Eizagirrek.

Iparaldeko partaidetza, ostera, askoz handiagoa izan zen: Ahetz, Laurent Altabe, Jean Barbier, Joseph Basterretche, Béguerie, Beignatborde, Bernard, Bouquillard, Chiki, Chilar, Alexander Diesse, Michel Diharce, Doyhenart, Duguine, Jean Duhart, Etienne Durruty, Mayi Elissalde, Elissetche, Jean Errecart, Alexander Etcheverry, Bertrand Fagalde, Louis Fargeot, Louis Galan, Eugène Goyheneche, Gaston Grattau, Jean-Baptiste Halsuet, Jean-Baptiste Heuty, Jean Jauréguiberry, Lacoste, Laffont, Mayi Lazcanoteguy, Pierre Lhande, Nogues, Armand Ordosgoity, J.-P. Passicot, Rotaetche eta Jean Saint-Pierrek behin; Adolpho Alzuyeta, Maurice Amestoy, Laurent d'Andurain de Maytie, Hippolyte Daguerre, Etienne Decrept, Michel Delgue, Hirigoyen, Iriart, Georges Lacombe, Piarres Lafitte, Martin Landerretche, Jean Pierre Larregain, Jean Lissar, Jean Pierre Menditte, Salaberry, Sebastien Sancine-

na, Dominique Soubelet eta Jean Ybarnégarayk birritan; Albert Constantinek hirutan; Dominique Dufau, Jean Elissalde, Henri Heugas eta Maurice Souberbiellek lautan; Jean Baptiste Diriar, Jean Etchepare eta Jules Moulie-
rek bostetan; eta Louis Dassancek zazpitan. Horrela, Eskualzaleen Biltzarra gidatzeko ardura Iparraldekoen eskuetan geratu zen era berean, bileretara joan zirenak Iparraldeko kideak izan ziren.

Piarres Lafitte 1926an bilakatu zen Eskualzaleen Biltzarraren kide kotizatzaile, *Eskualzaleen Biltzarra* elkartearen argitalpenaren bazkideen zerrendek erakusten diguten bezala²⁶⁸. Hala ere, Eskualzaleen Biltzarraren kronikariak ez du Piarres Lafitte bileren partaide bezala aipatzen 1928. urte arte, euskalzaileak Azkainen elkartu zirenean; 1928 eta 1933. urteetan baino ez zen hurbildu Lafitte delako bileretara, aurreko laukiak erakutsi digun bezala.

Eskualzaleen Biltzarraren partaideak konparatuz gero *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* elkartearen batzarkideekin, ikusiko dugu ia ez dagoela lankide komunik bien artean, bileretara joaten zirenen artean behinik behin. Izan ere, elkarte bietako batzarretan parte hartu zutenak lau baino ez ziren izan:

Laugarren laukia. Lagunkideen partaidetza *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* eta Eskualzaleen Biltzarra elkarteetan 1920tik 1940ra bitartean:

Dassance, Louis

Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1921eko ekaina, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1921eko abendua, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko urtarrila, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko otsaila, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko martxoa, Baiona.
Eskualzaleen Biltzarra, 1922ko iraila, Maule.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko otsaila, Baiona.
Eskualzaleen Biltzarra, 1926ko iraila, Atharratze.
Eskualzaleen Biltzarra, 1928ko iraila, Azkaine.
Eskualzaleen Biltzarra, 1929ko iraila, Donapaleu.
Eskualzaleen Biltzarra, 1931ko iraila, Maule.
Eskualzaleen Biltzarra, 1932ko iraila, Donibane Garazi.

²⁶⁸ *Eskualzaleen Biltzarra*, S. Sordes inprimatzailea, 1927.

Eskualzaleen Biltzarra, 1933ko iraila, Luhuso.
Eskualzaleen Biltzarra, 1938ko iraila, Domezain.

Diesse, Alexander

Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1921eko urtarrila, Baiona.
Eskualzaleen Biltzarra, 1921eko iraila, Donibane Lohizune.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1920ko azaroa, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1921eko abendua, Baiona.

Lacombe, Georges

Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1921eko urtarrila, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1921eko martxoa, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1921eko ekaina, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko apirila, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko azaroa, Baiona.
Eskualzaleen Biltzarra, 1925eko iraila, Sara.
Eskualzaleen Biltzarra, 1928ko iraila, Azkaine.

Moulier, Jules

Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko ekaina, Baiona.
Eskualzaleen Biltzarra, 1926ko iraila, Atharratze.
Eskualzaleen Biltzarra, 1929ko iraila, Donapaleu.
Eskualzaleen Biltzarra, 1931ko iraila, Maule.
Eskualzaleen Biltzarra, 1932ko iraila, Donibane Garazi.
Eskualzaleen Biltzarra, 1933ko iraila, Luhuso.
Eskualzaleen Biltzarra, 1938ko iraila, Domezain.

Elaborazio propioa, *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* eta *Eskualzaleen Biltzarra* argitalpenetan oinarrituta.

Louis Dassance Eskualzaleen Biltzarraren sei bileretan izan zen eta *Sociétéren* zazpi batzarretan; beraz, maiztasun berdín antzekoaz hartu zuen parte elkarte bietan Dassancek, *Eskualdunaren* lankidea ere izan zen Dassancek (22 artíkulu guztira).

Georges Lacombe, osterá, *Sociétéren* bost bilerátara joan zen, Eskualzaleen Biltzarrekoekin birritan elkartu zelarik.

Azkenez, Jules Moulier behin baino ez zen elkartu *Société*koekin eta bost bider Eskualzaleen Biltzarrekoekin; Alexander Diesse, aldiz, behin baino ez zen joan Eskualzaleen Biltzarraren bilerétara eta hirutan elkartu zen *Société*koekin.

Argi dago, beraz, Eskualzaleen Biltzarra eta *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* elkarteetako partaideen artean harreman handirik ez zegoela, behinik behin elkarteon bilerak zirela medio.

Esan beharra dago, lehenengo eta bat, elkarte biak sorrarazi zituzten motiboak desberdinak izan zirela: Eskualzaleen Biltzarra modernizazioak ekar zitzakeen aldakuntzei aurre egiteko sortu zuten. *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, ostera, zientziaren arlo guztiak jorratzearen eratu zuten, ikuspuntu intelektuala nagusituz eta irakurleko intelektualari zuzenduz. Eskualzaleen Biltzarra Société baino herritarragoa izan zen, euskaltasunaren betiko ezaugarriak iraunaraztea helburu eta jende ezikasia ahalegin horien hartzaile nagusi izanik.

Entzule eta jomuga desberdinak izateak batzarkide desberdinak erakarri zituen Eskualzaleen Biltzarra eta *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* elkarteetara lan egitera, elkarte biek batzarkide komun bakarra izan zutelarik: Louis Dassance.

Hala ere, Eskualzaleen Biltzarrak igorritako mezuaren hartzaile herritarrek baziren ere, mezu horren igorleak jende ikasia ziren, *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* (“une Société de savants, de lettrés et d’artistes”) zituen lankideak bezain jende ikasia, behinik behin, Eskualzaleen Biltzarraren bileretara joaten zirenak, jarraian ikusten dugun bezala:

Eskualzaleen Biltzarraren lankideen bizibidea:

Apaizak	Irakasleak	Medikuak
Ariztimuño, José	Barbier, Jean	Constantin, Albert
Doyhenart	Duguine	Etchepare, Jean
Elissalde, Jean	Errecart, Jean	Goyheneche, Eugène
Intza, Dámaso	Lacombe, Georges	Heugas, Jean Baptiste
Iriart, Michel	Lafitte, Piarres	Irigarai, Pablo Fermín
Jules, Moulrier	Landerretche, Martin	Souberbielle, Maurice
Soubelet, Dominique	Lascanoteguy, Mayi	
	Lhande, Pierre	
	Saint-Pierre, Jean	

Legegizonak	Politikoak	Arkitektoak
Diriart, Jean Baptiste	Dassance, Louis	Rotaetche
Dufau, Dominique	Hirigoyen	
Eizagirre, José	Lissar, Jean	
López de Mendizabal, Isaac	Ybarnégaray, Jean	

Liburuzainak	Militarrak	Etnologoak
Garmendia, Pedro	Amestoy, Maurice	Barandiaran, José Miguel
	Diharce, Michel	

Intelektual ugari ari izan ziren, beraz, euskaltasuna herritarrengana hurbiltzeari ekinez.

II.5. Eusko Ikaskuntza

1918an Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako diputazioek, eta Baiona, Iruñe eta Gasteizko Apezpikuak deiturik, hau da, Eliz agintariak, Eusko Ikaskuntzaren biltzarra antolatu zuten Oñatin, euskal kultura langai harturik. Bileran hartan ateratako ondorioei iraunkortasuna eman nahian, erakunde berri bat sortzea erabaki zuten, hau da, Eusko Ikaskuntza. Julián Elorza elkarte berriaren lehendakari izendatu zuten, Julio Urkijo lehendakariorde eta Angel Apraiz Bartzelonako unibertsitateko katedraduna idazkari²⁶⁹.

Joseba Agirreazkuenagaren hitzetan²⁷⁰, Oñatiko kongresu horrek gizarte berri baten beharrak islatu zituen, hain zuzen ere, gizarte industrializatuaren garatutako intelektualen beharrak. Jakitun horiek jende ikasia ziren eta jakintza eremu berrietan murgiltzea eskatzen zuten. Horregatik sortu zuten Eusko Ikaskuntza, erakunde intelektualago bat falta zelako. Idoia Estornes ere bide horretatik doa Fausto Arocenaren hitzak azpimarratzen dituenean *RIEV* Eus-

²⁶⁹ Angel Apraizek (1885-1956) Zuzenbidea ikasi zuen Deustuko Unibertsitatean eta Filologia eta Letrak Salamankako Unibertsitatean. Eusko Ikaskuntzaren sortzaile eta ideologotzat hartzen den Apraiz, Eusko Ikaskuntzaren idazkaria izan zen 1918tik 1936ra bitartean. Unibertsitatea ordezkatu zuen Eusko Ikaskuntzaren III. Kongresuan, Gernikan. Ordutik aurrera Eusko Ikaskuntzaren Unibertsitateak atalaren batzordekide izan zen.

²⁷⁰ Agirreazkuenaga, J.: *Diccionario biográfico de Eusko Ikaskuntza (1918-1998)*, 1998, Donostia, 11. or.

ko Ikaskuntzaren aldizkaria aurkezteko: “surgió para poner orden y método, es decir, ciencia, en el campo de nuestras investigaciones”²⁷¹.

Horrela, XX. mendearen hasierako gizarte modernoaren pizkundean Eskualzaleen Biltzarrak antzineko pentsamoldera atzera egin zuen bitartean, Eusko Ikaskuntza guztiz egokitu zen aro berrian sorturiko premia intelektualetara.

Eusko Ikaskuntzak *Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos. Eusko Ikaskuntzaren Deia* hiruhilabetekaria argitaratu zuen²⁷². Aldizkari horrek elkartearen Batzar Iraunkor zein Batzar Nagusien bileren berri eman zuen; 1920 eta 1935. urteen artean burutu zituen 71 bileretan honako hauek izan ziren maizen parte hartu zuten kideak:

Batzarkide	Kargua	Bileren kopurua
José Aguirre	Diruzainordea (1920-1936)	49
Angel Apraiz	Idazkari orokorra (1918 eta 1936)	67
Telesforo Aranzadi	Batzorkidea (1918-1936)	67
Claudio Armendariz	Batzorkidea (1928-1932)	63
Enrique Eguren	Batzordekidea (1918-1934)	52
Julián Elorza	Lehendakaria (1918-1936)	54
Julio Urkijo	Lehendakariordea (1918-1936)	53

Ikusten dugun legez, Eusko Ikaskuntzaren bileren partaideak Hegoaldekoak ziren; Iparraldekorik ez. Izan ere, Pierre Broussain lehendakariordea izan zen Iparraldeko ordezkari bakarra Eusko Ikaskuntzaren Batzordean, 1918an aukeratua; 1920an Broussain hil zenean, Jean Ybarnégaray izendatu zuten Broussainen ordezkari.

²⁷¹ Estornés, I.: *La Sociedad de Estudios Vascos*, 1983, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 5. or.

²⁷² Eusko Ikaskuntzak lau aldizkako argitalpenak kaleratu zituen 1920. eta 1930.eko hamarkadetan: *Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos. Eusko Ikaskuntzaren Deia* hiruhilabetekaria, *Anuario de la Sociedad de Eusko Folklore* urtekaria, *Memoria de la Sociedad* urtekaria eta *Revista Internacional de Estudios Vascos* seihilabetekaria, azken hau 1918an Julio Urkijok sorturikoa eta 1921ean Eusko Ikaskuntzaren aldizkari ofizial bihurtu zena. Gure lanerako lehenengoaren informazioaz baliatu gara, Eusko Ikaskuntzaren batzarren berri ematen duelako. Intelektualen idatzizko lana neurtzeko, ostera, azkenengoa iruditu zaigu egokiena, lau-retatik idazlan kopuru handiena jasotzen baitu.

Beste aldetik, Hegoaldeko Eusko Ikaskuntzaren batzarkide horiek oso gutxitan hartu zuten parte lehenago aztertu ditugun Eskualzaleen Biltzarra edo *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* elkarteen batzarretan: José Miguel Barandiarán eta Pedro Garmendia, Eusko Ikaskuntzaren batzarkideak, Eskualzaleen Biltzarraren bilera batera baino ez ziren joan; Eusko Ikaskuntzaren gainontzeko lankideek ez zuten inoiz parte hartu ez Eskualzaleen Biltzarra ezta *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* elkarteen bileretan.

Nabaria baino nabariagoa da, beraz, Eusko Ikaskuntza eta aipatu beste bi elkarteetako kideen arteko harremanik eza.

Alde batetik, Eusko Ikaskuntzaren bilerak Hegoaldeko Donostian burutzen ziren bitartean, *SSLAB*ek Baionan egiten zituen eta Eskualzaleen Biltzarrak Iparraldeko herri desberdinetan. Geografiak bileretara joateko behin betiko mugak ezarri ez arren, eragina bazuen.

Izan ere, hiru elkarteen jatorria diferentea izan zen geografikoki. Eusko Ikaskuntzaren sorrera Hegoaldeko Diputazioek bultzatu zuten, Hegoaldean eta, ikusi dugun legez, Hegoaldeko intelektualen artean ekintzak bilakaraziz. *SSLAB* elkarte intelektual frantziarra, ostera, Baionako pentsalari frantsesek sortu zuten; Eskualzaleen Biltzarra ere Iparraldean sortu zuten, baina intelektual euskalzaleek, ez frantsesek. Eusko Ikaskuntza eta *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* elkarteetako hartzaileak, ostera, intelektualak ziren; Eskualzaleen Biltzarrarenak, aldiz, herritarrak.

Pentsamoldeari dagokionez, Eusko Ikaskuntza Hegoaldeko mende berriko intelektual beharrei zegoen egokiturik euskaltzaleen. *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* aro berriko pentsalari frantziar positibistek eratu zuten; intelektualak ziren hauek ere, baina ez ziren bereziki arduratu euskal gaiez. Azkenez, Eskualzaleen Biltzarra pentsalari euskalzaleek sortu zuten, Eusko Ikaskuntza bezala, baina modernotasunari aurre egiteko. Ulergarria da sorrera desberdinak eta helburu desberdinak zituzten elkarteen batzarkideen artean harreman urriak egon izana. Hirurak intelektualek sortuak izan ziren; Eskualzaleen Biltzarra eta Eusko Ikaskuntza eratu zituztenak euskaltzaleak ziren, *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* sortu zutenak, ostera, frantsesak.

Aurrera joz, eta aldizkarietako lankideak erkatzeari ekinez, hona hemen nola geratzen den osatzen ari garen laukia, *Revista Internacional de Estudios Vascos* seihilabetekariaren lankideak gehitu eta gero:

Bosgarren laukia. *Eskualduna, Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* eta *Revista Internacional de Estudios Vascos* aldizkariaren lan-kideak eta artikuluen kopuruak 1921etik 1940ra bitartean:

Izena	<i>Eskualduna</i> (1921-1940)	<i>Société des Sciences, Lettres et Arts de Bay.</i> (1920-1940)	<i>RIEV</i> ²⁷³ (1920-1936)	Adina 1940an
Barbier, Jean	79		1	†1931 56
Guillaumie-Reicher, Gilberte		4	1	
Léon, Albert		1	2	57
Alford, Violet			2	59
Altube, Sebero			3	61
Azkue, Resurrección M ^a			3	76
Campion			3	†1937 83
Etxegarai, Carmelo			3	†1925 60
Lhande, Pierre			3	63
Eguskitzea, Juan Bautista			4	†1939 64
Hérelle, Georges		7	5	87
Munarriz, E.			5	
Pérez Goyena, Antonio			5	
Bosch, Pedro			6	
Vinson, Julien		5	6	83
Aguirre, José			7	56
Gurruchaga, Ildefonso			7	
Meyer-Lübke, W.			7	
Barandiaran, José Miguel			8	51
Ormaetxea, Nicolas			8	52
Saroihandy, Jean			8	†1932 65
Areitio, Darío			10	
Lafon, René			12	

.../...

²⁷³ *RIE*Ven argitaratutako artikulua zenbatzean kontuan hartu ditugu lankideek egindako itzulpenak eta liburuen aipamena.

.../...

Izena	Eskualdunan (1921-1940)	Société des Sciences, Lettres et Arts de Bay. (1920-1940)	RIEV (1920-1936)	Adina 1940an
Lekuona, Manuel			12	46
Mugica, Serapio			12	86
Spitzer, Leo			12	
Veyrin, Philippe		1	12	40
Gavel, Henri		7	13	60
Uhlenbeck, C. C.			13	64
Urabayen, Leoncio			13	52
Valle, Alfonso del			13	
Etxegarai, Bonifacio			14	62
Apraiz, Odón			15	56
Arocena, Fausto			15	44
Schuchard			15	†1927 85
Apraiz, Angel			16	55
Guerra, Juan Carlos			16	80
Daranatz, Jean Baptiste			18	70
Mugartegui, Juan José			18	
Giese, William			19	
Garmendia, Pedro			21	
Eleizalde, Luis			22	†1923 50
Irigarai, Angel			22	
Bahr, Gerhard			24	40
Donostia, José Antonio			25	54
Anguiozar, Martín de			36	
Aranzadi, Telesforo			43	80
Gárate, Justo			47	
Lacombe, Georges	2		65	61
Urquijo, Julio			119	70

Elaborazio propioa, SSLAB eta *Revista Internacional de Estudios Vascos* argitalpenetan oinarrituta.

Ikusten dugun legez, Martin de Angiozar, Telesforo Aranzadi, Gerhard Bahr, José Antonio Donostia, Luis Eleizalde, Justo Gárate, Pedro Garmendia eta Angel Irigaraik nolabaiteko maiztasunez idatzi zuten *RIEV* argitalpenean, Georges Lacombe eta Julio Urquijo ohiko lankideak ziren era berean.

Baten batek *Société*n zein *RIE*Ven idatzi zuen: Jean Baptiste Daranatz, *Société*n ohiko lankidea izan zen eta *RIE*Ven 18 artikulua idatzi zituen. Gilberte Guillaumie-Reicher, Albert Léon eta Julien Vinsonen artikuluen kopurua, ostera, ez zen dozenara heldu bi aldizkarien artean; Georges Hérellek 12 artikulua idatzi zituen bi aldizkarietakoak baturik eta Henri Gavelek 20 idazlan aldizkari bien artean.

Laburbilduz, 1920. eta 1930. hamarkadetan idazle gutxi idatzi zuten *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* eta *RIEV* aldizkarietan aldi berean, eta inork ere ez *Eskualduna, Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* eta *RIEV* hiru argitalpenetan.

Bileren partaidetzari buruz adierazi duguna errepikatu egiten da aldizkarietan idazteari dagokionez: Hegoaldeko *RIE*Ven Hegoaldekoek idazten zuten eta Iparraldeko *SSLAB* eta *Eskualdunan* Iparraldekoek.

II.6. Euskaltzaindia

Euskal Akademia eratzeko lehenengo proiektuak aurkeztu zituzten euskaltzale batzuek, euskararen ortografia finkatzeko beharra ikusi baitzuten: 1886an Aristide de Artiñanok (*Proyecto Academia Bascongada*) aurkeztu zuen, 1896an Sabino Aranak (*Lecciones de ortografía del euskera bizkaino*), 1896an ere Resurrección M^a de Azkuek (*Proyecto de ortografía, sometido a la censura de los que se dedican a cultivar el euskera*) eta 1897an Cosme de Churrucak²⁷⁴.

Baina jadanik 1849an Gratien Adéma “Zaldubi”k Azkueri hitz egin zion Akademia sortzearen gurariaz:

hil baino lehen, eta On Abadia jauna hil baino lehen nahi nuke Akademia edo jakintsueri eskuara bat baginagoka Frantziako eta Espainiako Eskualherri guzientzat²⁷⁵.

²⁷⁴ Kintana, J.: *Vizcaytik Bizkaira...* aipatu liburua, 76-79. orr.

²⁷⁵ Pierre Broussainek Resurrección M^a de Azkueri bidalitako eskutitza, Baiona, 1894ko apirilaren 1ean, “Del epistolario de R. M. de Azkue”, *Euskera*, 1957, 335. or.

Adémak aipaturiko Anton d'Abbadie Dublinen jaiotako euskaltzalea zen –gurasoak hara joan baitziren iheslari Frantziako Iraultza garaian–. D'Abbadiek etxean bizi zuen euskaltzaletasuna; 1849an, munduan zehar hainbat bidaia egin ostean, Abbadie izeneko jauregia etxebizitza bihurtu zuen, Hendaiaetik hurbil eta 1851tik aurrera Euskal Jaiak antolatzeari ekin zion.

1897an, d'Abbadie hil zen urtean, beronek Euskal Tradizioaren Kongresua antolatu zuen, Donibane Lohizunen. Azkue Kongresuan izan zen; han Pierre Broussain ezaagutu zuen, eta beronen bidez Jean-Pierre Arbelbide eta Jean-Baptiste Daranatz.

Azaldu beharra dago Iparraldeko esparru euskaltzalea bi zatitan zegoela banaturik, ideologia politikoak eraginda; Azkuek d'Abbadiek bulztaturiko alternatiba “xuria”rekin egin zuen bat, Guilbeau eta Julien Vinson errepublikazaleek sustaturiko euskal festa “gorri”en aurrean²⁷⁶. Izan ere, Guilbeau eta Vinson kexu ziren d'Abbadiek antolaturiko jaiak gero eta politizatuago zeudelako –kexu ziren xurien aldeko jaialdiak zirelako, hala nola, 1974an “Jaungoicoa eta Erriya” karlisten aldeko poesiak lehenengo saria irabazi zuenean–. Azkenean, Guilbeau eta Vison errepublikazaleak *Association Basque de Jeux Floraux* eta bere ospakizun propioak antolatzeari ekin zioten.

1897an d'Abbadie hil zenean, Azkuek gonbidapen bat jaso zuen d'Abbadieren alargunarengandik senarraren liburutegia erabil zezan (“puisque Madame d'Abbadie paraît animée d'excellentes intentions en faveur de notre cher euskara, vous faites très bien de répondre à son invitation le plus tôt possible”²⁷⁷). Abbadieren jauregian egon zen Azkue, Pierre Broussainekin; posible ikusten zuen d'Abbadieren alargunarengandik dirua lortzea Akademiaren proiektua gauzatzeko²⁷⁸. Hala ere, d'Abbadieren alarguna 1901ean hil zen, Akademiarako dirurik testamentuan aipatu barik.

XX. mendearen hasieran euskal ortografia finkatzearen ekinean jarraitu zuten euskal intelektualek. 1901ean Hendaian eta 1902an Hondarribian bildu ziren helburu horrekin, Euskaltzaindia ez baina Eskualzaleen Biltzarra eratu zutelarik, 1902an, jadanik azaldu dugun bezala. Euskal Akademia sortzeko proiektua, oster, ez zen zertu 1919ra arte.

²⁷⁶ Kintana, J., *Vizcaytik Bizkaira?*... aipatu liburua, 27. or.

²⁷⁷ Pierre Broussainek Azkueri bidalitako eskutitza, Hazparne, 1990ko apirilaren 10ean; Xarritton, P.: *Pierre Broussain*... aipatu liburua, 292. or.

²⁷⁸ *Ibidem*.

1918an Cosme de Elgezabal eta Felix de Landaburu Bizkaiko diputatuek euskal hizkuntza zainduko zuen delako erakundea eratzeko proposamena egin zuten²⁷⁹. Bizkaia, Gipuzkoa, Araba zein Nafarroako diputazioek erantzun zioten eskaerari, baina Eusko Ikaskuntzaren esku utzi zuten lana, 1918an Oñatin burutuz I. Kongresua. Raimundo Olabidek Akademia berriaren estatutua prestatu ostean, Eusko Ikaskuntzak ontzat hartu zuen 1919ko irailean.

1919ko bilera hartan Eusko Ikaskuntzak deitu egin zituen Oñatiko batzarrean izendatuak izan ziren lau euskaltzain: Resurreccion M^a Azkue, Arturo Campion, Luis Eleizalde eta Julio Urkijo. Hainbat aldirkariren ordezkariak ere izan ziren 1919ko bilera hartan, Akademiaren kide berrien aukeraketan parte hartuz: Carmelo Echegaraik *Revista Internacional de Estudios Vascos* ordezkatu zuen, Pierre Broussainek *Eskualduna*, Domingo Agirrek *Euskal-Esnalea*, Dámaso de Intzak *Irugarrengo Prantziskotarra*, Cirilo de Arzubiagak *Jaungoiko-Zale* eta Jesusen Biotzaren *Deya*, Toribio Alzagak *Euskal-Esnalea* eta Gregorio Mujikak *Euskalerriren alde*.

Baina 1919ko batzarra burutu baino lehen, Azkuek buru-belarri ekin zion nortzuk izan litezkeen zortzi euskaltzain berriak erabakitzeari. Lau hautagai baino ez zituela ezagutzen adierazi zion eskutitzez Pierre Broussain lagunari: Jose Agerre, Aspiazu linguista donostiarra, Pierre Broussain bera eta Raimundo Olabide. Iparraldeko hautagaiez, galdetu zion Azkuek Broussaini ea Jean-Baptiste Daranatz eta Jean-Baptiste Constantin filologoak ziren, galdetu zion ea Georges Lacombe euskara zekienetz ere²⁸⁰.

Erantzunean Broussainek adierazi zion Azkueri Georges Lacombe zela ezagutzen zuen Iparraldeko filologo eta linguista bakarra²⁸¹ (Lacombe Broussainen ordezko euskaltzain izan zen 1920an hil zenean). Dena dela, bazekien Broussainek oztupoak izango zirela Lacombe euskaltzain izendatzeko, ez baitzuen Akademiaren baldintza betetzen: “basque de race et de langue” izate²⁸², Julien Vinsonek, E. S. Dodgsonen eta Lévyk eragozpenak izan zituzten era berean²⁸³. Beste aldetik, Broussainek Albert Constantin proposatu zuen

²⁷⁹ *Euskera*, 1920, 42-48. orr.

²⁸⁰ Azkuek Broussaini idatzitako eskutitza, Bilbo, 1918ko azaroaren 19a; Piarres Xarrittonek aipaturiko eskutitza, *Pierre Broussain...* aipatu liburua, 293. or.

²⁸¹ Xarrittonek aipaturiko eskutitza, *Pierre Broussain...* aipatu liburua, 259. or.

²⁸² *Ibidem*.

²⁸³ Xarritton, P.: *Pierre Broussain...* aipatu liburua, 24. or.

zuberera ordezkatzeko –Jean Baptiste Daranatz lanpetuta legokelakoan– eta Jean Saint-Pierre lapurteraren ordezkari bezala²⁸⁴.

Horrekin batera, Broussainek Azkueri hitz egin zion Martin Guilbeau Akademiakide izendatzearen egokitasunaz, errepublikazalea izan arren –Aita Sainduaren Errepublikaren aldeko Entziklikaren ondorioz, hainbat apaiz errepublikar zeuden–; Maurice Harriet eta Emmanuel Inchauspe akademiakide komenigarritzat ere jo zituen Broussainek²⁸⁵.

Baina arazoak izan ziren izendapenok burutzeko, hala nola “la b eh emence de Azkue”²⁸⁶ eta “l’intransigeance du fondateur du nationalisme basque, ou celle de ses disciples, Olabide ou Eleizalde”²⁸⁷. Izan ere, Luis Eleizaldek susmoa izan zuenean Azkuek Aspiazu izendatu nahi zuela Olabide izendatu beharrean, Olabide izendatzearen alde agertu zen Eleizalde, uste baitzuen Azkueren nahiak betetzekotan Akademiak nazionalisten sostengua galduko lukela²⁸⁸:

car vous le savez, les nationalistes n’aient pas Azkue. Or du moins au Sud de la Bidassoa il n’est possible de rien faire sans les nationalistes²⁸⁹.

Jadanik azpimarratu dugun bezala, *Eskualdunaren* artikuluek erlijioa, herriko gertaerak edo garaiko politika komentatzen zituzten; herriari zuzenduriko berriak ziren, beraz. *SSLAB*, *RIEV* eta *Euskerak*, ostera, Literatura, Artea edota Linguistika lantzen zituzten, bereziki intelektualei zuzenduz. Ulergarria da, beraz, *Gure Herria* aldizkari intelektualak, baina zientzia ez- adituengana zabaltzea helburu hartu zuenak, lankide komunak izatea gainerako aldizkari guztiakin: *Gure Herriak* jende ez- ikasiei zuzentzen zien –*Eskualdunak* egiten zuen moduan– gai zientifikoez hitz egiteko –*SSLAB* eta *RIE* Vek egiten zuten bezala–, era ulerterrazago batez azalduta.

Gure Herriak Eskualdunarekin zituen harreman komunen berri eman zuten, adieraziz: “Gure ustez segurik *Gure Herria* hartzen duten gutiz gehienek *Eskualduna* irakurtzen dute”³¹⁷. Beste aldetik, Dominique Soubelet zoriondu egin zuen Jean Elissaldek *Gure Herriaren* orrialdeetan, kaleratu berri baitzuen sei orriko *Eskualduna*:

³¹⁶ Piarres Xarrittonen esanetan, Lafittek, klase eskolan zegoela, hainbatetan aipatu zizkien ikasleei bere René Cuzacq landestarrarekiko harremanak, eskutitzen bidez; Cuzacqek Frantziatz idazten zion Lafitteri, zirikatzeke, eta Lafittek Cuzacqi Euskal Herriaz idazten zion erantzutean; Piarres Xarrittonekin izandako elkarrizketa, Bilbo, 2002ko urtarrilaren 25a.

³¹⁷ P. Ithurralde (P. Lafitte): “Bertzen irakurgaietan”, *Gure Herria*, 1932ko iraila-urria, 429-433. orr.

Nous ne pouvons que féliciter M. le chanoine Soubelet de sa magnifique initiative, et souhaiter au vaillant périodique un nouvel accroissement de lecteurs³¹⁸.

Are gehiago, Laurent Apestéguyk adierazi zuen aldizkari biak baino besterik ez zegoela irakurtzeko garai hartan:

Que peuvent bien acheter et lire –en dehors de *Gure Herria* et de l'*Eskualduna* cela va sans dire– nos jeunes basques?³¹⁹.

Baina *Gure Herria* harremanetan egon zen *SSLAB* eta *RIEV* argitalpenekin ere, baita geroago aztertuko dugun *Bulletin du Musée Basque*ekin ere, erredakzioak aditzera eman zuenez:

Nous restons toujours en excellents relations avec le Bulletin du Musée Basque, le Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, La Revue Internationale des Etudes Basques³²⁰.

Konkretuki *RIEV*-ez hitz egin zuen Lafittek *Gure Herria*n, esanez: “bethi bezain azkar eta mamitsu heldu zaiku”³²¹.

Horrela, Espainiako gerra garaian, Piarres Lafittek gonbita egin zien *RIEV* eta Euskaltzandiaren lankideei, *Gure Herria*ekin elkar zitezen lanean jarraitzeko:

Egungo egunean mendiz-bertzaldeko agerkari gehienak suntsituak dira... Aldi huntan ere bakhetzerat eta lanerat deitzen ditugu oro, ala Yakintza-n ari zirenak, ala R.I.E.V. delakoan ari zirenak, ethor ditela gureganat. Hala-hala Euskaltzaindiko edo Akademiako jaunak bil ditela gure aldamenera... *Gure Herria* eskualdungoaren azken atherbea da³²².

Eta Philippe Veyrinek, hurrengo puntuan aurkeztuko duguna, *Gure Herria*, *SSLAB* eta *Bulletin du Musée Basque* aldizkariaren garrantzia azpimarratu zuen Espainiako gerraren garai hartan:

³¹⁸ Bilharia (Jean Elissalde): “Nos echos”, *Gure Herria*, 1935eko martxoa-apirila, 187-188. orr.

³¹⁹ Apestéguy, L.: “Supazter Chokoan”, *Gure Herria*, 1926ko otsaila, 100-102. orr.

³²⁰ La Rédaction: “Le coin du lecteur”, *Gure Herria*, 1932ko uztaila-abuztua, 379-384. orr.

³²¹ P. Ithurrealde (Piarres Lafitte): “Bertzen irakurgaietan”, *Gure Herria*, 1932ko uztaila-abuztua, 429-433. orr.

³²² Lafitte, P.: “Atchikitzeko orena”, *Gure Herria*, 1938ko urtarrila-martxoa, 3-5. orr.

Heureusement que Gure Herria, le Bulletin du Musée Baque, et celui de la Société des Sciences, Lettres et Arts, nous restent encore pour maintenir allumé la flambeau de la culture euskarienne, de la littérature et de l'érudition régionale³²³.

Dena dela, Jules Moulieren ikuspututik, *Gure Herriak* gainerako argitalpenek baino betebeharrak xumeagoa izan zuen; gogoz lan egiteko prest bazegoen ere: "Ahala ttipi du Gure Herriak; bainan nork ere lan eginen baitu zuhurki eskuararen onetan"³²⁴.

Baliteke Moulieren arrazoia izatea *Gure Herriaren* eginkizun xumeagoari dagokionez; irakurlego xumeagoa bazuen izan, behinik behin maila intelektualari dagokionez. Horrela izanda ere, *Gure Herriaren* lankideak gainontzekoenak bezain jakintsuak ziren, gehienak aztertu ditugun aldizkarietan idatzi zuten intelektualak baitziren. Eta, beste aldetik, *Gure Herriaren* betebeharrak dagokionez, desberdina izan zen gainerakoekin konparatuz, baina haiena bezain garrantzitsua, datozen lerroetan ikus daitekeen bezala.

II.7.1. *Gure Herria elkarte*

Aldizkari berean idazteak ez du esan nahi lankideek harremanik izan zutenik; euskalzaleek burutu zituzten bilera eta ospakizunak izan ziren, ostera, elkarrekikotasuna eragin zutenak. Hain zuzen ere, Jean Etcheparek Piarres Lafitteren aurkezpena *Gure Herrian* egin zuen urte berean³²⁵, 1924an, aldizkari horrek dei bat zabaldu zuen lankideen artean Lapurdiko Getarian elkartzeko, elkarren arteko ezaguera egiteko garaia zelakoan: "bostpaseiez bertze langileek, sail berari, elgarri josiak bezala, hiru urte huntan ari eta, etzakiten oraino elgarren berri argirik"³²⁶.

Jules Moulieren aditzera eman zuenez, *Gure Herrian* "esku dutenek"³²⁷ hartu zuten parte bilera hartan: Laurent Apestéguy, Jean Barbier, Edmond Blazy –*Gure Herriaren* administratzaile-kudeatzailea zena–, Louis Dassance, Dominique Dufau, Jean Elissalde, Jules Moulier, Jean-Saint-Pierre eta Em-

³²³ Veyrin, Ph.: "Bibliographie", *Gure Herria*, urtarrila-martxoa, 89-93. orr.

³²⁴ Oxobi: "Bertzen irakurgaietan", *Gure Herria*, 1921eko apirila, 227. or.

³²⁵ "Le Lin/Lihoa. Pierre Lafitte, Ithorroztar apez-gai, lehen primaren irabazleak", J. Etchepare, "Euskalzaleen biltzarra", *Gure Herria*, 1924ko uztaila, 389-396. orr.

³²⁶ "Oxobi": "Getariko eguna", *Gure Herria*, 1924ko ekaina, 325-332. orr.

³²⁷ Ibidem.

manuel Souberbiellek. Hauekin batera batzarrean izan ziren Louis Colas, Jean-Baptiste Daranatz, aita Donostia, Mayi Elissalde, Henri Gavel eta Albert Léon lankideak. Politika-gizonak ere *Gure Herriak* prestaturiko bilerara joan ziren: Jean Ybarnégaray diputatua, Edmond Goyenette Uztaritzeko kontseilaria eta Maurice Souberbielle Uztaritzeko alkatea. Hegoaldekoen artean Lapurdiko Getariara hurbildu ziren José Eizagirre eta Isaac López de Mendizabal, Bitor Garitaonaindia “Garbi” eta Anbrosio Zatarain, *Argia* aldizkariako ordezkariak azken biak³²⁸. Apestéguy, Saint-Pierre, Eizagirre, Ybarnégaray³²⁹ eta Colasek hitz egin ostean, aita Donostia entzun zuten pianoa jotzen eta Garitaonaindia bertsoa. Baliteke Piarres Lafitte hizlarien hitzok entzun izatea Getariako bileran, horren berri zehatzik ez badugu ere.

Baina 1930 arte *Gure Herriaren* lan taldeak ez zuen harremanak sustatuko zituen bilera gehiago burutu. 1930eko otsailean, aldiz, batzar bat izan zen antolatua “pour proclamer que *Gure Herria* ne doit pas mourir”³³⁰. *Gure Herriaren* helburuak eguneratzearekin batera, erabaki zuten *Gure Herria* elkarte sortzea, izen bereko aldizkariari indarra emango liokelakoan. Elkarre berriaren Administrazio-kontseilua sortu zuten: Piarres Lafitte idazkari-adjuntu izendatzearekin batera, Mathieu lehendakari bilakatu zen; Maurice Souberbielle eta Etchepare lehendakariorde; Saint-Pierre idazkari; Dassance diruzain; eta Maurice Amestoy, Barbier, Blazy, Dufau, Eizagirre, Elissalde, Albert Léon, López de Mendizabal, Picochet eta Emmanuel Souberbielle aholkulari³³¹.

³²⁸ Bitor Garitaonaindia *Argia* argitaratu zutenetariko bat izan zen –Donostian 1921ean–, Anbrosio Zatarainek dirua jarri zuelarik; Díaz Noci, J.: *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*, 1995, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 145. or.

³²⁹ Jadanik azaldu dugu Ybarnégaray politikoa eta hizlari erakargarria izan zela Iparraldeko herritarren artean. Jules Moulierek ere mirespenez aurkeztu zuen Ybarnégaray: “Badakizue orok zoin ederki mintzo den Ybarnégaray. Etauki iduritzen gure deputatuaren elhe sarkorrek egundaino bihotzik hunkitu dutela eta berotu eta sutan ezarri nola Gethari Kurutze’ko bazkarian”, “Oxobi”, “Getariko eguna”, *Gure Herria*, 1924ko ekaina, 325-332. orr.

³³⁰ “Nouvel essor”, *Gure Herria*, 1930ko urtarrila-otsaila, 1-6. orr.

³³¹ Ikus dezagun nola kontatu zuen Lafittek bilera horren zioa berrogeita hamar urte beranduago, Serge Monierek egin zion elkarrizketa luze batean (Lafittek 1928an kokatu zuen bilera hori): “Et c’était Mr Blazy qui était l’Administrateur de la Revue. Mais le malheureux ne faisait pas ses comptes du tout et il est arrivé qu’il y avait une ardoise considérable chez l’imprimeur, à Bayonne... Alors moi je dis, je ne puis pas aller parler de ça à Mr Blazy. J’étais un gamin encore, à côté de ces gens-là... Et je m’en vais voir le Supérieur. C’était encore Mathieu qui était là... Et Mathieu a payé tout... Alors il dit, il faut faire une réunion. Et lui qui n’était même pas abonné à *Gure Herria*, nous l’avons mis Président de la Revue... Mais à un

1930eko bilera hartan erabaki zuten euskarazko eskuizkribuak Lafitteri bidaltzea, Lafitteren estatusak izan zuen gorakada erakusten duena, kontuan harturik erabakia hartu zutenak ez zirela nolanhikoak: Louis Dassance – 1928an *Gure Herriaren* administratzaile-kudeatzaile izendatu zutena Blazyren orde³³² – Dominique Dufau, Jean Elissalde, Jean Etchepare, Albert Léon, Clément Mathieu, Jules Moulier, Emmanuel Souberbielle eta Maurice Souberbielle, gehienak jadanik aipatuak aztertzen ari garen jarduera intelektualean. Frantsesezko testuak Blazy edo Emmanuel Souberbielleri bidaliko zizkioten eta Dominique Dufauk Gure Herria elkartearen estatutuak landuko zituen.

Gure Herria elkarte sortu zenetik hilabete gutxira Cartagoko apezpiku izendatu zuten Jean Saint Pierre; elkartean utzitako idazkari postuan Emanuel Souberbielle jarri zuten³³³ eta Jules Moulier Emanuel Souberbiellen orde bilakatu zen aholkulari Gure Herria elkartean.

Aldizkariak zituen arazoei dagokienez, azaldu dugu 1930eko azaroan Gure Herria elkarte sortu zutela *Gure Herriari* indarra emateko helburuz. Horretaz, Jean Etchepare lehendakariordeak Lafitte idazkariari aipatu zion *Gure Herria* interesgarriago egin beharra³³⁴. Erantzun moduan, *Gure Herria* hilabetekari bihurtzea proposatu zuen Etcheparek, bihilabetekaria izan beharrean; 40 orrikoa izango litzateke, txandakatuz erdarazko (espainolez eta frantsesez) eta euskarazko zenbakiak; euskarazkoetan euskalki guztiak erabiliko zituzten. Berrikuntza horietarako guztietarako diru-laguntza eskatzeko auke-

condition, a-t-il dit, que Lafitte soit Redacteur en Chef... Ça fait que depuis 1928 jusqu'à la guerre, c'est moi qui ai dirigé la Revue... Il (*Blazy*) s'est retiré", Monier, S., aipatu liburua, 319-320. orr.

³³² Ibidem.

"L'Assemblée rend un juste hommage à M. l'abbé Blazy sans qui *Gure Herria* n'aurait ni existé, ni survécu et elle associe à cet hommage, ce Maître dans l'art de l'Imprimerie, qui n'est autre que M. Sauveur Sordes", "Nouvel essor", *Gure Herria*, 1930ko urtarrila-otsaila, 1-6. orr.

³³³ "On songe aussitôt à Emmanuel Souberbielle: ses relations brillantes et nombreuses dans le monde littéraire, son goût à la fois large et délicat, son oeuvre connue jusque dans la capitale, enfin sa légendaire amabilité l'appellent à ce poste, "L'Assemblée Générale de l'Association Gure-Herria", *Gure Herria*, 1930, 53. or.

³³⁴ "Le problème d'un *Gure Herria* de quelque intérêt, susceptible de réchauffer le coeur et d'éclairer vraiment l'intelligence du lecteur, capable aussi de faire progresser les tendances autochtones profondes, linguistiques et autres, en établissant entre elles sinon la convergence, du moins une certaine cohésion, est chose des plus complexes", Jean Etcheparek Piarres Lafitteri bidalitako eskutitza, Kanbo, 1930eko azaroaren 3a; "Jean Etchepare jaun mirikuak Piarres Lafitte Jaun apezari idatzi zenbait gutun (1924-1935)", *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio Urquijo*, Gasteiz, 1991, 599. or.

ra aipatu zuen Etcheparek, bai Eskualzaleen Biltzarrari baita *Fédération de Pelote Basqueri* ere, diru pribatua ere onartzeaz gain.

Izan ere, *Gure Herria* 1927 arte izan zen hilabetekaria, 1927an bihilabetekari bilakatuz. 1930ean Etcheparek hilabetekari moduan argitaratzeko proposatu bazuen ere, bihilbetekari izanez jarraitu zuen. Dena dela, arazoak arazo, Gure Herria elkarteak lortu zuen *Gure Herriak* 1938 arte iraun zezan. Are gehiago, oso eginkizun garrantzitsua bete zuen, bidea eman baitzuen idazleek iritziak, kritikak eta laudorioak argitara zitzaaten, aurrerago ikusiko dugun bezala.

Baina itzul gaitezen Gure Herria elkarteaz aritzera, hain zuen ere, elkar-tekideen partaidetza aipatuz:

Hamargarren laukia. Lagunkideen partaidetza Gure Herria elkartearen bileretan:

1930eko otsaila, Baiona: Maurice Amestoy, Louis Dassance, Dominique Dufau, Jean Elissalde, Jean Etchepare, Piarres Lafitte, Lazcano, Leon Léon, Clément Mathieu, Jules Moulier, Picochet, Emmanuel Souberbielle, Maurice Souberbielle.

1931ko urtarrila, Baiona: Maurice Amestoy, Louis Dassance, **José Eizagirre**, Jean Etchepare, Piarres Lafitte, Albert Léon, Leon Léon, **Isaac López de Mendizabal**, Clément Mathieu, Jules Moulier, Picochet, Dominique Soubelet, Emmanuel Souberbielle, Maurice Souberbielle.

1932ko urtarrila, Baiona: Maurice Amestoy, **Edmond Blazy**, Louis Dassance, Dominique Dufau, José Eizagirre, Jean Etchepare, Pedro Garmendia, Jean de Jaureguiberry, Piarres Lafitte, Leon Léon, Isaac López de Mendizabal, Jules Moulier, Picochet, Dominique Soubelet, Emmanuel Souberbielle, Maurice Souberbielle.

1933ko otsaila, Baiona: Maurice Amestoy, René Cuzacq, Louis Dassance, Jean Etchepare, Jean de Jaureguiberry, Piarres Lafitte, Jean Lamarque, Isaac López de Mendizabal, Jules Moulier, Emmanuel Souberbielle, Raphaël Souberbielle.

1934ko urtarrila, Baiona: Maurice Amestoy, René Cuzacq, Louis Dassance, Dominique Dufau, José Eizagirre, Jean Elissalde, Jean Etchepare, Michel Etcheverry, Gilbert Guillaumie Reicher, Jean de Jaureguiberry, Piarres Lafitte, Jean Lamarque, Leon Lasalle, Albert Léon, Leon Léon, Isaac López de Mendizabal, Jules Moulier, Picochet, Dominique Soubelet, Emmanuel Souberbielle, Maurice Souberbielle, Raphaël Souberbielle.

1935eko urtarrila, Baiona: Maurice Amestoy, René Cuzacq, Louis Dassance, José Eizagirre, Jean Elissalde, Michel Etcheverry, Jean de Jaureguiberry, Piarres Lafitte, Albert, Léon, Leon Léon, Isaac López de Mendizabal, Jules Moulier, Picochet, Emmanuel Souberbielle, Maurice Souberbielle, Raphaël Souberbielle.

1936ko urtarrila, Baiona: Dominique Dufau, José Eizagirre, Jean Elissalde, Gilbert Guillaumie Reicher, Jean de Jaureguiberry, Madeleine de Jaureguiberry, Piarres Lafitte, Isaac López de Mendizabal, Jules Moulier, Picochet, Emmanuel Souberbielle.

1937ko urtarrila, Baiona: Philippe Aranart, Louis Dassance, Dominique Dufau, Jean Elissalde, Jean de Jaureguiberry, Madeleine de Jaureguiberry, Piarres Lafitte, Albert Léon, Leon Léon, Isaac López de Mendizabal, Clément Mathieu, Jules Moulier, Puchulu, Emmanuel Souberbielle, Maurice Souberbielle, Raphaël Souberbielle.

1938ko urtarrila, Baiona: Louis Dassance, Dominique Dufau, Hillau, Jean de Jaureguiberry, Madeleine de Jaureguiberry, Piarres Lafitte, Albert Léon, Leon Léon, Isaac López de Mendizabal, Jules Moulier, Emmanuel Souberbielle, Maurice Souberbielle, Raphaël Souberbielle.

- *Azpmarratuta daudenak Gure Herrian idazten zuten.*
- **Beltzez idatzita daudenak kargudunak ziren Gure Herria elkartean** (behingoz baino ez dugu belztu edo azpmarratu).

Elaborazio propioa, *Gure Herria* aldizkarian oinarrituta.

Lauki-laburpen honen arabera, Piarres Lafitte Gure Herria elkarreak burutu zituen bederatzi bileratara joan zen, baita Jules Moulier eta Emmanuel Souberbielle ere. Dassance eta López de Mendizabalek ere grinaz jarraitu zieten elkartzeko deialdiei, batean izan ezik, batzar guztietan izan baitziren; jarraian, Leon Léon, Maurice Souberbielle eta Jean de Jaureguiberry ditugu batzarrotan bertaratzeari dagokionez. Azkenez, Maurice Amestoy, Dominique Dufau, José Eizagirre, Jean Elissalde, Jean Etchepare (1935ean hil zena), Rafaël Souberbielle eta Picochet ditugu, gutxi gora behera bilkuren kopuruaren erdira baino azaldu ez zirenak. Barbier eta Saint-Pierre, kargudunak izan arren, ez ziren inoiz bileretara joan, Barbier 1931n hil baitzen eta Saint-Pierre Afrikan baitzegoen artzapezpikuaren laguntzaile. Azpmarratzekoa da Leon Léon –7 bider–, Rafaël Souberbielle –5 bider– eta Jean de Jaureguiberryk –7 bider– parte hartu izana, Administrazio-kontseiluan kargurik gabekoak izan arren, lehialtasunez sustatu zutelako euskal kulturaren hedapena Gure Herria elkarrea zela medio.

Jean Barbier 1931n hil zenean Jean de Jauréguiberry doktorea izendatu zuten Barbieren aholkularitza lana burutzeko³³⁵. Urtero bezala, Piarres Lafittek idazkari-adjuntuari zegokion ekintzei ekin zien, bilera bakoitzean aurreko batzarraren berri emanez; lan hartan ari zela, hona hemen Lafitteri zuzenduriko estimu hitzak:

“chacun de nous, dans sa pensée, saluait cet inlassable et modeste animateur dont la science est déjà un honneur pour le clergé basque”³³⁶.

Lafittek Literaturaren inguruan buruturiko lana ere laudatu egin zuen artikulu berean:

Infatigable, il a repris sa boîte et son déplantoir et va continuer ses herborisations de 1800 à 1930. *Eskualdunen Loretegia...* il a collectionné toutes les fleurs éclosés dans notre littérature depuis Bernard d’Etchepare du XVIe siècle jusqu’aux chants de la Révolution... sera rapidement suivi d’un second volume. Dans l’intervalle, M. l’abbé Lafitte nous a donné une nouvelle édition du paroissien de M. Durruty, curé de Mendionde. *Elizako liburu ttipia* était impatientement attendu des fidèles et des basquistes³³⁷.

Lerrook argitaraturiko artikuluen kopuruak erakusten duena frogatzen dute: Lafitte jadanik bazen intelektuala 1930.eko hamarkadaren hasieran, 29 urterekin.

Gure Herria elkartearen bileretara itzuliz, bil dezagun aztertu ditugun bost elkarten partaidetza, ikusteko Gure Herria elkartearen egoera bestekin konparatuz:

Hamaikagarren laukia. Lagunkideen partaidetza *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, Eskualzaleen Biltzarra, Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia eta Gure Herria elkarten bileretan 1920tik 1940ra bitartean:

Amestoy, Maurice

Eskualzaleen Biltzarra, 1928ko iraila, Azkaine.

Eskualzaleen Biltzarra, 1929ko iraila, Donapaleu.

Gure Herria elkarte, 1930eko otsaila, Baiona.

Gure Herria elkarte, 1931ko urtarrila, Baiona.

³³⁵ La Rédaction: “L’Assemblée Générale de Gure Herria”, *Gure Herria*, 1931ko urtarri-la-otsaila, 1-7. orr.

³³⁶ Ibidem.

³³⁷ Ibidem.

Gure Herria elkarte, 1932ko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1933ko urtarrila, Baiona
Gure Herria elkarte, 1934ko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1935eko urtarrila, Baiona.

Blazy, Edmond

Société des Sciencies, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko ekaina, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1932ko urtarrila, Baiona.
Société des Sciencies, Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko apirila, Baiona.

Dassance, Louis

Société des Sciencies, Lettres et Arts de Bayonne, 1921eko ekaina, Baiona.
Société des Sciencies, Lettres et Arts de Bayonne, 1921eko abendua, Baiona.
Société des Sciencies, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko urtarrila, Baiona.
Société des Sciencies, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko otsaila, Baiona.
Société des Sciencies, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko martxoa, Baiona.
Eskualzaleen Biltzarra, 1922ko iraila, Maule.
Société des Sciencies, Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko otsaila, Baiona.
Eskualzaleen Biltzarra, 1926ko iraila, Atharratze.
Eskualzaleen Biltzarra, 1928ko iraila, Azkaine.
Eskualzaleen Biltzarra, 1929ko iraila, Donapaleu.
Euskaltzaindia, 1930eko azaroa, Azkaine.
Gure Herria elkarte, 1930eko otsaila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1931ko urtarrila, Baiona.
Eskualzaleen Biltzarra, 1931ko iraila, Maule.
Gure Herria elkarte, 1932ko urtarrila, Baiona.
Eskualzaleen Biltzarra, 1932ko iraila, Donibane Garazi.
Gure Herria elkarte, 1933ko urtarrila, Baiona
Eskualzaleen Biltzarra, 1933ko iraila, Luhuso.
Gure Herria elkarte, 1934ko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1935eko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1937ko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1938ko urtarrila, Baiona.

Dufau, Dominique

Eskualzaleen Biltzarra, 1926ko iraila, Atharratze.
Eskualzaleen Biltzarra, 1928ko iraila, Azkaine.
Eskualzaleen Biltzarra, 1929ko iraila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1930eko otsaila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1932ko urtarrila, Baiona.
Eskualzaleen Biltzarra, 1933ko iraila, Luhuso.
Gure Herria elkarte, 1934ko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1936ko urtarrila, Baiona.

Gure Herria elkarte, 1937ko urtarrila, Baiona.

Gure Herria elkarte, 1938ko urtarrila, Baiona.

Eizagirre, Jose

Eskualzaleen Biltzarra, 1922ko iraila, Maule.

Eskualzaleen Biltzarra, 1926ko iraila, Atharratze.

Eskualzaleen Biltzarra, 1928ko iraila, Azkai.

Eskualzaleen Biltzarra, 1929ko iraila, Baiona.

Eskualzaleen Biltzarra, 1931ko iraila, Maule.

Gure Herria elkarte, 1931ko urtarrila, Baiona.

Gure Herria elkarte, 1932ko urtarrila, Baiona.

Eskualzaleen Biltzarra, 1932ko iraila, Donibane Garazi.

Eskualzaleen Biltzarra, 1933ko iraila, Luhuso.

Gure Herria elkarte, 1934ko urtarrila, Baiona.

Gure Herria elkarte, 1935eko urtarrila, Baiona.

Gure Herria elkarte, 1936ko urtarrila, Baiona.

Elissalde, Jean

Euskaltzaindia, 1920ko urtarrila, Donostia.

Euskaltzaindia, 1920ko apirila, Donostia.

Euskaltzaindia, 1920ko maiatza, Donostia.

Euskaltzaindia, 1920ko Abendua, Bilbo.

Euskaltzaindia, 1921eko martxoa, Donostia.

Euskaltzaindia, 1922ko otsaila, Bilbo.

Euskaltzaindia, 1922ko martxoa, Donostia.

Euskaltzaindia, 1922ko apirila, Donostia.

Euskaltzaindia, 1922ko maiatza, Donostia.

Eskualzaleen Biltzarra, 1929ko iraila, Donapaleu.

Euskaltzaindia, 1930eko urria, Bilbo.

Gure Herria elkarte, 1930eko otsaila, Baiona.

Euskaltzaindia, 1930eko azaroa, Azkaine.

Euskaltzaindia, 1931ko urtarrila, Bilbo.

Euskaltzaindia, 1931ko apirila, Iruñea.

Euskaltzaindia, 1931ko maiatza, Bilbo.

Euskaltzaindia, 1931ko uztaila, Donostia.

Eskualzaleen Biltzarra, 1931ko iraila, Maule.

Euskaltzaindia, 1931ko azaroa, Bilbo.

Euskaltzaindia, 1932ko urtarrila, Bilbo.

Euskaltzaindia, 1932ko martxoa, Donostia.

Euskaltzaindia, 1932ko apirila, Iruñea.

Euskaltzaindia, 1932ko uztaila, Donostia.

Eskualzaleen Biltzarra, 1932ko iraila, Donibane Garazi.

Euskaltzaindia, 1932ko urria, Bilbo.
Euskaltzaindia, 1932ko azaroa, Donostia.
Euskaltzaindia, 1932ko abendua, Donostia.
Euskaltzaindia, 1933ko otsaila, Bilbo.
Eskualzaleen Biltzarra, 1933ko iraila, Luhuso.
Gure Herria elkarte, 1934ko urtarrila, Baiona.
Euskaltzaindia, 1933ko maiatza, Iruñea.
Euskaltzaindia, 1933ko uztaila, Donostia.
Euskaltzaindia, 1933ko urria, Bilbo.
Euskaltzaindia, 1933ko azaroa, Donostia.
Euskaltzaindia, 1933ko abendua, Donostia.
Euskaltzaindia, 1934ko otsaila, Bilbo.
Euskaltzaindia, 1934ko maiatza, Iruñea.
Euskaltzaindia, 1934ko uztaila, Donostia.
Euskaltzaindia, 1934ko azaroa, Bilbo.
Euskaltzaindia, 1934ko abendua, Donostia.
Gure Herria elkarte, 1935eko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1936ko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1937ko urtarrila, Baiona.

Etchepare, Jean

Eskualzaleen Biltzarra, 1926ko iraila Atharratze.
Eskualzaleen Biltzarra, 1928ko iraila, Azkaine.
Eskualzaleen Biltzarra, 1929ko iraila, Baiona.
Eskualzaleen Biltzarra, 1930eko iraila, Ezpeleta.
Eskualzalen Biltzarra, 1931ko iraila, Maule.
Gure Herria elkarte, 1930eko otsaila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1931ko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1932ko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1933ko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1934ko urtarrila, Baiona.

Garmendia, Pedro

Gure Herria elkarte, 1932ko urtarrila, Baiona.
Eusko Ikaskuntza, 1933ko ekaina, Donostia.
Eusko Ikaskuntza, 1933ko iraila, Gasteiz.
Eskualzaleen Biltzarra, 1933ko iraila, Luhuso.
Eusko Ikaskuntza, 1933ko abendua, Donostia.
Eusko Ikaskuntza, 1934ko martxoa, Donostia.
Eusko Ikaskuntza, 1934ko ekaina, Donostia.
Eusko Ikaskuntza, 1934ko iraila, Bilbo.
Eusko Ikaskuntza, 1934ko abendua, Donostia.

Eusko Ikaskuntza, 1935eko apirila, Donostia.
Eusko Ikaskuntza, 1935eko uztaila, Donostia.
Eusko Ikaskuntza, 1935eko iraila, Donostia.

Lafitte, Piarres

Eskualzaleen Biltzarra, 1928ko iraila, Azkaine.
Gure Herria elkarte, 1930eko otsaila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1931ko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1932ko urtarrila, Baiona.
Eskualzaleen Biltzarra, 1933ko iraila, Luhuso.
Gure Herria elkarte, 1933ko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1934ko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1935eko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1936ko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1937ko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1938ko urtarrila, Baiona.

Lamarque, Jean

Société des Sciencies, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko otsaila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1933ko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1934ko urtarrila, Baiona.

Léon, Albert

Euskaltzaindia, 1921eko martxoa, Hazparne.
Société des Sciencies, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko apirila, Baiona.
Société des Sciencies, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko maiatza, Baiona.
Société des Sciencies, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko azaroa, Baiona.
Société des Sciencies, Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko otsaila, Baiona.
Société des Sciencies, Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko martxoa, Baiona.
Société des Sciencies, Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko maiatza, Baiona.
Société des Sciencies, Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko uztaila, Baiona.
Euskaltzaindia, 1930eko azaroa, Azkaine.
Gure Herria elkarte, 1931eko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1934ko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1935eko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1937ko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1938ko urtarrila, Baiona.

Léon, Leon

Eusko Ikaskuntza, 1922ko, Gernika.
Gure Herria elkarte, 1930eko otsaila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1931ko urtarrila, Baiona.

Gure Herria elkarte, 1932ko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1934ko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1935eko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1937ko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1938ko urtarrila, Baiona.

López Mendizabal, Ixaka

Eskualzaleen Biltzarra, 1921eko iraila, Donibane Lohizune.
Eskualzaleen Biltzarra, 1926ko iraila, Atharratze.
Eskualzaleen Biltzarra, 1928ko iraila, Azkaine.
Eskualzaleen Biltzarra, 1929ko iraila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1931ko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1932ko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1933ko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1934ko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1935eko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1936ko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1937ko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1938ko urtarrila, Baiona.

Mathieu, Clément

Gure Herria elkarte, 1930eko otsaia, Baiona.
Euskaltzaindia, 1931ko urtarrila, Bilbo.
Gure Herria elkarte, 1931ko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1937ko urtarrila, Baiona.

Moulier, Jules

Eskualzaleen Biltzarra, 1926ko iraila, Atharratze.
Eskualzaleen Biltzarra, 1929ko iraila, Donapaleu.
Gure Herria elkarte, 1930eko otsaila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1931ko urtarrila, Baiona.
Eskualzaleen Biltzarra, 1931ko iraila, Maule.
Eskualzaleen Biltzarra, 1932ko iraila, Donibane Garazi.
Gure Herria elkarte, 1932ko urtarrila, Baiona.
Eskualzaleen Biltzarra, 1933ko iraila, Luhuso.
Gure Herria elkarte, 1933ko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1934ko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1935eko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1936ko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1937ko urtarrila, Baiona.
Gure Herria elkarte, 1938ko urtarrila, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko ekaina, Baiona.

Soubelet, Dominique

Gure Herria elkarte, 1931ko urtarrila, Baiona.

Gure Herria elkarte, 1932ko urtarrila, Baiona.

Eskualzaleen Biltzarra, 1933ko iraila, Luhuso.

Gure Herria elkarte, 1934ko urtarrila, Baiona.

Souberbielle, Maurice

Eskualzaleen Biltzarra, 1921eko iraila, Donibane Lohizune.

Eskualzaleen Biltzarra, 1922ko iraila, Maule.

Eskualzaleen Biltzarra, 1929ko iraila, Baiona.

Gure Herria elkarte, 1930eko otsaila, Baiona.

Gure Herria elkarte, 1931ko urtarrila, Baiona.

Gure Herria elkarte, 1932ko urtarrila, Baiona.

Gure Herria elkarte, 1934ko urtarrila, Baiona.

Gure Herria elkarte, 1935eko urtarrila, Baiona.

Eskualzaleen Biltzarra, 1935eko iraila, Atarratze.

Gure Herria elkarte, 1937ko urtarrila, Baiona.

Gure Herria elkarte, 1938ko urtarrila, Baiona.

Elaborazio propioa, *Eskualduna*, *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, *Eskualzaleen Biltzarra*, *Revista Internacional de Estudios Vascos*, *Euskera* eta *Gure Herria* aldizkarietan oinarrituta.

Laukiak erakusten digun legez, Eskualzaleen Biltzarra zein Gure Herria elkarteek partaide komunak izan zituzten: Dassance, Dufau, Eizagirre, Elissalde, Etchepare, Lafitte, López de Mendizabal, Moulier eta Maurice Souberbielle. Jadanik aipatu dugun bezala, Eskualzaleen Biltzarra herritarrengandik hurbilago zegoen, *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* eta Eusko Ikakuntza baino.

Posible zatekeen Gure Herria elkarteko lankideak gainerako elkarten bileretan parte hartzea; azken baten, guztiak ziren intelektualak, entzulego diferentea izan arren; azken baten, *Gure Herria* aldizkariaren hainbat lankidek gainerako aldizkarietan ere idatzi zuten. Ez zen, ostera, hori gertatu; Eskualzaleen Biltzarra eta Gure Herria elkartearen lankideok ez ziren *Société*, Euskaltzaindia edo Eusko Ikaskuntza elkartearen biltokietara joan, Jean Elissalde izan ezik: 34 bider elkartu zen Euskaltzaindikoekin, 4 bider Eskualzaleen Biltzarrakoekin eta 5 bider Gure Herria elkartekoekin.

Aldiz, Gure Herria elkarteko kideek Eskualzaleen Biltzarrarekin harremanak baino ez zituen arren, *Gure Herria* aldizkarian maiz idatzi zuten aldizkari eta elkarteetako lankideei buruz, datozen lerroetan azalduko dugun bezala.

II.7.2. *Gure Herria lagunkideen espresabide bezala*

II.7.2.1. Gure Herriaren beraren lankideei buruzko iritziak

Gaëtan Bernovillez iritzi ona azaldu zuen Jacques Mestelanek: “C’est toujours avec plaisir que nous voyons M. Gaëtan Bernoville.. parler de ce pays basque qu’il aime et décrit avec tant de charme”³³⁸.

Pedro Garmendiak Pierre Dopen “intéressant ouvrage” aipatu zuen, baita eskerrak eman ere: “sollicité par nous... l’amabilité de consulter les livres anciens”³³⁹.

Mayi Elissagueren aurkezpen ezin hobea egin zuen Jean Etcheparek, esanez:

Cheheki, lanoki, garbiki erakusten dauku saratar andereak nolako diren eskual-herriko etche-barneak... gogoeta hanitz eginarazten du haren liburua. Ikasteche guzietan... –frantses mintzarian delakotz ere– aurkituko du begitarte on³⁴⁰.

Chant de Altabiscar”-ez ari zirela, Michel Etcheverryk Jean Etchecoini eskertu zion: “restituer à notre héros son appellation authentique”³⁴¹.

Louis Dassancek Michel Etcheverryri –“savant et distingué professeur”³⁴²– eskertu zizkion eskainitako oharrak. Jean Etchecoin, ostera, ez zegoen ados Michel Etcheverryk azaldutako ideiekin: “Ou bien ses souvenirs le trompent, ou bien nous ne parlons pas de même personnage”³⁴³.

Piarres Lafitteri Gilberte Guillaumie-Reicheren liburua gustatu zitzaion:

“Quel régal de lire et de relire les livres déjà parie de Mme. Guillaumie... oeuvre magnifique qu’elle a réalisée”³⁴⁴.

³³⁸ Jakes Lehuntze (Jacques Mestelan): “Piarres le Contrebandier”, de Gaëtan de Bernoville, *Gure Herria*, 1933ko uztaila-abuztua, 337-339. orr.

³³⁹ Garmendia, P.: “Les lettres de deux saints”, *Gure Herria*, 1935eko martxoa-apirila, 181-182. orr.

³⁴⁰ Etchepare, J.: “Eskualzaleen Biltzarra”, *Gure Herria*, 1926ko iraila, 551-557. orr.

³⁴¹ Etcheverry, M.: “Bibliographie. Divagation sur le chant de l’Altabiscar et sur son auteur”, *Gure Herria*, 1935eko, 367-373. orr.

³⁴² Dassance, L.: “Ancuen baux ruraux en Pays de Labourd”, *Gure Herria*, 1928ko uztaila-abuztua, 346-355. orr.

³⁴³ Etchecoin, J.: “La page du curieux. Réponses”, *Gure Herria*, 1935eko martxoa-apirila, 189-191. orr.

³⁴⁴ Lafitte, P.: “En Sorbonne”, *Gure Herria*, 1936ko martxoa-apirila, 134-138. orr.

Georges Lacombe Guillaume Reichen lana goraiatu zuen (“le travail le plus long et le plus fouillé en la matière, et à la fois le plus récent”³⁴⁵), arlo batzuetan ados ez bazegoen ere:

“Nous avouons ne pas pouvoir la suivre en ceci...”³⁴⁶.

Philippe Veyrinek ere gabeziak topatu zituen Guillaume emakumearen testuetan:

“il y a encore un ou deux points... Je crois pour ma part, que ces deux questions sont loin d’être élucidées”³⁴⁷.

Georges Hérellek Francis Michelez azaldu zuen:

“Se trompe lorsqu’il dit qu’elle représente les combats entre les bons et les malins esprits”³⁴⁸.

Emmanuel Souberbielleren ikuspuntutik, ostera:

Toute oeuvre de Francis Jammes est un événement littéraire.. Remercions notre grand Francis Jammes d’avoir ajouté une perle au pur trésor de ce Pays³⁴⁹.

Kontra egin zion Jean Saint-Pierrek Camille Julliani, honek esan zuenean ez zegoela euskal arraza existitu zenaren frogarik; Saint-Pierren erantzuna: “Zertako ez? Zer dugu bada eskas gizaki berezi bat egiteko?”³⁵⁰. Philippe Veyrinen hitzetan, aldiz, “Grand historien”³⁵¹ zen Camille Jullian.

Jules Moulierek Piarres Lafitteri eskertu zion beronek eskuraturiko hitz zerrenda:

³⁴⁵ Lacombe, G.: “Victor Hugo et la langue basque”, *Gure Herria*, 1938ko urtarrila-marxoa, 61-68. orr.

³⁴⁶ Ibidem.

³⁴⁷ Veyrin, Ph.: “Observacions sur les aperçus de M. de la Chabeaussières”, *Gure Herria*, 1936ko maiatza-ekaina, 333-35. orr.

³⁴⁸ Hérelle, G.: “La musique et la danse”, *Gure Herria*, 1922ko maiatza, 280-292. orr.

³⁴⁹ Souberbielle, E.: “Francis Jammes. Cloches pour deux mariages”, *Gure Herria*, 1924ko apirila, 199-206. orr.

³⁵⁰ Anxuberro (Jean Saint-Pierre): “Eskualdunak. Gizaki berezi bat”, *Gure Herria*, 1922ko maiatza, 273-278. orr.

³⁵¹ Veyrin, Ph.: “Une oeuvre d’art. La tombe basque”, par Louis Colas, *Gure Herria*.

Duela urthe pare bat Gure Herrian agertu gintuen mila eta gehiago zuhur-hitz eta erran zahar. Huna bertze berrehunbat geroztik eskuratuak. Aithor dezagun haatik ez daukutela, hauk, lehengoan lana galdetu: gutxi gehienak, P. Lafitte jaun aphezak ekharri dauzkit etcherat. Ez dugu guk eskuen zabaltzea baizik ukhan. Horra zertako hemen bihotzaren erditik milesker handi bat erraten diogun jaun aphez maiatzagarri eta langile handi horri³⁵².

Jean-Baptiste Daranatzek Emmanuel Souberbiellerean idazteko era hitz ederrez deskribatu zuen:

“la fine plume de notre sympathique confrère”³⁵³.

Louis Colasek Julien Vinsonen pentsamoldearen berri eman zuen, finkatu eta aldaezin bezala (“nous connaissons tous ses idées très arrêtées”³⁵⁴). Louis Dassancek aipatu egin zuen Vinsonen adeitasunez adierazitako oharra³⁵⁵. Henri Dopek, ostera, Vinsonen folkloze idatzirikoa mesprezatu egin zuen: “Ne sont guère qu’un recueil de ces légendes ou de ces dévinettes populaires”, gaineratuz: “On comprend par suite combien sont incomplètes les études folkloriques tentées jusqu’à nos jours de ce côté-ci des Pyrénées”³⁵⁶. Gilberte Guillaumie-Reicherek Victor Hugoren teoriarekin agertu zen ados –‘eguraldia gaiztoa’ frantsesera itzuli orduko–, Julien Vinsonena baztertuz (“J’ai le regret de ne pas donner raison à Vinson, mais à Hugo”³⁵⁷). Georges Hérrellek Vinsonen adierazi zuelarik: “Presque toujours bien informé au point de vue bibliographique”³⁵⁸, kasuren baten Vinsonen esandakoaren kontra agertu zuen: “J. Vinson dit à tort que l’usage de ces enchères est tombé en désuétude”³⁵⁹. Vinson gramatikalaria zituen alde onak eta txarrak azaldu zuen Georges Lacombe ere:

³⁵² Oxobi: “Zuhur-hitz”, *Gure Herria*, 1938ko apirila-ekaina, 98-195. orr.

³⁵³ Daranatz, J. B.: “Le makhil”, *Gure Herria*, 1933ko urtarrila, 15-23. orr.

³⁵⁴ Colas, L.: “Contribution à l’étude de la stèle Discoidale. Concordance de son aire de dispersion avec l’habitat des populations celtibériques”, *Gure Herria*, 1928ko urtarrila-otsaila, 69-90. orr.

³⁵⁵ Dassance, L.: “L’abbé Darrigol et le Prix Volney de 1829”, *Gure Herria*, 1922ko urria, 557-565. orr.

³⁵⁶ d’Argain, H. D. (Henri Dop): “Contribution au folklore basque”, *Gure Herria*, 1925eko uztaila, 365-373. orr.

³⁵⁷ Guillaumie-Reicher, G.: “Victor Hugo et le Pays Basque”, *Gure Herria*, 1935eko maiatza-ekaina, 221-240. orr.

³⁵⁸ Lacombe, G.: “Le Nouveau Testament basque du Père Olabide”, *Gure Herria*, 1932ko maiatza-ekaina, 239-242. orr.

³⁵⁹ G. Hérelle: “La musique et la danse”, *Gure Herria*, 1922ko maiatza, 280-292. orr.

Il n’y a pas, dans toute la bascologie, d’oeuvre plus encyclopédique que celle de Vinson. Il ne négligea rien, pas même l’iberien... Et, c’est cela qui, a bien des égards, l’empêche, malgré tout d’être définitive... Vinson ne put dans bien des cas se tenir suffisamment au courant des progrès de la linguistique contemporaine... Ne vit pas l’importance des théories soutenues pas les néo-grammairiens. Mais cela n’empêcha pas que son oeuvre tout entière ait sur bien des points apporté du nouveau³⁶⁰.

Albert Léonek euskal ikerkuntzaren gailurrean kokatu zuen Vinson (“oserait-il lui même me contredire si je disais qu’il est depuis plus de quatre-vingt ans l’incarnation même des études basques?”³⁶¹). Era berean, Jean Saint Pierrek Julien Vinsonen teoriaren alde ekin zuen (“Nous sommes persuadé qu’il faut accentuer la pensée de M. Vinson”³⁶²) eta Philippe Veyrinek Vinsonen “érudites recherches” nabarmendu zuen³⁶³, goraipatuz euskal egutegiez buruturiko lana:

“La meilleure étude sur ce sujet et la dernière en date, a été écrite par M. Julien Vinson”³⁶⁴.

Kritika horiek eskematikoki ikustearren:

Hamabigarren laukia. Lagunkideen iritziak *Gure Herriaren* lankideei buruz:

	Bernoville	P. Dop	Elissague	Etchecoin	Etcheverry	Francis M.	Guillaumie	C. Jullian	Lafitte	E. Souberbi.	Vinson
Colas											-
Daranatz										+	
Dassance					+ -						+
H. Dop											-
Etchepare			+								
Etcheverry				+							
Garmendia		+									

.../...

³⁶⁰ Lacombe, G.: “Julien Vinson”, *Gure Herria*, 1927ko urtarrila-otsaila, 60-64. orr.

³⁶¹ “L’état actuel des études basques. Extrait de la leçon d’ouverture de cours sur la littérature”, professé à la Faculté des Lettres par M. Albert Léon, *Gure Herria*, 1921eko uztaia, 446-461. orr.

³⁶² J. S. P.: “Tribune libre. Le texte basque de Rabelais”, *Gure Herria*, 1921eko ekaina, 373-377. orr.

³⁶³ Veyrin, Ph.: “Un bascophile ignoré. L’abbé Dominique Lahetjuzan (1766-1818)”, *Gure Herria*, 1923ko azaroa, 657-665. orr.

³⁶⁴ Veyrin, Ph.: “L’abbé Dominique Jahetjuzan (1766-1818)”, *Gure Herria*, 1924ko otsaila, 129-139. orr.

.../...

	Bernoville	P. Dop	Elissague	Etchecoin	Etcheverry	Francis M.	Guillaumie	C. Jullian	Lafitte	E. Souberbi.	Vinson
Guillaumie											-
Hérelle						-					+ -
Lacombe							+ -				+ -
Lafitte							+				
A. Léon											+
Mestelan	+										
Moulier									+		
Saint-Pierre								-			+
E. Souberbi.							+				
Veyrin						-		+			+

+ Alde

- Kontra

Kritikoak

Kritikatuak

Elaborazio propioa, *Gure Herria* aldizkarian oinarrituta.

Ikusten dugun legez, kritikatuak izan zirenetatik, Julien Vionsonek jaso zituen kritiken kopururik handiena, lau kontrakoak izanik eta zazpi aldekoak. Kritikarietatik, Philippe Veyrinek besteek baino kritika gehiago egin zituen, hain zuzen ere Michel Etcheverry, Guillaumie-Reicher eta Vinsoni buruz.

Dena dela, esan beharra dago orokorrean aipaturiko intelektualen lan egiteko era eta emaitzak kritikarien gustukoak izan zirela.

II.7.2.2. *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* eta kideei buruzko aipamenak

Paul Courteaultek *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* elkartearen goraipamena egin zuen (“ne peut-on qu’admirer le bel effort que vient de faire la Société des Sciences, Lettres...”³⁶⁵) eta Laurent Apestéguyren aburuz, txalogarriak ziren *Sociéték* bultzaturiko ikerkuntzak (“Nous recommandons chaudement à tous nos lecteurs la vaste et intelligente entreprise que la Société...”³⁶⁶).

³⁶⁵ Courteault, Paul: “L’art au Pays Basque”, *Gure Herria*, 1926ko urtarrila, 5-8. orr.

³⁶⁶ L. A.: “Ilabetekoa. Hil Harriak”, *Gure Herria*, 1922ko iraila, 240. or.

SSLABren lankideei dagokienez, hainbat intelektualek **Louis Colas** – Iparaldeko inskripzioen bilketa *Société*rako– burutu zuena laudatu zuten:

Laurent Apestéguyrentzat “idazle laguna” eta “irakasle argitua”³⁶⁷ zen Louis Colas.

Jean Barbierrek “docte M. Colas”³⁶⁸ deitu zuen.

Paul Courteaultek Colasen irmotasuna azpimarratu zuen:

Poursuivies... avec une ardeur et une conscience scientifiques qu'on ne saurait trop louer³⁶⁹.

Charles d'Elbéek eskainitako laguntza eskertu zion Louis Colasi:

Il m'a fait l'honneur de lire mes articles et voulant –avec grande obligeance– me venir en aide³⁷⁰

Henri Gavelek eskainitako azalpenak eskertu zizkion Colas “savant collègue”-ri³⁷¹.

Georges Hérellek Colasi desadostasunen bat agertu bazion ere (“Nous estimons que l'interprétation proposée par M. Colas se heurte à deux objections péremptoires...”³⁷²), gustuko izan zuen: “C'est dans la Tombe basque elle-même que nous avons, croyons nous, trouvé le mot de l'enigme”³⁷³.

Jean Lamarqueren hitzetan: “conscientieux”³⁷⁴ eta “artiste qui est”³⁷⁵.

Léon Lassalle, ostera, Louis Colasen ospea gutxitzen saiatu zen:

³⁶⁷ L. A.: “Ilabetekoa. Hil harri biribilas”, *Gure Herria*, 1922ko iraila, 553-554. orr.

³⁶⁸ Barbier, J.: “Ichorio-Michterio. Laminak”, *Gure Herria*, 1932ko iraila, 558-563. orr.

³⁶⁹ Courteault, Paul: “L'art au Pays Basque”, *Gure Herria*, 1926ko urtarrila, 5-8. orr.

³⁷⁰ d'Elbé, Ch.: “Encore Perkain eta Gaskoïna”, *Gure Herria*, 1923ko iraila, 546-558. orr.

³⁷¹ Gavel, H.: “Un pèlerin de Saint-Jacques au Pays Basque”, *Gure Herria*, 1922ko urria, 579-588. orr.

³⁷² Hérelle, G.: “Essai d'interprétation d'une stèle discoïdale”, *Gure Herria*, 1925eko apirila, 221-224. orr.

³⁷³ Ibidem.

³⁷⁴ Lamarque, J.: “Le Pays Basque. Histoire, Langue, Civilisation”, par Pierre Harispe, *Gure Herria*, 1929ko maiatza-ekaina, 264-267. orr.

³⁷⁵ Lamarque, J.: “Petite histoire du Pays Basque”, par J. Nogaret, *Gure Herria*, 1923ko iraila, 377-381. orr.

ez hargatik bethi jakintsuner fida! Ezen erran behar dautzuet neure harri-tzea irakurtu ditudalarik, Musde Colas, Baionako Lycéeko eskola emaila ezin gehiago jakintsunak ager-arazi idazte batean, hitz hauiek: Situé au milieu des bois... la hameu méritait bien d'être appelé MONTAGNE noire". Baditake, Larramendy-ren ondotik dion bezala, erran eta irakurgai zaharretan, arana dela mendia zeresan hitz bat nahiz zuek eta nik uste ginuen bethidanik arana lur chabal ideki bat, erdaraz plaine edo vallée.... zer nahi gisaz ez mendia³⁷⁶.

Azkenez, Philippe Veyrinen ikuspuntutik:

“A la fois esprit érudit et cultivé, doué d’une intelligence perspicace et d’un jugement prudent”³⁷⁷.

Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne elkartean jardun zuten gainerako jakintsuez ere hitz egin zuten *Gure Herriaren* lankideek:

Michel Etcheverryk Henri Courteaulteren jakintza nabarmendu zuen: “Communication très érudite –et très goûtée– sur l’origine des marchés basques”³⁷⁸. Henri Gavelek ere Courteaulten “un très intéressant article”³⁷⁹ aipatu zuen.

Piarres Lafittek nabarmendu egin zuen “l’infatigable érudition de notre éminent collaborateur, M. René Cuzacq”³⁸⁰.

Henri Dopek Jean Baptiste Daranatzek argitaratu zituen “documents intéressants”³⁸¹ aipatu zituen. “Savant érudit”³⁸² eta “très érudit et très informé”³⁸³ deitu zuen Henri Gavelek. Baina Georges Hérelle izan zen goren eramane zituena Daranatz zuzenduriko laudorioak, hau esan baitzuen:

³⁷⁶ Ikhertzaila (L. Lassalle): “Haran-beltz”, *Gure Herria*, 1932ko martxo-apirila, 127-131. orr.

³⁷⁷ Veyrin, Ph.: “Une oeuvre d’art. La tombe basque par Louis Colas”, *Gure Herria*, 1925eko urtarrila, 26-32. orr.

³⁷⁸ Etcheverry, M.: “Autour de quelques marchés du Labourd”, *Gure Herria*, 1926ko azaroa, 641-651. orr.

³⁷⁹ Gavel, H.: “La mode des cheveux courts au Pays Basque”, *Gure Herria*, 1925eko otsaila, 100-102. orr.

³⁸⁰ Ithurralde, P.: “Le coin du lecteur”, *Gure Herria*, 1933ko urtarrila-otsaila, 45-49. orr.

³⁸¹ d’Argain, H. D. (Henri Dop): “Un conflit au XVIII siècle”, *Gure Herria*, 1923ko abendua, 701-713. orr.

³⁸² Gavel, H.: “Un pèlerin de Saint-Jacques au Pays Basque”, *Gure Herria*, 1922ko urria, 579-588. orr.

³⁸³ Gavel, H.: “A propos du nom de bienheureux Michel Garicoïts”, *Gure Herria*, 1926ko iraila, 539-550. orr.

“Prend place au premier rang parmi les historiens les plus autorisés de Bayonne et du Pays Basque”³⁸⁴.

Pierre Lhandek nabarmendu egin zuen “sa précision coutumière”³⁸⁵. Emmanuel Souberbiellerentzat “magnifique et savant”³⁸⁶ zen Daranaten lana. Philippe Veyrinek intelektualki uste osoa zuen Jean Baptiste Daranatzengan:

“C’est donc comme d’habitude, à la minutieuse érudition de M. Daranatz que je continuais à accorder de préférence toute ma confiance”³⁸⁷.

Azkenez, “éminent ami” deitu zuen Julien Vinsonek, beronek zuzenketaren bat egin bazion ere (“la restitution en est parfaite, sauf pour deux points”³⁸⁸).

Henri Dopek Louis Dassanceren “intéressantes communications”³⁸⁹ aipatu zituen. Charles d’Elbéek “mon ami Dassance”³⁹⁰-ren eskutitza aipatu zuen, Jean Elissalde eta Louis Dassancek idatziriko artikuluan

–“d’un grand intérêt”– esandakoarekin guztiz ados ez bazegoen ere: “les basques n’ont eu besoin de personne pour élaborer des règles de jeu et inventer des instruments”³⁹¹.

Laurent Apestéguyk behin baino gehiagotan hitz egin zuen bere ustez “eskualzale garbia” zen Etienne Decreptez, “lan ederra” burutu eta “eskuara aise itzulikatzen duena”; hala ere, Apestéguyren aburuz, *Semetchian*

³⁸⁴ Hérelle, G.: “Curiosités du Pays Basque”, par M. le Chanoine J.-B. Daranatz, *Gure Herria*, 1927ko maiatza-ekaina, 224-257. orr.

³⁸⁵ Lhande, P.: “L’Abbé Martin Hiribarren et son dictionnaire basque”, *Gure Herria*, 1925eko iraila, 489-503. orr.

³⁸⁶ Souberbielle, E.: “Larressore, Ustaritz: Le passé, l’avenir”, Conférence donné au Grand Séminaire de Bayonne le 1er février de 1926, *Gure Herria*, 1926ko maiatza, 257-272. orr.

³⁸⁷ Veyrin, Ph.: “Un évêque natif, d’Ainhoa: Mgr. Jean de Labartette”, *Gure Herria*, 1937ko urtarrila-martxoa, 48-55. orr.

³⁸⁸ Vinson, J.: “Tribune libre. La langue basque et le procès de cehalais”, *Gure Herria*, 1923ko urtarrila, 39-42. orr.

³⁸⁹ d’Argain, H. D. (Henri Dop): “Le Labourd et la Fédération en 1790”, *Gure Herria*, 1927ko urtarrila, 73-90. orr.

³⁹⁰ d’Elbée, Ch.: “A propos de Gaskoïna et de Perkain”, *Gure Herria*, 1923ko uztaila, 460. orr.

³⁹¹ d’Elbée, Ch.: “Le jeux de pelote basque”, *Gure Herria*, 1921eko abuztua, 519-523. orr.

islatutako solas eta harreman batzuk ez ziren “hambatean osoki gureak” eta euskarara itzultzen zituen itzulgai ez ziren Decrepten hitz batzuk³⁹². Decreptek *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* aldizkarian argitaratu zuen *Semetchia* lana, era berean Apestéguyren kritikei kontra eginenez. Apestéguyk horren berri izan zuenean, erantzun egin zion:

nous disions que Semetchia, malgré le titre et la langue, n'est pas une pièce basque... il permettra sans doute à des Basques du terroir et qui n'ont jamais quittés le pays, de sourire un peu de la superiorité qu'il se donne, en écrivant “qu'il sont tenus par la qualité de leur profession à rester à l'écart du vulgaire” (Il n'y a pas de vulgaire chez nous; nous sommes un peuple de paysans aristocrates, sans plèbe, sauf les bohémiens)³⁹³.

Decrepti erantzun egin zion Jules Moulierrek ere:

en nuke, den gutienik ere, ttipitu nahi Etienne Decrept idazle aipatua... Eskuarazko lan berezi batzueri buruz, bertze askok amor egin dutelarik, ez da etsitu Decrept; jarreiki zaio sailari bururaino... zorigaitzez, lan berriari lotzen denak huts eginen du maiz... Laurent Apestéguyk, gure lagunak, jadanik adiarazi ditu hemen, Semetchia delakoaz zuelarik idaztaldia, gure iduriko, zuzenez erran behar zirenak³⁹⁴

Apestéguy zein Moulieri erantzun ei zien Decreptek:

l'idée que “deux jeunes pédants” (c'est nous-mêmes, sans nulle vanité!) se sont refusés à se pâmer devant son oeuvre, lui est insupportable, et le voici qui vient nous bousculer, après le temps, parce que, dit-il, “pour juger une oeuvre d'art il faut une tradition de goût”. Et il ajoute: “Il ne suffit pas de surgir d'une arrière-boutique, pour connaître le maniement de la balance esthétique: celle-ci n'a rien de commun avec l'instrument qui sert à peser les clours et les épices³⁹⁵.

“Remerciements... à Monsieur Pierre Dop”³⁹⁶ bidali zituen *Philippe Veyrinek*, eskainitako eskuizkribuagatik; Veyrinek zioenez, “l'Histoire de St-Jean-de-Luz n'a pas de secret”³⁹⁷ Pierre Doperentzat.

³⁹² L. A.: “Ilabetekoa”, *Gure Herria*, 1921eko abuztua, 524-527. orr.

³⁹³ Apestéguy, L.: “Encore Semetchia”, *Gure Herria*, 1924ko maiatza, 293-296. orr.

³⁹⁴ Oxobi: “Bertzen irakurgaietan. Semetchia”, *Gure Herria*, 1924ko abuztua, 508-513. orr.

³⁹⁵ Apestéguy, L.: “Encore Semetchia”, *Gure Herria*, 1925eko azaroa, 678-680. orr.

³⁹⁶ Veyrin, Ph.: “Le béret basque à travers les ages”, *Gure Herria*, 1923ko abuztua, 474-480. orr.

³⁹⁷ Veyrin, Ph.: “L'art au Pays Basque. L'oeuvre d'un Ferronnier Luzien au XVIIIe siècle”, *Gure Herria*, 1927ko iraila-urria, 426-431. orr.

*Jean Baptiste Daranatz*en ikuspuntutik, Henri Gavelen arrazoiketa “s’impose par la rigueur des principes et propose une solution qui semble définitive”³⁹⁸. *Georges Hérellek* Gavelek buruturiko ikerkuntza laudatu egin zuen, esanez: “nous ne pouvons mieux faire que de résumer ici ce qu’il a dit”³⁹⁹. *Georges Lacombe*k nabarmendu egin zuen Gavelen “remarquable communication, impeccable quant à la méthode”⁴⁰⁰. *Piarres Lafitte*k kontra egin zion Gavelen gramatika-azalpen bati (“Cette explication ne vaut pas pour la 3^o personne du singulier”⁴⁰¹). *Philippe Veyrin*i, ostera, nahiko arrazoizko iruditu zitzaizkion Gavelen azalpenak⁴⁰², beroni eskerrak emanez: “Qui a bien voulu confirmer avec autorité les conclusions que nous avons émises”⁴⁰³.

*Paul Courteault*ek *Georges Hérellek* buruturiko ikerkuntza laudatu egin zuen: “Les belle études de M. Georges Hérelle ont mis ce fait en lumière de façon décisive”⁴⁰⁴. *Henri Gavelek* *Georges Hérelleri* eskertu egin zion beronek erakutsitako testua, aitortuz: “je n’ai pas le mérite de l’avoir découvert”⁴⁰⁵ eta *Piarres Lafitte*k *Hérelleri* egindako azken bisita aipatu zuen: “La dernière fois que nous eûmes l’honneur de lui rendre visite”⁴⁰⁶.

Camille Jullianen aurkezpena egin zuen *Paul Courteault*ek: “un très vieil ami du Pays Basque”⁴⁰⁷.

³⁹⁸ Daranatz, J. B.: “A propos du nom du Bienheureux Michel Garicoïts”, *Gure Herria*, 1926ko iraila, 532-538. orr.

³⁹⁹ Hérelle, G.: “La musique et la danse au théâtre basque”, *Gure Herria*, 1922ko apirila, 190-203. orr.

⁴⁰⁰ Lacombe, G.: “Le basque au congrès de linguistique romane”, *Gure Herria*, 1934ko maiatza-ekaina, 284-285. orr.

⁴⁰¹ Lafitte, P.: “Pour ou contre la passivité du verbe basque”, *Gure Herria*, 1931ko maiatza-ekaina, 263-271. orr.

⁴⁰² Veyrin, Ph.: “Le problème du béret basque”, *Gure Herria*, 1923ko urtarrila, 54-55. orr.

⁴⁰³ Veyrin, Ph.: “Le béret basque. A travers les ages”, *Gure Herria*, 1923ko abuztua, 474-480. orr.

⁴⁰⁴ Courteault, P.: “L’art au Pays Basque”, *Gure Herria*, 1926ko urtarrila, 5-8. orr.

⁴⁰⁵ Gavel, H.: “Un document de plus sur la question du béret”, *Gure Herria*, 1923ko otsaila, 115-116. orr.

⁴⁰⁶ Lafitte, P.: “Nécrologie. M. Georges Hérelle”, *Gure Herria*, 1935eko azaroa-abendua, 512-514. orr.

⁴⁰⁷ Courteault, P.: “L’art au Pays Basque”, *Gure Herria*, 1926ko urtarrila, 5-8. orr.

Louis Dassanceren aburuz, “éminent bascoologue”⁴⁰⁸ zen Albert Léon eta Henri Gaveli interesgarria iruditu zitzaion Léonek esandakoa: “cette observation judicieuse est due à M. Albert Léon”⁴⁰⁹. Georges Hérellek, os-tera, Albert Léonen iritzia deuseztatu egin zuen, euskal antzerkiaz ari zela:

(“avec une erreur en moins...”⁴¹⁰; “malheureusement, dès qu’on examine de près cette assertion, elle se révèle fausse”⁴¹¹).

Georges Lacomberen aburuz, Joseph Nogaret zen “l’un des espoirs de la bascologie”⁴¹². Jean Lamarqueren ustez, Nogareten *Petite Histoire du Pays Basque* liburuak “a parfaitement atteint”⁴¹³ zeukan helburua, hau da, “Donner au grand public, sur l’histoire des Basques quelques notions succinctes, mais rigoureusement exactes”⁴¹⁴. Azkenez, Nogareten *Une nouvelle histoire de Saint-Jean-de-Luz* liburu berriaren aurkezpen eta gomendioa egin zuen Philippe Veyrinek (“Se recommande des mêmes mérites que le précédent”⁴¹⁵), zuzenketaren bat egin bazion ere⁴¹⁶.

Maurice Olphe Galliard idazkari adjuntuaren aurkezpen ezkorra egin zuen Laurent Apestéguyk: “Un écrivain qui ne nous aime guère”⁴¹⁷.

Henri Gavelek Antonin Personnazi eskertu zion eskainitako laguntza (“Aimablement signalé par M. Antonin Personnaz”⁴¹⁸).

⁴⁰⁸ Dassance, L.: “L’abbé Darrigol et le Prix Volney de 1829”, *Gure Herria*, 1922ko urria, 557-565. orr.

⁴⁰⁹ Gavel, H.: “Grammaire pratique de la langue basque”, *Gure Herria*, 1925eko martxoa, 161-169. orr.

⁴¹⁰ Ibidem.

⁴¹¹ Hérelle, G.: “Pastorales basques et tragédies grecques”, *Gure Herria*, 1924ko urtarri-
la, 11-23. orr.

⁴¹² Lacombe, G.: “Le basque au congrès de linguistique romaene”, *Gure Herria*, 1934ko maiatza-ekaina, 284-285. orr.

⁴¹³ Lamarque, J.: “Petite histoire du Pays Basque”, par J. Nogaret, *Gure Herria*, 1923ko iraila, 377-381. orr.

⁴¹⁴ Ibidem.

⁴¹⁵ Veyrin, Ph.: “Une nouvelle Histoire de Saint-Jean-de-Luz”, *Gure Herria*, 1926ko maiatza, 318-320. orr.

⁴¹⁶ “Il y a lieu de rectifier ici une affirmation de M. Nogaret. Celui-ci à la page 55 de son *St-Jean-de-Luz* attribué à Bertrand Detcheverry de Bayonne... Il la faut rendre... à Detcheverry Brisquet”, Veyrin, Ph.: “L’art au Pays Basque. L’oeuvre d’un Ferronnier Luzien au XVIII^e siècle”, *Gure Herria*, 1927ko iraila-urria, 426-431. orr.

⁴¹⁷ Apestéguy, L.: “L’âme basque et la littérature actuelle”. Conférence donné au Grand Séminaire de Bayonne le jeudi 5 février 1925”, *Gure Herria*, 1925eko apirila, 210-219. orr.

⁴¹⁸ Gavel, H.: “A propos du Tambourin de Gascogne”, *Gure Herria*, 1924ko otsaila, 65-67. orr.

Laurent Apestéguyk Eugène Poueydebaten eleberria aurkeztu zuen, esanez: “Nous a fait plaisir... Nous ne dirons pas que c’est le vrai roman basque, mais c’est un vrai roman basque”⁴¹⁹. Jean Lamarque urrunago doa goraipamenean: “ce roman très purement basque”⁴²⁰.

Jean Lamarquek Julio Urquijo adeitsua aipatu zuen:

“Les précisions qui suivent sont dues à l’obligeance de Julio de Urquijo”⁴²¹.

Jean Baptiste Daranatzek Philippe Veyrini eskertu zion:

“l’occasion excellente... de rechercher, de trouver et de consigner de nombreuses sources d’information”⁴²²

eta Aita Donostiak aipatu zuen:

“mon ami Veyrin”⁴²³. Henri Dopek Philippe Veyrinen “intéressants articles” aipatu zituen⁴²⁴.

Jean Lamarquek Philippe Veyrinen idazteko eraren:

“vérité et délicatesse”⁴²⁵ nabarmendu zituen. Azkenez, Jules Moulieren-tzat “distingué collaborateur”⁴²⁶ zen Veyrin.

Michel Etcheverryk Pierre Yturbideren lana goraipatu bazuen ere –“a eu le grand mérite d’entreprendre une histoire détaillée des baillis du Labourd”⁴²⁷– lan horren bi akats (“glissé dans cet exposé”⁴²⁸) aipatu zituen.

⁴¹⁹ Apestéguy, L.: “Une fille d’Euskadi”, par Eugène Poueydebat, *Gure Herria*, 1925eko abendua, 711-721. orr.

⁴²⁰ Lamarque, J.: “Le Sport en Pays Basque”, Conférence donnée au Grands Séminaire de Bayonne le 10 Décembre 1925, *Gure Herria*, 1926ko apirila, 231-248. orr.

⁴²¹ Lamarque, J.: “Jeux basques et jeux olympiques”, *Gure Herria*, 1924ko urtarrila, 46-56. orr.

⁴²² Daranatz, J. B.: “Mge. Labartette”, *Gure Herria*, 1937ko uztaila-iraila, 236-240. orr.

⁴²³ P. Donostia: “Au fil de mes lectures”, *Gure Herria*, 1938ko apirila-ekaina, 182-187. orr.

⁴²⁴ d’Argain, H. D. (Henri Dop): “La tour d’Auvergne”, *Gure Herria*, 1925eko urria, 587-597. orr.

⁴²⁵ Lamarque, J.: “Petite histoire du Pays Basque”, par J. Nogaret, *Gure Herria*, 1923ko iraila, 377-381. orr.

⁴²⁶ Moulier, J.: “Encore ‘La Couvade’”, *Gure Herria*, 1924ko otsaila, 102-106. orr.

⁴²⁷ Etcheverry, M.: “Quelques éclaircissements sur les Baillis de Labourd depuis la fin du XVII^e siècle”, *Gure Herria*, 1929ko azaroa-abendua, 526-530. orr.

⁴²⁸ Etcheverry, M.: “Un conflit Haranboure-Harriet dans les dernières années de l’ancien régime”, *Gure Herria*, 1931ko iraila-urria, 329-440. orr.

Iritziok lauki batez bildurik:

Hamahirugarren laukia. Lagunkideen iritziak *SSLABri* eta elkarte horren kideei buruz:

	Colas	Courte	Cuzac	Darana	Dassan	Decrep	P.Dop	Gavel	Hérell	Jullian	A.Léo	Nogar	Olphe	Person	Pouyde	Urquij	Veyrin	Yturbi	
Apéste	+					+ -								-	+ -	+ -			
Barbie	+																		
Courte	+								+	+									
Daran								+									+		
Dassan											+								
Donost																		+	
H.Do				+	+													+	
d'Elbé	+				+ -														
Etchev		+																+ -	
Gavel	+	+		+					+		+				+				
Hérell	+ -			+					+		-								
Lacom									+				+						
Lafitte			+						-	+									
Lamar	+												+				+	+	+
Lhand				+															
Lasall	-																		
Mouli							-												+
E.Sou				+															
Veyrin	+			+				+	+				+	-					
Vinson				+ -															

+ Alde

- Kontra

Kritikoak

Kritikatuak

Elaborazio propioa, *Gure Herrian* oinarrituta.

Laukian ikusten dugun legez, kritika ugariak bota zizkieten *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* elkarteko lankideei, kontrako zein aldekoak, 30 partaideetatik, zazpi baino ez izanik kritikariak eta kritiken jasotzaileak aldi berean.

Louis Colasek, kritiken kopuru handiena jaso zuenak (9), bi kritika ezkor baino ez zituen jaso; Jean-Baptiste Daranatzek seitatik bat baino ez; eta Henri Gavelek ere bakarra bostetik. Etienne Decrept eta Maurice Olphe Galliard, aldiz, ez ziren Laurent Apestéguy kritikariaren gustukoak.

II.7.2.3. Eskualzaleen Biltzarkideei buruzko aipamenak

Louis Colas pozik agertu zen, Jean Barbierrek “des renseignements précis” eskaini zizkiola-eta⁴²⁹, *laminez* esandakoarekin ados ez bazegoen ere –“avec plaisir” irakurri arren–: *Laminak* eta *Lamies* pertsonaia desberdinak ziren Colasen ustez eta berdinak Barbieren aburuz⁴³⁰. Charles d’Elbéek Jean Barbierrek –“mon excellent ami”– kontaturiko pasadizoa aipatu zuen⁴³¹. Jean Etcheparek, oster, Barbierrek kaleraturiko liburu batez adierazi zuen: “Bi akats handiskoak edireiten daizkogu”, baina gaineratu zuen: “Antze handieneko idazlea da Barbier... adimendu bat badu orotaratzabal idekia”⁴³². *Piarres Lafitte* ere, Barbierrek zuen iritzia agertu zuen:

M. l’abbé Barbier a évité un défaut assez fréquent en ce genre de livres: les auteurs, a force d’être personnels, détruisent les contes populaires, qu’ils surchargent de sempiternelles descriptions, réflexions et phrases ronflantes. Le nouveau livre est fait “d’après la tradition”... Personnellement nous prisons surtout la valeur documentaire de l’ouvrage⁴³³.

Jules Moulierentzat “neurthizlari nagusia”⁴³⁴ zen Barbier; beronek buruturiko *Testament Zaharraren* euskarazko itzulpena goraiatu zuen Moulierrek:

nehork ezagutzekotz eskuara, horrek badaki eta duen kharrarekin sinesten ahal duzue antze hobereneko irakurgaia izanen dugula. Ederki adiskidea, gure eskerrik beroenak zuri⁴³⁵.

Era berean, Barbierrek idatzitako antzerkia laudatu egin zuen Moulierrek: “Barbier a pleinement réussi chez lui... Il faut vivement féliciter M. Barbier”⁴³⁶.

⁴²⁹ Colas, L.: “Bertzen irakurgaietan”, *Gure Herria*, 1921eko ekaina, 389-391. orr.

⁴³⁰ Colas, L.: “Notre courrier. Les Laminak”, *Gure Herria*, 1925eko ekaina, 350-352. orr.

⁴³¹ d’Elbéek, Ch.: “L’époque de Gaskoina”, *Gure Herria*, 1923ko maiatza, 325-326. orr.

⁴³² Etchepare, J.: “Iritzi eta kitzika”, *Gure Herria*, 1929ko uztaila-abuztua, 312-319. orr.

⁴³³ Lafitte, P.: “Folk-Lore. M. l’Abbé Barbier et Mme. Frances Carpentier”, *Gure Herria*, 1931ko urtarrila-otsaila, 82-85. orr.

⁴³⁴ Oxobi: “Larrungo Mendian”, *Gure Herria*, 1925eko uztaila, 389-393. orr.

⁴³⁵ Oxobi: “Bertzen irakurgaietan”, *Gure Herria*, 1923ko uztaila, 456-359. orr.

⁴³⁶ Ibidem.

Beignatbordek eta Julien Vinsonen “Rabelais”-en testuari buruz interpretazio bana azaldu zutelarik, Jean Saint Pierrek adierazi zuen: “J’enclinerais par lire comme Vinson... Mais ne sommes-nous pas sur le voie avec M. Beignatborde”⁴³⁷.

Albert Constantin eta Henri Heugasen aurkezpena egin zuen Jean Etcheparek:

Constantin eta Heugas eskualdun lerdin ginarriak, bat adimenduz chimita bezain zalhu eta elhe gutiz erasia baten behar den guzietz mamitik hausten dakiena; bertzea, entzule zuhur, Ziberoko oiturez argitzen gituena, diren arabera⁴³⁸.

José Eizagirre “adizkidea”-z honako hau adierazi zuen Jules Moulirek: “Nehork egitekotz, jaun horrek goretsiko dauku, behar bezala, donostiarren lana”⁴³⁹.

Piarres Lafitte ados agertu zen Jean Etcheparerekin luzeegiak ziren Pastoralak laburtzeko proposatu zuenean: “Behar litezkela jostagailu hoik puska bat laburtu”⁴⁴⁰.

“Le très estimé”⁴⁴¹ Pablo Fermin Irigarai aipatu zuen Jean Barbierrek.

Era berean, Jules Moulieren istorioak irakurtzeko gomendioa egin zien umeei Laurent Apestéguyk: “Bertsua zalhu derabila Oxobik, solasa lerdin, labur, eta haureri ez lakiokete kalterik egin, bertze zorokeria batzu utzirik, holakoen buruan hartzeak”⁴⁴².

Jules Moulirek mirespenez hitz egin zuen Jean Saint-Pierrez, adieraziz:

ez dut uste bertze nehor badela Anxuberrok baino lehen, hogoi-ta hameka eta esku lukeenik holako lanaren argi eta garbi bururatzeko⁴⁴³.

⁴³⁷ J. S. P.: “Tribune libre. Le texte de Rabelais”, *Gure Herria*, 1921eko apirila, 228-234. orr.

⁴³⁸ Etchepare, J.: “Mendiz hunandian. Baionan”, *Gure Herria*, 1929ko martxoa-apirila, 177-184. orr.

⁴³⁹ José Eizagirrek idatzitako artikuluarri Jules Moulirek gehituriko nota; E'tar J.: “Egoaldetik”, *Gure Herria*, 1922ko apirila, 230-232. orr.

⁴⁴⁰ P. Ithurralde (Piarres Lafitte): “Pastoralez”, *Gure Herria*, 1922ko urria, 574-578. orr.

⁴⁴¹ Barbier, J.: “Ichtorio-Michterio”, *Gure Herria*, 1925eko urria, 598-599. orr.

⁴⁴² L. A.: “Ilabetekoa. Abereen solasak”, *Gure Herria*, 1922ko apirila, 239-240. orr.

⁴⁴³ Oxobi: “Bertzen irakurgaietan”, *Gure Herria*, 1921eko urria, 631-632. orr.

Baita Jean Elissaldek ere: “Egia erran gutitan entzuten da J. S. P. jaun kalonjea bezalako mintzatzailerik”⁴⁴⁴.

Eskualzaleen Biltzarrak antolatzen zituen lehiaketa literarioetan saridun gertatzea ez zen edozein gauza, adierazpenok erakusten duten moduan:

Jules Moulieren ikuspuntutik, P. Etcheverry lapurtarra “Ez du, egia erraiteko, eskualtzain batek bezen garbiki itzulikatzen eskuara...”⁴⁴⁵, baina Laborarien Gidaria “Euskaltzaleen-Biltzarreko baimenarekin agertu du”⁴⁴⁶, ez zen txarra izango, beraz, Eskualzaleen Biltzarraren onspena lortu zuenez gero.

Jean Etcheparek mirespenez hitz egin zuen Eyhéramendyren lanaz, Eskualzaleen Biltzarraren sariketara aurkeztu zuenaz, akats gramatikalak antzeman bazizkion ere:

Pierre Eyheramendy, Aldudeko bikaria, jakin orduko lanari lothua zela, bertze guziak iziturik gelditu omen dira... Egiaren erraiteko, bazen ere zertaz izi. Ithurry zen apez aipatuaren liburua ikertuaren ariaz, Eyheramendyk ezarri dauku begien aitzinean, laburzki, bere lagunaren orrialdetarik... Bizkitartean, laburrago izana gatik eta begiek hartzeko erresago, berdin badakot hemen –Eyheramendyren lana nola Ithurry zenarena– zendako, huna: ez batek ez bertzeak ez bailituzke aski beresten frantsesez *temps* eta *modes* deithuak diren aditz-epheak eta aditz-erak... Eskerrak daizkogu bihotzetik apez eskualtzaleari. Haren ondotik, hura argi, bertze batek zuzen dezake ildo bera⁴⁴⁷.

Piarres Lafitte nabarmendu zuenez, Eyhéramendyren euskara ikasteko metodo ausartak jaso zuen “l’estime, la reconnaissance et les bonnes graces de l’Eskualzaleen Biltzarra”⁴⁴⁸.

Azkenez Piarres Lafitte Leonen liburuaz adierazi zuen: “Léon Jauna aphezak lan eder eta ona egin dauku... Eskualzaleen Biltzarrak bortz ehun libera eman diozkanez geroz garrait-sari”⁴⁴⁹.

⁴⁴⁴ Zerbitzari: “Sarako eguna”, *Gure Herria*, 1925eko urria, 553-559. orr.

⁴⁴⁵ Oxobi: “Bertzen irakurgaietan”, *Gure Herria*, 1921eko uztaila, 466. or.

⁴⁴⁶ Ibidem.

⁴⁴⁷ Etchepare, J.: “Eskualtzaleen-Biltzarra. Aurtengo sariketak”, *Gure Herria*, 1924ko urria, 632-636. orr.

⁴⁴⁸ Lafitte, P.: “Tribune libre”, *Gure Herria*, 1929ko uztaila-abuztua, 380. or.

⁴⁴⁹ Lafitte, P.: “Leon Jaun Aphezak eskuaralat itzuli duen ‘Jesu-Kristoren Imitationeaz’ Jaun kechu bati bi hitz”, *Gure Herria*, 1928ko martxo-apirila, 105-112. orr.

Kritikak laukiz adieraziz gero:

Hamalagarren laukia. Eskualzaleen Biltzarra eta biltzarkideei buruzko lagunkideen iritziak:

	Barbier	Beignator	Constantin	Eizagirre	Etchepare	Etcheverry	Eyhréramen	Heugas	P. F. Irigar	Moulier	Saint Pierre	Vinson
Apestéguy										+		
Barbier									+			
Colas	+ -											
d'Elbée	+											
Elissalde											+	
Etchepare	-		+				+ -	+				
Lafitte	+				+		+					
Moulier	+			+		+ -					+	
Saint-Pierr		-										+

+ Alde

- Kontra

Kritikoak

Kritikatuak

Elaborazio propioa, *Gure Herria* aldizkarian oinarrituta.

Ikusten dugun legez, kritika ugari egin zituzten Jean Etchepare eta Jules Moulierek, mirespen zein gaitzespenekoak. Beste aldetik, Jean Barbier izan zen kritika gehienak jaso zituen, bat izan ezik guztiak laudoriozkoak.

II.7.2.4. Eusko Ikaskuntzari eta kideei buruzko aipamenak

Jean Saint-Pierre Telesforo Aranzadik esandakoaren kontra agertu zen, beronek adierazi zuelarik euskal arbasoen ezaugarri bereziak nabaritu ezinezkoak zirela ordurako: “ezin ezagutzekoak hoin-bertze nahasketen erdian”⁴⁵⁰.

Aita Donostiari laudoriozko hitzak zuzendu zizkion Henri Dopek: “Guide précieux pour ceux qui désirent s’adonner aux études folkloriques”⁴⁵¹. Angel Irigaraik, oster, bere lana Donostiarena baino zuzenagoa zela uste izan zuen:

⁴⁵⁰ Anxuberro (Jean Saint Pierre): “Eskualdunak. Gizaki berezi bat”, *Gure Herria*, 1922ko maiatza, 273-278. orr.

⁴⁵¹ d’Argain, H. D. (Henri Dop): “Contribution au folklore basque”, *Gure Herria*, 1925eko uztaila, 365-373. orr.

“J’ai l’impression que ma version a mieux conservé le caractère salazaraï du basque”⁴⁵². Azkenez, berriro estimu hitzak Donostiarentzat Emmanuel Souberbiellengandik: “Honneur et gloire à votre effort”⁴⁵³.

Henri Dopek Pedro Garmendiari eskertu zion honek eskuraturiko komunikazioa⁴⁵⁴ eta Philippe Veyrinek nabarmendu egin zuen Garmendiaren “obligeance” eta “scrupuleux talent de dessinateur”⁴⁵⁵.

Albert Léonez adierazi zuen Jean Saroihandyk Henri Gavelen “digne émule” zela, euskal zein hispaniar gaiei zegokienez⁴⁵⁶.

Albert Léonek Julio Urquijoren (RIEV aldizkariaren “savant directeur”) lana goraiatu zuen: “travail fort instructif sur ces proverbes”⁴⁵⁷.

Iritziok lauki baten bilduta:

Hamabosgarren laukia. Eusko Ikaskuntza eta elkarte horren kideei buruzko lagunkideen iritziak:

	T. Aranzabal	Donostia	P. Garmendia	Albert Léon	Julio Urquijo
Henri Dop		+	+		
Angel Irigarai		-			
Albert Léon					+
Jean Saint Pierre	-				
Jean Saroihandy				+	
Em Souberbielle		+			
Philippe Veyrin			+		

+ Alde

- Kontra

Kritikoak

Kritikatuak

Elaborazio propioa, *Gure Herria* aldizkarian oinarrituta.

⁴⁵² Irigaray, A.: “Noël d’Ochagavia”, *Gure Herria*, 1936ko martxo-a-apirila, 158-160. orr.

⁴⁵³ Souberbielle, E.: “Le Carillon Millénaire. Au Révérend Père de Donostia”, *Gure Herria*, 1928ko martxo-a-apirila, 201-204. orr.

⁴⁵⁴ d’Argain, H. G. (Henri Dop): “Le Labourd et la Fédération en 1790”, *Gure Herria*, 1927ko urtarrila, 73-90. orr.

⁴⁵⁵ Veyrin, Ph.: “Contribution à l’étude de l’art populaire au Pays Basque”, *Gure Herria*, 1929ko maiatza-ekaina, 193-198. orr.

⁴⁵⁶ “L’état actuel des études basques. Extrait de la leçon d’ouverture de cours sur la littérature basque, professé a la Faculté des Lettres, par M. Albert Léon”, *Gure Herria*, 1921eko uztaila, 446-461. orr.

⁴⁵⁷ Ibidem.

Ikusten dugun legez, Eusko Ikaskuntzaren edo *RIE*Veren lankideei buruzko aipamenak urriak izan ziren *Gure Herrian*, egon bazeuden ere. Kritiketatik, bat izan ezik, hau da, Angel Irigarai Donostiari zuzendurikoa, laudoriozkoak izan ziren guztiak. Beste aldetik, Albert Léon izan zen bakarra, kritikari eta kritikatuia aldi berean izateari dagokionez.

II.7.2.5. Euskaltzaindiari eta euskaltzainei buruzko aipamenak

Euskaltzaindiaren betebeharrak nagusia euskara estandarra sortzea izan zen, Euskal Herriko tokian tokiko euskalkien batasuna zela medio. Horretarako euskal hizkuntzaren ortografia finkatzea izan zen burutzear zegoen lan oinarritzakoetariko bat zen.

Angel Irigarai euskaltzainak derrigorrezko ikusi zuen intelektualek lor zezaten “une ‘entente’ au sujet de quelques signes orthographiques”⁴⁵⁸ eta, Euskaltzaindiaren oniritzia lortuz gero, testuetara hedatu grafia estandar hori. Adibidez, Irigarai proposatu zuen *tx* erabiltzea *-tch* eta *x* alboratuz-, baita *b* aspiratuaren eta dieresi grafiaren erabilpena murriztea ere⁴⁵⁹. Seguru asko, Irigarai ez zekien Pierre Lhandek beranduago jakinarazi ziona:

dans l’orthographe académique le signe adopté est x; dans l’orthographe des Basques français c’est la graphie ch. M. Irigaray nous demande d’adopter l’x; à cela nous devons répondre que précisément les Basques français ont une extrême répugnance pour l’x employé avec cette valeur, parce que pour leur ancêtres x équivalait à ts et non au ch d’aujourd’hui⁴⁶⁰.

Piarres Lafitteren erantzuna ere jaso zuen Irigarai, urgazle luhusotarraren ikuspuntua bestelakoa baitzen:

un vrai patriote cherche, n’est-ce pas, à conserver à son pays natal tout avantage qui le distingue de ses voisins. Or autour de nous y a-t-il une seule langue qui dispose d’une gamme d’aspirées, pareille à celle de l’Eskuara...? Au lieu de maudire ces aspirées qui leur sont propres, les basques doivent donc

⁴⁵⁸ Irigarai, A.: “Tribune livre. Sur l’orthographe de l’Eskuara”, *Gure Herria*, 1933ko martxoa-apirila, 169-184. orr.

⁴⁵⁹ Irigarai, A.: “Tribune libre. Quelques idées sur l’orthographe de l’Eskuara”, *Gure Herria*, 1932ko iraila-urria, 456-458. orr.

⁴⁶⁰ Gavel, H.: “Sur l’orthographe de la langue basque”, *Gure Herria*, 1933ko martxoa-apirila, 173-184. orr.

s'appliquer à les sauver et si l'on tient à faire de l'unité, de grâce! que ce ne soit pas par le vide!⁴⁶¹.

Izan ere, Raymond Saint-Jeanek adierazi zuen bezala, euskara batuak zalantzatan uzten zuen Lafitte: "Le basque unifié le laissait perplexe"⁴⁶².

Piarres Lafitte ados zegoen, ostera, grafia zuberotarraren murrizketarekin, "le fin zuberotar" Jean de Jauréguiberryk horixe bera adierazi zion legez⁴⁶³. Azken baten, Lafitte ez zegoen euskalkiak hurbiltzearen kontra, baizik eta neurri gogorregien aurka:

faut il abandonner toute idée de rapprochement entre les dialectes? Non pas. Et voici ce que l'on peut faire sans révolutionner la presse euskarienne: a) Que les journaux et revue du sud agréent un article écrit dans notre orthographe traditionnelle dans chacun de leur numéros. b) Que les journaux et revues basques du nord acceptent de même dans chacun de leurs numéros un article écrit dans le système de l'academie. d) le projet de calendrier bi-dialectal proposé par M. de **Saint-Jayme** serait peut-être encore plus utile⁴⁶⁴.

Jean Elissalde urgazlearen ustez Iparraldeko euskaltzainen –eta beraz, euskalkien– presentzia urria zen euskalkien arteko gerturatze prosezua oztopatzen zuena: Hamabi euskaltzainetatik Georges Lacombe, Martin Landerretche eta Pierre Lhande baino ez ziren Iparraldekoak. Ahaztuta zeukan Elissaldek, antza, Hegoaldeko Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Diputazioak zirela diru-emaileak (hamabost aulkietatik hamabi aulki finantzatzuz), Pablo Fermín Irigarai "Larreko"-k Elissalde "adiskide maite"-ari gogorazi zion bezala⁴⁶⁵.

Dena dela, "Larreko"-k onartu zuen Elissaldek egotzitako salaketa, baita akusazioei goraiamenak kontrajarri: Lapurtera laket zuela, hainbeste non uste baitzuen "lapurtar idazlek beren euskal lanetan eskualdunago direla"⁴⁶⁶.

⁴⁶¹ Lafitte, P.: "Tribune libre. Orthographe", *Gure Herria*, 1932ko azaroa-abendua, 554-558. orr.

⁴⁶² Saint-Jean, R.: "Le père Lafitte, Directeur de conscience", *Euskera*, Bilbo, 2001, 2, 664. or.

⁴⁶³ Ibidem.

⁴⁶⁴ Lafitte, P.: "Tribune libre. Orthographe", *Gure Herria*, 1932ko azaroa-abendua, 554-558. orr.

⁴⁶⁵ Larreko: "Euskaltzaindiar, itz bat", *Gure Herria*, 1927ko martxoa-apirila, 183-194. orr.

⁴⁶⁶ Lafitte, P.: "Tribune libre. Orthographe", *Gure Herria*, 1932ko azaroa-abendua, 554-558. orr.

Posible zatekeen, Iparraldeko euskaltzainen presentzia urria izan arren, bertokoen emaitzak nabariak izatea. Izan ere, 1929an Henri Gavel urgazleak txosten bat osatu zuen Iparraldeko euskalkien ekarpenaz batuerara⁴⁶⁷. Edmond Blazyk –*Gure Herria* aldizkariaren kudeatzailea– agindu zion Gaveli delako txostena egiteko eta Jean Saint-Pierreri –urgazle eta *Eskualduna* astekariaren zuzendaria– erakutsirik, onartu egin zuen. Baina Gavelen lana ez zen baliagarri suertatu batua Iparraldeko euskalkiez hornitzeko: Txostena Euskaltzaindiari aurkezturik, akademiakideek egokiago ikusi zuten baztertzea, euskaltzain arantsek gustuko ez luketelakoan⁴⁶⁸. Henri Gavelek berak harriturik adierazi zuen: “Les idées de Sabino Arana (qui n’était pas un linguiste) ont prevalu”⁴⁶⁹.

Izan ere, handia izan zen aranazaleen pentsamoldearen pisua garai hartako Euskaltzaindiaren erabakietan, Iparraldeko idazleen ikuspuntuetatik urrunduz. Horrela, Lafitte aranisten idazkera atsegin ez zuenetariko bat izan zen eta, atsekabez adierazi zuen Aranaren ortografia berritzailea –“adoptée on ne sait pourquoi par l’Académie Basque”⁴⁷⁰– Hegoaldeko kazeta gehienetara zegoela hedaturik, Iparraldean eskura zuten bitartean “un système orthographique plus traditionnel, celui de l’Eskualduna”⁴⁷¹. Lafitteren aburuz, sistema tradizionalak abantaila zuen Aranek sorturikoaren aurrean: “de ne pas rendre illisibles les textes basques des trois derniers siècles”⁴⁷². Azkenez, Piarres Lafitteren Aranarekiko

⁴⁶⁷ “Gure urgazle Gavel Euskaltzaindiari bere lan eder bat eskeñi dio. Lan onen izena: *Primera parte de la Gramática vasca, Gure Herrian* lendik argitaratua. Bañan oraingoz idazki luze bat guregana dakar, izenez: *Observaciones sobre la ortografía vasca*. Euskaltzaindiaren aburu, txosten ta iritxia nai lituzke ta *Gure-Herria*, ta *Eskualduna*-ren izenean bialtzen digu. Lan onen bidez, idazkeraren batasuna aitatzen da, Bidasoaz aruntz eta onuntzko idazleak ontan batera ibili ditezen”, “Bilbo’n Gure etxean, 1930’ko Ilbeltzaren 24’an”, *Euskera*. Euskaltzaindiaren lan eta agiriak,... 13. or.

⁴⁶⁸ “Arana avait écrit un livre sur la question de l’orthographe... Bien que ce traité ne concernât, en principe, que le dialecte biscayen, les aranistes entendait en appliquer aveuglément les conclusions à l’ensemble de la langue”, Gavel, H.: “Sur l’orthographe de la langue basque”, *Gure Herria*, 1933ko martxoa-apirila, 173-184. orr.

⁴⁶⁹ H. G.: “Le nouveau dictionnaire basque-français du Père Lhande” *Gure Herria*, 1927ko urtarrila-otsaila, 25-34. orr.

Hala ere, Gavelek ez zuen erabat arbuiaut Sabino Aranaren jarduera, akatsak ikusten bazizkion ere: “D. Sabino a été un animateur puissant et convaincu.. malheureusement il a eu le tort d’abonder, avec une préparation tout à fait insuffisante, le dangereux domaine de la linguistique”, Gavel, H.: “Sur l’orthographe de la langue basque”, *Gure Herria*, 1933ko martxoa-apirila, 173-184. orr.

⁴⁷⁰ Lafitte, P.: “Tribune libre. Orthographe”, *Gure Herria*, 1932ko azaroa-abendua, 554-558. orr.

⁴⁷¹ Ibidem.

⁴⁷² Ibidem.

jarrerara borobildu arren, Lafittek **Jean Etchepare**ren jokaera intelektuala (“maître à écrire de tous les écrivains basques”⁴⁷³) kontrajarri zion Aranaren jarduerari:

il ne cherche pas... comme le cherche Sabino Arana, à multiplier les raisonnements subtils pour conclure à la parfaite possibilité d’une littérature basque originale. Realiste, il se content de contribuer... à la création de cette littérature⁴⁷⁴.

Eskola nazionalistak sustaturiko ikertze-metodo berriak arbuia egin zituen Piarres Lhandek ere, arbitrarioak zirelakoan; eta Sabino Aranarenaz gain, Isaac López de Mendizabalen lanak ere baztertzeko aholkua eman zuen Lhandek⁴⁷⁵.

Ordurako López de Mendizabalek *Euzkel-Egutegia* zeukan argitaratuta, gipuzkera eta lapurtera erkatuz, eta Euskaltzaindiak eredutzat aurkeztu zion Saint Jayme urgazleari, honek antzeko lana burutzeko asmoa agertu zuenean⁴⁷⁶. Erabilgarri suertatu ei zitzaion Saint-Jaymeri: “J’effeuille, chaque jour, avec satisfaction croissante, l’Egutegia de M. López de Mendizabal”⁴⁷⁷, baina *Saint-Jaymek* euskalki guztien bat-egitea bilatzen zuen eta etsipenez onartu zuen Egutegian bi euskalki baino erkatu ezin izana⁴⁷⁸.

⁴⁷³ Lafitte, P.: “Notre maître: M. le Dr. Etchepare”, *Gure Herria*, 1932ko maiatza-ekaina, 259-266. orr.

⁴⁷⁴ Ibidem.

Dena dela, Lafittek Sabino Arana gustuko ez bazuen ere, onartu zuen lan baliagarria burutu zuela: “Egia erran, Sabin da bere idazlanetan sobera garbitzalea eta ez arras gure gostukoa. Bainan aitortu behar dugu hari esker eskuarak ezagutu duela pitz-aldi harrigarriena eta gure idazle multzo eder bat dugula Sabinen sailakoa”, Lafittek, P.: “Sabin Arana Goiri”, *Herria*, 1965eko abenduaren 2a.

⁴⁷⁵ “Il marque aussi la fin de anciennes méthodes arbitraires qui ont égaré longtemps l’activité des chercheurs et doivent nous mettre en garde contre les nouveaux procédés, également arbitraires et non moins généraux de la nouvelle école nationaliste basque (Sabino Arana, P. Soloeta, P. Arriandiaga, López Mendizabal, etc.)”, Lhande, P.: “Labbé Martin Hiribarren et son dictionnaire basque”, *Gure Herria*, 1925eko iraila, 489-503. orr.

⁴⁷⁶ “Euskaltzaindiaren batzar-agiriak. Bilbo’n, Euskaltzaindiaren etxean, 1929’ko orilaren 27’an”, *Euskera, Euskaltzaindia’ren lan eta agiriak...* 273. or.

⁴⁷⁷ Saint-Jayme: “Perennité et fusion”, *Gure Herria*, 1929ko maiatza-ekaina, 270-272. orr.

⁴⁷⁸ “Propager le Basque c’est bien... mais en déterminer la fusion serait, à mon sens, une oeuvre intelligente et louable!... Ne pouvant faire rédiger un “Egutegia” en tous les dialectes basques connus, on se bornerait au Guipuzcoan et au Labourdin... Le texte Labourdin serait confié à l’un des abbés rédacteurs de l’”Eskualduna”, mais quelque peu ferré sur le Guipuzcoan... il serait répandu à profusion des deux côtés de la frontière, chez les prêtres, instituteurs, chez tous les Membres de l’”Eskualzaleen-Biltzarra”, dans les séminaires et collègues

Beraz, Isaac López de Mendizabalek lehenengo eta Frederic Saint-Jaymek beranduago, Egutegi bana prestatu zituzten, gipuzkera eta lapurtera euskalkiak erkatuz. *Jules Moulier* “Oxobi”-k abegi ona egin zion López de Mendizabalen Egutegiari: “Atseginekin hartu dugu López Mendizabal Ixaka gure adiskideak eginikako Euzkel-Egutegia”⁴⁷⁹.

Jean Etcheparek, ostera, Frédéric Saint-Jaymek argitaraturikoari eskaini zizkion estimu hitzak: “Atseginekin irakurtu dut Saint-Jayme donapaleutar jauna berak ohartua zaikola”⁴⁸⁰.

Euskara estandarren finkatze prozedurarekin jarraituz, Jean Etcheparek proposatu zuen sortu berri zegoen euskara testuetan erabiltzen hasia, hala nola, *Gure Herria* aldizkarian eta erlijio liburuetan; hau da, irakurleria intelektualari zuzenduriko testuetan erabili, herritarrei eskaini baino lehen⁴⁸¹. Ados agertu zen Lafitte Etchepareekin erlijiozko testuez baliatzeari zegokioenez, azpimarratuz erlijio-liburuek eginkizun handia zutela euskal hizkuntza irauraztearen alorrean⁴⁸².

Jean Etchepareren asmoa kritikatu egin zuen, ostera, *Frédéric Saint Jaymek*, testuok euskalki bakarrean egongo zirelako idatzirik eta, Saint Jaymeren ikuspuntutik, testuak, hala nola Egutegiak, euskalki ezberdinez idaztea derrigorrezkoa zen euskalkien hurbilketa lortzeko⁴⁸³.

Basques, etc... La plupart en paieraient le coût (très modéré) mais dût l'Académie faire un sacrifice pour cette oeuvre méritoire de fusion”, Saint-Jayme: “Perennité et fusion”, *Gure Herria*, 1929ko maiatza-ekaina, 270-272. orr.

⁴⁷⁹ Oxobi: “Bertzen irakurgaietan”, *Gure Herria*, 1921eko otsaila, 134-135. orr.

⁴⁸⁰ Etchepare, J.: “Iritzi eta kitzika”, *Gure Herria*, 1929ko uztaila-abuztua, 312-319. orr.

⁴⁸¹ Etchepare, J.: “Espartina”, *Gure Herria*, 1927ko iraila-urria, 398. orr.

⁴⁸² “M. le Dr. Etchepare, peu suspect, je crois, de fanatisme religieux, reconnaissait icimême, il y a quelques mois, le rôle capital que jouent les livres de piété pour le maintien et le développement de notre vieille langue”, Lafitte, P.: “La nouvelle traduction en basque de l'imitation”, *Gure Herria*, 1930eko urtarrila-otsaila, 85-88. orr.

⁴⁸³ Era honetako hitzak eskaini zizkion Saint-Jaymek Jean Etchepareari: “J'avais eu l'idée (pas géniale, Hélas!) mais inédite indubitablement d'un calendrier à effeuiller, un texte Guipuzcoan, avec, parallèlement, un texte (identique) Labourdin... Mais M. J. Etchepare a décidé que pas un lecteur sur cent.. parmi les Basques-Français ne mordrait au Guipuzcoan! C'est net et bien tranchant! Il me permettra de croire que pour élaborer ce veredict pessimiste basé sur un calcul de probabilités ..., il n'a pas du soumettre ses méninges à une trop rude épreuve!”, Saint-Jayme, F. de: “Linguistique”, *Gure Herria*, 1929ko iraila-urria.

Hona hemen Etchepareren erantzuna: “Saint Jayme jauna.. erakutsi dauku odol suharreko gizona dagola bethi. Zahartzaroan sortu dauku, arren, bere gogoko ume bat... Ene iduriko, eztabadaz gabiltzan egutegiak urthe andana handisko baten ondotik baizen ez ditu

II.7.2.5.1. Euskaltzaindiaren erabakiei egindako kritikak eta laudorioak

Euskaltzaindiaren jarduera bera kritikatu zuen Jules Moulierek, oraindik urgazle ez zelarik, euskararen erabilera finkatzen ari ziren euskaltzainak erdaraz zihardutelako: “gure eskuaren goiti beheitez mintzo omen dire erdaraz”⁴⁸⁴. Oker zebilen Moulier, behinik behin Pierre Lhanderen aburuz: Elizalde, Eguskitza, Olabide eta Altube euskaltzainek, erdararen etsaiek, ez lukete baimenik emango euskaraz denko hizkuntzaz aritzeko: “ikhustekoa zen Eguzkitzaren begi beltzen tximista zorrotza, eta Aita Olabide’k xuxen botatzen zakon, “Euskeraz, yauna!”⁴⁸⁵.

Luis Eleizalde aipatu dugula, Piarres Lafittek ohartxo bat gehitu zion euskaltzainak argitaraturiko euskal eta latinezko hitz xortari, latina euskararen zordun zela frogatu nahi baitzuen Eleizaldek:

iguzkia bezain argi nahi luke irakutsi giza-gaizoak latina eskuaren zordun dela. Lanak baitira ordean... bai eta alfer lan... Agian, astidunen jostarazteko, jarraikiren zaio Elexalde ona hain alegeraki hasi duen sailari. Bainan othoi! Euzkerek hitz bat bederen ezar dezala, eta ilhar horiek irakurleak iretsi behar dituen, ala bakharrik miretsi!⁴⁸⁶.

Euskara estandarra finkatzeari dagokionez, argi ikusi bazuten ere idatzizko testuek zeregin garrantzitsua zutela, arazoa sortu zen erabaki orduko nork moldatu behar zuen euskara berri hori.

Idazleek Euskaltzaindiari eskatu zioten hitz xorta berria bildu edo sortzeko. Azkue lehendakariak euskaltzainei eskaria helarazi zienean, akademiakide gehienek agindua onartu zuten; Julio Urquijo eta Georges Lacombe, ostera, honako erantzuna eman zioten Azkueri:

ez duela Euskaltzaindia itz-berri orien sortzaile izan bear; baizik idazle berak ta erriak sortu ta pixtuarazi bear dituztela⁴⁸⁷.

erroak osoki eginen jende chehearen buru bihotzetan”, Etchepare, J.: “Erantzuna”, *Gure Herria*, 1929ko azaroa-abendua, 504-507. orr.

⁴⁸⁴ Oxobi: “Bertzen irakurgaietan”, *Gure Herria*, 1921eko otsaila, 134-135. orr.

⁴⁸⁵ Lhande, P.: “Eskuara eta eskualtzainak”, *Gure Herria*, 1921eko martxoa, 152-154. orr.

⁴⁸⁶ P. Ithurralde (Piarres Lafitte): “Bertzen irakurgaietan”, *Gure Herria*, 1929ko maiatza-ekaina, 278-280. orr.

⁴⁸⁷ “Euskaltzaindia’ren batzar-agiriak. Donostian, Aldundi-Jauregian, 28ko Ilbeltzaren 26’an”, *Euskerak*. Euskaltzaindia’ren lan eta agiriak... 49. or.

Eta nortzuk ditugu euskaltzain arduradun horiek?

Charles d'Elbéeek Julio Urquijoren "haute compétence"⁴⁸⁸ nabarmendu zuen.

Michel Etcheverryren aburuz: "Nul plus que lui n'est qualifié pour écrire cette page d'un passé plein de vie et d'enseignement"⁴⁸⁹.

Henri Gavelek Urquijoren artikulu "d'amples renseignements"⁴⁹⁰ aipatu zuen.

Gilberte Guillaumie-Reicherek: "documents de l'époque au milieu desquels le meilleur guide est Don Julio de Urquijo"⁴⁹¹.

Piarres Lafitteren ustez, bai Julio Urquijo bai Georges Lacombe gizon jakintsuenak ziren euskal gaietan⁴⁹².

Albert Léonek Julio Urquijoren jakituria nabarmendu zuen, beronen iritziak kontutan hartzekoak zirelarik:

il serait téméraire et même absurde de rejeter, surtout en entier, et de ne pas tenir pour possible la version du savant directeur de la *Revue Internationale*⁴⁹³.

Jules Moulierek eskertu zizkion bidalitako "lan mamitsu ederrak"⁴⁹⁴.

Philippe Veyrinek "une contribution inédite" eskertu zion Urquijo elebidunari – "aussi impeccable en français qu'en espagnol"⁴⁹⁵ –, baita beronengandik jasotako eskutitza – "fort aimablement écrite par Don Julio de Urquijo"⁴⁹⁶ –.

⁴⁸⁸ d'Elbée, Ch.: "Le jeux de pelote basque", *Gure Herria*, 1921eko uztaila, 393-401. orr.

⁴⁸⁹ Etcheverry, M.: "Bibliographie. Menendez y Pelayo y los Caballeritos de Azkoitia", par Julio de Urquijo, *Gure Herria*, 1925eko urria, 609-616. orr.

⁴⁹⁰ Gavel, H.: "La mode des cheveux courts au Pays Basque", *Gure Herria*, 1925eko otsaila, 100-102. orr.

⁴⁹¹ Guillaumie-Reicher, G.: "Victor Hugo et le Pays basque", *Gure Herria*, 1935eko uztaila-abuztua, 341-342. orr.

⁴⁹² Lafitte, P.: "Les études basques à travers des siècles", *Gure Herria*, 1932ko martxoa-apirila, 139-152. orr.

⁴⁹³ Léon, A.: "La langue basque hors de chez elle", *Gure Herria*, 1932ko azaroa-abendua, 524-536. orr.

⁴⁹⁴ Oxobi: "Bertzen irakurgaietan", *Gure Herria*, 1921eko apirila, 260. orr.

⁴⁹⁵ Veyrin, Ph.: "Un bascophile ignoré. L'abbé Dominique Lahetjuzan", *Gure Herria*, 1924ko iraila, 564-573. orr.

⁴⁹⁶ Ibidem.

Julien Vinsonek eskainitako laguntza eskertu zion Urquijori⁴⁹⁷, zuzenketak gramatikalak egin bazizkion ere (Urquijoren *eson/lesok* formen ordezkari *heso* aditz forma proposatu zuen Vinsonek⁴⁹⁸).

Eta Georges Lacombez:

Charles d'Elbeek oso gizon dokumentatua zela adierazi zuen: "Sur la question et chez qui je puiserais largement"⁴⁹⁹, "dit très justement... à l'appui de ma thèse"⁵⁰⁰. Badirudi, hala ere, gaizki-ulerturen bat sortu zela, Pelotari buruz ari zirela biak:

laissez-moi répondre brièvement –car je n'ai nullement l'intention d'engager une longue polémique là où il ne devait y avoir qu'une seule voix pour chanter les gloires et les beautés du Pays Basque– à M. G. Lacombe qui, dans le *Courrier de Bayonne* du 29 avril, déclare –en termes très courtois d'ailleurs– ne pas vouloir contresigner la plupart de mes assertions. M. Lacombe est parfaitement libre de ne plus me suivre dans cette étude que j'entreprends sur le jeu de pelote. Mais, par contre, il ne peut m'empêcher d'avoir recours –et je ne m'en priverai pas– à sa haute compétence en matière "pelotologique" –comme il aime écrire. M. Lacombe a fait paraître une série d'articles et je compte faire part à mes lecteurs des découvertes que j'y ferai⁵⁰¹.

Henri Gavel ados agertu zen Lacomberen oharrekin:

"M. Georges Lacombe me fait remarquer très justement que les bascologues ont souvent négligé de noter la forme *heskwara*"⁵⁰².

Piarres Lafittek eskainitako laguntza eskertu zion:

"M. Lacombe nous a fait très aimablement remarquer que les Primitivae sont un étude simplement descriptive"⁵⁰³.

⁴⁹⁷ Vinson, J.: "Ma bibliothèque basque", *Gure Herria*, 1922ko uztaila, 372-379. orr.

⁴⁹⁸ Vinson, J.: "Le mot *Aphez* et *Racine P*", *Gure Herria*, 1923ko ekaina, 382-385. orr.

⁴⁹⁹ d'Elbé, Ch.: "Les jeux de pelote basque. Le longue Paume et la courte Paume ancêtre du Rebot et du Pasaka", *Gure Herria*, 1921eko azaroa, 686-688. orr.

⁵⁰⁰ d'Elbé, Ch.: "L'époque de *Perkain*", *Gure Herria*, 1922ko abendua, 714-725. orr.

⁵⁰¹ d'Elbé, Ch.: "Les jeux de pelote basque", *Gure Herria*, 1921eko uztaila, 393-401. orr.

⁵⁰² Gavel, H.: "Sur l'orthographe de la langue basque", *Gure Herria*, 1933ko martxo-apirila, 173-184. orr.

⁵⁰³ Lafitte, P.: "Un infixe douteux", *Gure Herria*, 1928ko maiatza-ekaina, 255-257. orr.

eta Albert Léonek Lacomberen arlo linguistikoko gaitasunak goratu zituen:

personne, à coup sûr, n'a mieux connues avant lui (*Lacombe*) les diverses nuances qui caractérisent les multiples variétés dialectales de l'eskuara, personne ne les a mieux connus depuis, si ce n'est M. l'abbé Azkue⁵⁰⁴

Baita Lacomberi eskertu ere egindako zuzenketak: “Je suis heureux que M. Lacombe m'a signalé quelques inexactitudes”⁵⁰⁵

Harira berriro etorritz, hainbat intelektualek adierazi zuten Euskaltzaindia sortzen ari zen euskara batua ulergaitz gertatuko zitzaiela herritarrei. Konkretuki, kritikak jaso zituzten euskaltzainek Iparraldeko pentsalariengandik, are gehiago Euskaltzaindiaren izenean bertoko idazleei adierazi zienean: “Euskaltzaindia'ren idazkera artzen ez badute, ez dutela beronen laguntzarik izango”⁵⁰⁶.

Laurent Apésteguyren ustez, euskaltzainek “mintzaira zailchkoa derabilate, arruntean nekez deramakeguna”⁵⁰⁷, Resurrección M^a de Azkue buruaren hizkeraz hau badio ere: “Mintzaile choragarri hau, aho aberatsekoa, eskuara itzulikatuz, zalu eta biphil dabilana”⁵⁰⁸.

Jean Etchepare euskara berriak mintzaira zaharra hiltzera eramango zuelako beldur zen⁵⁰⁹.

Albert Léonek, batua konprenigaitzaren aurrean, Eskualdunak erabiltzen zuen euskara laudatu zuen:

“redigé dans une langue très soignée, non moins éloignée des fantaisies théoriques de l'Euzkadi et des Nationalistes et de leurs inventions de grammairiens”⁵¹⁰.

⁵⁰⁴ “L'état actuel des études basques. Extrait de la leçon d'ouverture du cours sur la littérature basque, professé à la Faculté des Lettres, par M. Albert Léon”, *Gure Herria*, 1921eko uztaila, 446-461. orr.

⁵⁰⁵ Ibidem.

⁵⁰⁶ “Euskaltzaindia'ren hirugarren urteko batzarrak. Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1922'ko orriaren 23'an”, *Euskera*. Euskaltzaindiaren lan eta agiriak, ... aipatu artikulua, 34. or.

⁵⁰⁷ L. A.: “Ilabetekoa”, *Gure Herria*, 1921eko martxoa, 197. or.

⁵⁰⁸ L. A.: “Ilabetekoa”, *Gure Herria*, 1921eko apirila, 255. or.

⁵⁰⁹ Etchepare, J.: “Iritzi eta kitzika”, *Gure Herria*, 1929ko uztaila-abuztua, 312-319. orr.

⁵¹⁰ “L'état actuel des études basques. Extrait de la leçon d'ouverture du cours sur la littérature basque, professé à la Faculté des Lettres, par M. Albert Léon”, *Gure Herria*, 1921eko uztaila, 446-461. orr.

Era berean, Jules Moulirek euskara berria gaitzetsi egin zuen, intelektualei zuzendurik baino ez zegoelakoan⁵¹¹.

Egia esan, Euskaltzaindiaren erabakiak beti gogoz onartu ez bazituzten ere, Resurrección M^a de Azkueren lana goratu egin zuten idazle askok:

Donostia musikariarentzat “travailleur infatigable”⁵¹² zen Azkue.

Henri Gavelek honako hau adierazi zuen Azkueren Hiztegiatz: “conçu dans un esprit à la fois scientifique et pratique”⁵¹³.

“Savant Azkue”⁵¹⁴ Angel Irigararentzat.

Georges Lacombe, Azkueren Hiztegiatz honako hau adierazi bazuen ere: “Il a l’immense mérite de n’avoir négligé aucun des dialectes”⁵¹⁵, iturrieri dagokienez, idatzizkoetatik erdia baino ez erabiltzea egotzi zion eta ahozkoetatik ere gutxi.

Albert Léonen aburuz “auteur biscayen du plus complet des dictionnaires basques... depuis quelques années”⁵¹⁶.

Jules Moulieren hitzetan: “Lan bat gaitza, hiztegi hori, gizon batek bururatzeko”⁵¹⁷.

Julien Vinsonen aburuz, ostera, “dans son dictionnaire... il s’est trompé quelquefois”⁵¹⁸.

⁵¹¹ Oxobi: “Ez dut erran nahi alferretan ari direla Euskaltzainburu jaunak. Ez. Gora, biziki gora baitabilta ordean idazle horiek. Gaudela gu, chumeen, aphalen zerbitzuko; euskaltzainburuak, aldiz, handienen argitzale”, “Bertzen irakurgaietan”, *Gure Herria*, 1922ko urtarrila, 49-52. orr.

⁵¹² Donostia, J. A. de: “Quelques caractéristiques de la chanson basque”, *Gure Herria*, 1923ko azaroa, 677-689. orr.

⁵¹³ Gavel, H.: “Grammaire pratique de la Langue Basque. Introduction”, *Gure Herria*, 1922ko otsaila, 87-93. orr.

⁵¹⁴ Irigaray, A.: “Noël d’Ochagavie”, *Gure Herria*, 1936ko martxoa-apirila, 178-179. orr.

⁵¹⁵ Lacombe, G.: “Le dictionnaire basque-français”, *Gure Herria*, 1938ko urria-abendua, 328-332 orr. Lacomberen ustez, Azkueren Hiztegia “peut être considéré comme presque complet pour le biscayen, assez, abondant pour le guipuzcoan et très en progrès sur tous ses prédécesseurs en ce qui concerne les parlers navarrais d’Espagne et les cis-pyrénéens”.

⁵¹⁶ Léon, A.: “L’état actuel des études basques”, *Gure Herria*, 1921eko uztaila, 446-461. orr.

⁵¹⁷ Oxobi: “Bertzen irakurgaietan”, *Gure Herria*, 1923ko uztaila, 456-459. orr.

⁵¹⁸ Vinson, J.: “Les Lieux-Dits et la Grammaire Basque”, *Gure Herria*, 1925eko abendua, 711-721. orr.

Eta Azkueri leporatutako akatsekin hasi garelarik, bazen Hiztegia gaitzetsi zuenik, gehiegi islatzen zuelako Azkueren nortasuna, azalduz: “Azkue no bazcuence, pero azcuence”⁵¹⁹, eta Hiztegiak “Diccionario Azkuenze”⁵²⁰.

Piarres Lafittek Azkueren lana laudatu egin zuen:

“Le roi des dictionnaires basques... dont on ne aurait trop proclamé la clarté, la richesse, la précision, l’élégance”⁵²¹, gaineratuz hala ere: “Assez incomplète, déjà introuvable et d’un maniement pas commode”⁵²².

Eta Piarres Lafittek adierazi zuena adierazi zuela, Pierre Lhandek ere Hiztegi bat osatzeari ekin zion, bakarrik Iparraldeko euskalkiez horniturik⁵²³. Lhanderen Hiztegiak eta gainontzeko lanez daturen bat ematearren:

Louis Colasek Lhande idazlea goraiatu zuen:

“Exquis petit livre qu’il vient tout récemment de faire paraître”⁵²⁴;

liburu hartan

“l’auteur a condensé avec une clarté et une netteté saisissantes l’effort accompli depuis moins de vingt années”⁵²⁵.

Louis Dassancek adierazi zuen:

“J’ai été charmé par... le roman du Père Lhande”⁵²⁶,

⁵¹⁹ “Zerbeit egitekotz, ez da nola-nahi egin behar eta Azcue jaunak Euskaltzaindia hala egin duela iduritzen zauku. Nun-eta ez duen bere kaskorat egin! Hori ere baditake, guzien buruan, eta orai-orai gogorat heldu zauku Iruñeko gure adichkide baten hitz... gaichtoa. ‘Azcue no bazcuence, pero azcuence!’”, Zerbitzari: “Chichta eta pherekak. Euskaltzaindia”, *Gure Herria*, 1927ko urtarrila-otsaila, 67-72. orr.

⁵²⁰ “après cet autre Dictionnaire Vascuence que des malveillants ont appelé Dictionnaire Azkuenze, du nom de son auteur, l’abbé Azkue de Bilbao, qui aurait trop fortement projeté sa personnalité sur une oeuvre essentiellement impersonnelle”, Dibildos: “L’Abbé Maurice Harriet et sa Soeur Mademoiselle Agatha”, *Gure Herria*, 1926ko urria, 595-605. orr.

⁵²¹ Lafitte, P.: “Les études basques à travers des siècles”, *Gure Herria*, 1932ko martxo-apirila, 139-152. orr.

⁵²² Ibidem.

⁵²³ Ibidem.

Aipatu dugu jadanik Piarres Lafitte izan zela, Philippe Aranartekin batera, Lhandek hasitako Hiztegia osatu zuena. Lafitteren aburuz, Azkueren Hiztegiak Iparraldeko hainbat hitz falta zituen, Lhanderena Ipar Euskal Herriko Hiztegia zen bitartean: “avec le Père Lhande, nous avons fait un dictionnaire du Pays Basque français, seulement, mais évidemment, par rapport au dictionnaire de notre pays, Azkue était très en retard, puisqu’il lui manque des quantités de mots. Il y a beaucoup de livres qu’il n’avait pas vus”, Monier, S., aipatu liburua, 164. or.

⁵²⁴ Colas, L.: “Le Chevalier de Bela”, *Gure Herria*, 1925eko azaroa, 651-660. orr.

⁵²⁵ Colas, L.: “Contribution à l’étude des armoires du Pays Basque”, *Gure Herria*, 1926ko martxo, 145-155. orr.

⁵²⁶ Dassance, L.: “Tribune libre. A propos d’Amenabar”, *Gure Herria*, 1921eko abendua, 729-731. orr.

oharren bat gehitu bazion ere.

Dibildos Abateak Lhanderen lanaz atsegin ez adierazi zuen berritzailea izango zela: “Sera objectif tout en donant à son oeuvre un caractère nouveau, puisqu’il l’a fait non suivant la méthode”⁵²⁷.

Dominique Dufauk: “dans son livre admirable”⁵²⁸.

Henri Gavelen ikuspuntutik Lhanderen Hiztegia goi mailakoa zen eta espero zuen filologoei abegi ona eskainiko ziotela, zeren eta:

il ne cherche pas à éliminer de son vocabulaire les mots d’origine romaine pourvu qu’ils soient réellement d’usage courant de grands linguistes comme Schuchardt et Meyer-Lübke⁵²⁹.

Pablo Fermin Irigarai “Larreko”-k Lhanderen baieztapenari (“Euskaldunak... nekez (burutik juana ezpa dago) izanen da biraozale”) diotso: “Aldez ala da eta aldez ez”⁵³⁰

Georges Lacomberen ikuspuntutik Pierre Lhanderen Hiztegia baliagarria bazen ere (“On y rencontre des vocables qu’on chercherait vainement ailleurs”⁵³¹), batzuetan axolagabeki ari izan zen egilea:

l’auteur, excellent écrivain et orateur basque en trois dialectes, n’est en revanche que peu bascologue et pas du tout linguiste⁵³².

Jean Lamarqueren ustez, Lhande zen “un maître en l’art d’écrire”⁵³³.

Azkenez, Philippe Veyrinek azpimarratu zuen “L’intéressant ouvrage du P. Lhande sur l’émigration basque”⁵³⁴, Lhanderi gaia lehenengotik zegoela aztertutik azaldu bazion ere.

⁵²⁷ Dibildos: “L’abbé Maurice Harriet et sa Soeur Mademoiselle Agatha”, *Gure Herria*, 1926ko urria, 595-605. orr.

⁵²⁸ Dufau, D.: “La Basquaise et les traditions”, *Gure Herria*, 1936ko urtarrila-otsaila, 56-66. orr.

⁵²⁹ H. G. (Henri Gavel): “Le nouveau dictionnaire basque-français du Père Lhande”, *Gure Herria*, 1927ko urtarrila-otsaila, 25-34. orr.

⁵³⁰ Larreko (Pablo Fermin Irigarai): “Eskuaraz biraoik ez daiteke”, *Gure Herria*, 1921eko urria, 619-620. orr.

⁵³¹ Lacombe, G.: “Le dictionnaire basque-français”, *Gure Herria*, 1938ko urria-abendua, 328-332. orr.

⁵³² Ibidem.

⁵³³ Lamarque, J.: “Blibilis”, par Pierre Lhande, *Gure Herria*, 1926ko maiatza, 310-315. orr.

⁵³⁴ Veyrin, Ph.: “Un bascophile ignoré. L’abbé Dominique Lahetjuzan (1766-1818)”, *Gure Herria*, 1923ko azaroa, 657-665. orr.

Labur ditzagun iritziok lauki baten:

Hamaseigarren laukia. Euskaltzaindia eta euskaltzainei buruzko lagunki-deen iritziak:

	Arzue	Aleizalde	Elissalde	Etchepare	A. Irigarai	Jauréguibe	Lacombe	Lhande	López Me	Moulier	Saint-Pierr	Saint Jay	Urquijo
Apestéguy	+												
Colas								+					
Dassance								+					
Dibildos								+					
Donostia	+												
Dufau								+					
d'Elbée							+ -						+
Etchepare											+		
Etcheverry													+
Gavel	+						+	+					+
Guillaumie													+
A. Irigarai	+							-					
P. E. Iriga			+ -										
Lacombe	+ +							-					
Lafitte	+ -	-		+	-	+	+				+		+
Lamarque								+					
A. Léon	+						+						+
Lhande					-				-	-		+	
Moulier	+								+				+
Saint-Pierr				+					+				
Veyrin								-					+
Vinson	-												+ -
Saint Jay				-					+				

+ Alde

- Kontra

Kritikoak

Kritikatuak

Elaborazio propioa, *Gure Herria* aldizkarian oinarrituta.

Ikusten dugun legez, *Gure Herrian* iritzi ugari argitaratu zuten Resurrección M^a de Azkueri, Euskaltzaindiaren buruari buruz, eta Julio Urkijo eta Piarres Lhande euskaltzainei buruz. Urkijori buruzkoak laudoriozkoak ziren, Azkue eta Lhandek, berriz, kontrako komentarioak ere jaso zituzten. Ulegarria da, zeren eta Euskaltzaindia burutzen saiatu zen lana konplexua baitzen, hau da, euskalkien arteko hurbilketa zela medio, euskara batua sortzea. Iparraldeko hitzuntentzat arazoetariko bat aranisten pentsamoldearen eragin handia izan zen, Iparraldeko euskalkien pisua murrizten baitzuen. Beraz, ipa-

rraldeko intelektualek bazuten esatekorik Euskaltzaindiaz, eta esan egin zuten *Gure Herria* aldizkarian.

Kritikariei dagokienez, Piarres Lafitte izan zen kritika gehienak egin zituen; ulergarria da, zeren eta kritika hauek argitaratu zituen aldizkariaren idazkaria baitzen Lafitte. Jadanik aipatu dugu Lafittek 1930. hamarkadan izan zuen gorakada intelektuala islatu zuela *Gure Herriak*, laukiak eskematikoki erakusten duena; izan ere, Lafittek garaiko hainbat intelektualen lanez agertu zuen ezagupidea: Azkue, Eleizalde, Etchepare, Angel Irigarai, Jaureguiberry, Lacombe eta Saint-Pierrez.

II.7.3. *Gure Herriak* islaturiko Iparraldeko sare intelektuala

Gure Herrian agerturiko kritika, pentsalari eta sorkuntza intelektualei buruzko aipamenei amaiera ematearren, honako bi lauki hauek osatu ditugu, iritziok bil ditzan:

Hamazazpigarren laukia (lehenengo zatia). Euskaltzaindia eta euakaltzainei buruzko lagunkideen iritziak:

	Ara	Azk	Barb	Beig	Bern	Col	Con	Cou	Cuz	Dar	Dass	Dec	Don	P.D	Eiza	Elei	Eagu	Eald	Ecoi	Epar	Ever	Eyh	Fran	Gar	
Ape		+				+							+ -												
Barb						+																			
Col			+ -																						
Cou						+																			
Dar																									
Dass																									+ -
Dibi																									
Don		+																							
H.D										+	+		+												+
Dou																									
Duf																									
Elbc			+			+						+ -													
Eldc																									
Epar			-				+										+								+ -
Ever								+											+						
Gar															+										
Gav		+				+		+		+															
Guil																									
Hér						+ -				+															-
A.Ir		+												+											
E.Ir																									+ -

Hamazazpigarren laukia (bigarren zatia). Euskaltzaindia eta euakaltzainei buruzko lagunkideen iritziak:

	Ara	Ark	Barb	Beig	Bern	Col	Con	Cou	Cuz	Dar	Dass	Dec	Don	P.D	Eiza	Elei	Eagu	Eald	Ecoi	Epar	Ever	Eyh	Fran	Gar	
Lac		+	-																						
Lafi		+	-		+					+											+	+		+	
Lam						+																			
Lass						-																			
Léo			+																						
Lha										+															
Mes					+																				
Mou			+	+																					
S.Ja																									
S.Pi			-		+																				
Saro																									
Sou										+			+												
Vey						+				+				+											+
Vins			-							+	-														

+ Alde

- Kontra

Kritikariak

Kritikatuak

Elaborazio propioa, *Gure Herrian* oinarrituta.

Hamazortzigarren laukia (lehenengo zatia). Lagunkideei buruzko iritziak:

	Gav	Guil	Hér	Heu	A.I	F.L	Jaur	Julli	Lac	Lha	Léo	Lóp	Mou	Nog	Olph	Pers	Pou	S.Ja	S.Pi	Sou	Urq	Vey	Vins	Ytur	
Ape														+		-	+	-	+	-					
Barb						+																			
Col									+																-
Cou				+				+																	
Dar																					+		+		
Dass										+	+														+
Dihí										+															
Don																									+
H.D																									+
Dou																									-
Duf										+															
Elbé									+	-															+
Eldé																			+						
Epar					+																	+			
Ever																									+
																									-

.../...

.../...

	Gav	Guil	Hér	Heu	A.I	F.I.	Jaur	Julli	Lac	Lha	Léo	Lóp	Mou	Nog	Olph	Pers	Pou	S.Ja	S.Pi	Sou	Urq	Vey	Vins	Ytur	
Gar																									
Gav			+							+	+	+					+								
Guil																						+	-		
Hér	+				-																			+	-
A.Ir										-															
P.F.																									

Hamazortzigarren laukia (bigarren zatia). Lagunkideei buruzko iritziak:

	Gav	Guil	Hér	Heu	A.I	F.I.	Jaur	Julli	Lac	Lha	Léo	Lóp	Mou	Nog	Olph	Pers	Pou	S.Ja	S.Pi	Sou	Urq	Vey	Vins	Ytur	
Lac	+	+	-							-					+									+	-
Lafi	-	+	+		-		+		+										+		+				
Lam									+						+		+				+	+			
Lass																									
A.L									+												+	+		+	
Lha					-								-	-				-							
Mes																									
Mou													+						+		+	+			
S.Ja													+												
S.Pi									-				+											+	
Saro											+														
Sou			+																						
Vey	+							+		-					+	-						+		+	
Vins																						+	-		

+ Alde

- Kontra

Kritikariak

Kritikatuak

Elaborazio propioa, *Gure Herrian* oinarrituta.

Laukiek agertzen duten informazioa *Gure Herria* aldizkarian idatzi zuten intelektuaren iritzien eskema da, intelektualok kide zituzten adituei buruzko iritzien eskema.

Hogeita hamabost kritikarien iritziak agertzen dira *Gure Herrian*. Hala ere, guztiak ez zuten iritzi kopuru berbera azaldu; Laurent Apestéguy, Henri Dop, Christian d'Elbée, Jean Etchepare, Henri Gavel, Georges Hérelle, Georges Lacombe, Piarres Lafitte, Pierre Lhande, Jules Moulrier, Jean Saint-Pierre eta Philippe Veyrin izan ziren gehien idatzi zutenak *Gure Herrian* garaiko sortzaile eta sorkuntza intelektualaz.

Intelektual horiek murgildurik zeuden garaiko jarduera intelektualean: haietariko zazpi orduko elkarte kultural baten kargudunak ziren: Jean Etchepare, Georges Lacombe, Piarres Lafitte, Pierre Lhande, Jules Moulier, Jean Saint-Pierre eta Philippe Veyrin. Horrez gain, Dop, d'Elbée eta Lhandek *Gure Herria* baino idatzi ez bazuten ere, gainerakoek beste aldizkariren baten ere argitaratu zituzten artikulua; Gavel, Hérèlle eta Veyrinek beste hiruzpalau aldizkaritan ere idatzi zuten:

- Apestéguy, Laurent: *Gure Herria* (15 artikulua)
Eskualdunak (109 art.)
- Dop, Henri: *Gure Herria* (31 art.)
- d'Elbée, Christian: *Gure Herria* (16 art.)
- Jean Etchepare: Eskualzaleen Biltzarraren lehendakari (1922-1925)
Gure Herria elkartearen lehendakariorde (1930-1938)
Gure Herria (61 art.)
Eskualduna (121 art.)
- Gavel, Henri: *Gure Herria* (76 art.)
Bulletin du Musée Basque (9 art.)
SSLAB (7 art.)
RIEV (13 art.)
- Hérèlle, Georges: *Gure Herria* (12 art.)
SSLAB (7 art.)
RIEV (5 art.)
- Lacombe, Georges: Euskaltzain (1920-1947)
Gure Herria (26 art.)
RIEV (65)
- Lafitte, Piarres: Gure Herria elkartearen idazkari adjuntu (1930-1938)
Gure Herria (98 art.)
Eskualduna (238 art.)
- Lhande, Pierre: Euskaltzain (1919-1936)
Gure Herria (16 art.)
- Moulier, Jules: Eskualzaleen Biltzarraren idazkari adjuntu
(1926-1935)
Gure Herria (69 art.)
Eskualduna (82 art.)

- Saint-Pierre, Jean: Gure Herria elkartearen idazkari (1930-1938)
Gure Herria (19 art.)
Eskualduna (180 art.)
- Veyrin, Philippe: Euskal Museoaren idazkari
Gure Herria (31 art.)
Bulletin du Musée Basque (14 art.)
RIEV (12 art.)

Eta nortzue ez eta noren lanez idatzi zuten intelektualok?

Laukiak erakusten duen moduan, Resurrección M^a de Azkue, Jean Barbier, Louis Colas, Jean Baptiste Daranatz, Pierre Lhande, Julio Urquijo, Philippe Veyrin eta Julien Vinsonez. Hauek ere ez ziren edonor euskal Herriko aktibitate kulturalen; izan ere, Colas eta Vinson ezik, gainerakoak kargudunak ziren elkarre kulturaletan. Ulergarria da, beraz, kritikak jaso zituzten horiek, Julio Urkijok ezik, *Gure Herrian* ere idatzi izana, beste aldizkariren baten ere argitaratzeaz gain; salbuespena Louis Colas da berriro, karguduna ez izateaz gain, gutxi idatzi zuelako aldizkarietan eta konkretuki *Gure Herrian* artikulu bat ere ez.

- Azkue, Resurrección M^a: Euskaltzaindiaren lehendakari (1918-1951)
Euskera (41. art.)
- Barbier, Jean: Gure Herria elkartearen aholkulari
(1930-1938)
Gure Herria (49. art.)
Eskualduna (79. art.)
- Colas, Louis: *Gure Herria* (4. art.)
- Daranatz, Jean B.: S.S.L.A.B.-en lehendakari (1930-1940)
Gure Herria (48. art.)
Bulletin du Musée Basque (6. art.)
SSLAB (61. art.)
RIEV (18. art.)
- Lhande, Pierre: Euskaltzain (1919-1957)
Gure Herria (16. art.)
- Urquijo, Julio: Euskaltzain (1923-1950)
Eusko Ikaskuntzaren buru (1918-1936)
RIEV (119. art.)

- Veyrin, Philippe: Euskal Museoaren idazkari (1923-
Gure Herria (31. art.)
Bulletin du Musée Basque (14. art.)
RIEV (12. art.)
- Vinson, Julien: *Gure Herria* (13. art.)
SSLAB (5. art.)
RIEV (6. art.)

Argi dago jende ikasia zela kritikak egin zituztenak; eta ez edonori buruz, idazle adimentsuei buruz baizik.

Labur dezagun orain zer esan zuten kritikariok intelektual horiei buruz (gaitzespenezko kritikak etzanaz idatziko ditugu):

Resurreccion M^a Azkue euskaltzainburuaz:

mintzaira aberatsekoa (Laurent Apestéguy).

Azkueren Hiztegiak: zientifiko eta praktikoa (Henri Gavelek); *iturri urrikoa* (Georges Lacombe); argia, aberatsa, zehatza, baina *osatu gabea eta erabiltzeko deserosoa* (Piarres Lafittek); lan itzela (Jules Moulierek).

Jean Barbier idazleaz:

oso lagun ona (Charles d'Elbéek); adimentsua, hala ere *bere liburua akatsekin* (Jean Etcheparek); dokumentatua, herri-literatura tradiziozko erara idazten dakiena (Piarres Lafittek); neurtizlari nagusia, aditua euskal hizkuntzan (Jules Moulierek).

Pierre Lhande euskaltzainaz:

idazle argia (Louis Colasek) eta xarmagarria (Louis Dassancek); berritzailea (Dibildosek); liburu liluragarria (Dominique Dufauk) eta goi mailako Hiztegia (Henri Gavelek) idatzi dituena; idazle bikaina (Georges Lacombe, Jean Lamarquek), baina *euskalari eta linguista kaskarra* (Georges Lacombe).

Louis Colas ikerlariak:

idazle laguna eta irakasle argitua (Laurent Apestéguyk); lagunkoia (Charles d'Elbéek); jakintsua (Henri Gavelek); liburu interesgarria, baina *zenbait interpretazio okerrekin* (Georges Hérellek); azkarra eta zuhurra (Philippe Veyrinek).

Jean Baptiste Daranatz *Société des Sciences, Lettre et Arts de Bayonne* lehendakariaz:

dokumentu interesgarriak argitaratu ditu (Henri Dopek); jakintsua (Henri Gavelek); historialari onenatarikoa (Georges Hérellek); zehatza (Pierre Lhandek); intelektualki fidagarria (Philippe Veyrinek).

Julio Urquijo euskaltzainaz:

intelektual trebea (Charles d'Elbéek); artikulu mamitsu baten egilea (Henri Gavelek); jakintsua (Piarres Lafitte); lagunkoi eta berritzailea (Philippe Veyrinek).

Philippe Veyrin Euskal Museoaren idazkariaz:

artikulu interesgarriak ditu (Henri Dopek); kolaboratzaile ona (Jules Moulierek).

Jean Vinson hizkuntzalariaz:

ez idazlea, baizik eta datuen bilatzailea, (Henri Dopek); ia beti ongi informatua (Georges Hérellek); entziklopedista, ekarpenak egiten ditu, baina *ez ditu kontutan hartzen garaiko korrante linguistikoak* (Georges Lacombek); “il faut accentuer la pensée de M. Vinson” (Jean Saint-Pierre); jakintsua (Philippe Veyrinek).

Laburbilduz, 1920. eta 1930. hamarkadetako Iparraldeko sare kulturalaren berri izango dugu Henri Dop, d'Elbée, Gavel, Lafitte, Moulier eta Veyrinek *Gure Herria*n egin zituzten kritikei esker. Kritikari horiek garaiko sare intelektualaren partaideak ziren, partaideak ziren era berean kritikak jaso zituztenak, hau da, Azkue, Barbier, Colas, Daranatz, Lhande, Urquijo, Veyrin eta Vinson.

Beraz, hauexek izan ziren 1920. eta 30. hamarkadetako Iparraldean sare intelektualaren partaide nabarmenenak: Resurrección M^a de Azkue, Jean Barbier, Louis Colas, Jean Baptiste Daranatz, Henri Dop, Christian d'Elbée, Henri Gavel, Piarres Lafitte, Pierre Lhande, Jules Moulier, Julio Urquijo, Philippe Veyrin eta Julien Vinson.

Kritikak Iparraldean argitaraturiko *Gure Herria* aldizkarian idatzi zituzten; ulergarria da beraz, hainbat lankide –Azkue eta Urquijo ospetsuak izan ezik– Iparraldekoak izatea. Harrigarria da, ostera, protagonista ugari atzerrikoak izatea, hala nola Colas, Gavel, Veyrin, Vinson..., aldizkaria euskalduna izan arren; jakina, idazle horien maila intelektual altuak justifikatzen du hauen parte hartzea Ipar Euskal Herriko sare kulturalan, bertokoak izan ez arren.

Kulturgunei dagokienez, elkarte guztien ordezkariak jaso zituzten kritikak: Azkuek, Euskaltzaindiaren lehendakariak; Barbierrek, Gure Herria elkartearen aholkulariak; Daranatzek, *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*ko lehendakariak; Lhande eskaltzainak; Urquijok, euskaltzain eta Eusko Ikaskuntzaren buruak, eta Veyrinek, Euskal Museoaren idazkariak.

Ikusten dugun legez, elkarte baten ordezkari izateak hauei buruzko iritziak ematera eragin zituen kritikariak. Azkue euskaltzainburuak eta Lhande euskaltzainak onespren eta arbuiozko komentarioak jaso zituzten; gainontzekoek onezpenezkoak baino ez. Izan ere, Euskaltzaindia 1920. hamarkadan hasi zen euskara batua sortzeko lanean eta oso lan polemikoa izan zen, onespenezko iritziaz gain, arbuiozko komentarioak sortzeko modukoa.

Azkenez, aldizkari guztietako lankideek jaso zituzten kritikak. Azkuek *Euskeran* baino ez zuen idatzi, Colasek *Gure Herrian* bakarrik eta Urquijok *RIE*Ven baino ez; Barbierrek, oster, *Gure Herria* eta *Eskualdunan* idatzi zuen, Daranatzek *Gure Herrian*, *Bulletin du Musée Basquen*, *SSLAB* eta *RIE*Ven, Veyrinek *Gure Herrian*, *Bulletin du Musée Basquen* eta *RIE*Ven eta Vinsonek *Gure Herrian*, *SSLAB* eta *RIE*Ven.

II.8. *Bulletin du Musée Basque*

Iparraldeko 1920. eta 30. hamarkadetako elkarte kulturalen azterketari amaiera amatearren, Euskal Museoari eta beronek argitaraturiko *Bulletin du Musée Basque* aldizkariari gainbegirada bat botako diegu, berez elkartea izan ez arren.

1923an Baionako udalak *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonneri* eskatu zion Euskal Museoa antola zezan⁵³⁵. Helburua: “Sauver de l’oubli, des ravages du temps, du progrès industriel... tout ce qui est pour un peuple la caractéristique de son pays”⁵³⁶. Sortu zuenetik, Museoa eta *Société* elkartearen arteko harremanak etengabeak izan ziren: Boissel zuzendariak urtero ematen zuen Euskal Museoaren ekintzen berri *Société*k hilabetero burutzen zuen batzarretan.

⁵³⁵ “Au mois de Mars 1922, le maire proposa à la Société des Sciences, Lettres, Arts et Etudes Régionales de Bayonne, par l’intermédiaire de son président, M. de Marien, de se charger de la création et de l’administration d’un musée basque, à l’instar de sociétés savantes d’autres villes, qui avaient voulu accepter un semblable mandat”, J. Nogaret: “Les origines du Musée Basque”, *Bulletin du Musée Basque*, 1925, 6. or.

⁵³⁶ *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, 1932, 141. or.

Museoaren zuzendaria izateaz gain, William Boissel Batzorde Iraunkorren lehendakari izendatu zuten eta idazkari Philippe Veyrin.

Veyrinek itxaropenez espero zuen Euskal Museoaren sorrera: “Si l’on considère l’intérêt provoqué par la création du Musée Basque de Bayonne, il est permis, croyons nous, d’avoir bon espoir”⁵³⁷; Laurent Apestéguyk ere abegi ona egin zion Museo berriari:

hemen dabiltzan arrotzen deskantsatzeko eta argitzeko, chede ona! Eskualdunentzat ere ez liteke kalte ikustea zer artarekin dauzkuten biltzen eta ohoratzen, hoin errecheki galtzerat uzten ditugun ohidura ederrak... Musée horren laguntza ttipia dukegu, dena ere on⁵³⁸

Kexu azaldu zen Laurent Apestéguy, hala ere, Baionan ezarri ezean, biarnek euren eskualdean jarri nahi izan zutelako Euskal Museoa:

Baionan da bertzela horren tokia. Biarno'n ere, mendiz auzo garelakotz, gure puska biltzen ari direla, diote; hango chede bethi: “gurea gure, bertzeena erdizka!”⁵³⁹.

Piarres Lafittek, ostera, fidagaitz hitz egin zuen sorrera berriaz:

oraí artinokoan jaun horieri ez dakotegu itzalño bat baizik ezagutzen: eskuara ez dakite Espainiako erregek baino gehiago eta eskuaraz idazterat lerratzen direlarik, huna bertsulako hitzalde saltsa eskaintzen daukuten jastatzeko: *Atehan pasatzen dubenak bere etchean da*⁵⁴⁰

Baina emaitzak ikusirik, William Boissel Museoaren zuzendariaren jarduera laudatu egin zuen Lafittek:

M. le Commandant, sourd à toute parole de découragement attentif à ménager des susceptibilités après tout légitimes, a mené les opérations avec une constance toute militaire⁵⁴¹

Baita goraiatu ere Museoak argitaratu zuen *Bulletin du Musée Basque* aldizkaria:

⁵³⁷ Veyrin; Ph.: “Pour l’étude du Folk-Lore Basque”, *Gure Herria*, 1923ko martxoa, 126-127. orr.

⁵³⁸ L. A.: “Ilabetekoa. Musée Eskualduna”, *Gure Herria*, 1922ko maiatza, 298. or.

⁵³⁹ Ibidem.

⁵⁴⁰ Aztapar (P. Lafitte): “Phereka eta Zimiko”, *Gure Herria*, 1923ko apirila, 257. or.

⁵⁴¹ Lafitte, P.: “Les études basques à travers des siècles”, *Gure Herria*, 1932ko martxoa-apirila, 139-152. orr.

Le *Bulletin du Musée Basque* a revêtu, la dernière fois qu'il a paru ses habits de grande fête: un numéro spécial en hommage au Pays Basque, fort artistiquement présenté, très varié, facile de lire, bref un petit cher-d'oeuvre dont nous félicitons M. le Commandant Boissel⁵⁴².

Museoak *Bulletin du Musée Basque* bihilabetekaria kaleratu zuen 1925ean. Museoaren ondareen berri ematearekin batera, jakitunek zehaztasunak ageritu zituzten arkitektura, pintura, ohitura zaharrak, antzerkia eta hizkuntzari buruz, betiere Euskal Herrian kokaturik.

Museoaren Batzorde Iraunkorraren burua zen Boisselek eta idazkaria zen Philippe Veyrinek *Bulletinen* idatzi zuten. Biokin batera, 1920. eta 30. hamarkadetan *Bulletinen* gehien argitaratu zutenak André Constantin aldizkariaren kudeatzailea eta Joseph Nogaret, *Société de Sciences, Lettres, Arts et d'Etudes Régionales de Bayonne* elkartearen lehendakariordea izan ziren.

Bulletineko lankidetzak gainerako aldizkariekin erkatzen badugu, honako lauki hau lortuko dugu:

Hogeigarren laukia. *Eskualduna, Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, Revista Internacional de Estudios Vascos, Euskera, Gure Herra eta Bulletin du Musée Basque* aldizkariaren lankideak era artikuluen kopuruak 1921etik 1940ra bitartean:

Izena	<i>Gure Herria</i> (1921-1938)	<i>Eskualduna</i> (1921-1940)	<i>SSLAB</i> (1920-1940)	<i>RIEV</i> (1920-1936)	<i>Euskera</i> (1920-1936)	<i>Bul. du Musée B.</i> (1925-1935)	Adina 1935ean
Dassance, Louis	27	22				1	47
Dop, Henri	31					1	
Lacombe, Georges	32		2	65	2	1	56
Lhande, Pierre	16			3	1	1	58
Blazy, Edmond	6					2	57
Cuzacq, René	21		8			2	34
Hérelle, Georges	12		7	5		2	84
Lamarque, Jean	27		2			2	

.../...

⁵⁴² Ithurralde, P. (P. Lafitte): "Le coin du liseur", *Gure Herria*, 1933ko urtarrila-otsaila, 45-49. orr.

.../...

Izena	<i>Gure Herria</i> (1921-1938)	<i>Eskualduna</i> (1921-1940)	<i>SSLAB</i> (1920-1940)	<i>RIEV</i> (1920-1936)	<i>Euskera</i> (1920-1936)	<i>Bul. du Musée B.</i> (1925-1935)	Adina 1935ean
Rectoran				3		2	
Colas, Louis	14		1			3	†1929 60
Etchecoin	2					3	
Gallop, Rodney A.	10					4	34
Rocq						4	
Alford, Violet				2		5	54
Daranatz, Jean Baptiste	48		61	18		6	65
Donostia, José Antonio	18			25		8	49
Gavel, Henri	76			12	1	9	55
Constantin, André						10	
Veyrin, Philippe	31		1	13		14	35
Boissel, William			1			16	66
Nogaret, Joseph			10			17	73

Elaborazio propioa, *Eskualduna*, *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, *Revista Internacional de Estudios Vascos*, *Euskera*, *Gure Herria* eta *Bulletin du Musée Basque* aldizkarietan oinarrituta.

Ikusten dugunez, *Bulletin du Musée Basquen* argitaraturiko artikuluen kopurua nahiko urria izan zen; Museoaren aldizkariak lankide kopuru txikia izan zuela ere islatzen du laukiak, gainontzeko aldizkarietara idazle komun gutxi izanik *Bulletinek*:

Daranatz, Donostia, Gavel eta Veyrinek *Bulletin du Musée Basquen* idazteaz gain *Gure Herria* eta *RIEVn* argitaratu zituzten lanak.

Jean Baptiste Daranatz eta Joseph Nogaretek *Bulletin du Musée de Bayonnen* eta *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonnen* argitaratu zituzten lanak.

Beraz, *Bulletin du Musée Basquen* idatzi zuten lankideetatik bostek baino ez zuten beste aldizkariaren baten idatzi, hau da, *SSLAB*, *Gure Herria* edo *RIE-Ven*. Zientziaren hainbat eremu arakatzen zituzten aldizkariak ziren, *SSLAB* eta *RIEV* intelektualki, *Gure Herria* jende ez ikasiarengandik hurbilagotik.

Bulletin du Musée Basque eta *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* argitalpenetan bi lankide komun baino ez badago ere –Daranatz eta Nogaret–, *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* Euskal Museoa sortu zuenetik harremanak egonkorrak egon ziren elkarte bien artean. Horren froga lirateke Jean Baptiste Daranatz *Société*ko burua izatea eta *Bulletinen* ohiko lankide moduan ari izatea (beste aldetik, *Eskualdunan* izan ezik, aldizkari guztietan idatzi zuena); William Boissel *Société*ko buruordea eta Museoaren zuzendaria izatea, *Bulletinaren* ohiko lankidea izatearekin batera; André Constantin *Société*ko buruordea eta *Bulletinaren* kudeatzailea izatea; eta Nogaret *Société*ko idazkari adjuntua, gero buruordea, izatearekin batera *Bulleti*neko ohiko lankidea izatea.

Beste aldetik, *Bulletinen* idazteaz gain beste aldizkariren baten idatzi zuten bost intelektual horietatik, lauk, Daranatz, Donostia, Gavel eta Veyrinek, harreman berriak sorrarazi zituzten aldizkarien artean, konkretuki *Bulletin du Musée Basque*, *Gure Herria* eta *RIE*Ven artean; hau da, Iparraldeko eta Hegoaldeko aldizkarien artean, orain arte ikusi ez duguna. Iparralde eta Hegoaldearen arteko harreman berriak ezarri zituzten Jean Baptista Daranatz, Henri Gavel eta Philippe Veyrinek, *Bulletinen* idazteaz gain, *RIE*Ven ere idatzi zutelako; eta aita Donostiak *Bulletin du Musée Basque* eta *Gure Herrian* lanak argitaratu zituelako, *RIE*Ven idazteaz gain. Dena dela, elkarrekikotasun hori aldizkari berebetean idaztera mugatu zen, elkarte bereko bileretan parte hartzean gauzatu barik.

Azkenez, begira diezaigun jarraian dugun laukiari, Euskal Museoaren arduradunen (William Boissel eta Philippe Veyrin) partaidetza orain arte aztertu ditugun elkarte kulturaletan ikusteko; laukia osotuago gera dadin *Bulletin du Musée Basque* argitalpenaren ohiko lankideak ere sartu ditugu:

Hogeita batgarren laukia. Euskal Museoaren arduradunen partaidetza 1920. eta 1930. hamarkadetako elkarte kulturaletan:

Boissel, William

Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1921eko otsaila, Baiona.
 Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1921eko maiatza, Baiona.
 Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1921eko ekaina, Baiona.
 Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1921eko abendua, Baiona.
 Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko urtarrila, Baiona.
 Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko otsaila, Baiona.
 Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko martxoa, Baiona.
 Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko apirila, Baiona.

Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko maiatza, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko ekaina, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko uztaila, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko azaroa, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko abendua, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko urtarrila, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko otsaila, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko martxoa, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko apirila, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko maiatza, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko uztaila, Baiona.
Société des Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko azaroa, Baiona.

Constantin, André

Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko urtarrila, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko otsaila, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko apirila, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko azaroa, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko abendua, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko urtarrila, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko otsaila, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko martxoa, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko apirila, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko ekaina, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko uztaila, Baiona.
Société des Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko azaroa, Baiona.

Daranatz, Jean Baptiste

Euskaltzaindia, 1921eko martxoa, Hazparne.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko urtarrila, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko apirila, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko ekaina, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko uztaila, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko uztaila, Baiona.

Donostia

Eusko Ikaskuntza, 1927ko iraila, Donostia.
Eusko Ikaskuntza, 1927ko abendua, Donostia.
Eusko Ikaskuntza, 1928ko apirila, Azpeitia.
Eusko Ikaskuntza, 1928ko uztaila, Donostia.
Eusko Ikaskuntza, 1928ko iraila, Donostia.
Eusko Ikaskuntza, 1928ko abendua, Donostia.

Eusko Ikaskuntza, 1929ko martxoa, Donostia.
Eusko Ikaskuntza, 1929ko ekaina, Donostia.
Eusko Ikaskuntza, 1929ko iraila, Zaldibia.
Eusko Ikaskuntza, 1929ko abendua, Donostia.
Eusko Ikaskuntza, 1930eko uztaila, Donostia.
Eusko Ikaskuntza, 1930eko iraila, Bergara.
Eusko Ikaskuntza, 1931ko martxoa, Donostia.
Eusko Ikaskuntza, 1931ko iraila, Bilbo.
Eusko Ikaskuntza, 1931ko abendua, Donostia.
Eusko Ikaskuntza, 1932ko otsaila, Donostia.
Eusko Ikaskuntza, 1932ko martxoa, Donostia.
Eusko Ikaskuntza, 1932ko ekaina, Donostia.
Eusko Ikaskuntza, 1932ko iraila, Iruñea.
Eusko Ikaskuntza, 1932ko abendua, Donostia.
Eusko Ikaskuntza, 1933ko ekaina, Donostia.
Eusko Ikaskuntza, 1933ko iraila, Gasteiz.
Eusko Ikaskuntza, 1933ko abendua, Donostia.
Eusko Ikaskuntza, 1934ko martxoa, Donostia.
Eusko Ikaskuntza, 1934ko ekaina, Donostia.
Eusko Ikaskuntza, 1934ko iraila, Bilbo.
Eusko Ikaskuntza, 1934ko abendua, Donostia.
Eusko Ikaskuntza, 1935eko uztaila, Donostia.
Eusko Ikaskuntza, 1935eko iraila, Donostia.

Gavel, Henri

Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1921eko azaroa, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1921eko abendua, Baiona.
Eusko Ikaskuntza, 1922ko, Gernika.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko urtarrila, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko otsaila, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko martxoa, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko apirila, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko maiatza, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko ekaina, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko uztaila, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko azaroa, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko abendua, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko urtarrila, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko martxoa, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko apirila, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko maiatza, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko ekaina, Baiona.

Société des Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko uztaila, Baiona.
Société des Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko azaroa, Baiona
Euskaltzaindia, 1930eko uztaila, Donostia.

Nogaret, Josphe

Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1920ko ekaina, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1920ko uztaila, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1921eko otsaila, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1921eko ekaina, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1921eko azaroa, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko urtarrila, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko otsaila, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko martxoa, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko apirila, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko ekaina, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko azaroa, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1922ko abendua, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko urtarrila, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko otsaila, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko martxoa, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko apirila, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko maiatza, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko ekaina, Baiona.
Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, 1923ko uztaila, Baiona.

Elaborazio propioa, *Eskualduna*, *SSLAB*, *Eskualzaleen Biltzarra*, *RIEV*, *Euskera* eta *Gure Herrian* oinarrituta.

Laukiak erakusten digun bezala, Euskal Museoaren arduradun nagusia, William Boissel, *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* bileretara joaten zen, hain zuzen ere museoaren ekintzen berri emateko. Ostera, Philippe Veyrin, Euskal Museoaren Batzorde Iraunkorraren idazkaria izan bazen ere, ez da laukian agertzen, ez baitzen *Société*ren bileretara joaten, ezta beste elkar-terren batek antolaturiko batzarretara ere.

Laukian sartu ditugun Constantin, Daranatz, Donostia, Gavel eta Nogaret *Bulletin du Musée Basque* euskal museoaren aldizkariaren ohiko lankideak ziren. Bostetik lau, Constantin, Daranatz, Gavel eta Nogaret, *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*ren bileretara joaten ziren; partaidetza horrek berriro erakusten digu euskal museoa eta *Société*ren artean harreman estuak izan zirela. Aita Donostia salbuespena da laukian, bertan agertzen

diren gainerako bostak ez bezala, Eusko Ikaskuntzaren batzarretako ohiko partaidea izan zelako. Izan ere, lehenago azaldu dugun bezala, Donostia Hegoaldeko intelektuala zen, Iparraldera bere ezaguera zabaldu zuena, zubi kulturala ezarri Iparralde eta Hegoaldearen artean (1936 eta 1943. urteen artean aita Donostia Iparraldean, eta bereziki Tolosan, egon zen aterpeturik).

Piarres Lafittek ez zuen 1920. eta 30.eko hamarkadetako *Bulletin du Musée Basque* aldizkarian idatzi. Are gehiago, *Bulletinen* behin baino ez da Lafitte aipatzen, 1931ko alean, *Cahiers de Centre Basque et Gascon d'Études Régionales* argitalpenaren berri eman zutenean, Lafitte irakasleak “Les études basques au travers des siècles” artikulua argitaratu zuela *Cahiersean* aditzera emanaz⁵⁴³.

⁵⁴³ *Bulletin du Musée Basque*, 1931, 3. eta 4. zkiak, 192. or.

III. PIARRES LAFITTEK SUSTATURIKO EKINTZAK 1930. HAMARKADAN

Azaldu dugunez, P. Lafitte partaide eraginkorra izan zen Ipar Euskal Herriko kulturean 1920. hamarkadatik aurrera, aldizkarietan argitaratzeari eta elkarteetan parte hartzeari ekinez eta, garai hartako hainbat intelektual bezala, euskal ezaugarrien iraupenaren aldeko lanean parte hartuz.

Intelektual moduan 1920. hamarkadan lanean hasi zelarik, bereziki *Eskualduna* eta *Gure Herriaren* inguruan, 1930. hamarkadan gazteekin batera ekin zion euskaltasuna barreiatzeko ekintzak burutzeari. Ustaritzeko Apaizgaitegi txikian irakasle zegoen legez, ikasle gazteekin zein bertako irakasleekin izan zituen harreman estuak; harreman horiez baliaturik, sortu zituen Euskalzaleak, Menditarrak eta Begiraleak taldeak, baita *Aintzina* aldizkaria ere.

Hurrengo lerroetan aipatu dugun Lafitteren jarduera berriaz ari izango gara. Dena dela, gazteekin buruturiko ekintzok ez zuten Lafitteren aurreko zereginetik haustura eragin; izan ere, Piarres Lafitte ez zen “*Eskualduna eta Gure Herria*-tik aldendu edo alboratu, eta buru-belarri *Eskualherrizaleak*, *Meditarrak*, *Begiraleak* eta *Aintzina* kazeta sustatzera eta indartzera”⁵⁴⁴ abiatu, Kepa Sudupek azaldu duen bezala, baizik eta, lan intelektualetan ziraue-larik⁵⁴⁵, euskaltzaletasuna bultzatzeari ekin zion.

III.1. Begiraleak

Lehen Mundu-Gerra amaitu zenean, elkarte sozietate ugari sortu ziren, gerrak erakarritako apurketari erantzun bezala; gizarte mailako apurketa izan

⁵⁴⁴ Sudupe, P.: *Kazetari-lan hautatuak...* aipatu liburua, 66. or.

⁵⁴⁵ Ikusi dugun legez, Lafittek 1937an gutxitu bazuen ere *Eskualdun*an argitaraturiko artikuluen kopurua- Arotçarena zuzendari berriarekiko ezinikusia zela eta- 1938ra arte hainbat artikulua idatzi zituen *Gure Herria* aldizkarian, 1930. hamarkadan sorturiko Gure Herria elkartearen idazkari adjuntua izatearekin batera.

zen –hiru gizonetatik bat ez zen gerratik bueltatu–, baita kultura mailakoa ere. Emakumeek oso betebeharrak garrantzitsuak izan zuten garai hartan, frontean parte ez izatean, kultura eta ohitura zaharren zaindari eta igorle bilakatu baitziren erretagoardian.

Iparraldean Lafittek Begiraleak emakumezko taldea sortu zuen Iparraldean, emakumeak aurkeztuz euskal kulturaren gordeleku legez, seme-alabak hezteko eta euskal kulturaren zaretzeko ardura baitzuten⁵⁴⁶. 1934ko azaroaren *Aintzina* aldizkaritxoan zehazkiago agertu zuten Begiraleen eginbidea⁵⁴⁷: Euskal kantuak, euskara⁵⁴⁸ eta katexima euskaraz irakastea eta bilkurak eta euskal festak noizbeinka antolatzea.

1933an Piarres Lafitteren lankideetariko batek, Amoçainek, lehenengo bilera burutu zuen neska gazteekin:

je me rends à Luz dimanche... le matin. Après diner j'aurai un entretien avec 8 filles. Je vous prie de donner à Guéçarague de ... un 'petit stock' de cartes d'adhésion pour Emakumes. Guéçarague qui sort demain 24 et vera ma tante et lui remettra les dites cartes⁵⁴⁹.

Madeleine de Jaureguiberry zuberotarrak Begiraleen arautegia prestatu zuen⁵⁵⁰, Hegoaldeko Emakume Abertzale Batzaren arautegian oinarriturik; bertan adierazi zuen Begiraleak emakumezkoen taldea erregionalista zen eta euskara hizkuntza eta euskal ohitura zaharrak zaintzeko asmoa zuen. Beste aldetik, Begiraleak taldea euskaltzalea ere bazen; beraz, talde horren kidea izateko derrigorrezkoa zen euskalduna izatea, edo euskaltzalea behinik behin.

Begiraleen azpialdeak osatu zituzten hainbat herritan, Idazkaritza Orokorraren helburu orokorrak kontuan hartu barik, besteekiko askatasunez ari zitezen⁵⁵¹.

⁵⁴⁶ Augusta Larralde (Piarres Lafitte): "Salut", *Aintzina*, 1934ko urria.

⁵⁴⁷ "Begiraleak", *Aintzina*, 1934ko azaroa (Piarres Lafitte idatzitako artikulua da).

⁵⁴⁸ Eskola libreetan euskara irakasteko eskubidea bazegoela gogoratu zuten *Aintzina*an: "Eskola libreetan erakusle diren Begiraleak ez ditzatela ahantz Jaun Aphezpiku ohiak eskuarari buruz eman manamendu bereziak; Gubernuko eskoletakoak orhoit ditela halaber beren erreglamenduko 15-garren artikuluz. Hunek zuzena emaiten dute eskolan haurrei erakusteko nola itzuli behar den frantsesa eskuaralari eta eskuara frantseserari", "Begiraleak", *Aintzina*, 1934ko azaroa.

⁵⁴⁹ Pierre Amoçainek idatzitako eskutitza, 1933ko azaroaren 23a.

Thierry Truffautek dioenez, Begiraleak taldea 1932an sortu zen: "En fait l'origine de ce mouvement date des années 32 et 33", *Begiraleak*, Kutxa fundazioa, Donibane Lohizune, 1996, 15. or.

⁵⁵⁰ Larronde, J. C., aipatu liburua, 162-163. orr.

⁵⁵¹ Augusta Larralde (Piarres Lafitte): "Un petit mot", *Aintzina*, 1935eko otsaila.

Horrela, hogeita bost herritan osatu zuten begirale taldea, ordezkatzaille banarekin. Horietako batzuk: Bribet emakumea Donibane Lohitzunen, Lazcano Urruñan, Joséphine Moralès Hendaian, Hiriart Biarritzen, Gavel Angelun, Thérèse Hirigoyen-Gutti Larresoron, Hillau⁵⁵² Kanbon, Mayi Diharce Hazparnen, Basterreix Arüen, Anita Hastoy Atarratze-Sorholüzen, Gréciet Ezpeletan eta Madeleine Jaureguiberry Alozen⁵⁵³. 1936an izen berriak ikus ditzakegu zerrendan: Marie-Jeanne Haran Ainhoan, Inda Alduden, Goux Ligin, Berdeco Martxutan, Eyherabide Maulen, Harismendy Baionan, Lina Larrieu Donibane Garazin, Peria Donapaleu⁵⁵⁴; eta 1937ko martxoko zerrendan: Elise Arramendy⁵⁵⁵ Donibane Lohizunen Bribeten ordeztu, Usarralde⁵⁵⁶ Lazcanoren ordeztu Urruñan, Daguerre Hastoyren ordeztu Atarratzen, Amoçain⁵⁵⁷ Uztaritzen, Curutchet Donazaharren, S. Larrea Ziburun, Guillaumie-Richter Getarian, Gauthier Arrangoitzen, Harcoury Irurin, M. L. Hirigoyen Omizegañian, Carriquiry Altzaien, Ilharramounho Oragarren, M. Harrio Bardozen eta G. Etcheverry Landibarren⁵⁵⁸. Zerrendari gaineratu ahal diogu Thierry Truffautek aipaturiko Antoinette Lacarra⁵⁵⁹.

⁵⁵² "Hillau, horren teatroa egin dugu frango", Jeanne Salha Begiraleak taldeko partaidearekin izandako elkarrizketa, Donibane Lohizune, 1997ko azaroaren 22a.

1937an Hillau emakumea elizbarrutiaren eskola libreetako ikustatzaille bilakatu zen, "Begiraleak", *Aintzina*, 1937ko martxoa.

⁵⁵³ "Le petit mot", *Aintzina*, 1936ko maiatza.

⁵⁵⁴ "Quelques adresses de Correspondantes ou Secrétaires 'Begirale'", *Aintzina*, 1936ko ekaina.

⁵⁵⁵ "Elise Arramendi zen senarrik gabe, celibataire. Elles étaient deux soeurs, mais une s'appellait Elise; elle aimait tout ce qui était basque, elle parlait peu en basque, mais elle le regrettait; elle s'était proposé d'apprendre, en cinquante et un, d'apprendre le basque", Mayi Diharcerekin izandako elkarrizketa, Donibane Lohizune, 1997ko urriaren 8a.

⁵⁵⁶ "Usarralde, hori egona da hemen, eskola emaile hemen, eta ezagutu dugu frango horrek, jenerazione frango ezagutu ditu eta ezkondua Urruñan, bera Askaindarra zen, bere izena zen Mademoiselle Lazcanotegi eta ezkondu zen Usarraldekin, ordutik Urruñan dira", Jeanne Salharekin izandako elkarrizketa, Donibane Lohizune, 1997ko azaroaren 22a.

⁵⁵⁷ Henriette Amoçain Pierre Amoçainen arreba zen. Henrietteri buruz hitz egin zion Pierre Amoçainek Lafitteri bidalitako eskutitz baten: "Ma soeur m'écrit ces jours-ci que Mlle. Jaureguiberry est passé chez nous et qu'elle n'a pas le plaisir de la voir. Henriette sympathise avec le mouvement, mais je doute qu'elle veuille faire quelque chose... J'aurais plaisir à apprendre que vous avez causé personnellement et franchement avec ma soeur qui a besoin de quelques conseils et de bonnes amies qu'elle trouverait sans nul doute dans le mouvement eskuale-riste féminin", Pierre Amoçainek Lafitteri idatzitako eskutitza, Santiago de Chile, 1935eko apirilaren 20an hasi eta 1935eko uztailaren 2an amaitutakoa.

⁵⁵⁸ Larronde, J. C., aipatu liburua, 165. or.

⁵⁵⁹ Truffaut, T.: *Begiraleak*, *Les mainteneurs*, Donibane Lohizune, 1962, 16. or.

Probintzien arabera, Lapurdiko hamasei herrik izan zuten Begirale taldea (Donibane Lohitzune, Urruñña, Hendaia, Biarritze, Angelu, Larresoro, Kanbo, Hazparne, Ezpeleta, Ainhoa, Baiona, Uztaritze, Ziburu, Getaria, Arrangoitze eta Barozek), Zuberoako zortzik (Arüe, Atharratze, Aloze, Ligi, Maule, Iruri, Omizegaña eta Altzaiek) eta Nafarroa Behereko beste zortzik (Aldude, Martxuta, Donibane-Garazi, Donapaleu, Baigorri, Donazaharre, Oragarre eta Landibarrek).

Donibane Lohizuneko Begiraleen taldea Madeleine de Jaureguiberryk berak sortu zuen, 1935ean⁵⁶⁰. Jeanne Salhak⁵⁶¹ adierazi digunez, bi anderekin elkartu zen Madeleine, Elise Arramendy⁵⁶² eta Madeleine Bribetekin; elizako

⁵⁶⁰ “Le 3 mars 1935 au théâtre de ‘Gure Etchea’ de Saint Jean de Luz était accueillie la foule de spectateurs conviée à une représentation basque. La première organisée par un nouveau mouvement luzien qui venait de naître officiellement sous le nom de ‘Begiraleak’, les mainteneurs”, *Begiraleak ... aipatu liburua*, 15. or.

Pierre Amoçainek begi onez ikusi zuen Madeleine de Jaureguiberryk sorturiko taldea: “Le mouvement des Begiraleak est bien parti, elles feront certainement la pige aux jeunes gens. Le malheur à mon avis c’est que les eskualerristes n’ont pas à leur tête une personne décidée comme Mademoiselle de Jaureguiberry”, Pierre Amoçainek Lafitteri idatzitako eskutitza, Santiago de Chile, 1935eko apirilaren 20an hasi eta 1935eko uztailaren 2an amaitu zuen eskutitza.

⁵⁶¹ Jeanne Salhak, Begiraleak taldearen partaidea izan zelarik, Bribet, Piarrette Favel, Hillau, Diharce, Jaureguiberry, Elise Arramendy, Lazcanotegi eta Baruc Donibane Lohizuneko begiralekideak ezagutu zituen.

⁵⁶² “Mademoiselle Larramendy horrek deitu ninduen, zeren eta eskas zituzten gazteak talde hoitan hartzeko eskuara mintzatzen zuena, ez ginen frango Donibanen ongi mintzatzen”, Jeanne Salharekin izandako elkarrizketa, Donibane Lohizune, 1997ko azaroaren 22a.

Lafitteri bidalitako eskutitz baten Elise Arramendyk antzerkiaren prestaketaren proiektua erakusten du: “Nous nous sommes souvenues que vous nous aviez proposé de nous faire une conférence avec projections sur les costumes des Basques à travers les âges; et nous avons pensé que ce sujet pouvait être interprété sur le théâtre. Je vous écris ceci dans le cas où vous n’aviez pas encore composé les tableaux de Noël... Nous, nous croyons que la présentation de ces costumes par des j. gens ou j. filles faisant quelques jeux de scène, pendant qu’un ou deux personnages critiqueraient leurs toilettes, serait charmante. Comme je vous l’ai déjà dit nous pourrions nous rendre à Ustaritz pour nous entendre, pour voir les costumes”, Elise Arramendyk Lafitteri idatzitako gutuna, Donibane Lohizune, urtarrilaren 19a.

1941ean Lafittek eskutitz bat idatzi zien Elise Arramendyri Begiraleak taldean burututako lana eskertuz:

“Le Pays basque vous doit un grand merci, car vous cherchez à sortir de la banalité et l’on dit que, ma foi!, vous n’y entrez jamais. Continuez avec courage: je pense que ce ne doit pas être gai tous les jours”, Pierre Lafitte, Elise Arramendyri bidalitako eskutitza, 1941ean; Thierry Truffautek aipaturiko eskutitza da: Truffaut, T.: *Begiraleak ... aipatu liburua*, 16. or.

gela bat Gure Etxea deitu zuten⁵⁶³ eta teatroa euskaraz egiten hasi ziren, *des tableaux* deitzen zena⁵⁶⁴. Komediak, poema liriko eta klasikoak antzestu zituzten, honako hauek idatzitakoak: Hillau emakumea, Leon Léon, Domingo Soubelet, Jean Barbier, Xabier Diharce, Pierre Lafitte, Pierre Larzabal, Tanpik eta Elise Arramendyren iloba zen Janick Arramendyk (“Otegi” izengoitiaz)⁵⁶⁵. José Eizagirre apainketa lanean ari izan zen⁵⁶⁶ eta Lebout, Donostia eta Lertzundik lan egin zuten musika alorrean.

Hitzaldiak ere antolatu zituzten Begirale taldekoek. 1935eko apirilaren 14an, adibidez, Piarres Lafittek euskara ikasteko metodoari buruz hitz egin zuen Donibanen; Lafittek hitz egin ostean, Bellevue kalonjeak amaitu zuen ekitaldia:

M. le Doyen déclara sa joie de voir les luziennes travailler avec un tel entraînement à la rebasquisition, il les félicita de leur dernière réussite théâtrale et de leurs nouvelles ambitions régionalistes⁵⁶⁷.

Gaur arte iraun duen Begirale taldeak, urte zailak ere ezagutu zituen. Bigarren Mundu-Gerra piztu zenean, eta Mayi Diharceren lekukotasunari jarraituz⁵⁶⁸, alemanak Begiraleak taldea korabolatzaile bihurtzen saiatu eiziren, azkenean, asmoa gauzatu ez bazen ere.

⁵⁶³ Jeanne Salharen lekukotasuna, Donibane Lohitzunen, 1997ko azaroaren 22an izandako elkarrizketa.

Gure Etchea emakumezkoen sindikatoaren gela bezala aurkeztu zuten *Aintzina* 1935eko urtarrilaren zenbakian, “Eskual-Etchea”, *Aintzina*, 1935eko urtarrila.

⁵⁶⁴ “Alors, les dimanches nous avons nos amis qui venaient, nous chantions, nous dansions, nous jouions du théâtre; le but c’était de faire du théâtre en basque”, Mayi Diharceren lekukotasuna, Donibane Lohizune, 1997ko urriaren 8a.

⁵⁶⁵ Truffaut, T.: *Begiraleak ...* aipatu liburua, 18. or.

Hillau emakumearen honako lan hauek antzestu zituzten: *Egiatzko eskualdunak* eta *Au Pays Basque*; Dominique Soubeleten *Churiket egile kalakariak*; Lafitteren *Amerikanoa*, *Euskalduna menderez mende* eta *Maritchuren kondaira*; Jean Barbierren *Kauserak edo kruchpetak*; Xabier Diharceren *Ithurria*, *Arrapallu*, *Itasora*, *Eguerri*, *François Xavier*, *Eguerri artzain ttikiena*, *Mortutik oihu*; Ttanpiren *Katicharen phesta*; Leon Léonen *Haurren azken hitza*; Pierre Lotiren *Ramuntxo*; Janick Arramendyren *Hautsaren azpian*; *Begiraleak ...* aipatu liburua, 17-18. orr.

⁵⁶⁶ Katalin Ichkilin: “Begiraleak. Eguberriz”, *Aintzina*, 1942ko martxoa.

Jeanne Salhak dioenez: “osaba zuen ere pintatzailea, eta Eizagirre hori izan da izigarri ona hemen, eskuara bazekien ongi eta vedetta, gure vedetta”, Jeanne Salharekin izandako elkarrizketa, Donibane Lohizune, 1997ko azaroaren 22a.

⁵⁶⁷ B.D.: “Begiraleak”, *Aintzina*, 1935eko apirila.

⁵⁶⁸ “Gerla etorri zen eta oroitzen naiz alemanak nahi zutela gurekin zerbait egin, entseiatu zen gu alemanekin elkar izatea; ez dugu batere pusatu alde hortan”, Mayi Diharceren izandako elkarrizketa, Donibane Lohizune, 1997ko urriaren 8a.

III.2. Menditarrak

Lehen Mundu-Gerraren ostean garatu ziren elkarteez gain, eskautismoak ere bultzada handia ezagutu zuen Frantzia, Britainia Handiko ereduari jarraituz.

Iparraldean, Ustaritzeko Apaizgaitegi Txikiko ikasleek eskaut moduko mendi-taldea sortu zuten 1930. hamarkadan; ikastetxe hartan irakasle zegoen Lafitteri eskatu zion mendi taldea gida zezan. Horrela, 1935ean Menditarrak osatu eta Piarres Lafitte horren kapilau bilakatu zen⁵⁶⁹.

Jacques Mestelan Piarres Lafitteren laguntzailea izan zen Menditarrak taldearen antolaketan, hamabost urte baino ez bazituen ere. Taldeko partaideak izan ziren hauek ere: Xabier Diharce⁵⁷⁰ –Pierre eta Michel bere anaiak zaharragoak ziren–, Jean de Jaureguiberryren bi semeak –Saint Louis de Gonzaguen ikasle zeudenak–, Tito eta Maurice Lissarague, Michel Limonaire, Auguste Bapseres eta Hirigoyen⁵⁷¹. Piarres Lafittek etsipenez adierazi ei zion Mestelani euskaldun gutxi zegoela Menditarrak gazte taldean:

Mais où sont les Basques, au dernier camp j'avais l'impression que le drapeau vert, blanc, rouge était là par condescendance⁵⁷².

⁵⁶⁹ Menditarrak baino lehenago Lafittek *Cercle d'Etudes* sortu zuen Apaizgaitegian, laugarren eta hirugarren mailakoentzat, eta *Cercle de Philo* bigarren eta lehenengo mailakoentzat; Lafitte *Cercle de Philo* taldearen burua izan zen; Monier, S., aipatu liburua, 412-415. orr.

Oronosek ere Lafittek gazteekin burutu zituen lehenengo ekintzen berri eman digu: “il ne se cantonne jamais à sa classe (hirugarren maila). Il organise successivement: Croisade, Chevaliers de St Louis, Cercles d'études, JEC, Scoutisme. Pendant les vacances il anime des camps JEC ou des camps scouts”, Oronos, M., aipatu liburua, 76. or.

⁵⁷⁰ “Telegrama bidali zidan esanez ez zutela aski gazte bildu, ez zela egingo, eta orduan nik eta bat edo hiru baginen ere behar ginuen egin, berotu nituen, eta orduan egin zuten, eta Eiheralarrera joan ginen eta azkenean zortzi edo bederatzia bildu ginen”, Xabier Diharcerekin izandako elkarrizketa, Beloke, 1996ko abuztuaren 10a.

⁵⁷¹ Jacques Mestelanekin izandako elkarrizketa, Baiona, 1996ko irailaren 5a.

Mestelanek berak Cazauran gehitzen dio aipatu zerrendari; Mestelan, J.: “L'abbé Lafitte”, *Euskera*, Bilbo, 2001, 2, 575. or.

Jean Claude Larrondek Menditarrak taldearen partaide bezala ere aipatzen ditu Jacques Casaubielle, Louis eta Maurice Duhart eta Gaston Cazauran; Larronde, J. C., aipatu liburua, 157. or.

Azkenez, Piarres Xarrittonek Althabegoity –Jaureguiberryren iloba– aipatzen du Menditarren kanpatzealdi bateko partaide legez, Xarritton, P.: *Xabier Diharce* “Iratzeder”, Eusko Ikaskuntza, 1994, 14. or.

⁵⁷² Jacques Mestelanek aipaturiko eskutitza, Lafittek Mestelani bidalitakoa 1938an; Mestelan, J.: “L'abbé Lafitte”.. aipatu artikulua, 575. or.

Menditarrak taldearen buruek, eta Hegoaldeko EAJren inguruan sorturiko Mendigoizaleen araudia eredu harturik⁵⁷³, gazteen betebeharren berri eman zuten aditzera: adimenaren garapena sustatuko zuten, gorputzaren osasuna eta eskuzko trebetasuna, egokia izanda euskara ikas zezaten. Taldearen hileko saria 3 liberakoa izango zen. Jantzkeria zehazteko Hegoaldeko mendigoizaleen janzkerari begiratu zioten:

pour l'uniforme, je te signale que les Mendigoizales ont un uniforme très pratique et très basque: chemise de couleur sobre, pantalon en une espèce de toile grise à la fois légère et très solide, traditionnelle en Guipuzkoa et en Navarre et de caractère assez... pour être admis chez nous où l'on est terriblement conservateur⁵⁷⁴.

Pierre Narbaitzek taldearen abestiaren musika prestatu zuen⁵⁷⁵ eta egoitza Uztaritzeko Jean Duboscq uztariztarraren etxean ezarri zuten.

Menditarrak Parisen ere sortzen saiatu ziren, hiri hartako gazteak biltzea zaila bazen ere. Deialdia *Aintzina*n argitaratu zuten 1936ko martxoan, Piarres Haritzandirekin kontaktuan jartzeko⁵⁷⁶ adieraziz. Jean-Claude Larrondek Jean Richter aipatu du Pariseko talde horren bultzatzaile bezala, Piarres Haritzandirekin batera⁵⁷⁷.

Baina Menditarrak bitan baino ez zuten irtenaldirik egin: Nafarroa Behereko Eiherralarrera 1936an eta Zuberoako Altxaiera 1937an⁵⁷⁸. 1939an Baionako eskautek talde bat osatu nahi zuten Uztaritzen, Lafitteri eskatuz Menditarrak eskaut-talde bihur zedin⁵⁷⁹. Onartu egin zuen Lafittek, jakinaren gainean baitzegoen euskaltzalekasunak ez zituela gazteak erakartzen eta eskaut bihurtuz gero Menditarrak erregionalistak izaten jarraitu ahal izango zutela:

⁵⁷³ "Inspiré par les Mendigoizaleak on s'était dit: et bien, on va créer un mouvement analogue, à peu près, en France", Jacques Mestelanekin izandako elkarrizketa Baionan, 1996ko irailaren 5a.

⁵⁷⁴ Eugène Goyhenechek idatzitako eskutitza, Paris, 1934ko maiatzaren 26a.

⁵⁷⁵ Jacques Mestelanekin izandako elkarrizketa, Baiona, 1996ko irailaren 5a.

⁵⁷⁶ "Les Menditarrak de Paris", *Aintzina*, 1935eko martxoa.

⁵⁷⁷ Larronde, J.C., aipatu liburua, 155. or.

⁵⁷⁸ Larronde, J.C., aipatu liburua, 157. or.

⁵⁷⁹ "Ils avaient sollicité l'abbé Lafitte et moi même en disant: vous pourriez faire un parti du district des scouts de Pays Basque, ce qui d'ailleurs vous permettez, ce qui ne vous empêche pas de conserver un caractère basque à la troupe, si elitien, c'est tout à fait possible avec le statut du scoutisme", Jacques Mestelanekin izandako elkarrizketa, Baiona, 1996ko irailaren 5a.

Mais tout bien pesé, questions d'amour-propre mises à part, je trouverais bien des avantages à faire des 'Menditarrak' de vrais scouts, pourvu que l'on ne démolisse pas leur caractère régional et qu'à l'âge de nos garçons on ne s'entête pas à vouloir d'une formule, excellente sans doute pour des gosses, mais trop enfantine.. d'autre part, le cadre scout offre des ressources de chefs, d'aumônier, etc.⁵⁸⁰

Beraz, Menditarrak taldearen partaideak sakabanatu egin ziren; Jacques Mestelaren ikuspuntutik, Menditarrak taldea desegin zen, alde batetik, partaideak ez zirelako oso euskaltzaleak⁵⁸¹, jadanik aipatu dugun bezala; eta bestetik, Espainiako gerra piztearekin, iheslariak Iparraldera heltzen hasi zirelako eta Lafittek denbora eta ahaleginak eman baitzituen haiei aterbea aurkitzen, menditar eta euskaltzale taldearen ekintzak alboratu⁵⁸².

III.3. *Euskaltzaleak taldea*

1930. hamarkadan Iparraldean Begiraleak eta Menditarrak sortu baino lehen, bertako euskaltzaleek talde politiko-kultural bat osatzeari ekin zioten 1932ko abuztuan. Haien helburuak:

les Eskualerristes sont de jeunes basques-français décidés à répandre leurs idées politiques et surtout à s'organiser pour le travail méthodique sur le terrain électoral⁵⁸³:

*Aintzina*n argitaraturiko berri hartan argi adierazi zuten partidu politiko moduan aritzeko asmoa zutela. Helburu berbera azaldu zuten bultzatzailetariko batzuek idatzi zituzten eskutitzetan:

Mon frère et moi qui sommes de longue date d'ardents nationalistes⁵⁸⁴; "nous pensions faire un état avec nos 'zazpiak bat'⁵⁸⁵;

⁵⁸⁰ Mestelan, J.: "L'abbé Lafitte..." aipatu artikulua, 575-576. orr.

⁵⁸¹ Xarrittonen esanetan, Mestelan bera Lilleko Unibertsitatera joan zen 1936ko urrian, Kazetaritza Eskolara, eta oporretan baino ez zen taldeaz arduratu; Piarres Xarrittonekin izandako elkarrizketa, 1996ko uztailaren 6a.

⁵⁸² Jacques Mestelanekin izandako elkarrizketa, Baiona, 1996ko irailaren 5a.

⁵⁸³ "Où en sont les Eskualerristes?", *Aintzina*, 1934ko urria.

⁵⁸⁴ André Ospitalek idatzitako eskutitza, Aldudez, azaroaren 21a.

⁵⁸⁵ Jean-Pierre Casabonek Amoçaini idatzitako eskutitza, Donezaharre, 1933ko apirilaren 25a.

J'avais entendu parler de ce mouvement politique par mon frère Guillaumie⁵⁸⁶.

Je serai très heureux de pouvoir suivre de près l'action du Parti Autonomiste Basque français⁵⁸⁷.

Baina, lehenengo eta bat, euskalzaleek gizarte arloko ekintzak ere burutu zituzten. Hori zela eta arazoak izan zituzten Uztaritzeko Maurice Souberbille alkatearekin:

bertzaldi batez, bazterrak harrotu ziren. Barne bat alokatu zuen gazte batzuekin Uztaritzeko karrikan, "Aintzina" agerkariarentzat. Erran behar da barne hortarat jende frango agertzen zela, gizarteko gauzetan zituzketen dretxoek jakiteko. Jaun Merak zeukan, aldiz: ahal bezein guti behar zela Gobernuaren dirutik xahutu, eta ez zela jenderi jakin-arazi behar zer eskubide zuten, zer diru unki zezaketen. Erraiten zuen ederki bizi zirela, zauzkatenekin. Harek hala zion; jendeek, beharbada, bertzela zaukaten. Bistan da: jendeek beren eskubideak ezagutuz geroz, Herriko Etxerat zoatzin galdezka; eta Herriko jaun horiek kexu.⁵⁸⁸

Jean Ybarnégaray diputau eskuindarrak ere kontra egin zien, aurretik euskalzaleek Ybarnégaray politikoari kontra egin zioten bezala:

egin genuen "Aintzina". Hortan ere gure xedea ez zen arras politikoa. Politikoa zen bai zeren eta Ybarnégaray kontra ari ginen Eskualduneari izkiritzen nuen aitzina. Egun batez izan genuen bilkura bat, Eskualdunaren konduak eman zituzten eta horiek oro. Ni xoko batetan nintzen, oraino gaztea. Orduan Ybarnégary-ek atakatu ninduan: *-Ces jeunes blancs becs qui veulent mettre la pagaille dans notre pays! /*Altxatu nintzen eta erran nion aseak ginela "cacique" horietaz eta hemendik goiti geronen buru izanaren zirela gauzak, ez genuela haien iritziaren beharrik, ba genekiela geronek zer dugun egiteko eta bakea eman zezaten. Ai ai ai orduan, denak harrituak eta jin zitzaidan: *-Calme-toi mon vieux, qu'est-ce que tu fais?*⁵⁸⁹.

Ekintza politikoetan murgiltzeko asmoa agerturik, Lafittek susmoa izan zuen zelataturik zeudela eta eskutitzak zabaltzen zizkietela:

⁵⁸⁶ Jacques Mestelane idatzitako eskutitza, Lille, 1934ko iraila.

⁵⁸⁷ Ad. Michelek idatzitako eskutitza, 1934ko otsailaren 15a.

⁵⁸⁸ Ibidem.

⁵⁸⁹ "Nor zira Piarres Lafitte..." aipatu artikulua, 22. or.

Othoi zure letretan ez beharrezko jenderik baizik aipha. Nere letrak noiz nahi baratzen dituzte. Ohartuko zirelarik nere ganikako letra bat idekia izan dela, othoi erradazu⁵⁹⁰.

Eskutitz horietan, euskalzaleek burutu zituzten bileren berri eman zuten: 1933ko apirilaren 23an elkartu zirenean Amoçain, Eugène Goyheneche, Lafitte, Jean de Jaureguiberry eta Bellevue kalonjeak hitz egin zuten, Pierre Amoçain eta Eugène Goyhenechek *Eskual Herriaren Alde*⁵⁹¹ taldearen egitamua aurkeztearekin batera. Lafittek euskaltzaleen helburuen alde bazegoen ere –izan ere Lafittek berak prestaturiko egitaraua zen Euskaltzaleena⁵⁹²–, ez zuen politika alorreko iritzirik publikoki agertu nahi⁵⁹³, apaiza baitzen.

Talde euskaltzalearen lehendakaritzarako laiko bat aukeratu nahi zuten eta Jean de Jaureguiberryri eskaini zioten postua, gazteegia ez zen kide bakarrra baitzen⁵⁹⁴. Hala ere, ezetza jaso zuten berarengandik, zama haundiegia litzatekeelakoan⁵⁹⁵. Beraz, Pierre Amoçain idazkariarekin eta Jean Duboscq

⁵⁹⁰ Pierre Lafittek Goyhenecheri idatzitako gutuna, 1933ko martxoaren 20a, Larrondek aipaturikoa, Larronde, J. C.: “Eugène Goyheneche, un militant basque dans les années 30”, *RIEV*, 1991, 102. or.

⁵⁹¹ *Eskual Herriaren Alde. Court commentaire du programme eskualerriste à l'usage des militants*, Baiona, La Presse, 1933. Egitarauan honako puntu hauek landu zituzten: “I. Berechkundea, II. Erlisionea, III. Lege Zaharra, IV. Gobernaria Otso, V. Nor-bederaren zuzenak: a) Ikaskuntza, b) Fraila eta Serorak, d) Emaztekiak, e) Frantsesa eta Eskuara, f) Eskualdun ohidurak, VI. Etchea: a) Ezkontza-haustea, b) Etchondoa, d) Familiaren zuzenak), VII. Lana: a) Lurra, b) Lantegia, d) Zindikaten ethorkizuna, e) Langilearentzat, VIII. Eskualdeen alde, IX. Librotasunari buruz: a) Lagunak, b) Hel-bideak”.

⁵⁹² “j'ai fait comme une sorte de synthèse, de toutes ces idées-là, et j'ai fait corriger par le père Yves de la Brière... C'était un programme en somme. Un programme pour le journal, de façon a bien marquer les limites dans lesquelles nous resterions, pour ne pas en sortir, et savoir où nous allions quoi!”, Monier, S., aipatu liburua, 358. or.

⁵⁹³ Eskualtzale gaztea: “Une réunion eskualerriste à Saint-Jean-de-Luz”, *Eskualduna*, 1933ko apirilaren 28a.

⁵⁹⁴ “Le docteur Jean de Jaureguiberry (1880-1952), né à Alos en Soule, avait donc 53 ans en 1933 quand l'abbé Lafitte lui proposa de prendre la direction du mouvement eskualerriste, sans doute pour contrebalancer le très jeune âge de la majorité des militants: en 1933, Michel Diharce a 20 ans, Eugène Goyheneche et Pierre Amoçain ont 18 ans, Jacques Mestelan a 15 ans!”, Larronde, J.C.: “Eugène Goyheneche, un militant...” aipatu artikulua, 103. or.

⁵⁹⁵ “Eskaini diot Eskualerrizaleen nagusigoa; ez du buru jarri nahi, miriku batek ez duelakoan gauza hoitaz jarraikitasunekin artha hartzeko astiri”; Lafittek Goyhenecheri idatzitako eskutitza, Larrondek aipaturikoa; Larronde, J.C.: “Eugène Goyheneche, un militant...”, aipatu artikulua, 103. or.

kudeatzailearekin jo zuen aurrera taldeak, lehendakaririk gabe. Baina 1935. urtearen hasieran Pierre Amoçain Txilera joan zen, euskal ekintzak zirela eta, arazoak izan zituelako polizia frantziarrarekin⁵⁹⁶. Haren ordez Charles Hiribarren⁵⁹⁷ ari izan zen idazkaritzan, 1935. urtearen amaieran Pontlevoyra joan zen arte, eskribau ikasketekin jarraitzeko. Azkenez, Jean Dubosq kudeatzailea mugimenduaren idazkari bihurtu zen 1936an⁵⁹⁸.

1935ean euskalzaleek Uztaritzen ezarri zuten egoitza⁵⁹⁹, François Arretz Martinena etxearen jabeak alokatutako geletan⁶⁰⁰. *Euskal Etxea* izena eman

⁵⁹⁶ Piarres Xarrittonek azaldu duenez: “La police suivait nos discussions et nos écrits de près; d’ailleurs Amoçain est parti... il avait perdu sa situation ici en France, il avait de la famille en Amérique, mais il avait aussi le fait qu’il était très expioné par la police”, Xarrittonekin izandako elkarrizketa, Baiona, 1996ko uztailaren 6a.

Dena dela, Jacques Mestelanek hitzetan: “La police nous surveillait, bien sur, mais on ne peut pas dire qu’ils nous empechaient d’écrire ce qu’on voulait”, Jacques Mestelanekin izandako elkarrizketa, Baiona, 1996ko irailaren 5a.

Amoçainen bidaia iragarri digute eskutitz batzuek: “J’ai appris que tu ne partais pas pour le Chili avant la Noël. Je suis très content car ainsi je pourrait te voir”, Eugène Goyhenechek Amoçaini bidalitako eskutitza, Paris, 1934ko abenduaren 3a.

“Je regrette vivement ton départ de cet Eskual Herria magnifique où tu étais appelé à jouer un rôle à la fois ingrat et difficile”, G. Mendibourek Amoçaini bidalitako gutuna, Baiona, 1934ko abenduaren 20a.

“Maintenant cet excellent collaborateur vogue sur les mers et son départ vous donne bien du travail en surcroît. Comment pourrez-vous même faire face à tant d’ouvrage divers?”, Maurice Olphe Galliardek Lafitteri bidalitako eskutitza, 1935eko urtarrilaren 1a.

Txilera joan eta gero artikulu bat argitaratu zuten *Aintzina* Amoçainen omenez, baina Amoçaini ez zitzaion gustatu artikulu hori: “Je passe sur un article qui a été écrit sur mon compte par une personne dont je ne veux pas savoir le nom. On aurait pu me demander mon avis... Comme oraison funebre ce ne serait pas trop mal mais un journal sérieux doit s’abstenir d’une telle reclame. On jurerait qu’elle a été payée”, Amoçainek Lafitteri bidalitako gutuna, Santiago de Txiletik, 1935eko apirilaren 20an hasi eta 1935eko uztailaren 2an amaitutakoa.

⁵⁹⁷ Charles Hiribarren Plontevoyra joanaren berri eskeini digute eskutitz batzuek:

“Puisque ce pauvre Charlot nous quitte, c’est à toi que je m’adresse... A propos, tu lui transmettras mon meilleur souvenir, avec tous mes voeux pour la nouvelle vie qui s’ouvre pour lui”, Jean Hastoyk idatzitako eskutitza 1935 urtean.

“J’en avais envoyé quelques-uns à Charles, mais comme il est parti, je préfère te les envoyer de nouveaux”, Fabien Dargainsek bidalitako eskutitza, Donibane Lohitzune, abenduaren 20a.

⁵⁹⁸ Jean Dubosq, *Aintzina*ren gerente eta idazkaria, okina zen eta aldizkaria okindegian egin eta gero, banandu egiten zuen bizikletaz, Arbelbide, X.: *Piarres Lafitte, bere bizia*, Elkar, 1986, 48. or.

⁵⁹⁹ Laronde, J. C.: *Eskualerri-zaleen Biltzarra...* aipatu liburua, 129. or.

⁶⁰⁰ “Eskual-Etxea”, *Aintzina*, 1936ko urtarrila. François Arretz jaunak etxearen parte bat alokatu zien euskaltzaleei berrehun eta hogeita bost liberatan hilero, urte baterako,

zioten eta euskalzaleen ekintzetarako prestatu zuten: lehenengo solairuan irakurtzeko gela, ping-pong jolasteko gela eta sukaldea. Goiko solairuko lau geletan *Aintzina* aldizkaria prestatzen zuten, bilerak eta hitzaldiak burutu, sindikatuak antolatuz, etab⁶⁰¹. Euskal Etxearen zuzendaritza-batza honako hauek osatu zuten: Laulie burua, Léon Arretz buruordea, Joseph Haira idazkaria eta Jean Duboscq diruzaina⁶⁰².

Euskal Etxean zeuzkaten apaingarriak talde kristau eukaltzalea zirelako erakuskariak ziren: Euskal Herriko mapa, gurutzefika eta zazpi probintzien harmarria. Era berean, taldekideen karnetak euskaltzaleen pentsamoldea islatzen zuen: “Eskual-herri Zaleak” hizki handiz, euskal gurutzea, Eskualzaleen Biltzarraren zigilua eta JEL siglak (Jainkoa eta Lege Zaharra)⁶⁰³. Esan genezake, beraz, Piarres Lafittek mugimendu euskaltzalea sortu zuela, alde bateatik, Elizari eta antzineko ohiturei atxikia eta, bestetik, Hegoaldeko euskaltzaleen eraginpean, “Jainkoa eta Lege Zaharra” Hegoaldeko jeltzaleen lema hartu izanak erakusten duen moduan.

1933ko abenduaren 3an elkartu ziren berriro euskaltzaleak⁶⁰⁴. Batzar hartarako Chapelet jauna, André Ospital, Felix Ospital honen anaia eta Arocena jauna izan ziren gonbidatuak. Chapeletek, hasiera baten euskaltzaleen mugimendua mesfidantzaz begiratu bazuen ere, Piarres Lafitte eta Philippe Aranarterek konbentzitu egin zuten partaide bihurtzeko⁶⁰⁵. Beraz, bileran egon zen Chapelet, baita André eta Felix Ospital ere⁶⁰⁶, Arocenak joan ezina adierazi zuen bitartean⁶⁰⁷.

Badirudi egunkariren batek bilera horren berri eman zuela, Michel Diharceek, “Pinchin”, artikulua jaso baitzuen arrebak bidalirik⁶⁰⁸.

1935eko irailaren 15tik 1936ko irailaren 15era Alokatzeko idazkia sinatu zuten Uztaritzeko François Arretzek eta Jean Duboscq *Aintzinako* kudeatzaileak.

⁶⁰¹ “Eskual-Etchea”, *Aintzina*, 1936ko urtarrila.

⁶⁰² Ibidem.

⁶⁰³ Larronde, J. C.: *Eskualerri-zaleen Biltzarra ...*, 128. or.

⁶⁰⁴ J. C. Larrondek aipaturiko eskutitza, *Eskualerri-zaleen Biltzarra...*, 193. or.

⁶⁰⁵ Chapeletek idatzitako eskutitza, Kanbo, 1933ko irailaren 25a.

⁶⁰⁶ André Ospitalek bidalitako eskutitza, Aldudes, azaroaren 21a.

⁶⁰⁷ “J’aurais volonties pris part à votre réunion du 3 décembre; malheureusement et, malgré le caractère familial qu’elle revêtira, je ne puis me rendre à ton amicale invitation: il se trouverait toujours quelqu’un aussi bien là qu’ici pour me dire que ma place est à la maison pendant au moins quelque temps... Depuis que mon pauvre père est mort...”, Arocenak idatzitako gutuna, Larresoro, 1933ko azaroaren 24a.

⁶⁰⁸ Michel Diharceek idatzitako eskutitza, Paris, 1933ko abenduaren 8a.

Pierre Amoçainek ere 1933ko abenduan egindako batzarraren berri eman zuen *Aintzina* aldizkarian, 1934ko urrian argitaratu zuten lehenengo alean, esanez: “Il créa de vrais liens de fraternité et fut le point de départ de travaux importants”⁶⁰⁹.

Batzar horren ondorioz André Ospitalek arazoak izan zituen, Amoçaini idatzi zion eskutitzak erakusten duenez:

j'ai l'immense regret de te dire qu'à cause de certaines oppositions dont je te parlerai moi même, je suis réduit à faire une propagande peu discrète. Moi qui avais si bien commencé à en faire, j'en éprouve un vif dépit. Je t'expliquerai ça la prochaine fois que je te verrai. Je suis toujours des vôtres et je vous aiderais de toutes mes forces mais il ne faudra pas que je me fasse trop voir⁶¹⁰.

1934ko martxoko bilerarako Félix Ospital, Maurice Olphe Galliard, Blainville eta Bernard de Coral⁶¹¹ izan ziren deituak. Félix Ospitalek gustura hartuko zuela parte baina ez zela joango esan zion Lafitteri, horrelako batzar batean parte hartzea ez zielako komeni ez berari ezta bere familiari ere⁶¹²; hala ere, langile sutsua izango zela ziurtatu zion. Maurice Olphe Galliardek, bere aldetik, uste zuen goizegi zela bilera publiko bat egiteko; egokiago ikusten zuen batzar pribatu bat antolatu eta taldearen oinarriak eta helburuak zehaz-

Aipatu arreba Mayi Diharce zela iruditzen zaigu, zeukan bigarren arrebak 9 urte baino ez zituelako ordurako. Eskutitz hartan Michelek Pariseko Massillon eskolan zegoela adierazten zuen, nongo zaindaria Pierre bere anaia zen.

Michel Diharce 1939an hil zen, Bigarren Mundu Gerran.

⁶⁰⁹ “Où en sont les Eskualerristes”, *Aintzina*, 1934ko urria.

⁶¹⁰ André Ospitalek Amoçaini idatzitako eskutitza, 1933ko abendua.

⁶¹¹ Bernard de Coral, Urruñako auzapeza, *Fédération d'Action Populaire du Pays Basque* FAPPB mugimendu eskuindarraren idazkari nagusia izan zen eta Félix Ospital, Olphe Galliard eta Blainville talde horretako kideak.

Eugène Goyhenechek ez zuen gustuko delako mugimendu eskuindarra, bere ustez *FAPPB* taldea faxismozalea baitzen: “Tu peux penser que je paierais volontiers une couronne pour l'enterrement de cette FAPPB qui a l'air de s'obstiner à vivre... Je vois ici parfois le moins souvent possible le fils de corse qui fait à tout bout de champ le salut fasciste avec un retentissant 'Gora Euzkadi azkatua!'. C'est d'ailleurs à cela que se borne pour le moment son oeuvre patriotique”, Eugène Goyhenechek idatzitako eskutitza, Paris, 1934ko maiatzaren 26a.

⁶¹² Félix Ospitalek idatzitako eskutitza, Donibane Lohitzune, 1934ko martxoaren 16a (Pierre Lafitteri zuzenduriko eskutitza dela suposa genezake, zeren eta “Cher Monsieur l'Abbé” esanez hasten baita). Bertan Félix Ospitalek adierazi zuen arazoak edukiko zituela jendaurrean euskalzaile bezala agertzekotan; aurreko urtean André bere anaiak agertu zuen gauza bera, jadanik aipatu dugun bezala.

tea⁶¹³. Blainville Olphe Galliard lagunak esandakoarekin ados agertu zen eta batzarrera ez zela joango adierazi zion Lafitteri⁶¹⁴.

Badago Olphe Galliarden beste eskutitz bat, bilera egin baino lehen idatzia, non ikusten den Lafittek batzar pribatua egitea erabaki zuela. Ondorioz, Galliard eta Bernard de Coralek parte hartzea erabaki zuten⁶¹⁵:

j'aurais grandement désiré une dernière entrevue avec vous avant dimanche. Nous en tirerions profit peut-être l'un et l'autre. Il n'est pas impossible que j'accepte de prendre la parole à votre réunion mais ce sera pure improvisation⁶¹⁶.

Bilera eginda zegoen 1934ko martxoaren 28rako. Pribatua izan arren, batzarraren berri jaso zuen Olphe-Galliardek *La Presse* egunkarian; kazetan agertzearekin pozik agertu ez bazen ere –“Je ne pense pas du tout que ‘notre’ mouvement profite d’une telle publicité prématurée. Plus tard ce sera différent”⁶¹⁷–, emankor iruditu zitzaion bilera.

1934ko abenduan berriro elkartu zen talde euskaltzalea. Batzarrera honako hauek deitu zituen Pierre Amoçainek: Chapelet, Pierre Héguy eta G. Mendiboure, azken hau Donibane Lohizuneko udal kontseilaria⁶¹⁸. Hala ere, ez Chapeletek⁶¹⁹ ezta Pierre Héguyk ere ezin izan zuten batzarrean parte hartu⁶²⁰. Mendibourek, ostera, baietz esan zuen⁶²¹.

⁶¹³ “Je estime prématurée une réunion publique. Si votre mouvement se bornait à la prédiction du programme publié, avec pour seuls apôtres les neuf jeunes gens formés à votre enseignement, ce sera parfait. Mais alors notre collaboration ne se justifiait pas”, Olphe Galliardek Pierre Lafitteri idatzitako eskutitza, 1934ko martxoaren 20a.

⁶¹⁴ “Je ne puis donc pour ma part que vous confirmer les termes de la lettre de mon ami Olphe Galliard avec lequel je suis, vous le savez, en parfaite communion d’idées”, Blainvillek Lafitteri idatzitako gutuna, Getaria, 1934ko martxoaren 24a.

⁶¹⁵ “Puisque vous avez opté pour la réunion privée, nous pourrions parler, je l’espère, en toute liberté. Mon confrère et ami de Coral, maire d’Urrugne, veut bien m’accompagner à Ustaritz”, Olphe Galliardek Lafitteri bidalitako eskutitza, 1934ko martxoaren 24a.

⁶¹⁶ Olphe Galliardek Lafitteri zuzenduriko eskutitza, datarik gabe.

⁶¹⁷ Olphe Galliardek Lafitteri idatzitako gutuna, 1934ko martxoaren 28a.

⁶¹⁸ G. Mendiboure, Donibane Lohizuneko udal kontseiliaria, hirurehun liberako prepostua eskatu zuen eskola giristino zein publikoetan euskara irakasteko, “Eskuara Herriko-Etchetan”, *Aintzina*, 1935eko iraila (Piarres Lafittek idatzitako artikulua da).

⁶¹⁹ Chapeletek Pierre Amoçaini bidalitako eskutitza, Baiona, 1934ko urriaren 20a.

⁶²⁰ “Je ne pourrai malheureusement être des vôtres dimanche et je ne vois pas une femme à Ossès qui ait des idées politiques ou sociales”, Pierre Héguyk Pierre Amoçaini idatzitako gutuna, Ossès, 1934ko abenduaren 20a.

⁶²¹ G. Mendibourek Amoçaini bidalitako eskutitza, Baiona, 1934ko abenduaren 20a.

Bileretan agertutako iritziei dagokienez, Jean-Pierre Casabonnen ustez talde euskaltzaleak Ipar eta Hegoaldearen arteko batasuna bilatu behar zuten:

sans aller contre l'étatisme, ce serait favoriser le régionalisme, quoique toutefois nous puissions faire un état avec nos 'zazpiak bat'⁶²².

Izan ere, André eta Félix Ospital Donostia eta Baztango abertzaleekin egon ziren hauteskundeak prestatzen ari ziren garaian eta mirespenez kontatzen zuten han ikusitako talde-lana:

dans chaque 'Euzko-Etxia' les 'abertzaliak' travaillaient activement, ainsi que les 'Emakumiak'⁶²³.

Are gehiago, Eugène Goyhenechek Hegoaldeko mitinen baten parte hartu zuen, eskutitz batek adierazten digunez:

supongo que en la redacción de *Aintzina* estará Goyheneche, joven de grandes esperanzas para los vascos. Le he oído hablar en Mungia con Mendiguren⁶²⁴.

Dena dela, Felix Ospitalek, batasunak indarra dakarrelakoan, beharrezko ikusten zuen eskuindarren batasuna biltzea, hau da, euskaltzaleen egitarauak eskuinerantz jotzen zuten partiduen begikotasuna zain zezan. Horrela adierazi zion Piarres Lafitterri:

je crois que notre programme répond aux aspirations... des basques proprement dits, mais je crains qu'il ne satisfasse pas entièrement ceux qui, sans être basques, ont cependant un idéal politique semblable au nôtre et qui sont comme l'on dit: churiak; ne pensez-vous pas qu'il serait souhaitable que nous concillions notre point de vue avec le leur, afin de pouvoir collaborer et travailler ensemble à la réalisation d'un but commun. Il me semble que nous pourrions y arriver et que nous éviterions ainsi une division des forces de droite. Nous pourrions aussi de ce fait nous assurer des concours et collaborations précieux. Ne pensez vous pas que la qualité de sympathisants semble être une marque de protection de notre parti, et que nous pourrions les placer sur le même pied d'égalité que nous-mêmes, vis à vis du problème. Cette question ne doit guère se poser que pour

⁶²² Jean Pierre Casabonnek Amoçaini idatzitako eskutitza, Donazaharre, 1933ko apirilaren 25a.

⁶²³ André Ospitalek idatzitako eskutitza, Aldudes, azaroaren 21a.

⁶²⁴ J. Abandok idatzitako eskutitza, Londres, 1934ko abendua.

Bayonne, Biarritz et St. Jean de Luz, je pense, car dans les villages à peu près tout le monde pourrait se rallier du pogramme actuel. Je crois qu'après cela, nous aurions plus de chances de réussite., ici au moins"⁶²⁵.

Azken baten, euskaltzaleen mugimendua, euskal helburu erregionalistekin bat egiteaz gain, pentsamolde eskuindarraz zegoen mamiturik.

Dena dela, euskaltzaleek bat egin arren ideia euskaltzaleekin, ezin utzi albo batera kide bakoitzaren pentsamolde politikoaren xehetasunak:

Piarres Xarrittonek euskaltzaleen arteko bereizketa egin du jatorri politikoaren arabera⁶²⁶: Piarres Lafitte errepublikazaleen bidetik zen etorria abertzaleatasunera, Jean-Pierre Urricarriet eta Eugène Goyheneche erregezealeen bidetik ("abertzaleatasunaren eta erregezaletasun Maurras-zalearen nahastura bitxia", esango zuen Goyhenechek berak Urricarrietez⁶²⁷) eta Paul Rocca-Serra, Maurice Olphe-Galliard, Félix Ospital eta Blainville nazionalismo frantziarraren bidetik; hain zuzen ere, azken laurak *Fédération d'Action Populaire du Pays Basque FAPPB* eskuineko mugimenduaren kideak ziren eta utzi egin zuten alde batera Lafitteren talde euskaltzalean sartzeko⁶²⁸.

Berriro Piarres Xarrittoni jarraituz, Piarres Lafitte, abertzalea izateaz gain, zentrista zen⁶²⁹. Etienne Salaberry ere zentrista zen, Beñat Mendisko, abertzaleztat baino gehiago, erregionalistatzat hartzen duen bitartean. Pierre Larzabal, ostera, euskaltzalea zen baina ez zen abertzalea, frantsesa baino. Jean-Pierre Casabonnek jarrera abertzalea azaldu zuen, Ipar eta Hegoaldearen arteko batasuna proposatu baitzuen⁶³⁰, eskutitzak amaitzearekin batera

⁶²⁵ Felix Ospitalek Lafitteri idatzitako gutuna, Donibane Lohizune, 1934ko martxoaren 20a.

⁶²⁶ Piarres Xarrittonekin izandako elkarrizketa, Baiona, 1996ko uztailaren 6a.

⁶²⁷ Eugène Goyhenecheren testigantza, Piarres Xarrittonek aipaturikoa, Xarritton, P.: *Eugène Goyheneche*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1994, 8. or.

⁶²⁸ Larronde, J. C.: *Eskualerri-zaleen Biltzarra...* aipatu liburua, 131. or.

⁶²⁹ "Lafitte aberzale garbia zen eta bakarrik geratu zen, lagunik gabe", Piarres Xarrittonekin izandako elkarrizketa, Baiona, 1996ko uztailaren 6a.

Emile Larrerren ustez Lafitte izan zen, Mixel Labéguerieekin batera, abertzaleatasuna Iparraldean sustatu zuena, Emile Larrerekin izandako elkarrizketa, Baiona, 1997ko abuztuaren 12a.

Azkenez, adierazi du Kepa Sudupek, Lafitte kulturalki harremanetan zegoela Hegoaldeko nazionalistekin eta karlistekin, baina politika mailan Frantziako erregionalistekin; Sudupe, P.: *Kazetari-lan hautatuak...* aipatu liburua, 66. or.

⁶³⁰ "En attendant que le vert et le rouge de nos provinces basque triomphent sur les drapeaux français et espagnol", Jean Pierre Casabonnek idatzitako eskutitza, Donibane Zaharra, 1933ko apirilaren 25a.

“*en Yainkoa*”, “Lege zaharra” edo “*Sentiments cordiaux en JEL*” hitzekin. Ezin ditzakegu, ostera, politikoki koka André Ospital eta Pierre Amoçain; hori bai, gazte-gazteak zirelarik arazoak izan zituzten euren burua euskaltzale bezala agertzeagatik. Konkretuki André Ospital harremanetan egon zen Hegoaldeko euskaltzaleekin eta JEL lelopean edo “Gora Euzkadi” esanez agurtzen zituen eskutitzak⁶³¹; Amoçainek ere, “JEL baitan” idatzirik amaitzen zituen eskutitzak.

Pierre Narbaitz erregetiarra eta karlista zen, eta horrekin batera eskuindarra⁶³². Jean Biatarana ere eskuindarra zen, beranduago *Indépendant Républicain* partiduaren jarraitzaile bihurtuz⁶³³. Azkenez, Léon Lassallek, eskuinekoa izateaz gain, gerlari ohien pentsaera zuen. Gerlari ohien pentsarea atzerakoia aipatu dugula, pentsaera horren defendatzaileak izan ziren De la Rocque koronelaren jarraitzaileak ere (De la Rocque *Croix du Feu* gerlari ohien ligaren burua izan zen), hala nola Dargains inprimatzailea, eskutitzak “*Meilleurs amitiés en JEL*” agurraz amaitzen bazituen ere⁶³⁴.

Euskaltzaleen ikuspuntu politikoarekin jarraituz, Piarres Xarrittonen aburuz, Jean-Pierre Urricarriet pertsonaia esanguratsua izan zen Iparraldeko abertzaletasunerako⁶³⁵, Hegoaldeko euskaltzaleekin harremanetan egoteaz gain, zenbait gazte erakarri zituelako Iparreko talde euskaltzalera, hala nola, André Ospital eta Eugène Goyheneche; André Ospital Aldudeko sorterrian ezagutuko zuen Urricarrietek eta Goyheneche Saint Louis de Gonzague ikastetxean ikasle zegoelarik.

⁶³¹ “Agur maiteenak JEL baitan... Jaungoikoa eta Lege Zaharra. Gora Euzkadi!”, André Ospitalek abenduan idatzitako eskutitza.

“Artu gainera ene agur maitiena eta agindu JEL pian... Gora Euzkadi Askatuta”, André Ospitalek idatzitako, Aldude, azaroaren 21a.

“Agur JEL baitan. Gora Euzkadi”, André Ospitalek idatzitako eskutitza, Aldude, urtarilaren 21a.

“Je t’envoie mes plus sinceres amitiés en JEL”, André Ospitalek idatzitako eskutitza, Aldude, azaroaren 24a.

⁶³² Piarres Xarrittonekin izandako elkarrizketa, Baiona, 1996ko uztailaren 6a.

⁶³³ “Il a fini de la droite française, avec Guy Petit, le maire de Biarritz, franquiste, ils étaient franquistes... Il avait, à part le petit sentiment basque, je crois qu’il avait un peu une petite contradiction parce que Biatarana c’était un acteur français quoi, il était dans un parti français qui était le *Républicain Indépendant*”, Jakes Abeberryrekin izandako elkarrizketa, Baiona, 1998ko apirilaren 25a.

⁶³⁴ Apirilaren 18an, 1931ko urriaren 14an eta abenduaren 20an Fabien Dargainsek idatzitako eskutitzak.

⁶³⁵ Larronde, J. C.: *Eskualerri-zaleen Biltzarra...* aipatu liburua, 151. or. Piarres Xarrittonekin izandako elkarrizketa, Baiona, 1996ko uztailaren 6a.

Jakes Abeberryren ustez, Eugène Goyheneche Ipar Euskal Herriko aberzale bakanetarikoa izan zen⁶³⁶ (“JEL baitan” hasten edo amaitzen zituen eskutitzak⁶³⁷, Marc eta Jacques Legassekin batera. Ostera, Abeberryk ez du Jacques Mestelanengan jarrera abertzalerik ikusten⁶³⁸, eskutitzak JEL lelopean agurtzen bazituen ere⁶³⁹. Jean Hastoyri dagokionez, Mestelan ikaskidearen bidez sartu zen harremanetan euskaltzaleekin (“en JEL” amaitzen zituen eskutitzak); ekintza politikorik burutu ez bazuen ere, Abeberryk nabarmendu egin ditu Hastoyk buruturiko ekintzak euskal ohiturak iraunaraztearen alde⁶⁴⁰. Abeberryk laudatu egin ditu Jean eta Madeleine Jauréguiberry neba-arreben lanak ere, euskal kultura pizteko ekintzetan murgildurik egon baitziren.

Azkenez, baziren jarrera politiko nahasiagoa agertu zutenak: Michel Diharce, Jean Richter eta Philippe Oyhamburu militante euskaltzaleak baziren ere, armada frantziarrean sartzeko ikasketak burutu zituztelako⁶⁴¹.

Labur bilduz, hona hemen euskaltzaleen pentsaera politikoari buruz bildu ahal izan ditugun datuak:

Amoçain, P.:	Abertzalea.
Biatarana, J.:	Eskuindarra, <i>Indépendant Républicaine</i> partidukoa.
Blainville:	Nazionalismo frantziarraren bidetik heldutakoa abertzaletasunera: (<i>Fédération d'Action Républicaine du Pays Basque FAPPB</i> partidu eskuindar frantziarraren kidea izandakoa talde euskaltzalean sartu baino lehen).
Casabonne, J. P.:	Abertzalea.

⁶³⁶ Jakes Abeberryrekin izandako elkarrizketa, Baiona, 1998ko apirilaren 25a.

⁶³⁷ “Jel baitan agur”, Eugène Goyhenetche idatzitako eskutitza, 1934ko maiatzaren 26a. “Aurrera JEL baitan”, E. Goyhenetche, Paris, 1934ko apirilaren 17a. “Je vous prie de croire à mes sentiments respectueux en JEL”, Goyhenetche idatzitako eskutitza, Paris, 1936ko azaroaren 19a.

⁶³⁸ Ibidem.

⁶³⁹ J. C. Larrondek adierazitakoa, Larronde, J. C.: *Eskualerri-zaleen Biltzarra...* aipatu liburua, 148-149. orr.

⁶⁴⁰ Jakes Abeberryrekin izandako elkarrizketa, Baiona, 1998ko apirilaren 25a.

⁶⁴¹ Philippe Oyhamburu, Saint-Cyr eskola militarrean ikasi ostean ofizial frantsesa izateko, komunismoa eta ezkerreko munduan ibili zen: Piarres Xarrittonekin izandako elkarrizketa, Baiona, 1996ko uztailaren 6a.

- Dargains: “Gerlari-ohi”-ek sorturiko *Croix du Feu* ligaren zalea.
- Diharce, M.: Abertzalea izan arren, armada frantziarrean sartzeko azterketa prestatu zuen.
- Goyheneche, E.: Erregezaleen bidetik heldutakoa abertzaletasunera.
- Hastoy, J.: Euskalzalea.
- Jaureguiberry, J.: Euskalzalea, abertzalea.
- Jaureguiberry, M.: Euskalzalea, abertzalea.
- Labéguerie, M.: Euskalzalea, emakrata-kristaua.
- Lafitte, P.: Errepublikazaleen bidetik abertzaletasunera heldu; *Parti Démocrate Populaire* partidu zentro-eskuindarraren zalea. Kultura maila harremanetan Hegoaldeko nazionalistekin eta karlistekin, politika mailan Frantziako erregionalistekin.
- Larzabal, P.: Frantzeszalea izanik, Xarrittonen ikuspuntutik, abertzalea bilakatua Abeberryren ustez.
- Lassalle, L.: Eskuindarra, “gerlari ohi”-en pentsaerakoa.
- Legasse, M.: Abertzalea, anarkista bilakatua.
- Mendisko, B.: Erregionalista, euskalzale demokrata kristaua.
- Mestelan, J.: Ez abertzalea, Abeberryren ustez.
- Narbaitz, P.: Erregetiarra eta karlismozalea.
- Olphe-Galliard, M.: Nazionalismo frantziarraren bidetik heldutakoa abertzaletasunera (*Fédération d’Action Républicaine du Pays Basque FAPPB* partiduaren kidea izandakoa talde euskaltzalean sartu baino lehen).
- Ospital, A.: Abertzalea.
- Ospital, F.: Nazionalismo frantziarraren bidetik heldutakoa abertzaletasunera, (*Fédération d’Action Républicaine du Pays Basque FAPPB* partidua utzi zuen talde euskaltzalean sartzeko).
- Oyhamburu, F.: Euskaltzalea, Armada frantziarrean sartzeko azterketa prestatu zuen.

- Richter, J.: Armada frantziarrean sartzeko azterketa prestatu zuen.
- Rocca-Serra, P.: *FAPPB* partidu nazionalista frantziarra utzi eta abertzaletasunera etorritakoa.
- Salaberry, E.: Zentrista, euskalzalea.
- Urricarriet, J. P.: Erregezaletasunaren bidetik heldu zen abertzaletasunera.

Puntu hau amaitzeko, esango dugu talde euskaltzaleak bakarrik hogeita hiru eta 230 harpidedun izan zituela; bilerak burutu bazituen ere, ez dugu partidu politiko izatera heldu zelako berririk⁶⁴²; guk dakigunez, talde folkloriko bezala aritu zen soilik.

Aintzina euskaltzaleen argitalpena 1937an desagertu zenean, lankideak banandu egin ziren eta taldea desagertu. Hain zuzen ere, guztiek ideia euskaltzaleak bazituzten ere, mugimendua desegin zen partaideen pentsamolde politiko desberdinek eraginda. Jacques Mestelanez horrelaxe azaldu du Espainiako gerran protagonista izan zenaren garaiko egoera politikoa:

batzuk joan zirela Francoren alde eta besteak aurka... Joan zirenak eta Dargains inprimatzaileak; joan ziren eta Doriotenganat, doriotistak gero alemanen kolaboratzaile bilakatuko ziren, bainan hori lehenagatik.. zeren eta Doriot nor zen, komunista izandako bat, konbertitu zena omen... Eta besteak Ybarnegaray eta La Rocque, horien alderat itzuli ziren. Eta hor beste gehientsuenak, ez bakarrik abertzale garbi zirenak, oso gutxi baitziren, heiek ez zuten hortan interesik bainan beste guztiakin behar ziren konpondu; Lafitte bat, ez zen, baitezpada, ez doriotista ez larroquista, baina ez zuen lagunik, bakarrik gelditu zen⁶⁴³.

Ikusiko dugu aurrerago, hala ere, Lafitteren jarraitzaile gazteek euskal abertzaletasunaren aldeko saiakera berri bat burutuko zutela, baina 1940. hamarkadako ekintzak dira horiek eta geroko utziko ditugu.

II.3.1. *Eugène Goyheneche*

Aurreko parrafoan aipatu euskaltzaleetatik Eugène Goyhenechez espresuki hitz egingo dugu, besteak baino eraginkorrago izan zelako edo, behi-

⁶⁴² Arbelbide, X.: *Enbata...* aipatu liburua, 48. or.

⁶⁴³ Piarres Xarrittonekin izandako elkarrizketa, Baiona, 1996ko uztailaren 6a.

nik behin, burutu zituen ekintzak besteenak baino entzutetsuagoak izan zirelako.

Eugène Goyheneche Uztaritzen jaio zen 1915ean. Edmond Goyheneche aita medikua izatearekin batera, Uztaritzeko kontseilari orokorra izan zen; gerlari ohien pentsamoldekoa zen aita, nazionalismo frantsesaren zalea, beraz⁶⁴⁴.

Uztaritzeko herriko eskolan lehenengo urteak eman ondoren, 1931ko urrian Baionako Saint Louis de Gonzague ikastetxean jarraitu zituen ikasketak Eugènek. Saint-Louis de Gonzague Jean-Pierre Urricarriet aldudarra zegoen begirale. Laster baten sartu ziren harremanetan 16 urteko Goyheneche eta 26 urteko Urricarriet, Urricarrietek Goyheneche abertzaletasunera eramateraino.

Horrela, hamazazpi urte zituelarik Eugène Goyhenechek Hegoaldeko jeltkideekiko harremanak hasi zituen:

quelques temps après la proclamation de la seconde République espagnole (14 Avril 1931) vint en effet se réfugier à Ustaritz, un industriel de Bilbao du nom d’Arena que ne cachait pas ces idées monarchistes espagnoles (...) Arena lui assure: “les nationalistes basques sont de fous” et à l’appui de ses dires, il lui prête des journaux nationalistes basques. Cette “folie” plaît d’emblée à Eugène Goyheneche qui se promet bien par tous les moyens (et la rencontre avec Jean-Pierre Urricarriet sera très importante à cet égard) d’en savoir plus⁶⁴⁵.

1932ko uztailean José de Ariztimuño “Aitzol” ezagutu zuen Baionan burututako Txistularien Biltzarrean, han egon baitzen Goyheneche Amoaïn lagunarekin⁶⁴⁶. Hegoaldeko Eusko Alderdi Jeltzaleak erakarri zuen Goyheneche ere; konkretuki Donostiako *El Día* egunkariaren zuzendaria zen Ariztimuñok erakarri zuen Eugène Goyheneche EAJera, 1932an⁶⁴⁷. “Aitzol”ez gain, Larrondek beste pertsona batzuk aipatzen ditu Goyhenecheren Hegoaldeko laguntzat: Teodoro de Ernardorena, Pío Montoya, Antonio María Labayen, Isaac López de Mendizabal, Wenceslao de Goizueta,

⁶⁴⁴ Piarres Xarrittonekin izandako elkarrizketa, Baiona, 1996ko uztailearen 6a.

⁶⁴⁵ Larronde, J.C.: “Eugène Goyheneche, un militant...” aipatu artikulua, 90. or.

⁶⁴⁶ Ibidem.

⁶⁴⁷ Jimenez de Aberasturi, J. C.: “Los vascos en la II Guerra Mundial: de la derrota a la esperanza”, *Guerra y Literatura 1914-1944*, Eusko Ikaskuntza, Oihenart Cuadernos de Lengua y Literatura, 1997, 73. or.

Casimiro de Egiarte, Pedro Mitxelena, Bruno de Mendiguren eta Nestor de Goikoetxea⁶⁴⁸.

1932an Jean Elissalde “Zerbitzari”k⁶⁴⁹ Goyhenecheri 1932ko Aberri Egunean parte har ez zezan aholkua eman bazion ere (“il ne faut pas encore nous mêler à ces manifestations. Pour le moment, laissons faire nos frères”⁶⁵⁰), 1933ko Donostiako Aberri Egunean Goyheneche hizlarietako bat izan zen. Horren aurretik 1932ko uztailaren 24an Hondarribian izan zen Emakume Abertzale Batza eta Mendigoizaleen egoitza berria zabaltzeko ospakizunean eta bertan elkartu zen Piarres Lafitte, Jean de Jaureguiberry eta José Ariztimuñorekin⁶⁵¹.

1933ko otsailean Goyhenechek Eskual Ikasleen Biltzarra eratu zuen Parisen (“Je voudrais ici réorganiser les étudiants basques”⁶⁵²), Bilboko Euzko Ikasle Batzari atxikirik. Eugène Goyheneche buru izendatuz⁶⁵³. Pariseko partaide euskaltzaleak honako hauek izan ziren: Bilboko Julian de Ajuriaguerra, Otero eta Luis de Basabe; Iruneko Elosegui; Zumaiako Etcheberria; Hazparneko Pierre Madré⁶⁵⁴, Edouard Harriague eta Lartigue; Baigorriko Jean Etcheverry-Ainchart eta Baionako Berrondo, Jean Fagalde, François Mihura, Bernard Gaudeul⁶⁵⁵ eta Jean Orgogozo⁶⁵⁶. Xipri Arbelbidek beste bi kide gaineratu dizkio zerrendari: Carlos Alamon, Eskual Ikasleen Biltzarraren bigarren burua izan zena, eta Gallastegi⁶⁵⁷.

⁶⁴⁸ Larronde, J. C.: “Eugène Goyheneche, un militant...”, 94. or.

Goyheneche eta Nestor Goikoetxea eskutitzen bidez jartzen ziren harremanetan: “je te remercie d’avoir remis ma lettre à Nestor. Il m’a écrit pour me remercier”, Goyhenechek idatzitako eskutitza, Paris, 1934ko maiatzaren 26a.

⁶⁴⁹ Larrondek 1933ko martxoaren 20ko Lafitteren eskutitza aipatu du, non Goyhenecheri adierazi zion Lafittek erabakia zuela Jean Elissalde “Zerbitzari” eta Jules Moulrier “Oxobi” apaizei mugimendu euskaltzaleari buruz hitz egiteko, Larronde, J.: “Eugène Goyheneche un militant...” aipatu artikulua, 102. or.

⁶⁵⁰ “Zerbitzari”k Goyhenecheri bidalitako eskutitza, 1932ko martxoaren 11a, Larrondek aipaturikoa; Larronde, J. C.: Eugène Goyheneche... aipatu artikulua 91. or.

⁶⁵¹ *El Día*, 1932ko uztailaren 26a; Jean Claude Larrondek aipaturiko artikulua da, Larronde, J. C.: “Eugène Goyheneche, un militant basque...”, aipatu artikulua, 92. or.

⁶⁵² Goyhenechek Amoçaini idatzitako eskutitza.

⁶⁵³ Goyhenechek Amoçaini idatzitako eskutitza.

⁶⁵⁴ Pierre Madré Michel Diharce laguna izan zen Parisen: “Madré je comptais faire du sport avec lui le Dimanche, mais je n’ai réellement pas le temps”, Michel Diharcek idatzitako eskutitza, Paris, otsailaren 5a.

⁶⁵⁵ Michel Diharce, Jean Richter bezala, Bernard Gaudeul Saint Cyr-eko eskolan egon zen armadaren aintzindaria izateko, Arbelbide, X.: *Enbata...* aipatu artikulua, 48. or.

⁶⁵⁶ Larronde, J. C.: “Eugène Goyheneche, un militant...”, 179. or.

⁶⁵⁷ Arbelbide, X.: *Enbata...*, 52. or.

Urte bereko apirilean Eskualzaleen Biltzarraren Pariseko atala eratzeke bilera burutu zuten. Bertan izan ziren: Alamon, de Basabe, Bordachar, Chabagno, René Delzangles, Goyheneche, Harriague, Havard, Larregain, Pierre Lhande, David, Lissar, de Lojendio, Madré, Mihura, d'Orcasberro, Paul Rocca-Serra eta Yribarne⁶⁵⁸; Georges Lacombe lehendakari izendatu zuten. Aldizkari bat ere kaleratu zuten 1934an, *Elgar Journal des Basques de Paris*, Paul Rocca-Serra "Legarralde" eta Carlos d'Orcasberroren⁶⁵⁹ (Rocca-Serraren lehengusua) ardurapean.

1934. urtearen amaieran, Frantziako gutxiengo taldeak babestearren, *Foyer d'Etudes Fédéraliste* mugimendu federalistaren idazkari nagusi izendatu zuten Eugène Goyheneche. Mugimendu horrek *Le Fédéraliste* aldizkaria kale-ratu zuen, non Goyhenechek "Charles Hiriarte" ezizenez idatzi zuen.

Beste aldetik, *Parti National Breton* partiduaren sekzioa eratu zutenean Parisen⁶⁶⁰, Goyhenechek harremanak izan zituen Yves Delaportekin, *Parti National Breton*eko kanpo harremanetarako arduradunarekin. Partidu horrek *Bulletin des Minorités de la France* aldizkaria argitaratu zuen.

Ikusten dugun legez, Eugène Goyhenechek Iparraldeko euskaltzaleen harremanak finkatu zituen bai Hegoaldearekin baita Europako gutxiengo taldeekin ere.

Baina Bigarren Mundu-Gerraren garaian, Goyhenechek harremanetan jarraitu zuen aurretik zituen lagunekin. Horrela, harremanetan jarraitu zuen Alemaniako Karl Buda intelektualekin eta Werner Bestekin⁶⁶¹ (Best SSe-koa bilakatu zen Bigarren Mundu-Gerran eta garrantzizko kargua izan zuen Frantziako Administrazio Militarrean). Alemanekiko harreman horiez balia-

⁶⁵⁸ "Eskualzaleen-Biltzarra. Création d'une section à Paris", *Eskualduna*, 1933ko apirilaren 28a.

⁶⁵⁹ 1934ko maiatzaren 9an idatzitako eskutitz batez, Carlos d'Orcasberrok Lafitteri helarazi zion Pariseko Eskualzaleen Biltzarreko bileraren txostena: "Monsieur le Directeur: Je vous serais extrêmement reconnaissant de bien vouloir insérer le compte rendu ci-joint dans votre revue de la région basque", Carlos d'Orcasberrok Lafitteri bidalitako eskutitza.

⁶⁶⁰ Bretoiekiko harremanei dagokienez, Larrondek aipatzen du Lafittek Goyhenecheri idatzitako eskutitza: "Bretaniakoekin on dugu mintzatzea. Bainan hitzaldi bat gauza handia da eta segur izan zite polizako uli bat edo bertze kausituko zaitzula barrandari... Beraz mintzatzekotz, Espainiako Eskualdunetz mintza zite nasaiki; hemengoez ahal bezain guti, izenik gabe..." "Eugène Goyheneche, un militant..." aipatu artikulua, 102. or.

⁶⁶¹ Jimenez de Aberasturi, J. C.: "Los vascos en la II Guerra Mundial..." aipatu artikulua, 75. or.

tu ei zen Goyheneche Frantzian bizi ziren Hegoaldeko errefuxiatuei laguntza eskaintzeko, baita Alemanian preso zeuden euskaldunei laguntza eskaintzeko ere⁶⁶². Baina 1944an Frantzia alemaniarrengandik libre geratu zenean, gobernu frantziarrak Goyhenecheri leporatu zion etsai alemaniarrekin harremanetan egon izana. Hil arteko bortxazko lanetara zigortu zuten 1946an, libre utzi bazuten ere 1947an, Uztaritzera itzuliz 1948an.

Piarres Xarrittonen ustez, Goyheneche ez zen nazizalea⁶⁶³ izan, alemanen garapenean itxaropena izan bazuen ere⁶⁶⁴. Dena dela, berriro Xarrittonen esanetan, ez ziren harreman politikoak izan, baizik eta intelektualak (alemanek ere Euskal Herria asko miresten ei zuten)⁶⁶⁵.

Marc Legassek, aldiz, harremanok gaitzetsi egin zituen⁶⁶⁶, Eugène Goyheneche izena *Aintzina*n agertzearen kontra izateraino.

III.3.2. *Euskaltzaleen pentsabidearen puntu nagusiak*

Euskaltzaleen pentsamoldea printzipio kristauetan zegoen oinarriturik (“notre formule ne ment pas: Jainkoa eta Lege-Zaharra”⁶⁶⁷) eta mugimendu kristau bezala, euskaltzaleek Frantziako Gobernu ezkertiarra salatu egin zuten eliz ikastetxeak (“eskola librea”) debekatzegatik. “Eskola bakarra” (irakaskuntza publiko eta laikoa) Frantzia guztira hedatzeko asmoaren aurka agertu ziren euskaltzaleak, haurrak laikotzeko Frantziako Gobernu ezkertiarren azpikeria zelakoan.

Politikari dagokionez, euskaltzaleak zentralismoaren kontrakoak eta erregionalismoaren aldekoak ziren. Gobernu frantziarraren zentralismoaren

⁶⁶² Larronde, J.C.: *Eugène Goyheneche*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1994, 23. or.

⁶⁶³ Murua, I., aipatu artikulua, 100. or.

⁶⁶⁴ Hala ere, Mestelanen ustez, Goyhenechek ez zuen inoiz inor alemaniarrei salatu, baizik eta Budaren bidez erresistentziako batzuk askatzea lortu; Jacques Mestelaneekin izandako elkarrizketa, Baiona, 1996ko uztailaren 6a.

⁶⁶⁵ Piarres Xarrittonekin izandako elkarrizketa, Baiona, 1996ko uztailaren 6a.

Badirudi alemanekiko harremanez baliaturik, *Aintzina* 1940. hamarkadan berrargitaratzeko baimena lortu zuela Goyhenechek.

⁶⁶⁶ Marc Legassekin izandako elkarrizketa, Ziburu, 1996ko uztailaren 25a.

Philippe Oyhambururen esanetan, “Lafitti esker eta Legassi esker ez ditugu alemanak segitu”; Philippe Oyhambururekin izandako elkarrizketa; Biarritz, 1997ko abuztuaren 9a.

⁶⁶⁷ “Distinctions nécessaires”, *Aintzina*, 1936ko urtarrila (Piarres Lafittek idatzitako artikulua da).

kontra, zeren eta herrialdeetako arazoak desberdinak baitziren; zentzugabekeria iruditzen zitzaizen euskaltzaleei politiko frantziarrek problema guztiak konpon zitzaizen irtenbide berberaz⁶⁶⁸. Aldiz, erregionalismoaren aldekoak ziren, euren ustez lurralde bakoitzak bilatu behar zuelako tokian tokiko problemen konponbidea. Euskaltzaleen ikuspuntutik, garaiko Gobernu frantsesak batu baino gehiago bateratu egiten zuen, herrialdeen berezitasunak ezabatuz.⁶⁶⁹

Era berean, euskaltzaleek ez zuten onartzen Frantzia zegoen banaketa administratiboa, departamentuka⁶⁷⁰, herrien nortasunen suntsidura zekarrelako. Orduko “arrondissement” edo departamentuko kontseiluen ordeztatu proposatu zuten Frantzia lurraldeka izan zedin banandua, lehendakari banarekin.

Baina erregionalismoaren aldekoak zirelarik, euskaltzaleek aurre egin zuten separatistak zirelako salaketei; argudiatu zuten ez zutela biderik ikusten estatu euskaldun independentea osatzeko, mendikatea oztopo geografikoa izateaz gain, ekonomikoki hondamendia lekarkiolako Iparaldeari⁶⁷¹:

separatisme? Loin de là. Regionalisme? Oui, basé sur une décentralisation à la fois culturelle et administrative⁶⁷².

Mugimendu euskaltzaleak iraun zuen denboraldian Albert Lebrun zegoen Errepublikaren lehendakari, 1932ko maiatzetik 1936ko maiatzera, *Front populaire*reko elkarte ezkertiarrek hauteskundeak irabazi zituen arte. Lau urte horietan zenbait bozketa burutu zirelarik, euskaltzaleek euren jarrera politikoa agertu zuten *Aintzinan*.

Zentralizazioaren kontrakoak izatearekin batera, euskaltzaleak ez ziren sozialismoaren aldekoak. Hori zela eta, 1935eko maiatzeko udal-hauteskundeetan sozialistek irabazi zutenean honako hau adierazi zuten etsipenez *Aintzina* aldizkarian: “damurik aithortu behar dugu zozialistak gure eskualdetan nausitzen ari direla”⁶⁷³.

⁶⁶⁸ “Le balai”, *Aintzina*, 1934ko urria (Piarres Lafittek idatzitako artikulua da).

⁶⁶⁹ Lector: “Les méfaits de la centralisation”, *Aintzina*, 1934ko urria.

⁶⁷⁰ “Nous disons la région et non la province, car nous savons que le progrès matériel... a modifié en bien des points la structure historique des anciennes provinces”, “Le Régionalisme dans l’opinion”, *Aintzina*, 1936ko otsaila.

⁶⁷¹ “Mise au point”, *Aintzina*, 1935eko apirila.

⁶⁷² “Pourquoi je suis devenu Euzkualerriste”, *Aintzina*, 1935eko otsaila.

⁶⁷³ “Zathozte”, *Aintzina*, 1935eko maiatza (Piarres Lafittek idatzitako artikulua da).

Horrela, 1936ko martxo eta maiatzeko hauteskunde legislatiboetarako *Aintzina*n gomendioa eman zuten botoa emateko Ybarnegarayri⁶⁷⁴. Beraz, euskaltzaleen Ybarnegarayrekiko gorrotoa begikotasun bihurtu zen. Ezin jakin, hala ere, Ybarnegarayri zuzenduriko laudorioak zintzotasunez adierazita zeudenentz; seguraski ezetz, euskaltzaleen hasierako Ybarnegarayrekiko harreman txarrei begiraturaz gero. Hala ere, euskaltzaleek Ybarnegarayrentzako botoak eskatu zituzten, aseguratu nahi baitzituzten eskuindarren botoak sozialismoari aurre egiteko.

Eta irabazi egin zuten eskuindarrek: Nafarroa Beherean Ybarnegarayk (*Indépendant Républicaine*) eta Baionako bigarren barrutian Bernard de Coralek (*Gauche Démocratique Républicaine Indépendante*). Baionako lehenengo barrutian, ostera, René Delzangle zentro-ekzertiarak (*Gauche Démocratique Républicaine Indépendante*) eraman zituen botorik gehienak.

Ybarnegarayren hitz jariora laudatzeaz gain, berorren eta de Coralen egitaraua laudatu zuten *Aintzina*⁶⁷⁵, eskola librea, elebitasuna eta sindikatu kristauen sorrera bultzatzeaz gain, dibortzioa errefusatzen zutelako eta familia gune bezala defendatzen zutelako. Egitarau horren aurrean, *Front populaire*rena arbuia zuten euskaltzaleek, bereziki dibortzioaren eta laizismoaren aldekoak zirelako.

Ekonomiaren arloan, talde euskaltzalea nekazarien alde lerratu zen. Horrela, Gobernuari leporatu zion hirietako langileei herritarrei baino laguntza handiagoa eskaini izana⁶⁷⁶. Greben bidez lagileek hobekuntzak lortzen zituztela azaldu zuten *Aintzina* –soldaten igoera, berrogei orduko lan-astea, oporrak–, laborarien kalterako, hobekuntzok nekazarien lan prozesua kariatzen baitzuten.

Nekazarien egoera kaskarrari aurre egiteko, euskaltzaleek laborariak adoretu zituzten sindikatzeko, baita korporazioak, mutualitate, kooperatiba eta kredito kutzak antolatzeke ere, nekazaritzaren arazoei aurre egiteko lagungarri zirelakoan: istripuak zirela, hildako abereak, lehorteak, etab⁶⁷⁷.

Bereziki korporazioen aldekoak ziren euskaltzaleak⁶⁷⁸. Korporazioa antzinako lan elkartearen zen, non langileek eta artisauek ez ezik, nagusiek ere

⁶⁷⁴ Aintzina (Piarres Lafitte): “Parlons net”, *Aintzina*, 1936ko otsaila.

⁶⁷⁵ “Un tour d’horizon”, *Aintzina*, 1936ko apirila.

⁶⁷⁶ Santsin: “Laborari gaichtoa”, *Aintzina*, 1935eko uztaila.

⁶⁷⁷ Jakes Lehuntze (Jacques Mestelan): “Chez les paysans”, *Aintzina*, 1936ko iraila.

⁶⁷⁸ Aspaldikoa: “La Corporation”, *Aintzina*, 1934ko urria.

langintzaren prosezuan parte hartzen zuten. *Aintzina*n azaldu zuten⁶⁷⁹, korporazioek produkzioa arautzen zuten, lan orduen kopurua mugatuz, lan taldeak finkatuz eta lan-egunak, soldatak eta salneurriak zehaztuz. Antolaketa horren ondorioz, zioten, guztientzako irabaziak lortuko zituzten eta orekatu-rik bizi izango ziren.

Korporazioen funtzionamendua laudatzearekin batera, CGT sindikatu sozialista arbuia egin zuten euskaltzaleek –“étatiste, anti-chrétien et anti-régional”⁶⁸⁰–, bildu ez ezik, klaseen arteko iraultza pizten zuelako. CGTeren eraginari aurre egiteko, euskaltzaleek sindikatu giristinoak sortzeko proposatu zuten, Frantziako *Confédération française des travailleurs chrétiens* CFTC-
ren⁶⁸¹ gisakoak.

Laburbilduz, Piarres Lafittek eta beronen lankideek mugimendu eliztarra sortu zuten, euskal erregionalismoaren alde ekin zuena politikoki, eta sozialismoaren kontra. Ekonomiaren alorrean, nekazarien eskubideak defendatu zituzten, sindikatuen egitekoa nabarmenduz.

Beste aldetik, jadanik azaldu dugun bezala, mugimendu euskaltzalea sortu orduko, Iparraldeko Hegoaldeko EAJren pentsabidearen eragina izan zuten: Menditarrak eta Begiraleak taldeen egitarauak Hegoaldeko Mendigoizaleak eta Emakume Abertzale Batzaren egitarauari begira prestatzeaz gain, Iparraldeko mugimendua katolikoen pentsaera eskuindarrean oinarritu zen, Hegoaldekoa bezala, baita familia, lurra eta ohitura zaharren atxikimenduan ere.

Esan beharra dago, euskaltzaleen egitaraua *Action française*ren pentsamoldearen isla izan zela, Malherbek ere azpimarratzen duen bezala:

aintzina naît en pleine renaissance culturelle basque due à l'action efficace de l'*Eskualzaleen Biltzarra*, organisation derrière laquelle se profile avec plus ou moins d'insistance le P.N.V., et, surtout à notre avis, *Aintzina* est le fruit de tout un courant issu de la pensée catholique traditionaliste, retrempé dans l'*Action française* ⁶⁸²

⁶⁷⁹ Ibidem.

⁶⁸⁰ “Ouvrier Basque”, *Aintzina*, 1936ko ekaina.

⁶⁸¹ *Confédération des Travailleurs Chrétiens CFTC* 1919an sortu zuten sindikatu eliztar bezala.

⁶⁸² Malherbe, J.P.: “Aintzina ou la création du mouvement eskualerriste en Pays Basque français”, *Bulletin du Musée Basque*, 1977, 78. zkia., 191. or.

*Action Française*rekiko loturari dagokionez, Xabier Diharcek kontra egiten die Malherberen hitzei:

vous en faites un mouvement d'idées (nécessairement dépassées), alors que c'était un mouvement de vie et de foi, d'audace et d'avant-garde (...) Je m'étonne aussi que les jeunes d'Aintzina soient classés dans la ligne de pensée de l'*Action française*. Mes frères aînés qui participaient au mouvement étaient lecteurs de l'Aube, puis Sept et de Temps Présent⁶⁸³.

Azkenez, Goyhenechek Malherbe eta Diharceren iritziak batu egiten ditu:

aans doute, Aintzina convergèrent des idées de l'ancienne *Action française* et de la jeune Démocratie Chrétienne, d'*Ordre Nouveau*, d'Esprit et du Foyer d'Etudes Fédéralistes⁶⁸⁴.

Euskaltzalearen sentipen abertzaleari buruz adierazi du Piarres Xarrittonek Iparraldeko euskaltzaleak "euskal nazioa" kontzeptuaren aldekoak zirela baina, konturaturik garai hartan "Frantzia" kontzeptua ezin ukituzkoa zela, derrigorrezko ikusi zuten euskal nazioaren kontzeptua alde batera utzi eta erregionalismoaren eremuan kokatzea⁶⁸⁵. Era berean, egitarau erregionalista garatzen saiatu baziren ere –hau da, politika alorreko asmoak izan bazituzten ere–, Iparraldeko euskaltzaleek folklore eta literatura alorreko ekintzak baino ez zituzten burutu, Frantziako politika zentralistak beste motatako ekin-tzetarako biderik ez zuen uzten eta.

III.4. *Aintzina* hilabetekaria

1934an Piarres Lafittek *Aintzina. Trait d'union mensuel des Régionalistes basques-français* hilabetekaria argitaratzeari ekin zion, mugimendu euskaltzalearen adierazpidea izan zedin.

Hasiera baten Lafittek ez zuen izan aldizkaria sortzeko asmorik, uste baitzuen *La Presse du Sud-Ouest*, *Le Courrier de Bayonne* eta *Eskualdunan* argita-

⁶⁸³ Diharce, X: "A propos d'Aintzina", *Bulletin du Musée Basque*, 1978, 79. zkia, 37. or.

⁶⁸⁴ Goyheneche, E.: *Le Pays Basque. Soule, Labourd, Basse-Navarre*, Société Nouvelle d'Éditions Régionales et de Diffusion, Pau, 1979, 554. or.

⁶⁸⁵ Xarritton, P.: "Hommage à Pierre Lafitte", *Bulletin du Musée Basque*, 1986, 113-114 zkiak., 148. or.

ratu ahal izango zituela euskaltzaleen berriak. Baina argitalpenok ez zituzten euskaltzaleen ideiak beste barik onartu⁶⁸⁶; Amédée Larrieuk –*La Presse du Sud-Ouesten* zuzendaria– eta Dominique Soubeletok –*Eskualdunaren*⁶⁸⁷ zuzendaria– taldearen asmoen xehetasunak eskatu zizkieten:

veulent des précisions sur le programme des eskualerristes et des assurances qu'il ne s'agit pas d'un mouvement séparatiste avant de leur ouvrir leurs colonnes⁶⁸⁸.

Dena dela, ordurako Lafittek urteak zeramatzan *Eskualdun*an eta *Gure Herrian* idazten, eta ez zuen inoiz ideia politikorik agertu aldizkariotan:

je ne voulais pas engager *Gure Herria* dans mes idées. Je voulais que ça reste un journal littéraire, d'Histoire ou des choses comme ça, mais je ne voulais pas y introduire mes idées. Je n'ai jamais voulu engager les types dans les journaux où j'ai écrit, dans l'*Eskualduna* par exemple, je n'ai jamais défendu mes idées⁶⁸⁹.

Horren guztiaren ondorioz, Lafittek aldizkari propioa argitaratzea erabaki zuen, *Aintzina* izena izango zuena, betiere lankideen iritzia kontuan hartuz:

⁶⁸⁶ “C’était un programme à l’époque; on ne pouvait pas parler de nationalisme bien entendu, on était obligé de dire régionalisme. C’était un programme régionaliste, mais qui rencontrait beaucoup d’opposition dans le pays, parce que le gens avait l’impression qu’on voulait se separer de la France. Par le fond c’était notre idée, mais on ne pouvait pas le dire, évidemment. Donc, ils se méfiaient de nous, et quand Lafitte a voulu expliquer ce que c’était dans le journaux de Bayonne de l’époque -il y en avait deux à l’époque: il y avait la *Presse du Sud-Ouest* et il y avait *Le Courrier de Bayonne*, et puis il y avait l’*Eskualduna*...”, Jacques Mestelanekin izandako elkarrizketa, Baiona, 1996ko irailaren 5a.

⁶⁸⁷ La tendance politique quand même à *Eskualduna* était plus conservatrice et puis, alors, il suivait les directrice des évêques, alors que nous, on n’était pas contre en général, mais enfin, on n’avait pas à obeir des directives, pendant que l’*Eskualduna* il était obligé, parce que c’était un prêtre qui dirigeait l’*Eskualduna*, les suports d’*Eskualduna* dans tout le Pays Basque c’était le clergé, parce que très souvent l’*Eskualduna* était vendu à l’Eglise, donc il fallait que les curés comandent certes nombre de journaux pour les diriger en suite sur la paroisse; donc, on avait une tendance beaucoup plus marquée si vous voulez, c’était pas mal, c’était conservateur”, Jacques Mestelanekin izandako elkarrizketa, Baiona, 1996ko irailaren 5a.

⁶⁸⁸ Lafittek Goyhenecheri bidalitako eskutitza, 1932ko abenduaren 9a, Larrondek aipaturikoa; Larronde, J.C.: “Eugène Goyheneche, un militant basque...” aipatu artikulua, 102. or.

⁶⁸⁹ Monier, S., aipatu liburua, 349-350. orr.

il lui arriva durant sa rédaction, de nous consulter les uns ou les autres, avec une grande modestie, étant donné les différences d'âges et d'évolution intellectuelle qui existaient entre lui et nous⁶⁹⁰.

Aintzinaren lehenengo zenbakia 1934ko urrian kaleratu zuten. Bi inprimategiri eskatu zieten argitaratzeko aurrekontua: *La Presse du Sud-Ouest* eta "J. Dargains Inprimerie-Papeterie"-ri. Lehenengoak 800 libera kobratuko zizkien 500 aleko argitalpenagatik, ale bakoitza 8 orrikoa, bat publizitate-rako, eta bitan tolestuta, *La Presse* zuen formato eta paperarekin eta lau zutabetan idatzita⁶⁹¹. Dargainsek, bere aldetik, hiru eredutarako kalkulua egin zuen: bata 340 liberakoa 500 aleko eta bigarren eta hirugarrena 290 liberakoa 500 aleko, lerroartekoaren arabera azken biak⁶⁹². Donibane Lohizuneko Dargainsen etxean argitaratzea erabaki zuten, hamabostekaria⁶⁹³ izango zen *Aintzina. Trait d'union mensuel des régionalistes basques-français*, Jean Dubosq aldizkariaren kudeatzaile izendatuz.

Mugimenduaren propaganda egiteko *Eskual Herriaren Alde* taldearen xedeak eta *Aintzina* aldizkaria Eskualzaleen Biltzarrak egiten zituen urteroko bilkuretara eraman zuten. Horrela, 1933ko irailaren 25ean Luhuson elkartu zirenean, Jean Pierre Casabonne pozik agertu zen lortutako emaitzekin:

"Je suis rentré enchanté du travail fait à Louhossoa pour notre Eskual-Herria"⁶⁹⁴.

Ostera, 1934ko Eskualzaleen Biltzarraren bileraren ostean –Donibane Lohizunen, irailaren 13an–, Pierre Amoçainek ezkor hitz egin zuen lortutako harpidetzen kopuruaz:

nous n'avons fait hier que 132 abonnements et totalisons à qq chose près 720 f. Je n'ai encore fait le compte exact. J'aurais cru que les 200 étaient atteints mais hélas!... nous continuerons... Il semblait que tout le monde souscrivait mais en fait la moitié nous ont échappé. En effet il y avait quelques tables où personne ne voulait rien savoir⁶⁹⁵.

⁶⁹⁰ Mestelan, J.: "L'abbé Lafitte"... aipatu artikulua, 572. or.

⁶⁹¹ *La Presse du Sud-Ouest*ek Pierre Lafitteri bidalitako eskutitza, Baiona, 1934ko maiatzaren 29a.

⁶⁹² Fabien Dargainsek idatzitako eskutitza, Donibane Lohizune, 1934ko ekainaren 10a.

⁶⁹³ Hilabetekaria izan zen azkenean.

⁶⁹⁴ Jean Pierre Casabonnek Amoçaini bidalitako posta-txartela, Donazarre, 1933ko apirilaren 25a.

⁶⁹⁵ Pierre Amoçainek Lafitteri idatzitako gutuna, Baiona, irailaren 14a.

Batzarra egin zuten eta hurrengo egunean Olphe Galliardekin topo egin zuten Amoçainek. Begirunez hitz egin zion Amoçainek Lafitteri Olphe Galliard abokatuari buruz:

comme vers 12h je passais rue Thiers plongé dans un journal Me. O. G. m'a arrêté pour me demander si j'aurai l'occasion de vous voir aujourd'hui. J'ai immédiatement répondu que oui. Me. O.G. voudrait vous voir demain... Plus aimable que jamais il m'a demandé des nouvelles de la journée d'hier et à cette occasion j'ai lui ai passé le trat *Aintzina*. Il est effrayé et me disait vous entreprenez trop... A la fin eux sont toujours les mêmes qui travaillent dans toutes les oeuvres et qui sont écrasés de travail... Pour le moment nous pouvons constater que ce que nous avons entrepris ne lui aura pas encore donné beaucoup de maux de tête.⁶⁹⁶.

Aldizkaria saltzeko egin zuten propaganda handia izan zen⁶⁹⁷, Camille Dargainsi adierazi ziotenari jarraituz:

certaines personnes se demandent qui sont les expediteurs benevoles pour avoir pu penser à tout le monde⁶⁹⁸.

⁶⁹⁶ Ibidem.

⁶⁹⁷ Andiazabalek dituen Lafitteren eskutitzetan ikusi ahal izan dugun bezala, honako irakurle hauek adierazi zuten *Aintzina* jaso nahi zutela: Goyhenechek Parisetik, A. Etcheberrry Angersetik, Jaucine jaunak (propaganda jaso zuen), Justomari Mocoeroak Iruñetik, Martin Istilartek Podensactik, Francisco M^a de Berazalucek Donostiatik, Jesús de Basozabalek Mundakatik, Miren de Lopetegui Sondikatik, Andoni Iralak Bilbotik, Lucio García Echeverriak Gasteiztik, Pierre Puchuluk Ustaritzetik, Bernard Insoussarryk (Apezgai-tegi Txikiko irakaslea), Jose A. Mugicak Logroñotik, Pedro de Olazabalek Donostiatik, Jean Harambourek Baigorritik, Julian Ormaecheak Bilbotik, Dominica Pagolak Lekeitiotik, Francisco Barandiaranek Bilbotik, J. E. Goenagak Bilbotik, Léon Lassallek (*Aintzina* eskatu zuen Aguerre izeneko batek elizan sal zezan), Eusko Ikaskuntzako Pedro Garmendiak (euren aldizkariarekin truke egiteko), Maria Ariztiak Saratik Bouda jaunaren izenean, J. Abandok Londresetik, Canon-Beholak (propaganda jaso zuen), Etcheparek Atarratzetik, José Aguerrek Irunatik, Jaureguiberry doktoreak, Bilbao Nicolasek Donibane Lohizunetik, Goyhenek Atarratzetik, Mendiendok Atarratzetik, Larramendik Donostiatik, Urrutigaray emakumeak Atarratzetik, Pierre Echeberrryk Mauletik, Jaurechek Baionatik, Jean R. Larrouyetek Parisetik, Gantois bikarioak, Jean Biataranak Baionatik, Dominique Irozek Arnegitik, Michel Diharcek Parisetik, Dupérou emakumeak, Jean-Baptistek Iruñetik, J.-B. Salaberrryk Iruñetik, Jean Velezek, Jacques Navazek, Antoinette Dravasak eta G. Branquet emakumeak.

⁶⁹⁸ Camille Dargainsek idatzitako gutuna, Donibane Lohizune, 1934ko azaroaren 26a. Camille Dargainseri berari emankor iruditu zitzaion propaganda, eskutitz berean adierazi zuen moduan: "je pense que cette campagne de publicité portera du fruit".

Izan ere, bigarren zenbakia argitaratu zutenean 250 ale utzi behar izan zituzten harpidetzetarako eta beste ale batzuk “de complaisance”⁶⁹⁹.

Eugène Goyhenechek Eskualzaleen Biltzarraren Pariseko atalean jaso zuen *Aintzina*:

nous avons reçu à l'Eskualzaleen Biltzarra les numéros de propagande. J'ai été chargé de m'en occuper et jeudi à la réunion des étudiants je recueillerai des abonnements. J'espere avoir... à te demander de nouveaux bulletins. Ici il y a beaucoup de monde à abonner⁷⁰⁰.

Aurrera joz, 1935eko irailaren 12an Eskualzaleen Biltzarra Atarratzen⁷⁰¹ bildu zenean, topo egin zuten bertan: Pierre, Michel eta Xabier Diharce anaiak, Jose Ariztimuño “Aitzol”, Jules Moulrier “Oxobi”, Telesforo Monzon⁷⁰², Madeleine eta Jean de Jaureguiberry⁷⁰³. Olphe Galliard baikor agertu zen bileraren emaitzekin:

le succès a été complet et le nombre des participants laisse à penser ce qu'il eût été dans le cas où le soleil se fut mis de la partie. C'est le couronnement de tous nos efforts poursuivis sans relâche, et je m'en rejouis grandement⁷⁰⁴.

Biltzarraren egunean ikurrak ere saldu ei zituzten, gizonezko zein emakumezkoak:

soit, en tout, 35 insignes... Mais il me les faudrait très vite, très vite. Tu penses! Ces insignes-là, les 3/4 au moins, sont vendus par moi, depuis le 12 Septembre, à l'Eskualzaleen Biltzarra⁷⁰⁵.

⁶⁹⁹ Ibidem.

⁷⁰⁰ Eugène Goyhenechek Pierre Amoçaini idatzitako eskutitza, Paris, 1934ko abenduaren 3a.

⁷⁰¹ Talde euskalzalearen adar bat Atarratzen osatzerakoan, Jean Hastoy prest agertu zen propaganda egiteko. Jean Hastoy Jacques Mestelanen kidea izan zen Baionako Saint-Louis de Gonzague ikastetxean, beronen bidez sartuz talde euskalzalean; Jacques Mestelanekek Pierre Amoçaini idatzitako eskutitza, Baiona.

⁷⁰² Xarritton, P.: *Xabier Diharce* “Iratzeder”, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1994, 13. or.

⁷⁰³ “Basques tous à Tardets”, *Aintzina*, 1935eko abuztua.

⁷⁰⁴ Olphe Galliardek Lafitteri idatzitako gutuna, 1935eko irailaren 15a.

⁷⁰⁵ Jean Hastoyk idatzitako gutuna, 1935eko urriaren 5a. Intsigniok Luzaiden bizi zen Feliciano de Sétoain emakumearen bidez eskuratzen zituzten: “Sétoain a-t-il rapporté les insignes? Si oui ne pourriez-vous me les faire tenir à l'occasion?”, Pierre Amoçainek idatzitako eskutitza, 1934ko urtarrilaren 9a.

Aintzinaren xedeei dagokienez, Pierre Narbaitzek aldizkariak bete behar zituen helburuen berri eman zuen:

1º. Rendre service aux Vicaires. 2º. Rendre par le fait même le journal plus 'désirable'. 3º. Susciter quelques bonnes volontés pour obtenir un lot important de chansons harmonisables⁷⁰⁶.

Horrela, harmonizazio bat hilabetero bidaliko zuela adierazi zuen Narbaitzek:

si personne n'entend l'appel, vous pouvez cependant compter sur moi pour boucher les trous: je ne reculerai pas devant une harmonisation par mois. J'espère cependant qu'on ne me laissera pas seul: pourquoi les autres auraient-ils peur, puisque j'ose? Il s'agit du reste d'harmonisations très simples, comme elles conviennent à une musique populaire⁷⁰⁷.

André Ospitali gustatu zitzaion *Aintzinaren* lehenengo zenbakia, itxurarekin gustura ez bazegoen ere:

la seule chose que je regrette est que ce journal ne soit pas mieux présenté. Si j'y avais pensé plus tôt je t'aurais envoyé quelques modèles qui auraient été sûrement mieux. Mais ceci n'est qu'un simple détail et ne m'empêche pas de beaucoup admirer le grand effort qui vient d'être fait⁷⁰⁸.

Goyhenechek ere pozik hartu zuen hilabetekaria:

tout d'abord, bravo pour *Aintzina*. J'ai en ai reçu les 2 premiers numéros, ils m'ont prodigieusement intéressé⁷⁰⁹.

Amoçaini oso ona iruditu zitzaion urtarrileko zenbakia, baina gerokoe-tan gorabeherak sumatu zituen:

ce numéro de Janvier est superbe... le meilleur que j'ai lu... Les numéros suivants sont très morts. Je m'explique: Il semblerait qu'en Janvier une grande

⁷⁰⁶ Pierre Narbaitzek Lafitteri idatzitako eskutitza, datarik gabe.

⁷⁰⁷ Pierre Narbaitzek Lafitteri idatzitako eskutitza, datarik gabe. Hurrengo posta-txartel baten hauxe esan zion Narbaitzek Lafitteri: "Koblak ez ditut eskuratu ahal izan, bainan segur niz laster muntatuko ditutzula", Narbaitzek Lafitteri idatzitako gutuna, data-rik gabe.

⁷⁰⁸ André Ospitalek bidalitako eskutitza, Aldudes, azaroaren 24a.

⁷⁰⁹ Eugène Goyhenechek idatzitako gutuna, Paris, 1934ko abenduaren 3a.

bataille est annoncée sur ‘tout le front’. Puis en Février rien, en Mars rien, etc... Sans doute le travail n’est pas facile, le malheur est que vous devez tout faire. Mais ces jeunes ne comprendront-ils jamais ce qui est leur devoir?. Oui, je dis leur devoir, un devoir de basque et de chrétien⁷¹⁰.

Gantois bikarioari, abertzale flandiarren burua zenari, interesgarri iruditu zitzaion *Aintzina*, euskal gaiak gutxiegi lantzen zituela eta erbestekoak gehiegi lantzen zituela uste bazuen ere. Izan ere, *Bulletin des Minorités Nationales en France* (Parti National Bretonek argitaraturikoa) aldizkarira jo behar omen zuen euskal mugimenduaren berri izateko⁷¹¹:

certaines positions, même en cet ordre, sont avant tout “parisiennes/A plus forte raison, dans le domaine de la politique générale. Telle caricature anti-allemande, qui peut être a sa place dans un organe français de Paris, surprend assez dans un journal qui est, de sa nature, basque avant tout, et n’a point, sans doute, d’autre raison d’être”⁷¹².

Jean Biataranak, bere aldetik, begi onez ikusi zuen *Aintzina* Euskal Herriko kanto zeudenei bidaltzea:

je ne saurais oublier l’inmense joie qu’il me fournissait soit à Bordeaux soit au cours de mon service militaire ... chaque fois qu’il venait jusqu’à moi. Je sais aussi combien étaient heureux de le lire mes camarades, Bayonnais ou Basques”⁷¹³.

Jean Biataranak euskal zuzenbideari buruz idazteko asmoa agertu zuen, artikulu ulerterrazak eta interesgarriak izan zitezela saiaturuz⁷¹⁴; asmoa ez zen gauzatu, hala ere.

Dena dela, *Aintzinaren* artikulu gehienak Piarres Lafittek idatzi zituen, izengoiti mordera erabiliz⁷¹⁵: “Piarres Ithurralde”, “Augusta Larralde”, “JEL”⁷¹⁶,

⁷¹⁰ Pierre Amoçainek Lafitteri idatzitako eskutitza, Santiago de Chile, 1935eko apirilaren 20an hasi eta 1935eko uztailaren 2an amaitutakoa.

⁷¹¹ Jean Marie Gantoisek Pierre Lafitteri idatzitako gutuna, Roncq, 1936ko urriaren 3a.

⁷¹² Ibidem.

⁷¹³ Jean Biataranak Jean Duboscqi idatzitako eskutitza, 1936ko urriaren 20a.

⁷¹⁴ Ibidem.

⁷¹⁵ Pierre Andiazabalek duen *Aintzinaren* bilduma Lafitterena izan zen; izengoitiok Lafitterenak zirela jakin dugu Piarres Xarrittonek Laffite berak idatzitako artikuluak markatzen ikusi zuelako, Piarres Xarrittonekin izandako elkarrizketa, 1996ko uztailaren 6a.

⁷¹⁶ James E. Jacobek esandakoari jarraituz, Lafittek “JEL” izengoitiaz idatzi zuen, Jacob, J.E.: *Hills of Conflict. Basque Nationalism in France*, University of Nevada Press, 1984, 81. or.

“Zertako”, “Le Balai”, “Junior”, “Triki-Traka”, “S.B.”, “Zotil”, “Elgarkaria”, “Aintzina”, “A.L.”, “Bettiri Uhartekoa”, “Léon Etoran”, “Lekukoa”, “N.A.”, “S.V.P.”, “Begirale Batek”, “Le Ráliste”, “Maddalen”, “I.M.”, “Battita”, “Thomas Aguirre”, “J.E.”, “R.V.”, “Behingoa”, “A.R.”, “Félix Am”, “J. Etchebeste”, “Mariaño”, “L.B.”, “A.B.”, “Ha-la-la”, “Thun-Thun-orde”, “Kasu-Bada”, “B. Arroquy”, “Lamina”, “Lichtafina”, “Santsin”, “B.S.”, “Mifasol”, “Etcheberry”, “Irakurlea”, “Pello Karkasa”, “L.G.”, “J.A.B.”, “Bidezaina”, “F. Hargaray”, “Manech”, “Pseudo Thunthun”, “Laborari Gaztea”, “Pettan”, “Bierarte”, “B.F.”, “P.L.”, “Irakurtzale Suharra”, “Pattin”, “A.-B. Deuil”, “Begiak Idek”, “Demetrius”, “Ikusi-Mikusi”, “Allande”, “J. Duhalde”, “Piarres”.

Piarres Lafittez gain, oso idazle gutxik argitaratu zituzten lanak *Aintzina*: Léon Lassallek (“News Politic”) eta Jacques Mestelanek (“Jakes Lehuntze”, “Menditar”, “Menditar-orde”, “Yacue”).

Aintzinaren amaierari dagokionez, alde batetik, argitaratzeko dirurik ez zutelako amaitu zen, 1937ko irailan argitaratutako artikulu batek erakusten digun bezala:

en tout prudence et simplicité, avons-nous momentanément suspendu la parution d’*Aintzina*... En attendant, nous allons entrer une nouvelle expérience. Nous mettons *Aintzina* à 10 francs (50 centimes ale bakoitza) par an et nous supplions nos abonnés, non seulement de nous rester fidèles, mais aussi de nous amener d’autres lecteurs⁷¹⁷.

Beste aldetik, *Aintzinaren* harpidedunen artean iritzi politiko desberdinak zeuden, Francoren alde batzuk, kontra besteak; Dorioten zaleak batzuk, de la Rocquen aldekoak besteak⁷¹⁸. Egoera horren ondorioz, eta talde euskaltzalea desagertzearekin batera, *Aintzinaren* lantaldea desegin zen⁷¹⁹.

Aintzinaren lankideak aztertu ditugun aldizkarien lankideekin konparaturik, honako lauki hau lortu dugu:

⁷¹⁷ *Aintzina*: “En Revenant”, *Aintzina*, 1937ko iraila (Piarres Lafittek idatzitako artikulu da).

⁷¹⁸ De la Rocque *Croix du Feu* gerlari ohien ligaren lehendakaria izan zen (lehendakari ordea Ybarnégaray). 1935ean *Croix du Feu* mugimenduaren muturreko kideek gobernu korporatibista eta autoritarioa sortzearen asmoa azaldu zuten. De la Rocque asmo horren kontra agertu zen eta, ondorioz, 1936an taldearen partaide askok De la Rocque utzi eta Jacques Dorioten *Parti Populaire Françaisekin* bat egin zuten.

⁷¹⁹ Piarres Xarritonekin izandako elkarrizketa, Baiona, 1996ko uztailaren 6a.

Hogeita bigarren laukia. *Eskualduna, Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, Revista Internacional de Estudios Vascos, Euskera, Gure Herria, Bulletin du Musée Basque* eta *Aintzina* aldizkarien lankideak eta artikuluen kopuruak 1921etik 1940ra bitartea:

Izena	<i>Gure Herria</i> (1921-1938)	<i>Eskualduna</i> (1921-1940)	<i>Buul. M. Basque</i> (1925-1935)	<i>Société des Sciences, Lettres et Arts de Ba.</i> (1920-1940)	<i>RIEV</i> (1920-1936)	<i>Euskera</i> (1920-1936)	<i>Aintzina</i> (1934-1937)	Adina 37'an
Arotçarena, Salbat	1	248					2	
Jaureguiberry, Jean	9						5	
Mestelan, Jacques	1						7	
Lassalle, Leon	32	9					11	
Lafitte, Piarres	98	238					146	

Elaborazio propioa, *Eskualduna, Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, Revista Internacional de Estudios Vascos, Euskera, Gure Herria, Bulletin du Musée Basque* eta *Aintzina* aldizkarietan oinarrituta.

Aurreko laukia Piarres Lafitteren idatzizko jarduera intelektualaren laburpena da, 1920-1940ko aroari dagokiona: *Eskualduna* eta *Gure Herria* aldizkariak 20. eta 30. hamarkadetako Lafitte langile sutsuaren berri ematen digute; 1930. hamarkadan *Aintzina* gehitu zitzairen Lafitteren lanaren erakustoki bezala. Hiru aldizkari horiek bat zetozen jende ez-ikasiari zuzenduriko artikulua argitaratzean.

Konkretuki *Eskualduna*arekin bat zetorren *Aintzina* baseritarrei zuzenduriko berriak sartzen eta beste gai batzuk, esaterako, eskola, euskal jaiak etab. lantzeaz gain, herritarrei interesatzen zitzaizkien iritzi politikoak sartzean.

Gure Herriarekiko ezaugarri komunei dagokienez, beronek bezala, *Aintzina* euskal folkloreari buruzko berriak argitaratzen zituen, era ulerterraz eta erakargarrian idatzirik. Izan ere, Lafitteren jarduera ikasleen artean bilakatu zen, irakaslea baitzen; ohikoa litzateke berarengan, beraz, era konprengiarriaz adieraz zitzaizkien mezuak.

Aintzina argitaratua izan zenean, honelako aurkezpen hau egin zuen *Gure Herriak*:

il se présente avec la coquetterie, l'entrain, la crânerie et la bonne humeur de la jeunesse... Le rédaction en est soignée et très variée; la basque, jamais négligé, tend à se rapprocher du langage populaire. Les idées, parfois audacieuses, plaisent par leur netteté. On peut ne pas les partager toutes, mais il est impossible de ne pas en tenir compte: car elles sont le fruit de multiples lectures et de nombreuses discussions en cercles d'études⁷²⁰.

Bestalde, ez Lafittek, ezta *Aintzinaren* gainerako lankideek ere, ez zuten garai hartan irakurle intelektualei zuzenduriko artikulurik argitaratu *Société des Sciences, Lettres et Arts et Bayonne*, *Bulletin du Musée Basque*, *RIEV* edo *Euskera* aldizkarietan.

III.5. Euskaltzaleak Iparraldeko sare intelektualean

Ikus dezagun, azkenez, zer nolako ekintzak burutu zituzten aipatu berri ditugun euskaltzaleek lan honetan zehar aztertu ditugun elkarte eta aldizkarietan:

Hogeita hirugarren laukia. Euskaltzaleak Iparraldeko sare intelektualean 1920tik 1944ra bitartean:

Altabegoity

Amoçain, Henriette

Amoçain, Pierre (1915-1971). *Aintzinaren* idazkaria, 1934-1935.

Aranart, Philippe (1901-1981). Gure Herria elkarte, 1937.

Arocena. Gonbidatua Lafitteren talde euskaltzalearen lehenengo bilerara, 1933an; ez zen joan.

Arramendy, Elise

Barucq emakumea

Bernouville, Gaëtan

Bribet emakumea

Biatarana, Jean

Blainville. Lafitteren talde euskaltzalearen bigarren bilera, 1934.

⁷²⁰ Barrandaria: "Aintzina", *Gure Herria*, 1934ko abendua, 555-556. orr.

Casabonne, Jean Pierre

Chapelet. Lafitteren talde euskaltzalearen lehenengo bilera, 1933. Gonbidatua Lafitteren talde euskaltzalearen hirugarren bilerara, 1934ko abendua; ez zen joan.

Dargains, Fabien

Dargains, Camille

Diharce, Maddie (1918-2001).

Diharce, Michel (1914-1940). Eskualzaleen Biltzarraren 1928ko bilera.

Diharce, Xabier (1920-).

Duboscq, Jean (1905-). *Aintzinaren* gerentea, 1934-1935. *Aintzinaren* idazkaria, 1936.

Goyheneche, Eugène (1915-1989). Eskualzaleen Biltzarraren 1933ko bilera.

Guéraçague emakumea

Hainçuberro emakumea

Hastoy, Jean

Héguy, Pierre. Gonbidatua Lafitteren talde euskaltzaleen hirugarren bilerara, 1934ko abendua; ez zen joan.

Hiribarren, Charles (?-1989). *Aintzinaren* idazkaria, 1935.

Jaureguiberry, Jean de (1880-1952). *Gure Herria* (11 idazlan) eta *Aintzinan* (5 idazlan) idatzi zuen. Gure Herria elkartearen 1932ko bilera. Gure Herria elkartearen 1933ko bilera. Eskualzaleen Biltzarraren 1933ko bilera. Gure Herria elkartearen 1934ko bilera. Gure Herria elkartearen 1935ko bilera. Eskualzaleen Biltzarraren 1935ko bilera. Gure Herria elkartearen 1936ko bilera. Gure Herria elkartearen 1937ko bilera. Gure Herria elkartearen 1938ko bilera.

Jaureguiberry, Madeleine de (1884-1977). Gure Herria elkartearen 1936ko bilera. Gure Herria elkartearen 1937ko bilera. Gure Herria elkartearen 1938ko bilera. *Aintzinaren* idazkaria, 1935-1937.

Lafitte, Piarres (1901-1985). Eskualzaleen Biltzarraren 1928ko bilera. Gure Herria elkartearen 1930ko bilera. Euskaltzaindiaren 1930eko azaroaren bilera. Gure Herria elkartearen 1931ko bilera. Gure Herria elkartearen 1932ko bilera. Eskualzaleen Biltzarraren 1933ko bilera. Gure Herria elkartearen 1933ko bilera. Gure Herria elkartearen 1934ko bilera. Gure Herria elkartearen 1935eko bilera. Gure Herria elkartearen 1936ko bilera. Gure Herria elkartearen 1937ko bilera. Gure Herria elkartearen 1938ko bilera. *Eskualduna* (238 idazlan), *Gure Herria* (69 idazlan) eta *Aintzinan* (146 idazlan) idatzi zuen.

Lassalle, Léon (1881-1961). *Eskualdunan* (9 idazlan), *Gure Herrian* (34 idazlan) eta *Aintzinan* (11 idazlan) idatzi zuen. Gure Herria elkartearen 1934ko bilera.

Mendiboure, G. Lafitteren talde euskaltzalearen hirugarren bilera, 1934ko abendua.

Mestelan, Jacques (1918-). *Gure Herrian* (3 idazlan) eta *Aintzinan* (7 idazlan) idatzi zuen.

Olphe Galliard, Maurice. *Société des Sciencies, Lettres et Arts de Bayonne* elkartearen idazkari adjuntua, 1935-1940. Lafitteren talde euskaltzalearen bigarren bilera, 1934.

Olhagaray andrea

Ospital, André (1915-1987).

Ospital, Félix. Lafitteren talde euskaltzalearen bilera, 1933. Gonbidatua Lafitteren talde euskaltzalearen bigarren bilerara, 1934; ez zen joan.

Richter, Jean (?-1940).

Saint Martin, Germain

Urricarriet, Jean Pierre (1905-1950).

Urricarriet emakumea

Elaborazio propioa, *Eskualduna*, *Société des Sciencies, Lettres et Arts de Bayonne*, *Revista Internacional de Estudios Vascos*, *Euskera*, *Gure Herria*, *Bulletin du Musée Basque* eta *Aintzina* aldizkarietan oinarrituta.

Ikusten dugun legez, 29 euskaltzaleetatik zazpi Lafittek eraturiko taldean aritzeaz gain, elkarte kultural gehiagoren bileretan izan ziren: Philippe Aranart, Michel Diharce, Eugène Goyheneche, Jean de Jaureguiberry, Madeleine de Jaureguiberry, Piarres Lafitte eta Léon Lassalle.

Alde batetik, Jean de Jaureguiberryk eta Piarres Lafittek Gure Herria elkartearen sei bileratan egin zuten topo; Madeleine de Jaureguiberry haiekin elkartu zen horietako hiru batzarretan eta Philippe Aranartek hirurak ikusi zituen horietako bilera batean.

Beste aldetik, Lafitte Eskualzaleen Biltzarraren bi bileretan izan zen; baten Michel Diharce eta Jean de Jaureguiberryrekin elkartu zen eta bestean Eugène Goyhenechekin.

Laburbilduz, Lafittek garatu zuen mugimendu euskaltzaleko ia inork ez zuen ekintzarik burutu talde euskaltzaletik at. Bakarrik Piarres Lafitte eta Jean de Jaureguiberry joan ziren maiztasunez talde euskaltzaleko bileretara ez ere, beste elkarte bateko bileretara, hau da Gure Herria elkartearen batzarretara. Era berean, lauk baino ez zuten aldizkarietan idatzi: Jean de Jaureguiberry, Lafitte, Lassalle eta Mestelanek *Aintzina*, *Eskualduna* eta *Gure Herria* aldizkarietan artikulatuak argitaratuz.

IV. PIARRES LAFITTEREN DIZIPULUEK BURUTURIKO EKINTZAK

1930. hamarkadan Piarres Lafittek gazteak eragin zituelarik euskal kulturaren murgil zitezen, 40. hamarkadan lan emaitzak ikusi zituen, beronen lankide gazteek *Aintzina* birsortu baitzuten 1942an, 1943an amaitu bazen ere, eta Euskal Gazteen Batasuna, 1943tik 1944ra arte iraun zuena.

IV.1. Bigarren *Aintzina*

Marc eta Jacques Legassek, Legasse familiaren sei neba-arrebetatik aberzaleenak zirenak eta dirua zutenak⁷²¹, aldizkari bat argitaratzea erabaki zuten. Horrela, Xabier Diharceri⁷²² adierazi ostean, Lafitteren bila abiatu ziren horren berri emateko; Piarres Xarrittoni ere zuten asmoa aurkeztu zioten⁷²³. Baina Bigarren Mundu-Gerraren garai hartan Frantzia alemanenmende zegoen eta aldizkari kulturalak baino ezin zitezkeen argitaratu; zaila zatekeen

⁷²¹ Legasse familiaren irabazpidea makailuaren arrantza zen, Terranovan; Marcen aita Pasaiaiko “Pesquerías y Secaderas de bacalao de España” negozioaren partaidea ere izan zen. Louis Legasse, Marc eta Jacquesen aita, 1939an hil zen eta familiak herentzia jaso zuen.

⁷²² “El joven Ganix vivía en Donibane Lohizune, a donde Marc Legasse le fue a buscar porque “había que hacer algo para salvar el futuro de Euskal Herria. A Diharce, hijo de un monárquico –los progenitores de los dos jóvenes eran de la facción de los *blancos* carlistas contrarios a los *colorados* liberales– aquel primer movimiento vasquista de Lafitte le había cogido demasiado joven”, EREÑAGA, Amaia: *Marc Légasse. Un rebelde burlón*, Txalaparta, Tafalla, 1997, 37. or.

⁷²³ “1940ean sartu ginen Baionako Seminarioan eta 1941eko oporretan, udan, etxerat etorri zitzaizkidan Iratzeder eta Legasse, zaldia eta karrosarekin, Euskal Herriko itzulia egingen ari ziren”, Murua, I., aipatu artikulua., 92. or.

Amaia Ereñagak ere garai horren berri ematen du: “En Hazparne, Iratzeder efectuó una larga y detallada presentación al seminarista Xarritton de aquel “*monieur Légasse*, un hombre rico y que quiere hacer algo”, Ereñaga, A, aipatu liburua, 38. or.

ere izen berriko aldizkari bat kaleratzeko baimena lortzea. Hori guztia zela eta, *Gure Herria* aldizkari kulturala birsortzea erabaki zuten, 1936tik argitaratzen ez baitzen.

1930. hamarkadan *Gure Herriak* izan zituen lankideengana jo zuten euskaltzale gazteek Ohorezko Batzordea osatzeko: Jean Saint-Pierre, Gorduseko apezpikua; Jean de Jaureguiberry medikua eta Eskualzaleen Biltzarreko partaidea; horren arreba zen Madeleine de Jauréguiberry, Begiraleak taldearen lehendakaria; Louis Dassance, Eskualzaleen Biltzarreko lehendakaria; aita Donostia; Georges Lacombe euskaltzaina, Léon Leon eta Jules Moulier “Oxobi”. Horrez gain, Ezpeleta, Senpere, Sara, Baigorri, Garazi eta beste hainbat herritan ibili ziren euskaltzale gazteak irakurleen zein idazleen bila⁷²⁴.

Argitalpena kaleratzeko lehenengo arazoa sortu zen Ohorezko Batzordearen lehenengo bilera burutu orduko, Bigarren Mundu-Gerran izatean Batzordearen kide batzuk Frantziako alde librean zeudelako eta beste batzuk okupatutako aldean, muga pasatzea batere erraza ez zelarik. Horrela, 1942an aldizkariaren lehenengo zenbakia prestatu bazegoen ere⁷²⁵, ez zuten Batzordeko partaideak elkartzeko biderik izan.

Egoera luzatzen zenez, Piarres Lafittek proposatu zien aldizkaria kalera tzea, baina, *Gure Herria* deitu barik, *Aintzina* izendatuz. Azken baten, Lafitte bera zen *Aintzinaren* jabea eta posible izango zen argitara ematea Batzordearen kideak elkartu barik⁷²⁶. Horrela, *Gure Herria* aldizkari kulturalaren berrargi-

⁷²⁴ “Nahi ginuke...”, *Aintzina*, 1942ko urtarrila.

Amaia Ereñagak dioenez: “Se encontraban de gira por las viviendas de los nacionalistas de Iparralde”, Ereñaga, A, aipatu liburua, 37. or.

⁷²⁵ Xabier Diharce “Iratzeder”-ek Lafitteri erakutsi zizkionean *Aintzinarako* idatzitako artikulua, Lafitteri hedadura gutxiakoak iruditu zitzaizkion; hala ere, aurrera jarraitzeko esan zion; Xabier Diharcekin izandako elkarrizketa, Beloke, 1996ko abuztuaren 10a.

⁷²⁶ Marc Legassek Lafittek 1930. hamarkadan kaleratu zuen *Aintzina* ezagutzen zuen, oso gustukoa ez bazuen ere:

“Debo reconocer –escribió Marc posteriormente–, que, como suscriptor, en la época de *Aintzina* yo estaba tan desengañado por el tono, los temas y los posicionamientos políticos y sobre todo electorales que, aunque recibía regularmente la revista regionalista vascofrancesa, me encontraba prácticamente alejado de ella’... Los nacionalistas, para el joven Legasse, estaban encarnados por los seguidores de Sabino Arana Goiri, el padre del nacionalismo vasco, y sus ideas que le llegaban a través de sus visitas a Errenteria al tío-abuelo Gaudioso o sus encuentros en la zona continental con los miembros del grupo *Jagi-Jagi*, mucho más radicales en sus ideas que los postulados del Partido Nacionalista

talpena izango zena, *Aintzina* eukalzaleen argitalpenaren birsorkuntza bilakatu zen.

Etxe bat alokatu zuten Haltsun eta *Aintzinaren* egoitza ezarri, laugarren zenbakitik aurrera, Donibane Lohitzunera aldatu zuten arte⁷²⁷.

Bigarren *Aintzina La Presseren* inprimategian argitaratu zuten, euskarako zein frantsesezko artikuluez osaturik⁷²⁸. Aldizkaria atontzeko Piarres Lafitteri eskatu zion laguntza Roger Etchegarayk⁷²⁹:

C'est pourquoi, Monsieur l'abbé, nous tenons absolument à vous avoir parmi nous dans cette réunion intime. Nous avons besoin de vos conseils, vos directives⁷³⁰.

Bigarren *Aintzinaren* argitalpena Marc Legasse eta Xarrittonen esku egon bazen ere (Jacques Legasse Bigarren Mundu-Gerran hil zen eta Xabier Diharce fraidegai bilakatu zen), lehenengo zenbakitik azkenera Marc Legasse eta André Ospital agertu ziren arduradun arte eta Jean Duboscq kudeatzaile. Piarres Xarrittonek, Apaizgaitegian zegoen arren, euskarazko probak zuzentzen zituen, Legassek eskuraturik, honek ez baitzuen euskaraz egiten⁷³¹. Pierre Lafitte Ohorezko Batzordean baino ez zen agertzen.

1942ko abuztuan Zuzendaritza-kontseilua izendatu zuten⁷³²: Pierre Larzabal, taldearen kapilaua izateaz gain, ekintza sozialez arduratu zen; Etcheverry-Aintchart, Charles Hiriart eta Bernard Mendisco Nafarroa Behereko ordezkariak izan ziren, Elise Arramendi emakumea Begiraleak eta euskal

Vasco creado por los hermanos Arana en 1895. Por eso le gustaban”, Ereñaña, A..., aipatu liburua, 36. or.

⁷²⁷ “La culture basque sous l’occupation”, *Gerra eta Literatura*, Oihenart Cuadernos de Lengua y Literatura, RIEV, 1997, 223. or.

⁷²⁸ “Tenía que tener una mayor incidencia en el euskara, pero debía ser también bilingüe porque el que ponía el dinero no sabía euskara y también quería escribir”, recuerda Xarritton”, Ereñaña, A, aipatu liburua, 38. or.

⁷²⁹ Era honetan jarraitzen du Etchegarayren eskutitzak: “En lisant le premier numéro d’*Aintzina*, certains ont crû que notre revue avait besoin d’une nouvelle et bonne mise au point. Il est vrai, c’est seulement par une organisation solide et la coordination des efforts généreux de chacun que nous ferons quelque chose de sérieux. Or, l’ossature de ce mouvement est encore très flottante”, Roger Etchegarayk Lafitteri idatzitako eskutitza, St. Louis de Gonzague ikastetxea (Baiona), 1942ko otsailaren 2a.

⁷³⁰ Roger Etchegarayk Lafitteri idatzitako eskutitza, Baiona, 1942ko otsailaren 2a.

⁷³¹ Murua, L., aipatu artikulua, 92. or.

⁷³² “A nos amis”, *Aintzina*, 1942ko abuztua.

teatroaren ordezkaria; Gosterratux eta Harriet Pilotaz arduratu ziren; eta Jean Hillau, Txistularien burua, Irigoien emakumea eta Michel Labéguerie ikasleen ordezkariak izan ziren.

Baina argitalpena kaleratzeko bazegoen beste arazo bat: gerra garaian ez zen batere erraza papera lortzea:

Les problèmes du papier, du carton, de l'impression, souvent impossibles, furent toujours difficiles à résoudre⁷³³

Horrekin batera, *Aintzina*n idatzi zuten gehienak apaizgaiak ziren eta apaizgaiek debekaturik zeukaten egunkariak Apaizgaitegian sartzea, baita aldizkariak argitaratzea ere⁷³⁴. Beraz, isilpean aritu behar izan zuten *Aintzina* argitaratzeko; irakasleetatik Narbaitz⁷³⁵ eta Larralde euskaldunek baino beste inork ez zekien eta zeukan aldizkariaren berri⁷³⁶. Marc Legassek, kanpoan zegoen eta, testuak eraman zizkion inprintatik Xarrittoni, zuzentekak egin zitza.

Epe laburrean, Saint Louis de Gonzague ikastetxean begirale zegoen Roger Etxegarairi *Aintzina*ren idazkari izateko eskatu zioten. Izan ere, argitalpenarekin jarraitzeko lagungarri izango zen Etxegarai apaizgaitegitik kanpo maiz egon izana, begirale izateaz gain, ikastetxearen kanpo harremanen arduraduna baitzen. Eta idazkaria zelarik, Etxegaraiak eskutitzez eskatu zien Lapurdiko apaizei artikulua idatz zitzaten *Aintzinarako*⁷³⁷.

⁷³³ Legasse, M.: "Chantons ... eta dansons!", *Aintzina*, 1943ko urtarrila-otsaila.

⁷³⁴ Apaizgaitegian debekaturik zegoen egunkariak irakurtzea ere; hala ere, Xabier Di-harce, sarritan gaixorik zegoenez, barnetegitik kanpo bizi zen. Larresoroko izebaren etxean eskuratu eta irakurri ahal izan zituen *Eusko Deya* eta *Peuples et Frontières* gutxiengoan aldeko egunkari bretoiniarra, baita Engracio de Aranzadiren *La Nación Vasca*; Xarritton, P.: "P. Lafitte zenaren pentsabideak, aipatu artikulua, 111. or.

⁷³⁵ Narbaitzi buruz hauxe dio Xarrittonek: "Narbaitz izan nuen Filosofia irakasle, gero bikario nagusi izango zena. Narbaitzekin euskaltasunean konpondu ginen aski ongi, lan asko egin genuen elgarrekin, itzalean. Politikan ez, zeren Narbaitz karlista zen, amorratua, eta bazekien ni ez nintzela. Gero, Pétainen aldekoa hura eta ni kontrakoa", Murua, I., aipatu artikulua, 97. or.

⁷³⁶ Xarrittonek gogoratzen duenez: "Yo le había contado mi pecado a mi confesor, porque era euskaldun. Lo sabían mi confesor, Larralde, y nuestro profesor de filosofía, Narbaitz, al que más cariño tenía yo personalmente. Sabían que me encargaba de esta revista", Ereñaga, A., aipatu liburua, 39. or.

⁷³⁷ "Desde sus inicios la revista se sustentaba en la labor de los jóvenes seminaristas, quienes percibían que la tapa de seudónimos bajo la que se escondían algún día iba a saltar por los aires. Aprovechando que algunos de ellos iban a poder salir del seminario para cubrir

Horrela, eliza batzuetako erretoreek Etxegarairen eskutitza jaso zuten. Baina hauetariko batek Apaizgaitegiko Candau buruari eman zion eskutitzaren berri⁷³⁸, baita Candauk Apaizgaitegiko nagusiekin hitz egin ere Apaizgaitegian argitalpenak argitaratzea debekaturik dagoela abisatzeko. Narbaitz eta Larralde irakasleek ardura hartu zuten apaizgaiei errieta egiteko⁷³⁹.

Beraz, hilabetekaria argitaratzen jarraitzeko zailtasun berriak sortu zitzaizkien Apaizgaitegiko gazteei. Hala ere, batzuei aldizkarian gehiago idaztea debekatu bazien ere, beste batzuei sinatzerakan izenez aldatzeko baino ez zien eskatu⁷⁴⁰. Piarres Xarrittonek, adibidez, ordura arte erabilitako “Xabier Gasteiz” izengoitia baztertu behar izan zuen, 1942ko maiatzeko zenbakitik aurrera, “Ordaina” erabiliz⁷⁴¹.

Argitalpena argitaratzen jarraitzeko Hazparnen bikario zegoen Pierre Lartzabali eskatu zioten *Aintzinarren* zuzendari izan zedin. Hala ere, Lartzabalek *Aintzinaz* arduratzeko nagusien baimena behar zuen; eta lortzeko eskatu zioten Lartzabali eta “gauzak garbi izan zitezten”⁷⁴² aldizkarian argitara zezala artikulua bat, adieraziz aldizkariak ez zuela kutsu abertzale, komunista edo ezkertiarrik. Larzabal prest zegoen delako artikulua egiteko, baina Piarres Xarritton, Marc Legasse eta André Ospital abertzaletasuna ukatuko zuen artikulurik argitaratzearen kontra zeuden⁷⁴³.

la falta de profesores en los colegios producida por la guerra, Xarritton solicitó a uno de los afortunados –Roger Etchegaray, actualmente cardenal– que hiciera campaña y estrechara relaciones para la revista fuera de los muros donde estaban encerrados”, Ereñaga, A, aipatu liburua, 45 or.

⁷³⁸ Murua, I., aipatu artikulua, 93. or.

⁷³⁹ “Narbaitz y Larralde tuvieron que reconocer ante su superior que conocían las actividades prohibidas de los estudiantes. Aun así, Candau, con sutileza, les dejó una puerta abierta. Aunque dijo que informaría a los seminaristas de que ‘esas actividades no son normales en esta casa’, se abstuvo de realizar una prohibición pública y explícita. ‘Nosotros no teníamos ni idea. Una noche, después de cenar, Narbaitz me preguntó si ya nos lo había dicho el padre superior, porque todas la noches se reunía con los seminaristas. Narbaitz entonces me dijo que tenía que avisarme”, Ereñaga, A, aipatu liburua, 46. or.

⁷⁴⁰ Arbelbide, X.: *Enbata...* aipatu liburua, 56-57. orr.

⁷⁴¹ “Ez da posible segitzea. Behar dugu zerbait egin. Zuk segituko duzu baina behar duzu aldatu izenordea, eta eskoletan nota txarrak dituztenak, horiek geldi”; Murua, I., aipatu artikulua, 93. or.

⁷⁴² Arbelbide, X.: *Piarres Lafitte, bere bizia...* aipatu liburua, 64. or.

⁷⁴³ “Ici, nous (Ospital, Diharce, Charritton même, et moi) jugeons très severement l’attitude de l’abbé Larzabal, qui nous a trompé. A la réunion du 14 Janvier il ne nous avait

Lartzabalek atzera egiteko asmorik ez zuenez gero, dimisioa aurkeztu zuen, zuzendari izaten hasi ere gabe:

Je ne suis plus rédacteur en chef d'*Aintzina* et *Aintzina* est tombé désarmé. Mon programme n'a pas plu à M. Légasse et, pour ma part, je n'ai pas voulu ni être nationaliste basque, ni continuer une espèce de revue qui ne savait pas trop ce qu'elle voulait et où le rédacteur en chef était un collecteur d'articles. Mon programme était du régionalisme, avec une pointe vers le nationalisme. Je regrette qu'on ne m'ait pas laissé les mains libres⁷⁴⁴

Aipatu artikulua argitaratzearen kontra bazegoen ere, Marc Legasse damu zen Lartzabalen dimisioaz, uste baitzuen Larzabal galtzearekin irakurle mordoa galduko zuela *Aintzinak*⁷⁴⁵.

Lartzabal ordezkatzeko Piarres Lafitteri eskatu zioten *Aintzinaz* ardura har zezan. Izan ere, harpidedunek hamabi zenbaki zeuzkaten ordainduta eta ordurako zortzi baino ez zeuden argitaraturik⁷⁴⁶. Hala ere, aldizkariaren ordeze, erabaki zuten zenbait gai lantzea koaderno eta liburuxoen bidez: historia zela, gramatika zela, etab; tartean Legassek frantsesezko artikuluren bat sartzen zuen. Horrela, "Chabier Gasteiz"-ek (Piarres Xarrittonen izengoitia) *Eskualdunak* liburuxoa idatzi zuen; Axularren mendeurrena ospatzeko, *Axular 1643-1943* atera zuten Xabier Diharce, Gabriel Lertxundi, Jean Elissalde, George Lacombe, Pierre Lafitte, Jean Saint-Pierre eta Leon Léonek; garaiko intelektual ospetsuenetarikoa, beraz. *Almanaka* eta egutegia ere argitaratu zituzten 1943an.

Dena dela, Amaia Ereñagak dioenez, lehenengo zortzi zenbakietatik aurrera aldizkaria ez zegoen hain landuta, Legassen komentario ironikoen falta izateaz gain⁷⁴⁷.

Aintzinaren lankideek hainbat gai landu zituzten:

jamais dit qu'il comptait attaquer les Nationalistes, ni même publier un programme", Marc Legassek Lafitteri idatzitako eskutitza, 1943ko otsailaren 15a.

⁷⁴⁴ Pierre Lartzabalek idatzitako eskutitza, 1943ko otsailaren 15a.

⁷⁴⁵ Lartzabalek berak azaldu zuen bezala, 60 eskutitz bidali zituen *Aintzinarako* irakurleak lortzeko, Jean Elissalde, Jules Moulier eta Minvielleren lankidetzat lortzeaz gain; Pierre Lartzabalek idatzitako eskutitza, 1943ko otsailaren 15a.

⁷⁴⁶ Legasse, M.: "Chantons... et Dansons!", *Aintzina*, 1943ko urtarrila-otsaila.

⁷⁴⁷ Ereñaga, A., aipatu liburua, 48. or.

Euskara eta Eskola atalean Jean Duboscq, Pierre Lafitte, Marc Legasse (“L’idiot du Village”⁷⁴⁸), Beñat Mendisco⁷⁴⁹ (“Mendibar”⁷⁵⁰, “Eskola emalea”⁷⁵¹), eta Jacques Mestelanek (“Menditarra”) idatzi zuten.

Euskaltzaletasuna eta Euskal Kultura eta Ohiturak atalean idazle hauek ageri ziren: Xabier Diharce (“Jean Lohitzun”⁷⁵²), Roger Etchegaray (“Alur”⁷⁵³), Emile Hirigoyen (“Emile Navarre”⁷⁵⁴), Madelaine de Jaureguiberry (“Mari Cachkarot”⁷⁵⁵), Michel Labéguerie (“Mediku gaiak”⁷⁵⁶), Marc Legasse, eta Pierre Narbaitz (“Ttun-Ttun”⁷⁵⁷).

Historia atalean José Miguel Barandiaran, Marc Legasse (“Manuel Erobi”⁷⁵⁸) eta Piarres Xarrittonek (“Chabier Gazteiz”, “Ch.G.”, “Ordaina”) idatzi zuten.

Armarriak atalean Marc Legassek (“Le Raleur”⁷⁵⁹).

⁷⁴⁸ Beñat Mendiskoren ustez “L’idiot du village” Marc Legassen izenordea zen.

⁷⁴⁹ Bigarren *Aintzinaren* garaian Mendisko umeekin ari izan zen dantzak irakasten: “A l’occasion du Carnaval, les tout-jeunes, mais déjà habiles danseurs des Aldudes, formés par M. Mendixko, nous ont offert une série de sauts basques, dans l’exhibition des quels leur professeur a l’intention de les spécialiser”, Hik-Hek-Hok (Piarres Xarritton): “Nahas-Mahas”, *Aintzina*, 1943ko martxoa.

⁷⁵⁰ Beñat Mendiskok esandakoari jarraituz, Isaac López de Mendizabal Iparraldera heldu zen iheslari eta, dirurik ez zuenez gero, Mendiskorekin batera hasi zen idazten, elkarrekin sinatuz “Bi mendi” izangoitiaz; Beñat Mendiskorekin izandako elkarrizketa, 1996ko irailaren 4a.

⁷⁵¹ Mendiskok esandakoari jarraituz, “Eskola emalea” berak erabilitako izenorde bat zen; Beñat Mendiskorekin izandako elkarrizketa, 1996ko irailaren 4a.

⁷⁵² Xarritton eta Mendiskoren ustez “Jean Lohitzun” Michel Diharce erabilitako izenordea zen.

⁷⁵³ Xarritton eta Xabier Diharce adierazi digute “Alur” Roger Etchegaray zela.

⁷⁵⁴ Xarrittonek esan duenez “Emile Navarre” Emile Hirigoyen zen.

⁷⁵⁵ Marc Legasse eta Beñat Mendiskoren ustez “Mari Cachkarot” Lafitte zen; Xabier Diharce eta Xarrittonen ustez, ostera, “Mari Cachkarot” Mayi Diharce zen.

⁷⁵⁶ Mendiskoren ustez “Mediku gaiak” Michel Labéguerie edo Lafitteren izenordea zen; Beñat Mendiskorekin izandako elkarrizketa, 1996ko irailak 4a.

Xarrittonen esanetan “Mediku-gaiak” Labégueriren izengoitia zen.

⁷⁵⁷ Xarrittonen ustez “Ttun-Ttun” Narbaitzen izenordea zen: “Ttun-Ttun Narbaitz kallonjea zen, Narbaitz gero bikario nagusia izan dena, oso eskualzalea, bainan, beitezpada, eskuin abertzalea ez, eskuin muturrekoa, Ybarnegarayren laguna”, Xarrittonekin izandako elkarrizketa, 1996ko uztailaren 7a.

Marc Legassen ustez “Ttun-Ttun” Labégueriren izenordea zen.

⁷⁵⁸ Marc Legassek esan digunez, “Manuel Errobi” berak erabilitako izengoitia izan zen.

⁷⁵⁹ Marc Legassek esandakoari jarraituz, “Le Raleur” bere izengoiti bat izan zen.

Gazteak atalean Harguindeguy, Jean de Jaureguiberry, Madeleine de Jaureguiberry (“Mari Kachkarot”), Michel Labéguerie (“M.L.”⁷⁶⁰), Pierre Lafitte, Minvielle (“Amikuztarra”⁷⁶¹) eta Pierre Narbaitzek (“Ttun-Ttun”).

Baserría eta Laborariak atalean Xabier Diharce (“Ganich”⁷⁶²) eta Piarres Xarrittonek (“Baserritarra”).

Langileak atalean Gaston Hirigoyen, “J.B.S.”⁷⁶³ - eta Philippe Oihanburuk.

Politika atalean Pierre Larrazabal (“P.L.”⁷⁶⁴) eta Marc Legassek.

Presoak atalean Marc Legassek (“X.X.X.”⁷⁶⁵).

Onomastika atalean Pierre Labadie (“P.L.”) eta Georges Lacomбек.

Pilota, trinketea eta estropadak atalean Joanes Chabagno eta Simon Duhour (“Chimun Chori”).

Dantzak atalean Michel Labégueriek.

Musikaz Donostia, Jean Hillau, Pierre Landaburu eta Gabriel Lertxundi arduratu ziren.

Poemak: Gratien Adema (“Zaldubi”), Jean Barbier, Xabier Diharce (“G. Iratzeder”), Jean Elissalde (“Zerbitzari”), L. Liguex⁷⁶⁶, Jacques Mestelan (“Kantaber”⁷⁶⁷), Jules Moulier (“Oxobi”) eta J.-B. Otchaldek.

Kontaerak: Gratien Adema (“Zaldubi”) Mathieu Agerre (“Artojale”⁷⁶⁸), Jean Barbier, Beñat Elgoyen⁷⁶⁹, Roger Etchegaray (“Alhur”), A. Idiartega-

⁷⁶⁰ Marc Legassen ustez “M. L.” Marc Legasse zen.

⁷⁶¹ Xarrittonek esan duenez, Minvielle doktore amikuztarra zen eta beharbada “Amikuztarra” Minviellek berak erabilitako izenordea zen; bestetik, Xarrittonen aita amikuztarra zen eta posible zatekeen Xarrittonek berak ere “Amikuztarra” erabili izatea izenorde bezala.

⁷⁶² Posible da “Ganich” izenorde hori Xabier Diharce izatea: “Harat hunatetan maiz naukan paperño bat eskuan eta ikasten nituen egunean hogoi edo hogoi-ta hamar euskal-hitx. Su geiegi agertzen bide nuen eta nere buruari ez nion “Jean” emaiten izena, baina “Ganix”; egun batez erakasleak erran zautan: “Nardatzen gaitutzu zure ganixkeriekin”, Diharce, X.: *Biziaren olerkia*, Ediciones, Mensajero, Bilbao, 1983, 574. or.

⁷⁶³ Xarrittonen ustez “J.B.S.” Soubisboure gazte hazpandarra zen; Xarrittoni berriro jarraituz, “J.B.S.” Pierre Larzabal ere izan liteke, langileei buruz idazten zuelako.

⁷⁶⁴ Xarrittonen ustez “P.L.” Pierre Larzabal zen.

⁷⁶⁵ Marc Legassek esan digunaren arabera, “X.X.X.” beharbada bera zen.

⁷⁶⁶ Liguex koblari zuberotarra izan zen.

⁷⁶⁷ Mestelanek esan digunez, “Kantaber” berak erabilitako izenordea izan zen.

⁷⁶⁸ Xarrittonen ustez “Artojale” Mathieu Agerren izengoitia zatekeen.

⁷⁶⁹ Xarrittonek esandakoaren arabera, Beñat Elgoyen zuberotarra zen.

ray⁷⁷⁰, Pierre Labadie (“P.L.”), Pierre Lafitte (“Mañech Eiheraberri”⁷⁷¹), Marc Legasse (“Manuel Erobi”) eta Hiriart Urrutyk (“H. U.”⁷⁷²).

Asmakizunak: “Haurkina”-k⁷⁷³.

Danetariko berriak: Piarres Xarrittonek (“Hik-hek-Hok”, “Nik”⁷⁷⁴).

Bibliografia: P. Lafitte (“P.L.”), Adichkidea.

Pentsamoldearek dagokionez, bigarren *Aintzinak* aurrekoaren oinarri berberak izan zituen: kristautasuna, euskaltasuna eta herri-jakintza. Helburu berberak izan zituen: ohitura zaharrak berreskuratzea eta euskal berezitasun sozio-kulturalak babestea. 1930. hamarkadako artikulurik gehienei kutsu politikoa bazerien ere, bigarren *Aintzina* bereziki aldizkari kulturala izan zen, politikan sartzeko asmorik gabe⁷⁷⁵ eta folkloerari artikulua ugari eskainiz.

Dena dela, tartetxoren bat eskaini zioten politikari⁷⁷⁶, lehenengoan bezala, erregionalismoari atxikimendua adierazteko. Are gehiago, Bigarren Mundu-Gerraren garai hartan, *Aintzinak* artikulua baten islatu zuen aldizkariaren pentsamoldeak bat egiten zuela Pétainek bultzatu zuen *Révolution Nationale* ren printzipioekin, zeinetan iraganaren eta baserri-giroarean mina islatu zuten. Juan Carlos Jiménez de Aberasturik ere horren berri eman digu:

Típicamente petainista que, como es sabido, predicaba el retorno a la tierra, es decir al campo y el “enraizamiento en las tradiciones, sobrevalorando el modelo de la vida rural como referente ideológico, visto todo ello como panacea universal a todos los males y sobre todo al mayor y más peligroso de todos: al comunismo”⁷⁷⁷.

⁷⁷⁰ Idiartegaray Donibane Lohizuneko apeza zen.

⁷⁷¹ Xarrittonen ustez “Mañech Eiheraberri” Lafittek erabilitako izengoitia zen, zeren eta “Eiherazainak” izengoitiarekin bazituen eginak ipuin bildumak *Herria*, baina *Aintzina* ren garaian “Eiheraberri” erabiltzen zuen Lafittek; Xarrittonekin izandako elkarrizketa, 1996ko uztailaren 7a.

⁷⁷² Xabier Diharcen ustez “H.U.” beharbada Hiriart Urruty zen.

⁷⁷³ Xarrittonen ustez “Haurkina” baliteke Lafittek erabilitako izenordea izan.

⁷⁷⁴ Piarres Xarrittonek esan digu “Hik-Hek-Hok” eta “Nik” berak erabilitako izenordeak zirela.

⁷⁷⁵ “Bien que moins savant que *Gure-Herria* et ne faisant pas de politique, le nouvel *Aintzina*, revue mensuelle de jeunes, n’en défendra pas moins la cause basque avec la plus grande ardeur”, *Aintzina*, 1942ko apirila.

⁷⁷⁶ “Nos principes”, *Aintzina*, 1942ko maiatza.

⁷⁷⁷ Jiménez de Aberasturi; J.C.: “Los vascos en la II Guerra Mundial”, *Gran Atlas Histórico del Mundo Vasco*, J. Agirreazkuenaga (dir), *El Mundo*, Bilbao, 1994, 73. or.

Aintzinaren lankideen Pétainenzaletasun hori azpimarratu du Pako Sodupek ere. Idazle honen aburuz, baliteke okupazioaren garai hartan ezinezkoa izatea Pétainen kontrako iritzirik kaleratzea; ikusi dugu jadanik *Aintzina* bezala, Soubelet zein Arotçarenaren garaiko *Eskualduna* ere Pétainen politikaren alde agertu zela. Dena dela, dio Sodupek: “*Aintzina*-ko lehen alditik zion begia ezarria Lafittek Petaini”⁷⁷⁸, Lafittek Euskal Herri-rako nahi baitzuen Pétainek aldarrikaturiko dezentralizazio eta erregionalismoa.

Eta lehenengo eta bigarren *Aintzina*k konparatzen hasi garelarik, denetarik iritziak eman dituzte garaikideek aro bietako *Aintzina*ri buruz: Marc Legassen ikuspuntutik, bigarrena lehenengoa baino eskuindarragoa izan zen, *Front populaire*ri aurre egitea helburu baitzuen⁷⁷⁹. Philippe Oyhambururen ustez, ostera, bigarrena aurrekoa baino abertzaleagoa izan zen, lehenengoa erregionalista baino ez baitzen izan⁷⁸⁰. Azkenez, Jacques Mestelanen aburuz, bigarren *Aintzina* lehenengoa baino ezkertiaragoa izan zen, baina ezin izan zuten adierazi, Iparraldeko Euskal Herria Pétainen gobernupean baitzegoen⁷⁸¹.

Bigarren *Aintzinaren* azken zenbakia 1943an argitaratu zuten. Jiménez de Aberasturiren irudiz, bigarren *Aintzina* amaitu zen haustura gertatu zelako: lankide batzuek Pétainen pentsamolde erregionalista frantziarra bereganatu zuten, beste batzuk abertzaleak ziren bitartean; berauetariko batzuk Erresistentzian sartu ziren, hala nola, Lafitte, André Ospital, Larzabal⁷⁸². 1940. hamarkadako *Aintzina* argitaratzeari utzi zioten.

Dena dela, James E. Jacoben hitzetan, 1943tik 1945era iraun zuen bigarren *Aintzina* garrantzitsua izan zen, 1960eko hamarkadan sortuko zen nazionalismorako zubia izan zelako:

⁷⁷⁸ Sodupe, K.: *Kazetari-lan hautatuak...* aipatu liburua, 81. or.

⁷⁷⁹ Marc Legassekin izandako elkarrizketa, Ziburu, 1996ko uztailaren 25a.

⁷⁸⁰ Philippe Oyhambururekin izandako elkarrizketa, Biarritz, 1997ko abuztuaren 9a.

⁷⁸¹ “Je n’étais pas pour le second, alors je peux difficilement en parler, mais tout que je sais c’est que effectivement le second était plus marqué à gauche; nous, nous étions le premier *Aintzina*, nous étions régionalistes, personalistes, anti-marxistes, alors que le second il n’était pas ouvertement, pendant que nous, nous étions ouvertement”, Jacques Mestelanekin izandako elkarrizketa, Baiona, 1996ko irailaren 5a.

⁷⁸² Jacques Mestelan ere erresistentzian ari ei zen: “on arrive à 1944, je regagne le Pays, immédiatement j’étais voir Lafitte et bon, on parla avec lui, parce que avec Lafitte on était très lié; j’ai dit pourquoi j’étais revenu ici, il me dit: “C’est la resistance, si vous voulez moi je peux vous introduire dans la reseau”, Jacques Mestelanekin izandako elkarrizketa, 1996ko uztailaren 6an.

Some latter-day Basque critics would dismiss this young movement (and its newspaper *Aintzina*) as a timid and retrograde expression of clerical regionalisme. In reality, with its young members like Eugène Goyheneche and Marc Légasse and the influence of Abbé Pierre Lafitte, Abbé Pierre Larzabal, and Abbé Jean-Pierre Urricarriet among others, it represented the bridge between past and future across which the later nationalist movement of the 1960s would come⁷⁸³.

Iparraldeko euskalzaleen lehenengo ekintza politikoak ez ziren 1962ra arte burutuko. Hamarkada hartan, *Aintzinaren* lankideak ziren Pierre Larzabal eta Michel Labégueriek parte hartu zuten euskal mugimendu abertzale baten sorreran: *Enbata* (“l’appartenance sociale des fondateurs d’*Enbata* est proche de celle d’*Aintzina*”⁷⁸⁴). Baina ekintzok 1960. hamarkadakoak dira; beste ikerlan baten aztertzeke utziko dugu, beraz.

IV.2. Eskualdun Gazteen Batasuna

1943ko apirilaren 27an talde desberdinetako ordezkariak bildu ziren Ustaritzen elkarte berri bat sortzeko⁷⁸⁵ asmoz, Eugène Goyhenechek Jean Duboscqi proposaturik⁷⁸⁶. Berrehun bat gaztek entzun zituzten Jean Pierre Urricarriet, Léon Leon, Pierre Larzabal eta Louis Dassancen hitzak eta ordezkaturiko talde kulturalen ekintzen berriak⁷⁸⁷.

⁷⁸³ Jacob, J.E., aipatu liburua, 64. or.

⁷⁸⁴ Letamendia, P.: *Nationalismes au Pays Basque*, Presses Universitaires de Bordeaux, 1987, 139. or.

Hain zuzen ere, *Aintzina* parte hartu zuten horietariko batzuk *Enbata* mugimendu nazionalistari hasiera eman zioten 1962an, Letamendiak azaltzen duen bezala: “C’est en 1962 que se forme à nouveau un mouvement nationaliste basque *Enbata*, autour du journal du même nom créé en 1960. Le premier numéro de ce journal sera entièrement rédigé par l’abbé Pierre Larzabal, un ancien d’*Aintzina* et le nouveau parti compte parmi ses créateurs un autre ancien, Michel Labéguerie, qui est élu député en octobre 1962 grâce à l’absence de candidature gaulliste. Il quittera *Enbata* pour entrer au Centre Démocrate. L’appartenance sociale des fondateurs d’*Enbata* est proche de celle d’*Aintzina*, en 1934: des prêtres (Larzabal), des médecins (Labéguerie et Burucoa), un pharmacien, champion de pelote basque (Simon Haran), des cadres et des employés du secteur tertiaire (les frères Abeberry, Michel Epherre”, Letamendia, P.: *Nationalisme au Pays Basque...* aipatu liburua, 141. or.

⁷⁸⁵ Aintzina: “Eskualdun Gazteen Batasuna”, *Aintzina*, 1943ko ekaina.

⁷⁸⁶ Larronde, J. C.: “La culture basque sous l’occupation...”, aipatu artikulua, 227. or.

⁷⁸⁷ Arbelbide, X.: *Enbata*, ... aipatu liburua, 58. or.

Eskualdun Gazteen behin-behineko Batzordea osatu zuten talde horietako ordezkari batzuek: Jean Duboscq Ustaritzeko **Zazpiak Bat** taldekoa, René Errecart eta Goyheneche Pariseko **Errepika** taldekoa, Arthur Garcia Donibane Lohitzuneko, Jean Hastoy eta Jaureguiberry anaiak Zuberoa ordezkatzeko, Josphe Ipharraguerre Haltsuko **Epherrak** taldekoa, Michel Labéguerie Bordeleko **Irrintzi** taldekoa, Marc Legasse eta André Ospital **Aintzina**ren partez, Michel Limonaire Biarritzeko, Etienne Sallaberry Kanboko **Izarra** eta Lilette Yribarren **Baionako dantzari talde**koak.

Eskualdun Gazteen Batasunaren Kontseilu Teknikoari dagokionez, honako hauek osatu zuten: Piarres Xarritton Hizkuntza eta Historia alorreko arduradun bezala, Michel Limonaire eta Jean Hastoy koreografia eta musika-rena⁷⁸⁸, Pierre Lartzabal gai sozialena, Idiarregaray itsasgizonena, Bernard Mendisko irakasleena, Michel Labeguerie koruena, Jacques Legasse gai ekonomikoena eta Mayi Diharce Begiraleen ordezkariak⁷⁸⁹. Michel Limonaire idazkari izendatu zuten eta Lucienne Haitze diruzain.

Bileretan landutako gaiei dagokionez, 1943ko apirilaren bileran honako erabaki hauek hartu zituzten:

- Euskara defendatzea: Gobernu frantziarrari eskatuko zioten tokiko hizkuntzen irakaspena derrigorrezkoa izan zedin, gauzatzeko diru laguntza eskatuz; Eskualzaleen Biltzarra, *Eskualduna* eta Euskal Herriko diputatuei ere eskatuko zieten euskararentzako babes eta bul-tzada.
- Euskal Herriak lurralde administratibo bakarra osa zezan.
- *Zazpiak Bat* lemaren alde ekitea.

Eskualdun Gazteen Batasunaren hurrengo bilera 1943ko uztailaren 24an burutu zuten, Baionan. Lucienne Haitze, Eugène Goyheneche, Jean Hillau, Michel Labéguerie, Marc Legasse eta André Ospitalek hartu zuten parte; baina Legasse eta Ospitalek dimisioa aurkeztu zuten, *Aintzina* ez zelako kontuan hartua izan. Bileran hartan Bernard Mendisko izendatu zuten lehendakari.

⁷⁸⁸ Folkloreari zegokionez, Michel Limonaire arduradun orokorra bazen ere, herri batzuek bazuten norengana jo folklore ekintzetan interesaturik egonez gero: Biarritzen Barrenetxea emakumea neskentzat eta Michel Limonaire mutilentzat, Baionan Yribarren emakumea neskentzat, Donibane Lohizunen M. A. Garcia neska eta mutilentzat, Uztaritzen Jean Duboscq mutilentzat, Kanbon Rezola emakumea neskentzat eta Hazparden Gosterratxu, Saint-Joseph ikastetxeko abadea zena, mutilentzat; *Aintzina*, 1943ko urtarri-la-otsaila.

⁷⁸⁹ Ikus eraskinak.

1943ko irailaren 25eko batzarrean folkloreak ari izan ziren Jean Hillau, Emile Hirigoyen, Michel Labéguerie, Jean Nesprias⁷⁹⁰ eta Pierre Ospital.

1943ko abenduaren 4ko bileran partaide berriek hartu zuten parte: Pili Barrenetxea, Leon Curutchary, Pierre Landaburu, Cristiane Rosier eta Jean Vivierek. Ostera, bilera hartan Bernard Mendiskok Eskualdun Gazteen Batasuna utzi zuen: “pour des raisons graves et qu’il ne pouvait divulguer”⁷⁹¹. Emile Hirigoyen izendatu zuten idazkari orokor.

1944ko apirilaren 27ko batzarrean aditzera eman zuten, ordutik aurrera Eskualdun Gazteen Batasuna ez zela talde folklorikoen federakuntza bezala gehiago arituko. Aurrerantzean herriek autonomikoki antolatuko zituzten talde folklorikoak⁷⁹².

Laburbilduz, Eskualdun Gazteen Batasuna folklore-federakuntzak oso bizitza laburra izan zuen, 1943 eta 1944ko urteen artean baino ez baitzuen iraun. Ordezkatu herriak eta haietako arduradunak honako hauek izan ziren: Jean Cabillon Baigorri, Coco Chapar Biarritzen, Jean Duboscq Uztaritzen, Paco Eizagirre Ezpeletan, Javier Epalza Haltsun, Gosterratxu abatea Itsasun, Emile Hirigoyen Larresoron, Michel Labéguerie Bordelen, Larzabal apaiza Hazparneko Patronatuan, Christiane Rosier Baionan, Jean Vivier Milafrangan, Poupou Oyhamburu Parisen, Pascassio apaiza Kanbon eta Piarres Xarritton Hazparneko Kolegioan⁷⁹³.

⁷⁹⁰ Ibidem.

⁷⁹¹ Ikus eranskinak.

⁷⁹² Larronde, J. C.: “La culture basque sous l’occupation”, *Gerra eta Literatura*, Oihernart Cuadernos de Lengua y Literatura, RIEV, 1997, 229. or.

⁷⁹³ Larronde, J. C.: “La culture basque sous l’occupation...”, aipatu artikulua, 228. or.

V. *HERRIA* ASTEKARIAREN LEHENENGO PAUSOAK

Eskualduna debekaturik izan zelarrik, Jean Saint-Pierre, Jean Elissalde, Jules Moulier, Léon Leon, Louis Dassance, Pierre Duhour eta Andreinek⁷⁹⁴ bilera bat ospatu zuten, uste baitzuten euskarazko argitalpen baten beharra zegoela. *Argia* eta *Oiharzuna* izenak baztertu ostean, *Herria* izena aukeratu zuten aldizkari berrirako⁷⁹⁵. Era berean bilera hartan erabaki zuten Lafitte argitalpen berriaz ardura zedin, berrikuntzen zalea baitzen:

Beti gaztekilakoa izana zen, bere gustoz, bere ideiez eta denez: berrizalea. Ez zen askoren gustokoa izanen, baina 44ean haize berriarekin agertzen zen, halako besterik ez zegoela, eta libre izaten ahalko zen⁷⁹⁶.

⁷⁹⁴ Oronos, M., aipatu liburua, 73. or.

⁷⁹⁵ Ibidem.

⁷⁹⁶ “Euskal prentsak...” aipatu artikulua, 251. or.

Emile Larrerren ikuspuntutik: “Momentuan aldaketa handia izan zen, zeren eta ordu hartan zen piska bat kontserbadoreak, eta Lafittek ekarri zuen giro berri bat, ekarri zuen orduko sozial aldetik eta politiko aldetik; sozial aldetik lankidetzarekin eta sindikalismoarekin konpontzen zen ongi Lafitte, horiekin zabilan, eta gero politika aldetik ere berdin; orduan ziren lehenbiziko demokratek eta orduan *Mouvement Republicaine*, MRP *Mouvement Republicain Populaire*, eta holakoak ziren eta gero haiekin, heiei loturik sortu ziren Europako federalistak eta Lafitte giro hortakoa zen, hats hortakoa zen, eta hori aldaketa handia izan zen. Bainan gero Eskual Herria barnean, horrek hemen, Iparraldeko Eskual Herrian, ez zuen horrek aldaketa izugarri bat ekartzen; hemen irakurle berririk gabe berdin segitu zuten aurrekoek, gehien gehienik; zenbait politizatuagoak ziren, zenbait nahi zuten berritze hori, baina beste asko.... Lehenago *Eskualdunean*, eta *Herrian* ere, eskuara izan da lehena, eskuara izatea, eskuaraz hitz egitea, eskuaraz idaztea, eta hori zen lehen, politika baino lehenagoa ere, baina politika ere behar zen, eta orduan behar zen berritu eta hala egin zuen Lafittek, apez komunista deitu zuten eta lehenengo zaharrek, apez komunista Lafitte”, Emile Larrerekin izandako elkarrizketa, Baiona, 1997ko abuztuaren 12a.

*Action française*koak⁷⁹⁷ Lafitte zuzendari izendatzearen kontra agertu ziren⁷⁹⁸, eskuindar bat aukeratu nahi zutelako *Herria* gidatzeko⁷⁹⁹. Aurka agertu zen garaiko Frantziaren Liberaziorako komitea ere, argitalpena laiko batek zuzen zezan nahiago baitzuen⁸⁰⁰:

Oroitu behar da mementu hartan resistantziako jauntxoek agintzen zutela hemen eta haien artean bazirela oso Elizaren kontra zirenak, bereziki komunistak, eta ez zioten lana erraztu⁸⁰¹.

Beste aldetik, bazeuden *Herria* onartu ez zuten irakurle euskaldunak, *Eskualdunari* lekua kendu ziolakoan⁸⁰²; eta, aldiz, *Herria* gaitsetzi zutenak, uste zutelako argitalpen berriaren atzean *Eskualduna* zegoela ezkutaturik⁸⁰³. Azken salaketa horiei erantzun zion Lafittek:

⁷⁹⁷ *Action Française*ri, Aita Sainduak 1926an debekaturik izan ostean, 1939an zigorra kendu zioten. Bigarren garai hartan *Action Française* Frantziaren batasuna bilatu zuen, alemaniarrei eta komunismoari kontra egin nahian. Era berean, Vichyko erregimenaren pentsamoldearekin bat egin zuen *Action Française*, Antzinako Erregimenaren bizi-moldearen mina agertzearekin batera; Prévotat, J.: *Dictionnaire historique...* aipatu liburua, 14-15. orr.

⁷⁹⁸ "Euskal prentsak 100 urte..." aipatu artikulua, 252. or.

⁷⁹⁹ "Quelqu'un me prévient qu'on veut me vider du journal, parce qu'on n'est pas d'accord avec les idées que j'y expose. Je convoque les membres du Comité, ils sont presque tous Action Française, pour faire le point avec eux et voir ce qu'il me reste à faire. Cette formule les trompe: ils sont persuadés que je vais démissionner. Je demande à chacun de se prononcer: Moulrier me soutient, St. Pierre ne se prononce pas, tous les autres sont hostiles. Quand ils se sont exprimé, je leur fais constater que personne, sauf deux, n'a signé, donc que leur avis est nul bien plus, je leur annonce que je suis inscrit à la Chambre de Commerce comme propriétaire du journal, qu'ils peuvent ou non, à leur gré, rester dans le Comité, que je me choisirai de nouveaux membres pour m'assurer la majorité. "En somme, conclut Mgr. St Pierre, c'est assez clair: ou bien vous nous mettez dedans ou bien vous nous mettez dehors". La formule était juste et frappante"; Michel Oronosek Piarres Lafitterekin izandako elkarrizketa, Ustaritz, 1981ko urriaren 26a, Oronos, M., aipatu liburua, 77. or.

⁸⁰⁰ Oronos, M., aipatu liburua, 73. or.

⁸⁰¹ Piarres Andiazabalekin izandako elkarrizketa, 1997ko azaroaren 8a.

⁸⁰² "Dès les débuts, d'ailleurs, beaucoup d'anciens lecteurs d'*Eskualduna* ont mal accueilli la parution de *Herria*. Ils ont essayé de faire repartir le journal, en l'appelant *Eskualdunak* au lieu de *Eskualduna*, puisque le titre était interdit depuis la Libération. Dans le premier numéro ils m'ont esquiné. Dans le numéro deux, plusieurs ont manifesté de meilleurs sentiments et ont essayé d'atténuer l'éditorial violent qui m'avait visé. Il n'y a pas eu de troisième numéro", Michel Oronosek Piarres Lafitterekin izandako elkarrizketa, Uztaritz, 1981ko urriaren 26an, Oronos, M., aipatu liburua, 79. or.

⁸⁰³ Lafitte, P.: "Coursés landaises", *Herria*, 1945eko maiatzaren 3a.

Herria a pris sur la question sociale, la question espagnole et la question basque, une attitude opposés à celle de l'ancien journal basque... *Herria* est gaulliste, avec quelque indépendance sans doute, mais respectueusement: ici nous n'avons jamais songé à comparer de Gaulle à Franco ou Mussolini⁸⁰⁴

Jean Saint-Pierre, Baionako apezpiku ohiak, Elizaren izenean eman zion baimena Lafitteri *Herriaz* ardura zedin⁸⁰⁵. Izan ere, garai hartan Baionako apezpikua izendatzeke zegoen (Léon-Albert Terrier izango zen apezpiku berria) eta Apezpikutegiko bikario kapitularra zen Daguerre ez zegoen ados *Herria* argitaratzearekin.

Beste aldetik, Prefekturako baimena lortzeko zenbait oztopo gainditu behar izan zituen Lafittek, prefekturaren nagusiak jakin nahi baitzuen nortzuk ziren argitalpenaren diru emaileak, artikulu frantsesik bazutenentz, ea edonork idatzi ahal zuen aldizkarian, etab.:

Momentu batez, hitz-erdika ari ziren bi gizonen elhetarik, Lafitte-k konprenitu zuen Sara-ko norbaitek sortu nahi zuela eskuarazko astekari laiko bat eta ez zutela nehor utzi behar aintzintzerat. / Halere Guillaumie de Hiriart radikala eta Dufos du Rau Lycée-ko erakaslea alde eman zitzaizkon. *Herria*-k ere bazuela argitaratzeko dretxo⁸⁰⁶

Astekari berria *Herria*. *Eskualdunen berriketaria* deitu zuten. Jean Hiriart-Urruty astekariaren idazkari nagusia izan zen eta André Ospital administraria. Diru emaileak bereziki Telesforo Monzon eta Manu de La Sota izan ziren (20 libera hilero⁸⁰⁷). *Herriaren* lehenengo eta bigarren zenbakiak batera kaleratu zituzten 1944ko azaroaren 16an⁸⁰⁸, lankideei adieraziz ez luketela sinadurarik gabeko artikulurik onartuko, ezta Alemaniaren aldeko idazkirik ere⁸⁰⁹.

1945ean Léon-Albert Terrier izan zen apezpiku berri izendatua; behin-behineko baimena eman zion Lafitteri *Herria* gida zezan, Elizaren astekari bezala kaleratuz⁸¹⁰. Baina Lafitte ez zegoen ados *Herria* Elizaren menpean argitaratzearekin⁸¹¹:

⁸⁰⁴ Ibidem.

⁸⁰⁵ "*Herria* 25 urte..." aipatu artikulua.

⁸⁰⁶ Ibidem.

⁸⁰⁷ Oronos, M., aipatu liburua, 74. or.

⁸⁰⁸ "Huna *Herria* sortu berria!", *Herria*, 1944ko azaroaren 16a.

⁸⁰⁹ "Gure laguntzaileri", *Herria*, 1944ko urriaren 19a.

⁸¹⁰ *Herrian* ongetorria egin zioten Terrier apezpikuari 1944ko azaroaren 12ko zenbakian.

⁸¹¹ Emile Larrek adierazi duenez: "ez genuke nahi, ez Lafittek ez zuen nahi", "Euskal Prentsak 100 urte..." aipatu artikulua, 245. or.

Herria, il était, lui,... d'inspiration chrétienne. J'ai fait semblant de ne pas comprendre. Je ne voulais pas discuter. En réalité... c'était un coup de pied⁸¹²

Are gehiago, Lafitte *Herria* apaizen eskuetatik kentzen saiatu zen, hau da, *Herria* laikotzen, bai idazleen aldetik, baita saltzeko lekuen aldetik ere (elizak garai hartan). Ez zen hain erraza izan, oster, garaiko idazle gehienak apaizak baitziren⁸¹³.

Herriaren pentsamoldeari dagokionez, Jean Saint Pierrek aditzera eman zuen aldizkariaren helburu nagusia Euskal Herriaren zein Frantziaren one-rako lan egitea izango zela: "Frantzia eta Eskual-Herria biak bihotzean nahi luke bere ildo barna eta chuchen ereman"⁸¹⁴.

Ikusten dugu, beraz, *Herriak* erakarri zituen aldaketak ez zirela hain erabeteakoak izan; horrela, *Herria* Elizaren menpean argitaratzen jarraitzeaz gain, gobernu frantziarraren menpekotasunean argitaratu zutela adierazi zuten. Izan ere, aldizkariaren hasierako izenburua *Herria. Eskualdunen berrikeraria* izan bazen ere, hirugarren zenbakitik 900. zenbakiraino *Herria. Journal basque-français hebdomadaire* izatera pasatu zen, 887. zenbakitik aurrera *Herria*.

⁸¹² Oronos, M., aipatu liburua, 79. or.

Lafittek adierazi ere egin zuen *Herria* ez zegoela Elizaren menpean: "En 1967 il m'est arrivé une histoire intéressante avec Monseigneur Gouyon. Il croyait que le journal lui appartenait. Alors, un jour, il me dit: "Je vous trouve un peu fatigué et j'ai l'intention de mettre à votre place l'abbé Hiriart-Urruty. -Effectivement je pense qu'il fera très bien cela, c'est certainement un des meilleurs écrivains que nous avons au Pays Basque et il est capable de faire beaucoup mieux que moi.. seulement, Monseigneur, ce n'est pas vous qui êtes le Directeur du journal. Le journal n'appartient pas à l'Evêque. Il y a un Comité qui est propriétaire du journal. Vous pouvez évidemment interdire à un de vos prêtres de faire du journalisme, mais vous ne pouvez rien dans *Herria*. Cependant, je suis Président de l'Association et je peux expliquer le problème et suggérer que je demeure Président et que Hiriart-Urruty devienne Rédacteur en Chef", Michel Oronosek Piarres Lafittekin izandako elkarrizketa, Oronos, M., aipatu liburua, 82. or.

⁸¹³ Adibidez, 1948ko abenduaren 15ean *Editions Basques* izeneko euskal elkarte aurrez zutenean, atxiki zitzaizkion kide gehienak apaizak ziren: Louis Dassance (Ustaritzeko injineru agronomoa), Pierre Duhour (Hazparneko aseguratzailea), Leon Léon (Uztaritzeko apaiza), Jules Moulier "Oxobi" (Arrangoitzeko apaiza), Jean Elissalde "Zerbitzari" (Lekor-neko Graciet auzoko apaiza), Echeverry (Milafrangako apaiza), Aranart (Hendaiako apaiza), Pierre Lafitte (Uztaritzeko irakaslea eta apaiza), Jean de Jaureguiberry (Aloze-Zibozeko medikua), Etienne Salaberry (Uztaritzeko irakaslea eta apaiza), Jean Pierre Urricariet (Mugerreko apaiza), Pochelu (Uztaritzeko irakaslea), Jean Duboscq (Uztaritzeko okina), Jacques Mes-telan (Hiriburuko industriaria), Marc Légasse (Ziburukoa), André Beheran (Biarritzeko apaiza), Oronos, M., aipatu liburua, 63. or.

⁸¹⁴ Saint-Pierre, J.: "Lehen agurra", *Herria*, 1944ko urriaren 19a.

Hebdomadaire basque-français izen berria hartu zuen. Azkenez, 901. zenbakitik aurrera *Herria* deitu zuten.

Herria Vichyko Gobernuaren kontra⁸¹⁵ eta Erresistentzia eta De Gaullen gobernuaren alde agertu zen⁸¹⁶. Hauteskudeetan *Mouvement Républicain Populaire* MRP alderdi erdi-eskuindarrari botoa emateko gomendioa eman zien irakurleei, zerrendan ordezkari euskaldun katolikoak zeudelakoan⁸¹⁷:

Je ne suis pas M.R.P., c'est exact, mais je voterai pour la liste Chevigné parce que j'y trouve plus de catholiques pratiquants, je n'y trouve aucun radical. Pour nous la question n'est pas de choisir entre M. de Charigné ou M. Petit, car tous deux passeront. Il s'agit de choisir entre le radical bernois Lafargue et le candidat basque Errecart. Comme basque je n'ai pas la moindre hésitation, je vote et fais voter pour Errecart et donc pour la liste de Chevigné⁸¹⁸.

Hala ere, hasierako *Herriak* zentsura jasan behar izan zuen, hala nola Gobernuak Lafitteri azaldu zionean:

Monsieur le Directeur, l'article paru en deuxième page à la troisième colonne ne nous a pas fait plaisir⁸¹⁹.

Piarres Lafitteren erantzuna: "Monsieur le Préfet, cet article n'avait pas été fait pour faire plaisir à qui que ce soit"⁸²⁰.

Are gehiago, Aljeriako gerraren garaian, "un coup de béret aux Fellagha"⁸²¹ artikulua argitaratu zutenean, prefetak Lafitte eta Lartzabal atxilotu nahi izan

⁸¹⁵ Labéguerie, M.: "Régions ou Département?", *Herria*, 1944ko abenduaren 21a.

⁸¹⁶ Lafitte, P.: "Erresistentzia", *Herria*, 1944ko urriaren 19a.

⁸¹⁷ "Norentzat ez dugun boza eman behar", *Herria*, 1945eko urriaren 11a.

Izan ere, Mouvement Républicaine Populaire MRP 1944ko azaroan sortu zuten Georges Bidault eta Maurice Schumanek. Sortzaileak erresistentzian ari izandako mugimendu girstinoetatik zetozen: PDP, Jeune République, *Association catholique de la jeunesse française* ACJF, *Jeunesse ouvrière chrétienne* JOC, *Jeunesse agricole chrétienne* JAC eta *Confédération des Travailleurs Chrétiens* CFTC sindikatu girstinoa.

⁸¹⁸ *Herria*, 1945eko maiatzaren 9a.

1945eko bozketa kantaonalarako ordezkatu zuen Jean Etcheverry-Aïnchart (*Mouvement Republicaine Populaire* MRP) diputatu aukeratu zuten euskal nazionalistak ordezkatzeko. 1946ko hauteskudeetan Etcheverry-Aïnchart ez zen bozketara aurkeztu eta Jean Errécart izan zen nazionalistak ordezkatu zituena; euskal nazionalismoa defendatzeko ez hain gai, ostera; Letamendia, P., aipatu liburua, 140. or.

⁸¹⁹ "Nor zira Piarres Lafitte..." aipatu artikulua, 24. or.

⁸²⁰ *Ibidem*.

⁸²¹ Fellaga hitz arabiarra da, Ipar Afrikako talde iraultzaile armatuen kideak adierazteko erabilia.

zituen; Philippe Olphe-Galliard hartu zuten abokatu eta ez ziren giltzapetuak izan, eskandalu handiegia izan ez zedin⁸²².

Herrian hainbat lankidek idatzi zuten, gehienak ezagunak jadanik guretzat: Louis Dassance, Dominique Dufau, Pierre Duhour, Jean Elissalde, Bernard Etxeberry, Beñat Goñi, Jean de Jauréguiberry, Michel Labéguerie, Pierre Lartzabal, Leon Lassalle, Jacques Mestelan, Jules Moulier, Jean Saint-Pierre, Etienne Salaberri. Lankideak izan ziren, Ernest Bidegain, Jean Hiriart-Urruty eta Piarres Xarritton ere. Azken hiruak “Sudurluztarrak” izengoitiarekin sinatzen zuten (banaka idatziz gero, “Ixtebe Sudurluz”, “Bettiri Sudurluz” eta “Ganix Sudurluz” izengoitiak erabiltzen zituzten). Kritikak egiten zituzten, Lafitte bera kritikatzera. Badirudi kritika horiek zirela eta hirukoteak ez zuela denbora luzez iraun *Herrian* idazten, Lafitte irakurleak galtzearen beldur baitzen⁸²³.

Herria astearteetan prestatzen zuten (“Zuen berriak eta artikuluak astearteko igorzkizue”⁸²⁴), baita lanaren ostean bazkaria egin ere:

Nik astearte guzi guziak hemengoak dauzkat, *Herrirako*, eta nere aurretik beste hainbeste, beste hogeita hamar urtez, hola hola, Lafittek; orduan asteartea izan da, adiskideek erraten zuten, edo kanpokoek, guretaz, min gaizto gaizki mintzatu, piko bat eman nahi zutenek: “astearteko biltzarra dute, astearteetako bazkaria ere”, orduan astearteetan, goizetan eta arratsaldeetan, lehenengo lana eta hiru t’erdietan elgaretaratzen ginelako bazkaltzera⁸²⁵.

1967an *Herriaren* batzordeak Hiriart-Urruty aukeratu zuen zuzendari, Lafitte ordezkatzeko, Gouyon garaiko apezpikuak proposaturik⁸²⁶. Azkenez, Hiriart-Urrutyren ordezkoa Emile Larre izan da, Lafittek aukeraturik.

Baina hurrengo lan baterako utziko ditugu *Herriaren* inguruan sorturiko sare intelektuala, arakatzea interesgarria baino interesgarriagoa izango dena.

⁸²² “Nor zira Piarres Lafitte...” aipatu artikulua, 24. or.

⁸²³ “Beti beldur zen irakurleak ez baitzituena galdu nahi... Hor egiten genuen “pim-pam-pum”, holan, kritikatzan beti *Herrian*. Baina gertatu zen, egun batez Lafitte hor zegoela geldi hor erraiteko, eta zergaitik?, zeren hasi baiginen pixka bat kritikatzan Lafitte bera, bere kazetan, ez zelakotz aski urrun joaten gure ustez, eta hori ez zuen entzun nahi, bera zen direktorea; asko maite genuen ikasleek, baina bagenituen gure neurriak”, Piarres Xarrittonekin izandako elkarrizketa, Baiona, 1996ko uztailaren 7a.

⁸²⁴ “Gure laguntzailerik”, *Herria*, 1944ko azaroaren 16a.

⁸²⁵ Emile Larrerekin izandako elkarrizketa, Baiona, 1997ko abuztuaren 12a.

⁸²⁶ Oronos, M.: aipatu liburua, 82. or.

VI. ONDORIOAK

Piarres Lafitte nortasun gogorreko pertsona zen jadanik ikasle zenean: Ithorrotzeko apaiza ez zegoen ados Lafitte Apaizgaitegi Txikian sartzearekin, sarritan gaixorik zegoelako; hala ere, Lafittek lortu zuen han sartzea. Bestetik, Jean Saint Pierreren ustez egokia zen Lafittek Letrak ikas zitzaizkion; baina zail izan zuen Lafitteri hori buruan sartzea (Mathieu irakasleak ez zuen lortu), Lafittek Filosofia ikasi nahi baitzuen⁸²⁷. Lafitte horretara jartzea lortu zuen Saint-Pierrek, baita euskara ikas zezan ere, herritar euskaldunengan apaiz bezala eraginkorra izateko ezinbestekoa zelakoan euskaraz aritzea⁸²⁸.

Ikasle zelarik, Pierre Andiazabal eta Jean Paul Malherbek baieztatu dute Lafitte *Action Française*ren jarraitzailea izan zela, Jean Mestelanek gai horri buruz ezezko biribila agertzen duen bitartean. Gure ustez ulertzeakoa litzateke *Action Française*ren pentsabideak Lafitte erakar zezan, liga horrek erlijioa defendatzeaz gain, erregezaletasuna eta Antzineko Erregimeneko baloreak defendatu zituelako. Lafitte oso gaztea zen Apaizgaitegian sartu zenean eta, ikusirik Apaizgaitegiko apaiz batzuk *Action Française*ren alde agertu zirela –arrazoietariko bat Léon XIII.aren Errepublika onartzeko aginduari kontrakotasuna agertzea–, baliteke Lafittek jokaera berbera izatea. Kontuan hartu behar da Lafitte nahiko ikasle bihurria zela gaztetan (17 urtekin *Le Palmipède* argitalpenean parte hartu zuen, isilean, iruzkin zirikatzaileak sartuz), eta baliteke *Françaiser*i jarraitzea Lafittek jokaera berritzailetzat hartzea *Action*.

Hala ere, Andiazabalek dioenez, gazte denborako ideiak baino ez ziren izan, 1919an 18 urterekin Apaizgaitegi Handian sartu zenekoak; ikusirik gaia

⁸²⁷ “Nor zira Piarres Lafitte...” aipatu artikulua, 20. or.

⁸²⁸ Haritschelhar eta beste batzuk: “Hommage à Pierre Lafitte”, *Bulletin du Musée Basque*, 1986, 113-114. zkiak., 111. or.

zer nolako norabidea hartzen ari zen (Vatikanoak 1914an debekatu zuen *Action Française* aldizkaria, 1920an *Association Catholique de la Jeunesse Française* *Action Française* gaitzetsi zuen eta 1926an Vatikanoak mugimendua debekatu zuen), Lafittek *Action Française*ren pentsamoldea utziko zuen eta demokrazia kristaia, *Esprit* eta *Ordre Nouveauren* ikusmoldera lerratuko zen.

Esprit eta *Ordre Nouveau* taldeek bereziki 1930.eko hamarkadan izan zuten eragina; gazte intelektual katolikoak bildu zituzten eta pertsonalismoa, deszentralizazio sozial eta kulturala eta tokiko berezitasunen babesa defendatu zituzten, garaiko arazo ekonomiko eta sozietate aurre egitea helburu izanik. Ikusten dugun legez, “1930.eko hamarkadako talde ez konformista” deituriko mugimenduok eragin handia izan zuten Lafitteren pentsabidean: Gobernu frantziarrarekiko deszentralizazioa Lafitte euskaltzalearen eskaera nagusienetarikoa bat izan baitzen, herrietako ezaugarriekiko atxikimendua bultzatzearekin batera.

1930. hamarkadan garatu ziren talde ez konformisten ikusmoldeak eragina izatearekin batera Lafitteren pentsamoldean, jaioterriak erakarpen berezia piztu zuen Lafitterengan. Horrela, euskara eta euskal kulturaren eremuan murgiltzeko desira sentitu zuen Lafittek: umetatik ahaztuta zuen euskara berrikasi zuen eta, apaiz ordenatua izan baino lehen, urte osoa eman zuen euskararen ikasketak sakontzen. Horrez gain, Harrietek eta Inchauspek bildutako euskal bibliotekak osatu zituen Lafittek⁸²⁹.

Lafitteren kultur arloaz ari garelarik, 1921. urtearen inguruan Lafitte *Eskualdunan* hasi zen idazten, Jean Blaise Adéma zuzendariak euskaraz idatz zezan burua berotu ziolarik.

Munduko Lehen Gerra amaitu berri zegoen eta gerran ibilitako lankideek hainbat pentsaerakin itzuli ziren Euskal Herrira (nabarmenki “gerlari ohien” pentsaeraz, hau da, gerran parte hartu izanaren urguiluaz). Gazteok Adéma *Eskualdunaren* zuzendariarengandik urruntzeko nahia agertu zuten, *Eskualdunan* idazteari uko eginez eta aldizkari berri bat sortzeko guraria erakutsiz. Jean Elissalde, Jean Etchepare eta Jean Saint-Pierrek –gerraren berri *Eskualdunara*– bidali zutenek parte hartu zuten *Gure Herria* deituriko aldizkari berriaren sorreran, 1921ean, Laurent Apestéguy, Jean Barbier, Edmond Blazy eta Jules Moulierekin batera.

Piarres Lafitte gaztetxoak, osasuna zela eta, ez zuen gerran parte hartu, baina Apaizgaitegian izan zituen ikaskide “gerlari ohiak”. *Gure Herrian* ere

⁸²⁹ “Nor zira Piarres Lafitte...” aipatu artikulua, 20. or.

idatzi zuen Lafittek, 1921ean sortu zutenetik. Izan ere, Lafitte 1920an *Eskualdunan* idazten hasi zenean lankide izan zituen Jean Etchepare eta Jean Saint-Pierre, *Gure Herriaren* sorrera bultzatu zutenetarikoak; ulergarria da euren-
tzako ezaguna zen Lafitteri *Gure Herrian* idatz zezan gonbita egitea.

1924an Laurent Apestéguyk *Gure Herriarako* ohiko lankide hartu zuen Lafitte. Hain zuzen ere, 1924. urtean Lafittek irabazi zuen Eskualzaleen Biltzarrak banaturiko sarietariko bat; horren berri eman zuen Jean Etcheparek *Gure Herrian*, garai hartan Eskualzaleen Biltzarraren burua ere baitzen.

Jean Etcheparerekin berarekin egin zuen topo Lafittek 1928ko Eskualzaleen Biltzarraren bileran (1926an elkarte hartako kide bihurtu zen Lafitte). Batzar hartan beste intelektual batzuk aurkitu zituen Lafittek, hala nola Maurice Amestoy eta Louis Dassancerekin, *Société des Sciencies, Lettres et Arts de Bayonne*ko kideak; Georges Lacombe euskaltzainarekin; Hegoaldeko José Eizagirre eta Isaac López de Mendizabalekin, mendiz bestaldeko abertzaleen berri eskainiko ziotenak; Michel Iriarterekin, bi urte geroago Lafittek ordezkaturiko zuena *Eskualdunarako* egiten zuen itzulpen lanean; eta Jean Ybarnégaray politikoaekin, Lafittek gustukoa ez zuena (“Ybarnegarayen kontra ari ginen Eskualduneari izkiriartzen nuen aitzina”⁸³⁰).

Era askotako kideak, beraz, Lafittek aurkitu zituenak Eskualzaleen Biltzarraren bere lehenengo bilera hartan; partaideok baliagarri egin zuten bilera hori Lafitterentzat, haien bidez jaso baitzuen Lafittek Eskualzaleen Biltzarra, *SSLAB* eta Euskaltzaindia elkarte intelektualen berri; Hegoaldeko abertzaleen pentsamoldea ere ezagutuko zuen Lafittek bilera hartan, baita Ybarnégaray politikoa eskuindarraren ideiak ere.

1930ean *Gure Herriaren* zuzendari izendatu zuten Clément Mathieu. Urte hartan *Gure Herria* elkarte ere sortu zuten, aldizkariari indarra eman-
go ziolakoan; eta Mathieu irakasleak ez zuen Lafitte dizipulua lankide huts mantendu, baizik eta *Gure Herria* elkarteari idazkari-adjuntu izatera igoarazi. Lafitterekin batera, *Gure Herria* elkarteari Administrazio-Kontseilua osatu zuten, besteak beste, Jean Etchepare eta Maurice Souberbiellek lehendakariordetzan, Jean Saint-Pierre idazkaritzan eta Louis Dassance diruzain karguan.

Ikusten dugun legez, intelektual bilakaturik hasi zuen Lafittek 1930. hamarkada.

⁸³⁰ “Nor zira Piarres Lafitte...” aipatu artikulua, 22. or.

Baina atzera joz, 1924an Jean Saint-Pierre bera izendatu zuten *Eskualdunaren* zuzendari, Adémaren ordez. Aipatu dugu jadanik eragin handia izan zuela Saint Pierrek Lafitterengan ikasketak burutu orduko. Jakina, Saint-Pierre *Eskualdunaren* zuzendaria izan zen garaian Piarres Lafittek asko idatzi zuen *Eskualdunan*. Esan beharra dago, hala ere, Lafitte ez zegoela ados garai hartako *Eskualdunaren* pentsamoldearekin, astekaria frantses zalea baitzen Lafitteren ustez⁸³¹, Lafitte euskaltzalea zen bitartean.

Jean Saint-Pierre *Eskualdunaren* zuzendaria izan zeneko garaian lankide izan zituen Lafittek, besteak beste, Laurent Apestéguy, Jean Barbier, Louis Dassance, Jean Elissalde, Jean Etchepare eta Jules Moulier; lankideok aurretik ziren ezagunak Lafitterentzat, *Gure Herriaren* bultzatzaileak izan baitziren.

Baina aurrera jarraitu baino lehen, bil ditzagun lauki batean aipatu berri ditugun pertsonaiak, 1920. hamarkadako Ipar Euskal Herriko sare intelektualaren partaideak izan baitziren:

Hogeita laugarren laukia. Sarekideen ekintza kulturalak 1920. hamarkadan:

Adéma, Jean Blaise. Eskualdunaren zuzendaria (1918-1924).

Améstoy, Maurice. Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne elkartearen bileretan parte hartu (1922ko ekaina, uztaila, azaroa; 1923ko urtarrila, otsaila martxo, maiatza). Eskualzaleen Biltzarraren lehendakariordea (1926-1938). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1928, 1929).

Amoçain, Pierre. Le Carillon des jeunes aldizkariaren idazkaria.

Aranart, Philippe. Baionako Apaizgaitegi Handian ikasi.

Apésteguy, Laurent (1887-1928). *Gure Herria* aldizkariaren arduradunetariko bat. *Eskualdunan* idatzi.

Barbier, Jean (1875-1931). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1928). *Eskualdunan* idatzi. *Gure Herria* idatzi.

Constantin, Albert (1873-1957). Eskualzaleen Biltzarraren lehendakariordea (1922-1933). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1926, 1928, 1929).

Dassance, Louis (1888-1976). Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne elkartearen bileretan parte hartu (1921eko ekaina, abendua; 1922ko urtarrila, otsaila, martxo; 1923ko otsaila). Eskualzaleen Biltzarraren buruordea (1922-1925) eta

⁸³¹ “Nor zira Piarres Lafitte...” aipatu artikulua, 21. or.

burua (1926-1938). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1922, 1926, 1928, 1929). *Eskualdunan* idatzi. *Gure Herrian* idatzi.

Diharce, Michel (1914-1940). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1928).

Dufau, Dominique. Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1926, 1928, 1929). *Eskualdunan* idatzi.

Eizagirre, José (1881-1948). Eskualzaleen Biltzarraren lehendakaria (1920-1921). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1922, 1926, 1928, 1929).

Elissalde, Mayi. Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1928). *Gure Herrian* idatzi.

Elissalde, Jean (1883-1961). Euskaltzaindiaren bileretan parte hartu (1920ko urtarrila, apirila, maiatza, abendua; 1921eko martxoa; 1922ko otsaila, martxoa, apirila, maiatza). Eskualzaleen Biltzarraren idazkaria (1922-1938). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1929). *Eskualdunan* idatzi. *Gure Herrian* idatzi.

Etchepare, Jean (1887-1935). Eskualzaleen Biltzarraren lehendakaria (1922-1925). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1928, 1929). *Eskualdunan* idatzi. *Gure Herrian* idatzi (1924an hiru artikulu Lafittez).

Iriart, Michel. Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1926, 1928). *Eskualdunan* idatzi.

Lacombe, Georges (1879-1947). Euskaltzaina (1920-1936). Euskaltzaindiaren bileretan parte hartu (1921eko otsaila, martxoa, apirila, maiatza, uztaila, iraila, urria, azaroa, abendua; 1922ko urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, maiatza, uztaila, urria, azaroa, abendua; 1923ko urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, maiatza, uztaila, iraila, urria, azaroa, abendua; 1924ko urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, maiatza, uztaila, urria, azaroa, abendua; 1925eko urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, maiatza, uztaila, urria, azaroa, abendua; 1926ko urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, maiatza, uztaila, urria; 1927ko martxoa, apirila, maiatza, urria, azaroa; 1928ko urtarrila -Lafitte urgazle izendatua izan zeneko eguna, berroren aditzari buruzko lana irakurri, martxoa, maiatza, urria, azaroa, abendua; 1929ko urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, maiatza, uztaila, abuztua, azaroa, abendua). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1928). *RIEVEN* idatzi. *Gure Herrian* idatzi.

Lafitte, Piarres (1901-1985). Baionako Apaizgaitegi Handian ikasi (1919-1923). Letra Klasikoak goi ikasketak ikasi Tolosako Institutu Katolikoan (1923-1924, 1927-1928). Pierre Lhanderen Hiztegia osatzeari ekin. Le Carillon des Jeunes emakumezko sindikatu baten aldizkarian idatzi, Pierre Amoçainek sustaturik. *Eskualdunan* idazten hasi (1921); Ebanjelioaz idatzi 1929tik 1935era Michel Iriarten ordez). *Gure Herrian* idazten hasi (1921). *Gure Herriaren* ohiko lankide

bilakatu, Laurent Apésteguyk sustaturik (1924). Eskualzaleen Biltzarraren kide bilakatu (1926). Urgazle izendatua (1928). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1928). 1922ko urriaren Gure Herrian ados agertu zen Lafitte Jean Etcheparerekin luzeegiak ziren Pastoralak laburtu behar zirela esan zuenean. 1928ko maiatza-ekainaren *Gure Herrian* Lafittek Georges Lacomberi eskertu zion eskainitako azalpenak Linguistika alorrean.

Lamarque, Jean. Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne *elkartearena bileretan parte hartu* (1922).

Léon, Albert (1883-1953). Euskaltzaindiaren bileretan parte hartu (1921eko martxoa). Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne elkartearen bileretan parte hartu (1922ko apirila, maiatza, azaroa; 1923ko otsaila, martxoa, maiatza, uztaila). *Gure Herrian* idatzi.

Lhonde, Pierre (1877-1957). Tolosako Caouzou ikastetxe katolikoan irakasle. Euskaltzaina (1919-1936). Euskaltzaindiaren bileretan parte hartu (1920ko urtarrila, otsaila, apirila, uztaila, abuztua, urria, azaroa, abendua; 1921eko martxoa, apirila, ekaina, uztaila, iraila; 1922ko iraila; 1927ko apirila; 1928ko abendua). *Gure Herrian* idatzi.

López de Mendizabal, Isaac (1879-1977). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1921, 1926, 1928, 1929).

Mathieu, Clément. Uztaritzeko Apaizgaitegi Txikiko irakaslea. Baionako Apaizgaitegi Handiko zuzendaria (1928).

Moulier, Jules (1888-1958). Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne elkartearen bileretan parte hartu (1922). Eskualzaleen Biltzarrarena bileretan parte hartu (1926, 1929).

Saint-Pierre, Jean (1884-1951). Baionako Apaizgaitegi Handiko irakaslea. *Gure Herria* sortu 1921ean. Eskualdunaren zuzendaria (1924-1930). Euskaltzaindiaren bileretan parte hartu (1921eko martxoa). *Gure Herrian* idatzi.

Souberbielle, Maurice (1872-1939). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1921, 1922, 1929).

Ybarnégaray, Jean (1883-1956). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1928, 1929). Eusko Ikaskuntzaren lehendakariordea (1921-1928). *Eskualdunan* idatzi.

Elaborazio propioa, *Eskualduna*, *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, *Revista Internacional de Estudios Vascos*, *Euskera*, *Gure Herria*, *Bulletin du Musée Basque* eta *Aintzina* aldizkarietan oinarrituta.

Laukiak Piarres Lafittek 20 urte zituenetik 30 bete zituen arteko Lafitte eta sarekideen berri ematen digu. Jaiotzetiko idazkera erakargarria zuen Lafittek; izan ere, *Eskualdunan* eta *Gure Herrian* lehenengo artikulua argitaratu zituenean, goi ikasketak hasi ere ez zituen egin Lafittek: apaiz ikasketetako bi urte zituen buruturik eta hiru urte geratzen zitzaizkion amaitzeko. Are gehiago, Lafitte gazteak, aldizkari hartan idazten urte bakarra zeramala, Jean Etchepare idazle finkatuarekiko adostasuna agertu zuen *Gure Herrian*.

Gazte-gaztea zen 1923an (22 urte) eta 1925ean (24 urte) Eskualzaleen Biltzarrak banaturiko sariak irabazi zituenean ere, baina Letra Klasikoak goi ikasketak hasita bazituen behinik behin. Goi ikasketa horiek burutzen ari zen garaian Gure Herria elkartearen kide izendatu zuten (1924an) eta Eskualzaleen Biltzarkide bilakatu zen (1926an). Azkenez, goi ikasketak amaitu berri zituelarik (1928an), Euskaltzaindiaren urgazle izendatu zuten, baita Eskualzaleen Biltzarraren bileretan lehenengoz parte hartu ere (1928an).

Beraz, Piarres Lafittek 1920. hamarkada eman zuen ikasle estatusetan, aldi berean bere lehenengo ekintza intelektualak burutuz, bai *Gure Herria* eta *Eskualdunan* idazten, baita garaiko intelektualekiko lehenengo harremanak gauzatzen, Eskualzaleen Biltzarraren batzar batean baino izan ez bazen ere.

1928ko Eskualzaleen Biltzarraren bilera hartan ezagutu zituen 27 urteko Lafittek: Maurice Amestoy, Jean Barbier (53 urte), Albert Constantin (55 urte), Louis Dassance (40 urte), Michel Diharce (14 urte), Dominique Dufau, José Eizagirre (47 urte), Mayi Elissalde (29 urte), Jean Etchepare (45 urte), Michel Iriart, Georges Lacombe (49 urte) eta José López de Mendizabal (49 urte). Berauekin hainbat gai jorrazteko aukera izan zuen Lafittek, pertsonaia helduak baitziren gehienak, bai adinez, baita zientziaz ere:

- Eskualzaleen Biltzarrak hitz egingo zuen Lafittek 1928ko batzar hartan parte hartu zuten Maurice Amestoy (EB-ren lehendakariordea), Albert Constantin (EB-ren lehendakariordea), Louis Dassance (EB-ren buruordea eta lehendakaria), José Eizagirre (EB-ren lehendakaria) eta Jean Etchepareekin (EB-ren burua).
- Euskaltzaindiaz Georges Lacombeekin, Akademiaren bileretara joaten baitzen.
- *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonneri* buruz Maurice Amestoy eta Louis Dassance bilerako kideekin, Eskualzaleen Biltzarraren elkarteaz aritzeko ere gai zirenak.

- Hegoaldeko abertzaletasunaz José Eizagirre eta Isaac López de Mendizabalekin.

Beraz, Euskaltzaindia, *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne* eta Eskualzaleen Biltzarra elkarte horiei buruzko informazioa jasotzeko aukera ezin hobea izan zuen Lafittek, baita Hegoaldeko abertzaletasuna ezagutzeko ere.

1920. hamarkadako Iparraldeko Lafitteren lagunkidetzat hartu ditugu, Eskualzaleen Biltzarraren 1928ko bileran parte hartu ez arren, Lafittek lehenagotik ezagutzen zituen pertsonaiak ere: Clement Mathieu eta Jean Saint Pierre, Lafitteren irakasleak izan zirelako; eta Jean Blaise Adéma *Eskualdunan*, Pierre Amoçain *Le Carillon des Jeunesen* eta Laurent Apestéguyk *Gure Herrian* idatz zezan Lafitte sustatu zutelako.

1930ean Jean Saint-Pierre Carthagoko apezpiku izendatua izan zen eta Dominique Soubelet aukeratu zuten *Eskualdunaren* zuzendari. Lafittek Ebanjelioari buruz idazten jarraitu zuen *Eskualdunaren* ia zenbaki guztietan, harreman gutxi bazuen ere Soubeletekin. Izan ere, ume denborako ikaskideak izan baziren ere Lafitte eta Soubelet, Beloken, erlazio gutxi izan zuten garai hartan (“Lafitte bat txarra eta meharra bezain bestea indartsua zela; hortakoz ez zen heien artean konplizidaderik izaiten ahal”⁸³²). Horrez gain, ideologikoki Lafitte eta Soubeletek ez zuten bat egiten, zeren eta Soubelet “ez zen batere intelektuala, elizakoia zen osoki, klerikala, ultraklerikala, eta ultraibarnegaraista, eta frantses frantses, gerlari ohia”⁸³³; Lafitte, ostera berrizaleagoa zen, demokraziaren bidekoa eta abertzale kutsukoa.

1937an Salbat Arotçarenak hartu zuen *Eskualdunaren* zuzendaritza; Ybarnégaryren politika goraiatzeaz gain, Diktadurak garatu ziren urte haietan, Arotçarena Espainiako asaldutako nazionalisten alde agertu zen, baita Alemaniaren garaipenean itxaropena izan ere. Jakina, Lafitteren Arotçarenarekiko harremanak Soubeletekikoak baino txarragoak izan ziren, *Eskualdunan* idazteari ia uzteraino.

Hala ere, Gobernuak Frantziaren eskualdekatze prosezua burutzera zihoanean, Lafittek kanpaina egin zuen, Arotçarenarekin batera, Euskal Herria eskualde bezala onartua izan zedin. Hori dela eta, Xarrittonek baieztatu du: “Lafitte izan dela bere moduan Vichyzale une batean”⁸³⁴. Gure ustez, kon-

⁸³² Piarres Xarrittonekin izandako elkarrizketa, Bilbo, 2002ko urtarrilaren 25a.

⁸³³ Piarres Xarrittonekin izandako elkarrizketa, Baiona, 1996ko uztailaren 6a.

⁸³⁴ Murua, I., aipatu artikulua, 101. or.

tuan hartu behar da denboraldi berezia izan zela hura: Bigarren Mundu Gerran zeuden murgildurik eta Arotçarenaren *Eskualduna* Vichyko gobernu nazizalearen menpean zegoen; beraz, ezinezkoa zatekeen Vichyko gobernuaren kontrako iritzirik agertzea. Gobernu frantziarrak berak eskualdekatze prosezuari ekitea, erabakitzean Lafittek ez luke aukerarik galdu nahi eskatzeko Euskal Herria eskualde berezia bilaka zedin, tokiko ezaugarriak errespetatuko liratekelako esperantzaz, nahiz eta ahalegin hartan Arotçarenarekin bat etorri.

Baina Soubeleten *Eskualdunaren* buruzagitzatik Arotçarenarenganako aldaketa hartan Piarres Lafittek hainbat ekintza burutu zituen: 1933an Begiraleak emakumezko talde kulturala sortu zuen; eta 1934an hasiera eman zien Menditarrak eskaut moduko taldeei, Euskalzaleak mugimenduari eta *Aintzina* hilabetekariari.

Lafittek Euskaltzaleentzat ezarri zituen helburuak Menditarrak eta Begiraleak taldeenak baino urrunago heldu ziren, mugimendu erregionalista bezala sortu baitzuen, partidu abertzale bilakatuko zen itxaropenaz.

Partidu politiko izateko asmo horren berri ematen digu argitaratu zuten aldizkariaren izenak berak: *Aintzina. Trait d'union mensuel des régionalistes*. Aldizkari hartan taldearen helburu eta ekintzen berri eman zuten euskaltzaleek. Ordurako Piarres Lafittek denbora zeraman *Eskualduna* eta *Gure Herrian* idazten, baina ez zuen egoki ikusi aldizkariotan euskaltzaleen berri ematea (“je n’ai jamais voulu engager les types dans les journaux où j’ai écrit”)⁸³⁵. Dena dela, zail izango zitzaien *Eskualdunaz* baliatzea euskaltzaleen berri emateko, garai hartan *Eskualdunaren* zuzendaria zen Soubelet “frantximanta”k ez baitzituen gogoko euskaltzaleen ekintzak.

1933ko apirilean euskaltzaleek batzar erdi publiko bat egin zuten, non Pierre Amoçain eta Eugène Goyhenechek *Eskual Herriaren Alde* taldearen egitaraua aurkeztu zuten⁸³⁶; Piarres Lafittek, taldearen sortzailea eta gidaria izan bazen ere, adierazi zuen baietza ematen ziola mugimendu euskaltzalea sortzeari baina, apaiza zenez gero, jendaurreko ekintzetatik bazterturik izango zela. Talderako kideak lortzeko, Lafittek ideia abertzaleak bota zituen Apaizgaitegi Txikiko bere ikasleen artean, argiegi adierazi barik, jakinik ideioi norbaitengana helduko zirela eta irakaslearengana hurbilduko zirelako jakin-minaz. Horrela jaso zuten pentsamolde euskaltzalearen berri Pierre

⁸³⁵ Monier, S., aipatu liburua, 349-350. orr.

⁸³⁶ “Où en sont les Euskalerristes?”, *Aintzina*, 1934ko urria.

Amoçain, Fabien Dargains, Michel eta Xabier Diharce, Jean Hastoy, Jacques Mestelan eta Piarres Xarrittonek.

1933ko apirilaren bilera kontraesankorrera itzuliz⁸³⁷, ulergarria da kontraesankorra izatea, zeren eta taldearen kideak euskaltzaleak baziren ere, bide ezberdinetatik ziren etorriak Lafittek eraturiko talde euskalzalera. Adibidez, mugimenduaren egitarauaren aurkezpena egin zuen Eugène Goyhenetche nazionalismo frantziarraren bidetik hurbildu zen abertzaletasunera. Izan ere, Eugène ez zen Lafitte irakaslearen dizipulua izan, baizik eta Jean Pierre Urrucarietena; eta Urrucariet Maurrasen ideia frantses eskuindarzaleen jarraitzailea izan zen euskaltzale bihurtu baino lehen. Pierre Lafitte, ostera, errepublikazalea eta *Parti Démocrate Populaire* partidu zentro-ezkerrekoaren jarraitzailea izan zen. Pierre Narbaitzi dagokionez, karlista zen, eta eskuin aldekoa, Léon Lassalle bezala, honek pentsaera atzerakoiagoa bazuen ere, “gerlari ohia” izan baitzen.

Baina Lafitteren lankide euskaltzaleek, pentsamolde politiko ezberdinak bazituzten ere, guztiak etorri ziren bat Lafitterekin beronek agertu zuen jokatibide abertzalean, “Jainkoa eta Lege-Zaharra” leloa berenganatu zuten jokabidean, bide batez esanda, Hegoaldeko EAJ partidu abertzalearen pentsamoldearen eragina erakutsiz.

Elizarekiko loturari dagokionez, hasiera baten Euskaltzaleek ez zuten talde erlijioso bezala espresuki aritzeko asmorik⁸³⁸; mugimenduaren jardueran, ostera, ikusten da euskaltzaleek leial jarraitu ziotela pentsaera kristauari (Lafittek berak *Aintzina* adierazi zuen apezpikua herrietako zaindari onena izango zela⁸³⁹). Gai horretan bat gatoz Malherberekin, beronek dioenean talde euskaltzaleak, Elizarengandik independente aritzeko asmoa izan bazuen ere, Elizaren babesa bilatu zuen gero, taktika moduan, *Action Française*ren gaitzespenaren ostean arriskutsua izango litzatekeelako Elizaren hierarkiatik at aritzea⁸⁴⁰.

“Lege Zaharra”ri begirunea izateaz, euskaltzaleek baserritarraren bizimoduaren gorapamena eta herriarekiko lokarriaren garrantzia azpimarratu zu-

⁸³⁷ “Où en sont les Eskualerristes?”, *Aintzina*, 1934ko urria.

⁸³⁸ “Distinctions nécessaires”, *Aintzina*, 1936ko urtarrila (Lafittek idatzitako artikulua da).

⁸³⁹ “Erlisioea da kontzientziaren gakoa. Horra zergaitik apezpikuak diren eskualde batetako begirale hoberenak”, S. B.: “Jaun apezpiku berria”, *Aintzina*, 1935eko martxoa (Piarres Lafittek idatzitako artikulua da).

⁸⁴⁰ Malherbe, J. P.: “Le Nationalisme Basque...” aipatu Doktorego Tesia, 18. or.

ten. Horrela, *Aintzinan* herritarrei buruan sartzen saiatu ziren, hirietako bizibide modernora egokitu beharrean, herriko ohitura eta lanbideak iraunaraz zituzaten, irakurle gazteak horretan zaletzen ere saiatzearekin batera.

Ekonomiaren alorrean, deszentralizaziora jo beharra azpimarratu zuten, Euskal Herriak ekonomikoki iraun zezan, nahastu barik Frantziako bizimoldeekin⁸⁴¹. Horrela, ekonomikoki Lafitte jabetza pribatua⁸⁴² eta kooperatiba eta sindikatutan elkartzearen alde⁸⁴³ agertu zen.

Uler daitekeen legez, Lafittek ez zituen beti buruzagiak alde izan, ez politika mailan, ezta Eliza mailan ere. Jadanik aipatu dugu Jean Ybarnégaray zela mandatarari nagusia garaiko gizarte eskuindar, kontserbadore eta aldagaiz hartan eta tokiko eliz buruak bat zetozela pentsamolde kontserbadorearekin. Horrela, Lafittek alde izan bazituen ere Jean Saint-Pierre –apezpikuaren idazkaria eta *Eskualdunaren* zuzendaria– eta Clément Mathieu –Apaizgaitegi Txikiaren zuzendaria–. Bellevue kalonjeak, Donibane Lohizuneko parrokiak arduratzen zenak, ostera, ez zuen begi onez ikusten euskalzaleek parrokiaren lokaletan egiten zituzten biltzarrak, herritarren egoera ekonomiko eta soziala hobetzeko helburua baitzuten⁸⁴⁴. Azkenez, Maurice Souberbielle Uztaritzeko alkateak ere, Eskualzaleen Biltzarraren aholkularia izan arren, mesfidantzaz ikusten zituen euskaltzaleen asmoak.

Baina bereziki Lafittek kontra izan zuen aipatu Jean Ybarnégaray politikoa, 1934tik *Croix du Feu* ligaren burua izan zena eta 1914tik 1936ra Maulleko diputatu aukeratua izan zena. Ezinikusi horren ondorioz, euskalzaleek kontra egin zioten Ybarnégarayri: 1934ko abenduan Senatu-hauteskundee-tan Ybarnégaray eta Lissaren kontra agertu ziren *Aintzinan*, eskuin muturreko *Fédération Républicaine* partiduaren ordezkariak baitziren⁸⁴⁵. Aldi berean,

⁸⁴¹ “Le balai”, *Aintzina*, 1934ko urria (Lafittek idatzitako artikulua da); N. A.: “Le Bloc Régionaliste”, *Aintzina*, 1935eko martxoa.

⁸⁴² Elgarkari (Piarres Lafitte): “Lisez-moi-ça”, *Aintzina*, 1935eko martxoa. Lafitte garaiko politika ekonomikoaren kontra agertu zen: deflazioa salatu zuen (L. B.: “Garizuma berria”, *Aintzina*, 1935eko abuztua eta “Causes économiques du malaise terrien”, *Aintzina*, 1935eko uztaila), diru-laguntzen murriztapena (“Argal-argal”, *Aintzina*, 1935eko azaroa), etab.

⁸⁴³ “Sindikalismoarekin konpontzen zen ongi Lafitte”, Emile Larrerekin izanako elkarrikketa, Baiona, 1997ko abuztuaren 12a.

⁸⁴⁴ Pierre Lafittek Goyhenecheri idatzitako gutuna, 1933ko martxoaren 20a, Larrondek aipaturikoa, Larronde, J. C.: “Eugène Goyheneche, un militant...” aipatu artikulua, 102. or.

⁸⁴⁵ “MM. Bérard et Ybarnégaray n’ont certainement pas gagné beaucoup de gloire à concevoir et à réaliser une liste Lillaz-Lissar. Ils croyaient réussir et par là justifier ce petit

Ybarnégarayk ez zuen aukerarik galtzen Lafitteri aurre egiteko, Lafitteri bota ziolarik: “Ces jeunes blancs becs qui veulent mettre la pagaille dans notre pays!”⁸⁴⁶, baita Lafittek erantzun ere: “aseak ginela “cacique” horietaz eta hemendik goiti geronen buru izanen zirela gauzak”⁸⁴⁷.

Esan beharra dago, hala ere, Jean Ybarnégaray, nazionalismo frantziarraren ordezkaria izanda, euskal abertzaletasun moduko bat sustatzen saiatu zela: euskara bikaina zerabilen Ybarnégaray politikoa antzinako euskal ezaugarriak babestearen alde agertu zen, Elizarekiko harremanak ere zainduz. Horrela, 1914 eta 1939. urteen artean buruturiko hauteskundeetan gehiengo lortu zuen Ybarnégarayk, garaiko Iparraldeko biztanleen pentsamolde kontserbadorea baitztorren Ybarnégarayren egitarau politiko horrekin.

Azaletik begiratuta, irudiko luke euskalzaleen egitarauak bat egiten zuela Ybarnégarayren ideiekin, Lafitteren mugimenduak ere ohitura zaharrak eta erlijiosotasuna defendatu baitzituen. Hala ere, Lafitteren komentarioak –“aseak ginela ‘cacique’ horietaz”– argi erakusten du euskalzaleak ez zeudela ados Ybarnégarayrekin. Azken baten, Ybarnégaray nazionalismo frantziarraren irmotasun eta zorrotzasunaren erakuslea zen (botoak lortzearen euskaltasunaren ezaugarriez baliatu bazen ere). Euskaltzaleek, oster, euskal abertzaletasuna ordezkatu zuten, Frantziarekiko deszentralizaziora joz.

Dena dela, hasiera baten, euskaltzaleek Ybarnégarayren politika baztertu bazuten ere, 1936ko hauteskundeetan Lafittek Ybarnégarayri botoa emateko eskatu zuen *Aintzina*n, bide bakarra baitzen komunistak lortzen ari ziren indarra eteteko⁸⁴⁸ (euskaltzaleek etsaitzat zituzten komunistak). Horrela, *Ain-*

cartel. Ils croyaient tenir les journalistes et manoeuvrer les délégués sénatoriaux. Mais les caciques ont manqué le coup. Les clerics n'ont pas trahi. L'électeur ne s'est pas laissé faire. On a laissé tomber l'éloquence sonore et la berceuse académique. Leçon salutaire. On veut les hommes propres et compétents”, *Aintzina* (Piarres Lafitte): “Elections Sénatoriales”, *Aintzina*, 1934ko abendua.

⁸⁴⁶ “Nor zira Piarres Lafitte...” aipatu artikulua, 22. or.

⁸⁴⁷ Ibidem. Emile Larreren hitzetan: “min zorrotza zuen Lafittek eta luma ere berdin zorrotza eta ez zuen batere ahalgerik, lotsarik, pentsatzen zuena errateko eta orduan Ybarnégarayrekin ez zen ongi joaten ahal, lehenengo kontserbadoreekin ez zen ongi joaten ahal, bistan da ezetz”, Emile Larrerekin izandako elkarrizketa, Baiona, 1997ko abuztuaren 12a.

⁸⁴⁸ “En Basse-Navarre, il n'y aura pas de bataille, M. Ybarnégaray aura majorité en vertu de la vitesse acquise, grâce à une éloquence que les gauches eux-mêmes ne songent pas à contester. Nos amis devront non seulement voter pour Ybar (qui, paraît-il, ne nous aime pas beaucoup), mais lutter sérieusement... Nous demandons à nos jeunes eskualerristes de profiter de la campagne électorale pour répandre leurs idées tout en travaillant au triomphe d'Ybar”,

tzinak herritarrak eragin zituen “à rejoindre... l’ordre établi qu’il critiquait avec tant de véhémence”⁸⁴⁹, euskalzaleek ez zutelako euren burua gai ikusten mugimendu ezkertiarri aurre egiteko nazionalismo frantziar eskuindarrarekin bat egin barik.

Mugimendu euskalzalearen kontu horiek 1930. hamarkadan bilakatu ziren. Bil ditzagun, aurrera jo baino lehen, gertakari sozio-politiko horietan murgildurik garatu ziren gertakari kulturalen protagonista nagusiak:

Hogeita bosgarren laukia. Lagunkideen ekintza kulturalak 1920. eta 1930. hamarkadetan:

Adéma, Jean Blaise. Eskualdunaren zuzendaria (1918-1924).

Améstoy, Maurice. Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne elkartearen bileretan parte hartu (1922ko ekaina, uztaila, azaroa; 1923ko urtarrila, otsaila martxoa, maiatza). Eskualzaleen Biltzarraren lehendakariordea (1926-1938). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1928, 1929). Gure Herria elkartearen bileretan parte hartu (1930, 1931, 1932, 1933, 1934, 1935).

Amoçain, Pierre. Le Carillon des jeunes aldizkariaren idazkaria lankide izanda. Baionako txistularien biltzarrean parte hartu (1932). Mugimendu euskaltzalearen (1934-1935). Euskaltzaleen egitaraua aurkeztu (1933).

Apésteguy, Laurent (1877-1928). *Gure Herria* aldizkariaren arduradunetariko bat. *Eskualdunan* idatzi. *Gure Herrian* idatzi.

Aranart, Philippe. Baionako Apaizgaitegi Handian ikasi. Eskualzaleen Gure Herria elkartearen bileran parte hartu (1937).

Ariztimuño, José (1896-1937). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1932, 1933, 1935). Baionako txistularien biltzarrean parte hartu (1932). Hondarribiko Emakume Abertzale Batzan parte hartu (1932).

Arramendy, Elise. Begiraleak taldearen ordezkaria Donibane Lohizunen.

Barandiaren, José Miguel (1889-1991). Eusko Ikaskuntzaren bileretan parte hartu (1922ko abendua; 1923ko iraila; 1924ko ekaina; 1925eko otsaila, ekaina, iraila, abendua; 1926ko ekaina, uztaila, abendua; 1927ko ekaina, iraila, abendua;

Aintzina (Piarres Lafitte): “Parlons net”, *Aintzina*, 1936ko otsaila. “Geroari buruz” artikuluan ere, Lafitte pozik agertu zen Ybarnégarayk irabazteaz, Manech (Piarres Lafitte): “Geroari buruz”, *Aintzina*, 1936ko maiatza.

⁸⁴⁹ Malherbe, J. P.: “Le Nationalisme Basque...” aipatu Doktorego Tesia, 19. or.

- 1928ko uztailea, iraila; 1929ko martxoa, ekaina, iraila). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1925).
- Barbier, Jean** (1875-1931). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1928). *Eskualdunan* idatzi. *Gure Herrian* idatzi.
- Blainville.** Talde euskalzalearen bileretan parte hartu (1934).
- Blazy, Edmond** (1878-1940). *Gure Herriaren* gerentea (1921-1928). Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne elkartearen bileretan parte hartu (1922, 1923). *Gure Herria* elkartearen bileretan parte hartu (1932). *Gure Herrian* idatzi.
- Chapelet.** Talde euskalzalearen bileretan parte hartu (1933).
- Constantin, Albert** (1973-1957). Eskualzaleen Biltzarraren lehendakariordea (1922-1933). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1926, 1928, 1929).
- Cuzacq, René** (1900-1977). Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne *elkartearen idazkari adjuntu* (1930-1931). *Gure Herria* elkartearen bileretan parte hartu (1933, 1934, 1935). SSLABen idatzi. *Gure Herrian* idatzi.
- Dassance, Louis** (1888-1876). *Gure Herriaren* kudeatzailea. Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne elkartearen bileretan parte hartu (1921eko ekaina, abendua; 1922ko urtarrila, otsaila, martxoa; 1923ko otsaila). Eskualzaleen Biltzarraren buruordea (1922-1925) eta burua (1926-1938). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1922, 1926, 1928, 1929, 1931, 1932, 1933). Euskaltzaindiaren bileretan parte hartu (1930). *Gure Herria* elkartearen bileretan parte hartu (1930, 1931, 1932, 1933, 1934, 1935, 1936, 1937). *Gure Herria* elkartearen diruzaina (1930-1938). *Eskualdunan* idatzi. *Gure Herrian* idatzi.
- Diharce, Mayi.** Begiraleen ordezkaria Hazparren.
- Diharce, Michel** (1914-1940). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1928). Menditarrak taldearen partaidea.
- Duboscq, Jean.** Aintzinen lehenengo egoitza Duboscqen etxean. Mugimendu euskalzale eta *Aintzinen* kudeatzailea (1934-1935). Mugimendu euskaltzalearen idazkaria (1936).
- Dufau, Dominique.** Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1926, 1928, 1929, 1933). *Gure Herria* elkartearen bileretan parte hartu (1930, 1932, 1934, 1936, 1937, 1938). Eskualzaleen Biltzarraren diruzaina (1931-1935). *Eskualdunan* idatzi. *Gure Herrian* idatzi.
- Eizagirre, José** (1881-1948). Eskualzaleen Biltzarraren burua (1920-1921). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1922, 1926, 1928, 1929, 1931, 1932, 1933). *Gure Herria* elkartearen bileretan parte hartu (1931, 1932, 1934, 1935, 1936).

Elissalde, Mayi (1899-1945). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1928). *Gure Herrian* idatzi.

Elissalde, Jean (1877-1935). Euskaltzaindiaren bileretan parte hartu (1920ko urtarrila, apirila, maiatza, abendua; 1921eko martxoa; 1922ko otsaila, martxoa, apirila, maiatza; 1930eko urria, azaroa; 1931ko urtarrila, apirila, maiatza, uztaila, azaroa; 1932ko urtarrila, martxoa, apirila, uztaila, iraila, urria, azaroa, abendua; 1933ko otsaila, maiatza, uztaila, urria, azaroa, abendua; 1934ko otsaila, maiatza, uztaila, azaroa, abendua). Eskualzaleen Biltzarraren idazkaria (1922-1938). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1929, 1931, 1932, 1933). *Gure Herria* elkartearena bileretan parte hartu (1930, 1934, 1936, 1937). *Eskualdunan* idatzi. *Gure Herrian* idatzi.

Etchepare, Jean (1877-1935). Eskualzaleen Biltzarraren lehendakaria (1922-1925). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1928, 1929, 1931). *Gure Herria* elkartearen lehendakariordea (1930-1938). *Gure Herria* elkartearen bileretan parte hartu (1930, 1931, 1932, 1933, 1934). *Eskualdunan* idatzi. *Gure Herrian* idatzi (1924an hiru artikulu idatzi Lafittez).

Etcheverry, Michel (1874-1960). *Gure Herria* elkartearen bileretan parte hartu (1934, 1935). *SSLABen* idatzi. *Gure Herrian* idatzi.

Garmendia, Pedro. *Gure Herria* elkartearen bileretan parte hartu (1932). Eusko Ikaskuntzaren bileretan parte hartu (1933ko ekaina, iraila, abendua; 1934ko martxoa, ekaina, iraila, abendua; 1935eko apirila, uztaila, iraila). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1933). *RIEVen* idatzi.

Goyheneche, Eugène (1915-1988). Baionako txistularien biltzarrean parte hartu (1932). Hondarribiako Emakume Abertzale Batzan parte hartu (1932). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1933). Euskalzaleen egitaraua aurkeztu (1933). Donostiako Aberri Egunean parte hartu (1922).

Guillaumie-Reicher, Gilberte. *Gure Herria* elkartearen bileretan parte hartu (1934, 1936). *Gure Herrian* idatzi. Begiraleen ordezkaria Getarian.

Hillau, Jean. *Gure Herria* elkartearen bileretan parte hartu (1938).

Hiribarren, Charles. Mugimendu euskalzalearen idazkaria (1935).

Iriart, Michel. Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1926, 1928). *Eskualdunan* idatzi.

Jaureguiberry, Jean (1880-1952). *Gure Herria* elkartearen bileretan parte hartu (1932, 1933, 1934, 1935, 1936, 1937, 1938). Hondarribiako Emakume Abertzale Batzan parte hartu (1932). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1933, 1935). *Gure Herrian* idatzi. *Aintzinan* idatzi.

Jaureguiberry, Madeleine (1884-1977). Gure Herria elkartearen bileretan parte hartu (1936, 1937, 1938). *Aintzinar*en idazkaria (1935, 1937). Begiraleen arautegia prestatu. Begiraleen ordezkaria Alozen.

Lacombe, Georges (1879-1947). Euskaltzaina (1920-1936). Euskaltzaindiaren bilere-tan parte hartu (1921eko otsaila, martxoa, apirila, maiatza, uztaila, iraila, urria, azaroa, abendua; 1922ko urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, maiatza, uztaila, urria, azaroa, abendua; 1923ko urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, maiatza, uztaila, iraila, urria, azaroa, abendua; 1924ko urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, maiatza, uztaila, urria, azaroa, abendua; 1925eko urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, maiatza, uztaila, urria, azaroa, abendua; 1926ko urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, maiatza, uztaila, urria; 1927ko martxoa, apirila, maiatza, urria, azaroa; 1928ko urtarrila –Lafitte urgazle izendatua izan zeneko eguna, berroren aditzari buruzko lana irakurri–, martxoa, maiatza, urria, azaroa, abendua; 1929ko urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, maiatza, uztaila, abuztua, azaroa, abendua; 1930eko urtarrila, otsaila, apirila, maiatza, uztaila, urria, azaroa, abendua; 1931ko urtarrila, otsaila, apirila, maiatza, abuztua, azaroa, abendua; 1933ko otsaila, martxoa, maiatza, uztaila, urria, azaroa; 1934ko urtarrila, otsaila, apirila, maiatza, uztaila, urria, azaroa, abendua). Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne elkartearen bilere-tan parte hartu (1921ko ekaina; 1922ko apirila, azaroa; Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1925, 1928). Eskualzaleen Biltzarra Parisen sortzeko bileran parte hartu (1933). *RIE*Ven idatzi. *Gure Herrian* idatzi.

Lafitte, Piarres (1901-1985). Baionako Apaizgaitegi Handian ikasi (1919-1923). Goi ikasketak ikasi Tolosako Institutu Katolikoan (1923-1924, 1927-1928). Pierre Lhanderen Hiztegia osatzeari ekin. Le Carillon des Jeunes emakumezko sindikatu baten aldizkarian idatzi, Pierre Amoçainek sustaturik. Eskualdunan idazten hasi (1921; Ebanjelioaz idatzi 1929tik 1935era Michel Iriarten ordeztu). Gure Herriaren ohiko lankide bilakatu, Laurent Apésteguyk sustaturik (1924). Eskualzaleen Biltzarraren kide bilakatu (1926). Urgazle izendatua (1928). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1928). Gure Herria elkartearen idazkari adjuntua (1930-1938). Gure Herria elkartearen bileretan parte hartu (1930, 1931, 1932, 1933, 1934, 1935, 1936, 1937, 1938). Hondarribiako Emakume Abertzale Batzan parte hartu (1932). *Gure Herrian* idatzi. *Aintzina*n idatzi. *Eskualdunan* idatzi. 1922ko urriaren *Gure Herrian* ados agertu zen Lafitte Jean Etcheparerekin luzeegiak ziren Pastoralak laburtu behar zirela esan zuenean. 1928ko maiatza-ekainaren Gure Herrian Lafittek Georges Lacomberi eskertu zion eskainitako azalpenak Linguistika alorrean. 1931ko urtarrila-otsailaren *Gure Herrian* azpimarratu zuen Lafittek Jean Barbierrek herri-literatura tradiziozko erara idazten bazekiela. 1932ko martxoa-apirilaren *Gure Herrian* adierazi zuen Lafittek Georges Lacombe zela, Julio Urquijorekin batera, gizon jakintsuena euskal gaietan. 1932ko maiatza-ekainaren *Gure Herrian* Lafittek Jean Etchepareren maila intelektual handia goraiatu egin zuen. 1932ko azaroa-

-abenduaren *Gure Herrian* Lafitte ados agertu zen Jean de Jaureguierryrekin grafia zuberotarraren murrizketaren beharraz euskara batuan. 1933ko urtarrila-otsailaren *Gure Herrian* René Cuzacqen jakituria nabarmendu zuen Lafittek. 1936ko martxoa-apirilaren *Gure Herrian* adierazi zuen Lafittek Gilbert Guillaume-Reicheren lanaz zoragarria eta irakurtzeko atsegina zela.

Lamarque, Jean. Société des Sciencies, Lettres et Arts de Bayonne elkartearena bileretan parte hartu (1922). *Gure Herria* elkartearen bileretan parte hartu (1933, 1934).

Lasalle, Leon (1881-1961). *Gure Herria* elkartearen bileretan parte hartu (1934). *Eskualdunan* idatzi. *Gure Herrian* idatzi. *Aintzinan* idatzi.

Léon, Albert (1883-1953). Euskaltzaindiaren bileretan parte hartu (1921eko martxoa; 1930eko azaroa). Société des Sciencies, Lettres et Arts de Bayonne elkartearen bileretan parte hartu (1922ko apirila, maiatza, azaroa; 1923ko otsaila, martxoa, maiatza, uztaila). *Gure Herria* elkartearen bileretan parte hartu (1931, 1934, 1935, 1937, 1938). *Gure Herrian* idatzi.

Léon, Leon (1896-1962). Eusko Ikaskuntzaren bileretan parte hartu (1922ko iraila). *Gure Herria* elkartearen bileretan parte hartu (1930, 1931, 1932, 1934, 1935, 1937, 1938). *Eskualdunan* idatzi. *Gure Herrian* idatzi.

Lhande, Pierre (1877-1957). Tolosako Caouzou ikastetxe katolikoan irakasle. Euskaltzaina (1919-1936). Euskaltzaindiaren bileretan parte hartu (1920ko urtarrila, otsaila, apirila, uztaila, abuztua, urria, azaroa, abendua; 1921eko martxoa, apirila, ekaina, uztaila, iraila; 1922ko iraila; 1927ko apirila; 1928ko abendua). Euskaltzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1922, 1926). Euskaltzaleen Biltzarra Parisen sortzeko bileran parte hartu (1933). *Gure Herrian* idatzi.

Lissar, Jean. Euskaltzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1928, 1929)

López de Mendizabal, Isaac (1879-1977). Euskaltzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1921, 1926, 1928, 1929). *Gure Herria* elkartearen bileretan parte hartu (1931, 1932, 1933, 1934, 1935, 1936, 1937, 1938).

Mathieu, Clément. Ustaritzeko Apaizgaitegi Txikiko irakaslea. Baionako Apaizgaitegi Handiko zuzendaria (1928). *Gure Herria* elkartearen burua (1930-1938). *Gure Herria* elkartearen bileretan parte hartu (1930, 1931, 1937), Euskaltzaindiaren bileretan parte hartu (1931).

Mendiboure, G. Talde euskaltzalearen bileretan parte hartu (1934).

Mestelan, Jacques (1918-). Piarres Lafitteren laguntzailea Menditarrak taldearen gidatze lanean. *Gure Herrian* idatzi. *Aintzinan* idatzi.

Moulier, Jules (1888-1958). Société des Sciencies, Lettres et Arts de Bayonne elkartearen bileretan parte hartu (1922). Euskaltzaleen Biltzarrarena bileretan parte

hartu (1926, 1929, 1931, 1932, 1933). Gure Herria elkartearen bileretan parte hartu (1930, 1931, 1932, 1933, 1934, 1935, 1936, 1937, 1938). *Eskualdunan* idatzi. *Gure Herrian* idatzi.

Narbaitz, Pierre. Menditarrak taldearen abestiaren musika prestatu.

Olphe-Galliard, Maurice. Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne elkartearen idazkari adjuntua (1935-1940). Talde euskalzalearen bileretan parte hartu (1934).

Ospital, Félix. Eskualzaleen bileretan parte hartu (1933).

Picochet. Gure Herria elkartearen bileretan parte hartu (1930, 1931, 1932, 1934, 1935, 1936). *Gure Herrian* idatzi.

Puchulu. Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne elkartearen bileretan parte hartu (1922ko martxoa, maiatza, uztaila; 1923ko urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, ekaina, uztaila, azaroa). Gure Herria elkartearen bileretan parte hartu (1937).

Saint-Pierre, Jean (1884-1951). Baionako Apaizgaitegi Handiko irakaslea. Gure Herria sortu 1921ean. Eskualdunaren zuzendaria (1924-1930). Euskaltzaindiaren bileretan parte hartu (1921eko martxoa). Eskualzaleen Biltzarrarean bileretan parte hartu (1925, 1938). Gure Herria elkartearean idazkaria (1930-1938). *Eskualdunan* idatzi. *Gure Herrian* idatzi.

Soubelet, Dominique (1897-1970). *Eskualdunaren* zuzendaria (1930-1937). Gure Herria elkartearena bileretan parte hartu (1931, 1932, 1934). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1933). *Eskualdunan* idatzi.

Souberbielle, Emmanuel. Gure Herria elkartearen bileretan parte hartu (1930, 1931, 1932, 1933, 1934, 1935, 1936, 1937, 1938). *Gure Herrian* idatzi.

Souberbielle, Maurice (1872-1939). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1921, 1922, 1929, 1935). Gure Herria elkartearen lehendakarioa (1930-1938). Gure Herria elkartearen bileretan parte hartu (1930, 1931, 1932, 1934, 1935, 1937, 1938). *Eskualdunan* idatzi. *Gure Herrian* idatzi.

Souberbielle, Raphaël. Gure Herria elkartearen bileretan parte hartu (1933, 1934, 1935, 1937, 1938).

Ybarnégaray, Jean (1883-1951). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1928, 1929); *Eskualdunan* idatzi. Eusko Ikaskuntzaren lehendakarioa (1921-1928).

*Piarres Lafitteren sare intelektualaren partaideak 1920. hamarkadan.

*Piarres Lafitteren sare intelektualaren partaideak 1930. hamarkadan.

Elaborazio propioa, *Eskualduna*, *Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne*, *Revista Internacional de Estudios Vascos*, *Euskera*, *Gure Herria*, *Bulletin du Musée Basque* eta *Aintzina* aldizkarietan oinarrituta.

Ikusi berri dugun laukiak Piarres Lafitteren berri ematen digu, 1920. hamarkadan Lafitte ikasleak buruturiko ekintzei 1930. hamarkadan buruturiko Lafitte helduaren jarduera intelektualak gehituz.

1930. hamarkadan partaide berriak agertzen zaizkigu islatzen ari garen Iparraldeko sare intelektualean: José Ariztimuño, Elise Arramendy, Blainville, Chapelet, René Cuzacq, Michel Diharce, Jean Duboscq, Michel Etcheverry, Pedro Garmendia, Eugène Goyheneche, Gilberte Guillaumie-Reicher, Jean Hillau, Charles Hiribarren, Jean Jaureguiberry, Madeleine Jaureguiberry, Leon Lassalle, G. Mendiboure, Jacques Mestelan, Pierre Narbaitz, Maurice Olphe-Galliard, Félix Ospital, Picochet, Dominique Soubelet, Emmanuel Souberbielle eta Raphaël Souberbielle.

Hauetariko batzuk 30. hamarkadan sortu berri zen Gure Herria elkartearen kide bilakatu ziren, hala nola René Cuzacq, Michel Etcheverry, Pedro Garmendia, Gilberte Guillaumie-Reicher, Hillau, Jean eta Madeleine de Jaureguiberry, Leon Lassalle, Picochet, Puchulu, Dominique Soubelet Emmanuel eta Maurice Souberbielle. Piarres Lafitte Gure Herria elkartearen batzarkide ere bilakatu zen eta bilera guztietara joanez, harremanak izan zituen aipatu berri dugun intelektualekin.

Interesgarriak izan ziren harreman berri horiek, zeren eta René Cuzacq eta Jean Lamarquerekin *SSLAB* elkarteari buruz hitz egiteko aukera izan baitzuen Lafittek (ordurako bakarrik Maurice Amestoy eta Louis Dassancerekin hitz egin ahal izan zuen *SSLAB*ri buruz); eta Pedro Garmendiak Eusko Ikaskuntzaren berri emango zion (1920. hamarkadan ez zuen inor sarean Eusko Ikaskuntzaz hitz egiteko).

José Ariztimuño, ostera, Hegoaldean ezagutu zuen Lafittek, bertako Emakume Abertzaleek buruturiko ekitaldi batean. Era berean, Lafitte Eugène Goyhenechekin erlazionatu zen, honek Hegoaldeko abertzaletasunarekin zituen harremanak zirela eta. Horrela, José Ariztimuñok eta Eugène Goyhenechek osatu zuten José Eizagirrek eta Isaac López de Mendizabalek Hegoaldeko abertzaletasunaz Lafitteri emandako informazioa.

Dominique Soubelet Lafitteren ikaskidea izan zen; baina segur aski Lafittek ez zuen berarekin *Eskualdunari* buruz hitz egin, harremanik ez baitzen haien artean, jadanik azaldu dugun bezala.

Baditugu, aldiz, 20. hamarkadako sarekideak izan zirenak eta 30. hamarkadan Lafitteren kide intelektualak izan zirenak: Maurice Amestoy, Pierre Amocain, Philippe Aranart, Edmond Blazy, Louis Dassance, Dominique

Dufau, Jean Elissalde, Jean Etchepare, Georges Lacombe, Jean Lamarque, Albert Léon, Pierre Lhande, Isaac López de Mendizabal, Jules Moulier, Puchulu, Jean Saint-Pierre eta Maurice Souberbiellek.

Lafitteren antzinako lagunkide horiek harremanetan jarraitu zuten Lafitterekin 1930. hamarkadan Gure Herria elkartearen batzarkide bilakatu zirelako, hala nola Maurice Amestoy, Philippe Aranart, Edmond Blazy, Louis Dassance, Dominique Dufau, Jean Elissalde, Jean Etchepare, Jean Lamarque, Albert Léon, Clément Mathieu, Isaac López de Mendizabal, Jules Moulier, Jean Saint Pierre eta Maurice Souberbielle. Hauek guztiek Gure Herria elkartearen bilerak baino ez zizkieten gehitu 1920. hamarkadan egin zituzten ekintza kulturaleri, Louis Dassancek eta Clément Mathieuk izan ezik; izan ere, Dassance eta Mathieu Euskaltzaindiaren bilera batean izan ziren 1930. hamarkadan; Lafitteri Akademiari buruzko berri emateko gai bilakatu ziren, beraz, Georges Lacombe Lafitteri emandako Euskaltzaindiari buruzko informazioa osatuz.

Baina 1930. hamarkadan Lafitteren sare intelektualean lehenengoz parte hartu zutenen artean, baziren lankide bereziak izan zirenak. Hain zuzen ere, hauek Lafitteren sarekide bilakatu ziren Lafittek sorturiko Euskaltzaleak mugimenduaren partaide izan zirelako: Blainville, Chapelet, Michel Diharce, Mendiboure, Maurice Olphe-Galliard eta Félix Ospital; hauekin lan egin zuen Lafittek mugimendu abertzale bat garatzeko burutu zituzten bileretan. Era berean, Lafittek beste ekintza euskaltzale batzuk garatu zituen –Menditarrak, Begiraleak eta *Aintzina* aldizkaria–, zeinen bidez pertsonaia berriak bilakatu ziren aztertzen ari garen sarekide. Horrela, Lafitterekin batera, *Aintzinaren* lankideak izan ziren Jean Duboscq, Charles Hiribarren eta Madeleine de Jaureguiberry; Menditarrak taldean Lafitteren lankideak izan ziren Michel Diharce, Jacques Mestelan eta Pierre Narbaitz; azkenez, Elise Arramendy, Mayi Diharce, Gilberte Guillaumie-Reicher eta Madeleine Jaureguiberryk laguntza eman zioten Lafitteri Begiraleak taldearen ekintzetan.

Aurreko paragrafoan aipaturiko euskaltzalekideengandik, Olphe Galliardek *SSLAB* elkartearen berri emango zion Lafitteri, elkarte horri buruz Amestoy, Cuzacq, Dassance eta Lamarquek emandako informazioa osatuz. Jean de Jaureguiberryekin Eskualzaleen Biltzarraz hitz egin zezakeen, elkarre horretaz aurretik hitz egin bazioten ere Maurice Amestoy, Albert Constantin, Louis Dassance, José Eizagirre eta Jean Etcheparek.

Azkenez, Jean Blaise Adéma, Jean Barbier, Albert Constantin, Jean Lissar, Michel Iriart eta Jean Ybarnégarayk sarearen partaide izateari uko egin

zioten, 1930. hamarkadan ez baitzuten ekintza kulturalik gehitu 20. hamarkadan burutatukoei.

1940.eko hamarkadan Lafitteren ikasleak bihurtu ziren euskal kulturaren sustatzaile, Lafitteren gidaritzapean lan egin barik baina irakaslearen onespenez. Euskaltzale gazte horiek kultura arloan burutu zuten ekintzarik garrantzitsuena *Aintzina* berrargitaratzea izan zen.

Bigarren *Aintzina* berrargitaratzeko 1930. hamarkadako *Aintzinaren* pentsamoldeaz jabetu ziren. Eta lehenengo garaikoak bezala, bigarrenekoak orduko egoera politikoek baldintzatuta zeuden. Izan ere, bigarren *Aintzina* garatu zuten Bigarren Mungu Gerraren garaian, Frantzia alemanek okupatarik zegoela eta Euskal Herria Pétain mariskal nazizalearen gidaritzapean zegoelarik. Egoera hartan, 1940. hamarkadako *Aintzinak* oso ekintza abertzale gutxi egin ahal izan zituen Euskal Herriaren alde, erregionalismora ahal izan zuten moduan lerratuz⁸⁵⁰.

Jean Claude Larrondereren ustez komenigarria da “ez nahastea 1932-1937ko mugimendu eskualerrizalearen ‘lehendabiziko *Aintzina*’ eta ‘bigarren *Aintzina*’ (1942-1945), zein irabio handiko ingurunabarren artean... sortuko baita”⁸⁵¹. Gure ikuspuntutik, ostera, pentsamolde berdin antzekoa islatu zuten lehenengo zein bigarren *Aintzinak*. Bai lehenengo bai bigarren *Aintzinaren* lankideek orduko boteredunen pentsamoldea onartu behar izan zuten, Ybarnégarayrena lehenengo *Aintzina*, Pétainena bigarrenean. Garai bietan Iparraldeko euskaltzaleek Hegoaldeko EAJren printzipioak bereganaturik bazituzten ere, euskal nazionalismoa sustatzeari uko egin behar izan zioten; 1930. hamarkadan Jean Ybarnégaray mandataria nazionalismo frantziarraren defendatzaile leiala zelako; eta 1940. hamarkadan nazien aginduetara zegoen Pétainen mariskala zelako agintaria (Jean Ybarnégaray Pétainen agindupeko ministro izan zelarik)⁸⁵².

Horrela, 1930. zein 1940. hamarkadetako garaiko egoerak beharturik, hau da, orduko mandatarien pentsamoldeetara moldatu behar izanik, ezinezkoa izan zen euskal nazioa garatzearen aldeko aurrepausorik burutzea. Euskaltzaleek, beraz, euskaltasunaren aldeko aldarrikapen kontserbadore eta geldoa baino ezin zuten garatu, kultura eta folklore mailako ekintzak burutzerat eta euren pentsamolde abertzaleak *Aintzina* aldizkarian erdi erakustera mugatuz.

⁸⁵⁰ Aintzina: “Nos principes”, *Aintzina*, 1942ko maiatza.

⁸⁵¹ Larronde, J. C.: *Eskualerri-zaleen Biltzarra...* aipatu liburua, 284. or.

⁸⁵² Larronde, J. C.: *Eskualerri-zaleen Biltzarra...* aipatu liburua, 235. or.

Bigarren Mundu Gerra amaitu zenean, 1944an, azalera datorkigu berriro Piarres Lafitte, ordurako dizipuluen eskuetan utzirik zituelarik 1940. hamar-kadako ekintza kultural euskalzaleak. Urte hartan sortu berri zuten *Herria*-ren zuzendaritzarako aukeratu zuten Lafitte. Aurreko urte korapilatsuetan izandako jarreragatik izan zen hautatua 54 urteko Lafitte (berritzailea izateaz gain, Alemaniaren kontrako erresistentzian ari izana), nola ez, ordurako zeukan prestakuntza intelektuala ere erabakigarria izanik.

Gainera diezaizkiogun osatzen ari garen laukiari lagunkideek 1940. hamarkadan burutu zituzten ekintzak:

Hogeita seigarren laukia. Sarekideen ekintza kulturalak 1920tik 1944ra bitartean:

Améstoy, Maurice. Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne elkartearen bileretan parte hartu (1922ko ekaina, uztaila, azaroa; 1923ko urtarrila, otsaila martxoa, maiatza). Eskualzaleen Biltzarraren lehendakariordea (1926-1938). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1928, 1929). Gure Herria elkartearen bileretan parte hartu (1930, 1931, 1932, 1933, 1934, 1935).

Amoçain, Pierre. Le Carillon des jeunes aldizkariaren idazkaria lankide izanda. Baionako txistularien biltzarrean parte hartu (1932). Mugimendu euskalzalearen idazkaria (1934-1935). Euskalzaleen egitaraua aurkeztu (1933).

Apésteguy, Laurent (1887-1928). *Gure Herria* aldizkariaren arduradunetariko bat. *Eskualdunan* idatzi. *Gure Herrian* idatzi.

Aranart, Philippe. Baionako Apaizgaitegi Handian ikasi. Eskualzaleen Gure Herria elkartearen bileran parte hartu zuen (1937).

Ariztimuño, José (1896-1937). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1932, 1933, 1935). Baionako txistularien biltzarrean parte hartu (1932). Hondarribiko Emakume Abertzale Batzan parte hartu (1932).

Arramendy, Elise. Begiraleak taldearen ordezkaria Donibane Lohizunen. Bigarren *Aintzinen* zuzendaritza batzordearen partaidea (1942-1943).

Barandiaren, José Miguel (1889-1921). Eusko Ikaskuntzaren bileretan parte hartu (1922ko abendua; 1923ko iraila; 1924ko ekaina; 1925eko otsaila, ekaina, iraila, abendua; 1926ko ekaina, uztaila, abendua; 1927ko ekaina, iraila, abendua; 1928ko uztaila, iraila; 1929ko martxoa, ekaina, iraila; 1930eko uztaila, iraila, abendua; 1931ko martxoa, ekaina, iraila, abendua; 1932ko ekaina, iraila, abendua; 1933ko otsaila, ekaina, iraila, 1934ko martxoa, ekaina, iraila; 1935eko apirila, uztaila, iraila). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1925). Bigarren *Aintzinan* idatzi. (1942-1943).

- Barbier, Jean** (1875-1931). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1928). *Eskualdunan* idatzi. *Gure Herrian* idatzi.
- Blainville.** Talde euskalzalearen bileretan parte hartu (1934).
- Blazy, Edmond** (1878-1940). *Gure Herriaren* kudeatzailea (1921-1928). Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne elkartearen bileretan parte hartu (1922, 1923). Gure Herria elkartearen bileretan parte hartu (1932). *Gure Herrian* idatzi.
- Chapelet.** Talde euskalzalearen bileretan parte hartu zuen (1933).
- Constantin, Albert** (1873-1957). Eskualzaleen Biltzarraren buruordea (1922-1933). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1926, 1928, 1929).
- Cuzacq, René** (1900-1977). Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne elkartearen idazkari adjuntu (1930-1931). Gure Herria elkartearen bileretan parte hartu (1933, 1934, 1935). *SSLABen* idatzi. *Gure Herrian* idatzi.
- Dassance, Louis** (1888-1876). *Gure Herriaren* kudeatzailea. Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne elkartearen bileretan parte hartu (1921eko ekaina, abendua; 1922ko urtarrila, otsaila, martxo; 1923ko otsaila). Eskualzaleen Biltzarraren buruordea (1922-1925) eta burua (1926-1938). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1922, 1926, 1928, 1929, 1931, 1932, 1933). Euskaltzaindiaren bileretan parte hartu (1930). Gure Herria elkartearen bileretan parte hartu (1930, 1931, 1932, 1933, 1934, 1935, 1936, 1937). Gure Herria elkartearen diruzaina (1930-1938). *Eskualdunan* idatzi. *Gure Herrian* idatzi. *Herriaren* sorrera bultzatu (1944).
- Diharce, Mayi** (1918-). Begiraleen ordezkaria Hazparren. Eskualdun Gazteen Batasunaren kontseilaria (1942-1943).
- Diharce, Michel** (1914-1940). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1928). Menditarrak taldearen partaidea.
- Diharce, Xabier** (1920-). Menditarrak taldearen partaidea. Bigarren *Aintzinaren* sortzailetariko bat (1942). Bigarren *Aintzina* idatzi. (1942-1943).
- Duboscq, Jean.** *Aintzinaren* lehenengo egoitza Duboscqen etxean. Mugimendu euskalzale eta *Aintzinaren* kudeatzailea (1934-1935). Mugimendu euskaltzalearen idazkaria (1936). Bigarren *Aintzinaren* kudeatzailea (1942-1943). Eskualdun Gazteen Batasuna elkartearen Uztaritzeko “Zazpiak bat” ordezkatu (1943-1944). Bigarren *Aintzina* idatzi. (1942-1943).
- Dufau, Dominique.** Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1926, 1928, 1929, 1933). Gure Herria elkartearen bileretan parte hartu (1930, 1932, 1934, 1936, 1937, 1938). Eskualzaleen Biltzarraren diruzaina (1931-1935). *Eskualdunan* idatzi. *Gure Herrian* idatzi.

- Duhour, Pierre.** *Herriaren sorrera* bultzatu (1944).
- Eizagirre, José** (1881-1948). Eskualzaleen Biltzarraren burua (1920-1921). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1922, 1926, 1928, 1929, 1931, 1932, 1933). Gure Herria elkartearen bileretan parte hartu (1931, 1932, 1934, 1935, 1936).
- Elissalde, Mayi.** Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1928). *Gure Herrian* idatzi.
- Elissalde, Jean** (1883-1861). Euskaltzaindiaren bileretan parte hartu (1920ko urtarrila, apirila, maiatza, abendua; 1921eko martxoa; 1922ko otsaila, martxoa, apirila, maiatza; 1930eko urria, azaroa; 1931ko urtarrila, apirila, maiatza, uztaila, azaroa; 1932ko urtarrila, martxoa, apirila, uztaila, iraila, urria, azaroa, abendua; 1933ko otsaila, maiatza, uztaila, urria, azaroa, abendua; 1934ko otsaila, maiatza, uztaila, azaroa, abendua). Eskualzaleen Biltzarraren idazkaria (1922-1938). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1929, 1931, 1932, 1933). Gure Herria elkartearena bileretan parte hartu (1930, 1934, 1936, 1937). *Eskualdunan* idatzi. *Gure Herrian* idatzi. *Herriaren sorrera* bultzatu (1944).
- Etchegaray, Roger.** Bigarren *Aintzinaren* idazkaria (1942). Bigarren *Aintzina* idatzi. (1942-1943).
- Etchepare, Jean** (1877-1935). Eskualzaleen Biltzarraren burua (1922-1925). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1928, 1929, 1931). Gure Herria elkartearen lehendakariordea (1930-1938). Gure Herria elkartearen bileretan parte hartu (1930, 1931, 1932, 1933, 1934). *Eskualdunan* idatzi. *Gure Herrian* idatzi (1924an hiru artikulu Lafittez).
- Etcheverry, Michel** (1874-1960). Gure Herria elkartearen bileretan parte hartu (1934, 1935). *SSLABen* idatzi. *Gure Herrian* idatzi.
- Etcheverry-Aintchart.** Bigarren *Aintzinaren* zuzendaritza batzordearen partaidea (1942-1943)
- Garmendia, Pedro.** Gure Herria elkartearen bileretan parte hartu (1932). Eusko Ikaskuntzaren bileretan parte hartu (1933ko ekaina, iraila, abendua; 1934ko martxoa, ekaina, iraila, abendua; 1935eko apirila, uztaila, iraila). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1933). *RIEVen* idatzi.
- Goyheneche, Eugène** (1915-1988). Baionako txistularien biltzarrean parte hartu (1932). Hondarribiko Emakume Abertzale Batzan parte hartu (1932). Donostiako Aberri Egunean parte hartu (1932). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1933). Euskalzaleen egitaraua aurkeztu (1933). Gazteen Batasuna elkartearen Pariseko “Errepika” ordezkatu (1943-1944)

Guillaumie-Reicher, Gilberte. Gure Herria elkartearen bileretan parte hartu (1934, 1936). *Gure Herrian* idatzi. Begiraleen ordezkaria Getarian.

Hastoy, Jean. Eskualdun Gazteen Batasunaren kontseilaria (1942-1943).

Hillau, Jean. Bigarren *Aintzinan* idatzi. (1942-1943).

Hiriart-Urruty. *Herriaren* idazkaria.

Hirigoyen, Emile. Bigarren *Aintzinan* idatzi. (1942-1943).

Hirigoyen, Gaston. Bigarren *Aintzinan* idatzi. (1942-1943).

Hiribarren, Charles. Mugimendu euskalzalearen idazkaria (1935).

Iriart, Michel. Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1926, 1928). *Eskualdunan* idatzi.

Jaureguiberry, Jean (1880-1952). Gure Herria elkartearen bileretan parte hartu (1932, 1933, 1934, 1935, 1936, 1937, 1938). Hondarribiko Emakume Abertzale Batzan parte hartu (1932). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1933, 1935). Piarres Lafitteren laguntzailea Menditarrak taldearean zuzendaritzan. Eskualdun Gazteen Batasuna elkartearen Zuberoa ordezkatu (1943-1944). Bigarren *Aintzinan* idatzi. (1942-1943) *Gure Herrian* idatzi. *Aintzinan* idatzi. Bigarren *Aintzinan* idatzi (1942-1943).

Jaureguiberry, Madeleine (1884-1977). Gure Herria elkartearen bileretan parte hartu (1936, 1937, 1938). *Aintzinen* idazkaria (1935, 1937). Begiraleen arautegia prestatu. Begiraleen ordezkaria Alozen. Eskualdun Gazteen Batasuna elkartearen Uztaritzeko Zuberoa ordezkatu (1943-1944). Bigarren *Aintzinan* idatzi. (1942-1943). Bigarren *Aintzinan* idatzi. (1942-1943).

Labadie, Pierre. Bigarren *Aintzinan* idatzi. (1942-1943).

Labéguerie, Michel (1921-1980). Bigarren *Aintzinen* zuzendaritza batzordearen partaidea (1942-1943). Eskualdun Gazteen Batasuna elkartearen Bordaleko "Irrintzi" ordezkatu (1943-1944). Eskualdun Gazteen Batasunaren kontseilari (1942-1943).. Bigarren *Aintzinan* idatzi. (1942-1943). Bigarren *Aintzinan* idatzi. (1942-1943).

Lacombe, Georges (1879-1947). Euskaltzaina (1920-1936). Euskaltzaindiaren bileretan parte hartu (1921eko otsaila, martxoa, apirila, maiatza, uztaila, iraila, urria, azaroa, abendua; 1922ko urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, maiatza, uztaila, urria, azaroa, abendua; 1923ko urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, maiatza, uztaila, iraila, urria, azaroa, abendua; 1924ko urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, maiatza, uztaila, urria, azaroa, abendua; 1925eko urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, maiatza, uztaila, urria, azaroa, abendua; 1926ko urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, maiatza, uztaila, urria; 1927ko martxoa, apirila, maiatza, urria,

azaroa; 1928ko urtarrila –Lafitte urgazle izendatua izan zeneko eguna, berroren aditzari buruzko lana irakurri–, martxoa, maiatza, urria, azaroa, abendua; 1929ko urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, maiatza, uztaila, abuztua, azaroa, abendua; 1930eko urtarrila, otsaila, apirila, maiatza, uztaila, urria, azaroa, abendua; 1931ko urtarrila, otsaila, apirila, maiatza, abuztua, azaroa, abendua; 1933ko otsaila, martxoa, maiatza, uztaila, urria, azaroa; 1934ko urtarrila, otsaila, apirila, maiatza, uztaila, urria, azaroa, abendua). Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne elkartearen bileretan parte hartu (1921ko ekaina; 1922ko apirila, azaroa; Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1925, 1928). Eskualzaleen Biltzarra Parisen sortzeko bileran parte hartu (1933). *RIE* Ven idatzi. *Gure Herrian* idatzi. Bigarren *Aintzinan* idatzi. (1942-1943).

Lafitte, Piarres (1901-1985). Baionako Apaizgaitegi Handian ikasi (1919-1923). Goi ikasketak ikasi Tolosako Institutu Katolikoan (1923-1924, 1927-1928). Pierre Lhanderen Hiztegia osatzeari ekin. Le Carillon des Jeunes emakumezko sindikatu baten aldizkarian idatzi, Pierre Amoçainek sustaturik. Eskualdunan idazten hasi (1921; Ebanjelioaz idatzi 1929tik 1935era Michel Iriarten ordez). Gure Herriaren ohiko lankide bilakatu, Laurent Apésteguyk sustaturik (1924). Eskualzaleen Biltzarraren kide bilakatu (1926). Urgazle izendatua (1928). Eskualzaleen Biltzarraren bileretan parte hartu (1928). Gure Herria elkartearen idazkari adjuntua (1930-1938). Gure Herria elkartearen bileretan parte hartu (1930, 1931, 1932, 1933, 1934, 1935, 1936, 1937, 1938). Hondarribiko Emakume Abertzale Batzan parte hartu (1932). *Herriaren zuzendaria* (1944-1967). *Gure Herrian* idatzi. *Eskualdunan* idatzi. *Aintzinan* idatzi. Bigarren *Aintzinan* idatzi. (1942-1943). 1922ko urriaren *Gure Herrian* ados agertu zen Lafitte Jean Etcheparerekin luzeegiak ziren Pastoralak laburtu behar zirela esan zuenean. 1928ko maiatza-ekainaren Gure Herrian Lafittek Georges Lacomberi eskertu zion eskainitako azalpenak Linguistika alorrean. 1931ko urtarrila-otsailaren *Gure Herrian* azpimarratu zuen Lafittek Jean Barbierrek herri-literatura tradiziozko erara idazten bazekiela. 1932ko martxoa-apirilaren *Gure Herrian* adierazi zuen Lafittek Georges Lacombe zela, Julio Urquijorekin batera, gizon jakintsuena euskal gaietan. 1932ko maiatza-ekainaren *Gure Herrian* Lafittek Jean Etchepareren maila intelektual handia goraiatu egan zuen. 1932ko azaroa-abenduaren *Gure Herrian* Lafitte ados agertu zen Jean de Jaureguierryrekin grafia zuberotarraren murrizketaren beharraz euskara batuan. 1933ko urtarrila-otsailaren *Gure Herrian* René Cuzacqen jakituria nabarmendu zuen Lafittek. 1936ko martxoa-apirilaren *Gure Herrian* adierazi zuen Lafittek Gilbert Guillaumie-Reicheren lana zoragarria eta irakurtzeko atsegina zela zela.

Lamarque, Jean. Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne elkartearena bileretan parte hartu (1922). Gure Herria elkartearen bileretan parte hartu (1933, 1934).

Landaburu, Pierre. Bigarren *Aintzinan* idatzi. (1942-1943).

- Lartzabal, Pierre** (1915-1948). Bigarren *Aintzinaren* zuzendaritza batzordearen partaidea (1942-1943). Eskualdun Gazteen Batasunaren kontseilaria (1942-1943).
- Lasalle, Leon** (1881-1961). Gure Herria elkartearen bileretan parte hartu (1934). *Eskualdunan* idatzi. *Gure Herrian* idatzi. *Aintzinan* idatzi.
- Legasse, Marc** (1918-1997). Bigarren *Aintzinairen* sortzailetariko bat (1942) arduraduna (1942-1943). Eskualdun Gazteen Batasuna elkartearen *Aintzina* ordezkatu (1943-1944). Bigarren *Aintzinan* idatzi. (1942-1943) Bigarren *Aintzinan* idatzi. (1942).
- Léon, Albert.** Euskaltzaindiaren bileretan parte hartu (1921eko martxoa; 1930eko azaroa). Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne elkartearen bileretan parte hartu (1922ko apirila, maiatza, azaroa; 1923ko otsaila, martxoa, maiatza, uztaila). Gure Herria elkartearen bileretan parte hartu (1931, 1934, 1935, 1937, 1938). *Gure Herrian* idatzi.
- Léon, Leon.** Eusko Ikaskuntzaren bileretan parte hartu (1922ko iraila). Gure Herria elkartearen bileretan parte hartu (1930, 1931, 1932, 1934, 1935, 1937, 1938). *Eskualdunan* idatzi. *Gure Herrian* idatzi. *Herriaren* sorrera bultzatu (1944).
- Lerchundi, Gabriel.** Bigarren *Aintzinan* idatzi. (1942-1943).
